

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA HERNANIN: NOLA EGIN AURRERA ,2021



AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. METODOLOGIA	4
3. EMAITZAK.....	7
3.1. EUSKARA BIZIBERRITZEAREN INGURUKO DISKURTSOA	7
3.1.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA	8
3.1.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK	16
3.1.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK	27
3.2. EUSKARAREN ALDEKO MUGIMENDU SOZIALA	29
3.2.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA	30
3.2.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK	35
3.2.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK	40
3.3. EUSKAL KULTURGINTZA	41
3.3.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA	41
3.3.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK	43
3.3.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK	48
3.4. EUSKARA GAITASUNA: EZAGUTZA ETA ERABILERA	49
3.4.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA	50
3.4.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK	55
3.4.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK	59
3.5. BILAKAERA DEMOGRAFIKOA, URBANISTIKOA ETA HIZKUNTZA	60
3.5.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA	61
3.5.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK	63
3.5.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK	65
3.6. ARLO SOZIOEKONOMIKOA	66
3.6.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA	67
3.6.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK	69
3.6.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK	75
3.7. MIGRAZIOA	76
3.7.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA	77
3.7.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK	79
3.7.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK	82
3.8. HEZKUNTZA ARAUTUA ETA HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	83
3.8.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA	84
3.8.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK	88
3.8.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK	93
3.9. UDALAREN JARDUERA	94
3.9.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA	95
3.9.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK	98
3.9.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK	102
4. NOLA EGIN AURRERA? ARDATZ POSIBLEAK	103

1. SARRERA

Dokumentu honetan jasotzen da Aztiker Soziologia Ikerguneak Hernaniko Udalaren eskariz egindako *Euskararen normalizazioa Hernanin: nola egin aurrera, 2021* ikerketaren emaitza. Lan honen helburua izan da:

- Hernanin, euskararen normalizazio prozesuan gaur egun arte egin denaren ebaluazioa egitea: egungo errealitate soziolinguistikoaren argazkia osatzea, euskararen azken hamarkadetako bilakaera ikuste eta gaur egungo egoeraren diganosia egitea.
- Aurrera begira, hurrengo urteetan izango dituen erronka nagusiak identifikatzea (aukerak, erronkak eta mehatxuak), horiei heltzeko lan-ildo nagusiak proposatzea eta identifikatzen diren lan-ildo horien kontrastea egitea herrian esanguratsutzat baloraten diren taldeekin.

Asmo horri erantzuteko, ikerketa kualitatibo eta kuantitatiboa egin da, 2021eko maiatzean hasi eta abenduan amaitu dena. Aurrez egindako ikerketen emaitzak kontuan hartu dira, gai batzuetan aditu eta aritu diren pertsonen ahotsak jaso dira eta ekarpenak kontrastatu dira herriko talde eta subjektu esanguratsuekin.

Prozesu horretan guztian sortutako materialaren sintesi dokumentua da eskuartean duzuna, ikerketaren eduki nagusiak biltzea helburu duena. Dokumentuan hiru zati nagusi daude:

- Hasierako sarrera honen ondoren, ikerketa egiteko erabilitako metodologia azaltzen da.
- Segidan, emaitza nagusiak aurkezten dira, ikerketan zehar erabilitako gai-bloke nagusiak ardatz hartuta (diskurtsoa, euskalgintza eta euskal kultur sorkuntza, euskararen ezagutza eta erabilera, udalaren lekua, urbanismoa, arlo sozioekonomikoa, migrazioa eta hezkuntza).
- Azkenik, ondorio gisa aurkezten dira atal bakarrean "nora jo?" galderari erantzun asmo dioten ardatz nagusiak, ikerketan zehar modu esanguratsuan edo errepikatuan agertu direnak.

Txosten honetan ikuspegi orokor eta sintetiko bat ematen zaio hilabete hauetan egindako lanari. Edozein kasutan, prozesuan zehar beste material batzuk ere sortu dira eta askoz sakontasun handiagoan irakur daitezke ikerketan zehar jasotako gogoetak jatorrizko material horietara jota: hasierako kokapen dokumentua, elkarrizketen transkripzioak eta kontraste saioetako memoriak.

Sarrera hau amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu gogoeta prozesu honetan bidelagun izan ditugun pertsona guztiei, beren denbora eta hausnarketak eskaini dituztenei Hernaniko udalerrian euskarak duen egoera eta aurrera begira har daitezkeen norabideak marrazteko saiakeran.

2. METODOLOGIA

Gogoeta-prozesu hau hiru fasetan antolatu da.

- **(1)** Aurrez egindako ikerketen ustiaketa.
- **(2)** Euskararen egoera eta normalizazio prozesuetan aditu diren pertsonekin elkarriketak.
- **(3)** Hernanin esanguratsu moduan baloratzen diren herritar taldeekin kontrastea.

Segidan deskribatzen dira fase bakoitzean emandako pausoak.

1. FASEA: AURREZ EGINDAKO IKERKETEN USTIAKETA

Prozesu hau ez da zerotik hasi. Izan ere, Hernaniko Udalak eta bestelako erakundeek urteak daramatzate euskararen egoera eta bilakaerari buruzko datuak jasotzen, udaletxearen jarduerari dagozkionak eta herriko egoera islatzen duten bestelako adierazleekin lotuak.

Hori kontuan hartuta, lehenengo pauso moduan azterketa horien errepaso bat egin da eta herriaren gaur egungo egoera islatzen duen abiapuntuko dokumentu bat sortu da. Material horrekin, asmoa izan da aurrera begirako hausnarketei laguntzeko abiapuntuko informazioa modu sintetikoan eskaintzea.

Dokumentua osatzeko, kontuan hartu dira publiko dauden datuak (Eustaten, Euskararen Adierazle Sisteman, Kale Neurketetan... topa daitezkeenak), Aztikerren esku zeuden datuak (errolaren ustiaketa, aurrez egindako ikerketetako materialak...) eta Hernaniko Udalak eskaini idituen dokumentuak. Honako materialak hartu dira kontuan:

1. Hernaniko jatorri aniztasuna zenbakitan [ikerketa sistematikoa]. Gaia: jatorri aniztasuna, migrazioak.
2. Hernaniko Udal Erroldaren ustiaketa [ikerketa sistematikoa, 2019tik aurrera]. Gaia: Euskara gaitasuna, lehen hizkuntza eta Udalarekiko harreman hizkuntzaren bilakaera. Erroldaren ustiaketa 6 hilabete behin (momentuko argazkia, altak, bajak eta herri barruko mugimenduak).
3. Euskararen bilakaera Hernanin (1986-2016): Eboluzioaren arrazoi posibleak eta aurrera begirako pista batzuk [ikerketa puntuala, 2017]. Gaia: Euskararen ezagutza, hizkuntza-ibilbideen bilakaera, etxeko hizkuntza, euskararen kale erabilera.
4. "Euskara Ari Du Hernanin" ekimenaren urte osoko jarraipena [ikerketa puntuala, 2018]. Gaia: Euskararen erabilera aktibatzeke ekimeneko parte hartzaileen esperientzia eta bizipenak jaso, hileroko inkesta bidez. Euskararen erabilera aktibatzeke ekimenaren balorazioak eta emaitzak.

Material horiek guztiak kontuan hartuta, gogoeta prozesuan landu nahi ziren gai batzuen inguruko ideia nagusiak jaso dira "Euskararen normalizazioa Hernanin:nola egin aurrera? Elkarrizketak kokatzeko dokumentua" deitutako testuan. Alde batetik, Hernaniko errealitatea eta azken urteetako bilakaera erakusten duten datuak aurkeztu dira, eta horrekin batera Udalak prozesu honen abiapuntuan edo oinarrian planteatutako ikuspegi eta filosofia jaso dira. Gai bakoitzeko ideia nagusiak txosten honetan ere jasotzen dira, atal bakoitzaren hasiera moduan. Ikerketaren ikuspegi edo filosofiari dagokionez, honako testua jaso da:

Zer atara nahi da prozesu honetatik? Zein motatako ideiak edo ekarpenak jaso nahi dira?

Lortu nahi ditugun ekarpenak objektiboak, kritikoak eta ausartak izatea nahi genuke. Gaurko egoerarekiko ahalik eta objektiboena eta kritikoena (garratzak edo gordinak izan daitezkeen arren) eta aurrera begirako ausartak. Galdera litzateke nora iritsi nahi dugun edo, nahi baina, ahal dugun, eta zein den euskarak bizirauteko behar duen gutxieneko lurra: zein diren harentzako **bermatu beharreko gutxieneko eta ezinbesteko bizi-baldintzak, iraungo badu**. Iraun, ez hizkuntza gutxitu eta menostu bezala (horrek heriotzara eramango lukeelako), baizik eta iraun, bizitzeko hizkuntza baliagarri gisa, modu iraunkor eta sostenible batean. Horrek denak diskurtso aldaketa bat ere eskatzen du, diskurtso berria sortzea, zeinetan zehaztuko den zertaz ari garen hizkuntzaren iraunkortasunaz (normalizazio hitza baino egokiagoa agian?) ari garenean. Diskurtso berri hori aletu, landu eta azaleratzea ere prozesuaren egiteko garrantzitsua da. Hortik aurrerakoa, gogoeta hori ekintza-plan zehatzago batera ekartzea, prozesu honen ondorengo lana litzateke.

2. FASEA: ELKARRIZKETA SAKONAK ADITUEKIN

Bigarren pauso moduan, elkarrizketa sakonak egin dira intereseko baloratutako adituekin, euskararen sustapenean hurrengo urteetan egon daitezkeen aukerak, mehatxuak, erronkak eta lan-ildo posibleak identifikatzeko, Hernanirako baliagarriak izango diren oinarriak edo ideiak mahaigaineratzeko hurrengo urteetako hizkuntza-politika eta euskararen sustapenean erabiltzeko.

Elkarrizketa egituratuak izan dira. Lehenengo fasean ateratako ideiak (sortutako dokumentuaren bidez) helarazi zaizkie elkarrizketatuei, saioan zehar planteatu nahi ziren galderak biltzen zituen elkarrizketetarako gidoiarekin batera. Modu horretan ahalbidetu nahi izan da pertsona horiek gaiari buelta batzuk emateko aukera izatea elkarrizketara etorri aurretik. Solasaldi guztietako audioa grabatu egin da eta ondoren transkribatu egin dira. Transkripzioak Hernaniko Udalaren esku jarri dira modu ez-anonimoan. Hortik aurrera sortu diren material guztietan erabilitako audioak modu anonimoan jaso dira.

Guztira 10 elkarrizketa-saio egin dira, 13 partaiderekin (hiru saiotan bi pertsona elkartu dira). Elkarrizketatuak aukeratzerakoan, honako aldagaiak izan dira kontuan: adina, generoa, ezagutza edo jarduera eremua eta Hernaniko herriarekiko lotura. Datei dagokionez, lehenengo elkarrizketa ekainaren 9an egin da eta azkena urriaren 21ean.

Transkribapenez gain, saio guztietan jasotako gogoetak analisi dokumentu batean jaso dira. Analisi dokumentu horren bertsio luzea eta laburra Hernaniko Udalaren esku jarri dira.

3. FASEA: KONTRASTE SAIOAK HERRITARREKIN

Hirugarren eta azken pauso moduan, aurreko bi faseetan jasotako ideiak kontrastatu dira herri mailan interesgarritzat baloratutako xede-talde batzuekin. Helburua izan da lehenengo bi faseetan sortutako ideia nagusien kontrastea egitea Hernanin euskararen sustapenean aurrera begira inplikatzeko interesgarriak edo garrantzitsuak izango diren subjektuekin, haien ikuspegiarekin osatzea jasotako materiala, ekarpenak egitea eta agente moduan beraiek ere inplikatzeko prozesuan.

Horretarako, udal ordezkariekin adostu da zein xede-talderekin egin saioak, eta talde bakoitzarekin kontrastatzeko edukiak biltzen dituzten aurkezpenak sortu dira. Saioetan, gai-blokeka ateratako ideia nagusiak aurkeztu zaizkie eta bi ariketa egin dira bloke bakoitzeko, hamabosna minutuko tarteetan: (1) nola baloratzen duten egindako diagnosia, eta (2) jasotako proposamen nagusiekin ados dauden edo ez, zer gehituko lieketen, zer moldatuko luketen eta zer kendu.

Lau saiotarako deialdia egin da, honako xede-taldeak kontuan hartuta: euskararen sustapenarekin zuzenean lotuta ez dauden herriko eragileak, euskalgintza edota euskararen sustapenarekin lotutako agenteak, udal teknikariak eta gazteak. Horietatik hiru egin dira, gazteen saioa bertan behera utzi da.

Honako datu teknikoak izan dituzte saioek:

- Herriko eragileak: azaroaren 23an egina, 18:00-20:00 bitartean. 13 partaide eta 3 teknikari (udaleko partaidetza teknikaria eta Aztikerreko bi dinamizatzaile).
- Euskalgintza: azaroaren 24an egina, 17:00-19:00 bitartean. 22 partaide eta 3 teknikari (udaleko partaidetza teknikaria eta Aztikerreko bi dinamizatzaile).
- Udal teknikariak: abenduaren 2an egina, 9:30-12:00 bitartean. 9 partaide, udaleko bi teknikari partaide/moderatzaille rolean (partaidetza teknikaria eta euskara teknikaria) eta Aztikerreko bi dinamizatzaile.

Saio bakoitzeko ekarpenak memoria batean jaso dira. Txosten honetan ere, gai bakoitzaren inguruan jasotako ekarpen gisa aurkezten dira gaiaren inguruan kontraste-saioetan jasotako gogoetak modu sintetikoan.

Hurrengo orrietan aurkezten diren ideiak prozesu horren bidez jasotakoak izan dira. Emaitzak antolatzeko ikerketan erabilitako gai-bloke nagusiak erabiltzen dira. Beren barnean, abiapuntu moduan bigarren mailako datuen ustiaketatik jasotako ideien laburpenak aurkezten dira. Segidan, elkarrizketetan bildutako gogoetak aurkezten dira, gaur egungo egoeraren diagnosia eta aurrera begirako proposamen edo lan-ildoak bereiztuz. Azkenik, kontraste saioetan gaiaren inguruan jasotako ekarpenak laburbiltzen dira.

3. EMAITZAK

Atal honetan jasotzen dira ikerketan planteatutako gai-bloke nagusien arabera ateratako ideiak.

3.1. EUSKARA BIZIBERRITZEAREN INGURUKO DISKURTSOA

Ikerketan garrantzia berezia izan duen gai bat euskararen inguruan gaur egun dagoen ikuspegia, mezuak, diskurtsoa, helburuak... gisako elementuak biltzen dituen atala izan da. Elkarriketatuei eta herriko taldeei eskatu zaie baloratzeko gaur egungo egoera eta aurrera begira identifikatzen dituzten gakoak adierazteko. Atal honen kasuan, ez dago abiapuntuko dokumentazioan datu espezifikorik. Bai adierazten zen udalaren aldetik egindako honako hausnarketa:

GOGOETARAKO ABIAPUNTUA

Herritarren aldetik euskararen aldeko ekimenak ongi ikusiak dira, bada aldeko jarrera bat eta baita horietan parte hartzeko konpromisoa ere. Baina zailtzen ari da herritarrak euskaraz bizitzeko mezua sendo barneratzea, erabilera datuetan agerian geratzen den bezala. Ez daukagu diskurtso sendorik ezta baliabide nahikorik ere datozenak euskalduntzeko eta haiekiko harremanean gaztelaniak duen zentraltasuna zartatzeko.

Segidan jasotzen ditugu elkarriketetan eta kontraste saioetan ateratako ideiak.

3.1.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA

Lehenengo gogoeta moduan, sarritan errepikatu da euskararen gaia gizartean pertzibitzeko modua aldatu egin dela azken urteetan. Gaur egun, euskara ez dela borroka-gai moduan ulertzen sentitzen da, eta azken urteetan "egina" dagoen edo irabazia dagoen zerbait moduan ikusten dela baloratu da (edo irits zitekeen punturaino iritsi dela). Berezik, gogoeta hori belaunaldi gazteei begira egiten den hausnarketa izan da.¹

Gure garaian euskara zen potentea, eta beste gai horiek ez zeuden. Hau da, errebindikatzeko zeozer zen euskara. Gaur egun daude, ez dut esaten gaizki, itzala egiten dioten beste batzuk potente. Eta postureorako ez dakit, interesgarriagoak direnak jendearen aurrean eta beste txispa bat daukatenak. [...] [Nerabeak] beti bizi izan dira euskararekin modu erosoan. Normalean askotan berpiztu edo altxatzen zara ikusten duzunean zure kontra jotzen dutela. Orduan, beti ikusi dute, nik uste dut, euskararen alde gauzak egiten. Beti hori, txikitatik. [A: Horretan hazi dira.] Bai, euskararen alde beti. Eta joan dira Kilometroetara eta Herri Urrats eta festetara eta Korrikan eta hemen eta denetan parte hartu dute, eta beti izan da gizartea euskararen alde. Orduan, ni zer? Gizartea baldin badoa norabide batean, "nik zer egiten dut? Gizarteak bezala?". Ba garai horretan esaten duzu: "Ba gizartea hortik badoa, ba ni joango naiz hemendik". Hor ere beste batzuk badaude. Euskara, momentu honetan beraientzako dena euskararen alde dago. Gainera eskolan euskaraz egin behar dute eta, gainera, behartuta daude dena euskaraz egitera, orduan ez daukate horrelako kontra sentsaziorik hori egiteko, eta gazteak hori nahi du askotan, kontra egin. "Ah! Zer egin behar da? Euskaraz? Ba ez dut egingo!" Hor ere badago errebeldia puntu hori.

Nik pentsatzen dut badagoela jende bat pentsatzen duena zer eginik ez dagoela. Askok ideia politikoengatik eta esaten du "gauden egoera politikoan egonda, hemen zer eginik ez dago, ze azken finean erderak nagusi dituen administrazioak dira nagusi eta haiek nagusi diren bitartean ez dago zer eginik." Ta beste batzuk berriz, agian gazteagoak direnak, nolabaiteko elebitasun formal bat edo izenezko elebitasun bat somatu dut, ez dute ikusten beharrik. Elebiduna da gizartea, administrazioa, denak elebidun ikusten dituzte, ez dute arazorik ikusten. Haiek dira, beste batek esaten zidan bezala, aukera daukatenak espainolez eta euskaraz egiten dute lasai asko eta ez daukate kontzientziarik euskaraz soilik hemen egin dezakegula. Baina, haiek, berriz, ez daukate kontzientziarik. Eta beste batzuk berriz, egongo dira, ya puntu honetan nahikoa dutenak. Elebitasun honetan gaude eta zer gehiago behar duzu. Zer gehiago behar duzu, ezta? Egin zitekeen guztia egina dago, eta hemendik aurrera utzi jendeari bere aukera eta nahi duena egin dezala. 6

Bilakaera horrekin lotuta ikusten da diskurtsoaren moldaketa bat. Hain justu, gaur egun euskararen "alde" egotea ohiko zerbait bihurtu dela baloratzen da gizarteko sektore eta agente guztien aldetik, maila diskurtsiboan behintzat. Bestelako narratibak oso bazterrekoak dira.

Ikasle berri bat dugu etorkinen seme bat, etorri zaiguna orain Urnietatik, eta kontatzen zuen idazlan horretan: ea zertarako balio duen euskarak, ze nazioarte mailan ez daukala inolako pisurik, orduan ez dela ikasi behar. Hau da, zertarako ikasi euskaraz? Gainera, hori da beste gauza bat, batzuk ez dira sentitzen... "Hemen non gaude? Ba Espainian gaude. Orduan, Espainian espainola! Gaztelania. Hizkuntza txiki hau oso ondo, ba maitatzeko, kaxoi batean edo museo batean. Ba San Telmon edo, esateko azkeneko hitzunik hemen daude." Banyolesen zegoen beltz baten... Ba hori, pues euskera. "Orduan goazen gauza potenteak, handiak egitera, gaztelaniaz". Klaro, berarentzako da... Eta ez iezaiozu esan: "Orduan zer egingo duzue, ingelesez? Edo frantsesez?". Ez, ez, espainolez. Baina hori oso-oso gutxi. Hori da irla bat. Horrelako iritziak dira irlak. Gainera, inor ez da... Nik ikusten dut,

¹ Elkarriketetan eta kontraste saioetan ohikoa izan da kolektibo moduan "gazteak" aipatzea. Edozein kasutan, hausnarketarako puntu bezala eta ikerketaren mugak berak ere mahai gainean jartzeko, elkarriketa sakonetan ez da jaso inongo gazteren ahotsik (30 urtetik beherako pertsonarik) eta kontraste saioetan ere ez da lortu kolektibo horren ekarpenak biltzerik. Aurrerago sakonduko da txostenean gai horretan.

gaur egun dagoen giroan, ez da jendea ausartzen esatera horrelako gauzak publikoki. Hau da, ozen, esan nahi dut, "zertarako egin...?". 8

Diskurtso orokorra aldekoa baldin bada ere –edota testuinguru orokor horrek sustatuta-, euskaltzetasun aktiboa duten pertsonak gero eta urriagoak direla baloratzen da. Hau da, gero eta nukleo txikiago bat biltzen dela ikusten da euskararen sustapenaren bueltan. Gazte eta nerabeen inguruari begiratuta hala baloratzen zen:

B: Euskaltzaleak eta euskaldunak direnak gero eta euskaltzaleago eta euskaldunagoak dira, baina gero eta murriztagoak dira. Hau da, ez dute jendea erakartzen, ez dute beste aldeko posizioetatik jendea ekartzen. Eta, gainera, ez dakit ze puntutaraino nahi duten, ze horiek ez dira puroak. Hau da, euskaldunak eta euskaltzaleak direnak, "gu gara hemen hau aterako dugunak" [indar tonoarekin esaten du]. Nik ikusten dut eh, euskara batzordeetan eta ikasleen artean, eta beraiek badakite zeintzuk diren, zeintzuk erabiltzen duten euskara, eta noski, apuntatzen baldin bada baten bat ez daukana ohiturarik... Nik esaten dut, horiek beharrezkoak dira. Eta esanez: "Zer egiten du honek hemen? Gure tartean?" Hori badago. Orduan, gure aldetik ere ez dugu egiten nahiko. "Gure alde", esan nahi dut, gazteok ere ez dute nahi. Da tipo zirkuito itxia eta kanpokoak, bueno, egin merituak hemen sartzeko. Eta hori gertatzen da, eta hori pena bat da. Niri gustatuko litzaidake ikasleen euskara batzordean oso talde heterogeneoa izatea. Goazen konbentzitzera horiek.

A: Herri mailan ere, zer gertatzen da? Talde horiek ez dira euskararen inguruan bakarrik mugituko diren taldeak. Seguraski esparru desberdinetan ibiliko dira. Orduan, oso talde itxiak dira, oso zaila da horretara gerturatzea, oso zaila da hor sartzeko edo hor... Euskara batzordea eta horren inguruan mugitu daitezkeen taldeak. [...] Talde horietan, gerturatu nahi edo, behintzat, halako interes edo zera apur bat ikusten duenak, meritoak egin behar ditu hor sartzeko. Meritoak egin behar ditu [esaldia indartu nahi du], ez da bat ere erraza. Eta horiek joango dira "a muerte" esaten dena. Eta besteak, orduan, aldendu egiten dira. Urrundu. [...]

B: Eta azkeneko 5 urteetan gainera, 5-4-6 urteetan, gero eta mugimendu femeninoagoa ari da bihurtzen, gero eta neska gehiago, neska gehiago [indartu nahi du]. Mutilek ia... Hainbeste... Nik ez dakit hor ere zer ez dugun asmatu, hezkidetza eta hori... nik uste dut hurbildu eta erakarri beharrean, mutilek beren hizkuntzetan esaten duten bezala, "rayatuta" daude ia mezu horrekin. Egin behar da beste zerbait berria, erakartzeko, bai kasu honetan mutilak, bai besteak... Egin behar da, ze gerturatu beharrean uxatu egiten dira. Eta euskalgintzan ere berdin gertatzen da. 8

Hala, politikoki zuzena izatearen diskurtso orokortuarekin parean jarri da euskararen alde egotea ez dela jarrera aktibo batekin lotzen, baizik eta "gainean daramagun txapa" baten modukoa dela gehiago. Alde horretatik, "epelkeria" egoera bat bizi dugula sentitzen dute batzuek:

Iruditzen zait euskarak baduela... Ez dakit nola esan. Da daramagun txapa bat bezala eta hor dagoena eta inork kaso egiten ez diona ya. Jarri zenuen txapa eta zera, ez? Uste dut, euskararen aldeko jarrera oso zabala dela esango nuke. Orokorrean, Euskaraldiak, Korrikak... horrelako ekimenek badute babes handi bat, zabal bat. Euskararen aldeko jarrera hori zabala da, orokorrean eta Hernanin ere esango nuke. Baina, hori: da hor dagoen zerbait bezala. Baina hori, zerbait estankatua bezala-edo, edo hor dagoen txapa hori bezala. Hori ez da mugitzen edo hori mugiaraztea zaila da. [...] Uste dut falta zaigula diskurtsoa, falta zaigula aldektasun horretaz haratago, aldektasun horretatik aktibismo horretara. "Aktibismoa" esaten dudanean ez da euskalgintzan militatzea edo euskalgintzan... Esaten dut euskaraz aritzearena edo euskararen aldeko jarrera aktibo bat edukitzea, hitz egitea izan daitekeena. 4

Gatoz Argitxotik. Gero, gatoz nik uste dut, parte militante-konbatiente batean, lehen esaten genuena, funtzio hori bete duena, zegoen erre que erre. Uste dut funtzio handia bete duela Euskal Herrian Euskaraz batek edo herri batean euskara elkarrekin... Vamos, ematen diet daukaten balio guztia eta gehiago. Eta gero, ba esango nuke gaudela orain epelkeria instituzional arraro batean non

"euskara is beautiful", rollo horretan pixka bat gauden, ez? Eta inork ez du egingo kontra. Pues indarkeria matxistarekin-eta gertatzen den bezala, ez? Denok alde gaude, baina gero nor dago prest hor zertatzeko? Hori instituzioei dagokienez. Eta, beraz, nola ya hartzen den, pixka bat kutsu hori hartzen duen eta txantxangorria eta ez dakit zer, eta pixka bat ya hor dagoen, sozialki ere ardura delegatu egiten dela uste dut. Batzuek bai, jarraitzen da eta eskerrak badauden espazio militante asko. 2

Gazteentzat gaiak izan duen bilakaerarekin jarraituta, baloratzen da borroka-gai izateari uztearekin batera, azken urteetan eskolako gai bat bilakatu dela, hezkuntzaren espazio-formalarekin lotzen duten elementu bat. Horrek berak, bereziki errebeldiarekin lotzen den nerabezaroan, euskaratik aldentzeko eta espazio ez-formaletan beste hizkuntzetara gerturatzeko joera areagotu dezake.

Ezin dut esan ze faktorek edo zerk [erdaldundu dituen bere seme-alabak Ikastolan], baina bai ikusi dut poliki-poliki gero eta esamolde gehiago, gero ez dakit zer... Eta orain, semea DBHn, ikaragarria. Erabat erderaz hitz egiten dute. Eta esandakoa, izan daiteke errebeldia puntua. Baina bueno, nik esaten dudana: guk erein dugu, erein dugu, espero dugu halako batean loratzea edo konturatzea. Ez dago hor gero gure esku. Baina oso-oso, institutukoa oso erdalduna da beraien arteko harremana, eta ikusten dut alabak gero etagehiago. Baina ez... Agian da ere gure perspektiba, zer uste genuen izango zela ikastolan matrikulatzean, baina gero benetan errealitatea zein den. Ba hori da: Ikastola edo hezkuntza dela eremu bat baina ez da nahikoa. Ez da nahikoa eta gainera hezkuntza formala da, ez da zuk aukeratutako... Egin beharrekoa da. Orduan, gero zuk aukeratzeko duzunean gauza bat... Orduan, hizkuntza horrekin lotua dago, ez badaukazu horretaz aparte beste loturaren bat... 9

Maila diskurtsibo batean euskararen alde jartzeko joera horrekin kontraposizioan, ordea, egunerokotasuneko praktiketan bizi diren esperientzia praktikoak ez doazela norabide horretan baloratzen da. Hizkuntzen arteko botere harremanetan euskarak bazterreko izaten jarraitzen duela adierazten da. Hala nabaritzen da hizkuntza-politika modu praktikoan garatzerakoan:

[Euskararen] izen on hori zabaldu egin behar da. Izen on hori ez da zabaltzen administrazioak eta orokorrean jendeak ibiltzen ez baldin badute eta gutxiesten baldin badute. Orain pandemiaren kasuan ikusi dugu arin egiteagatik edo batera egiteagatik, espainolez. Arin egiteagatik egin euskaraz soilik eta gero pasako zaio espainolezko itzulpena denbora denean. Hori da lehentasunezkoa, hori da Euskal Herriko berezko hizkuntza izatea, Estatutuan jartzen zuena. 6

Botere-harreman horietan euskara non kokatzen dugu gaur egun? Ba bazterreko eta galtzearen bazter horretan. Ez dauka hegemonia bat, ez dauka diskurtso partekatu, onartu eta indartsu bat. Jarraitzen dugu, neurri handi batean ere, mahai azpitik atzamarra ateratzen "Eh, hemen gaude, hemen gaude", ez? Eta horrekin ikusten dugu. Ze, klaro, gero asko hitz egiten dugu ere kanpotik datorren... Bai, kanpotik datorrenak ikusi behar du hemen indar bat daukagula eta eutsi nahi diogula hizkuntzari. Hori sentitzen ez duenak, ez du ikasiko euskaraz. Ez baldin bada horrela herri oso-oso-oso euskaldun batean eta bere harreman-sarea ez baldin bada oso euskalduna; orduan bai, orduan ikasiko du. Baina bestela... Eta hitz egiten ari gara ez pertsona gutxi batzuen kontua. Nola heldu benetan pertsona askorengana? Sinesgarritasun batekin. Ze momentu honetan uste dut ez garela sinesgarriak. Ez daukagu diskurtso sinesgarri bat. Baina begiratzen baldin badugu euskalgintzatik ere zein diskurtso ari den lantzen edota botere politikoa daukatenez eta oposizioan daudenez ere zein inplikazio...? Zein alderdi politikok dauka gaur egunean ganorazko hizkuntza politika bat zehaztuta, definituta eta aurrera eramaten dagoena? Horregatik borroka bat egiteko -borroka zentzu onean nahi dut esan-, mahai gainean jartzeko, adosteko? Zerbait onartzen den bakoitzean beti daukagu edo estatuaren ezpata edo ez dakit zeren ezpata. Orduan, eta hor ez dago jarrera ausart bat esateko: "Ba bueno, berdin dio, baina aurrera goaz". Azkenean, berriro ere geratzen gara hortxe, dekoratuan. Dekoratuan. Eta dekoratuan ez daukagu gauza handirik. 5

Bazterreko izaera horrek dakartzan hainbat hizkuntza-eskubideren urraketa-egoeren aurrean inpunitate giroa dagoela baloratzen da, bai legeen eta administrazioaren aldetik, baina baita herritarren aldetik ere. Inpunitate giro horrekin batera, adierazten da gaur egun ez dela nabaritzen euskararen aldeko presio sozialik. Elkarriketatu batek hala deskribatzen zuen osasun-zentroarekin izandako pasadizo baten bidez:

Osakidetza. [...] Etortzen naiz osasun zentrora. Han, harreran: "Eh, aldatu nahi dut helbidea. Hemen dago errolda eta guztia". Bale, oso ondo. [Harrerakoa imitatuz]: "Bale, eta zein mediku eta hori?", eta nik: "Baldintza bakarra euskalduna izatea". [Harridura tonoa imitatzen du] "Ai, itxoin pixka bat". Alegia, harrera egin zidanak, horkoak, ez zekien zein mediku zen euskalduna eta zein ez. Joan zen barrura, bulegoetara, kontsulta egitera, aber zein mediku zen euskalduna eta zein ez. Han egon ziren, bueno, 40 segundo, baina niri oso luze egin zitzaidan. Etorri zitzaidan eta esan zidan: "Ez, ez, denak dira euskaldunak". "Ah, pues orduan edozein". "Ah, bale, oso ondo". Handik hilabete batera, hagineta infekzio bat zela-eta, joan behar izan nuen antibiotiko batzuk hartzera, eta medikuak ez zekien euskaraz. [...] Etorri nintzen [osasun zentrora] eta harrerakoari esan nion: "Barkatu, medikua aldatzea eskatzeko?". Eta esan zidan: "Bai, hor dauzkazu orri batzuk, hor paretan, eta horietako bat bete -eta esan zidan horrelako pikaro irribarrearekin-, baina oso ondo arrazoitu beharko duzu, eh, medikua aldatzea eskatzeko". Eta nik esan nion: "Oso ondo? Barkatu, nik arreta euskaraz jaso nahi dut". Eta gelditu zen horrela [txunditu aurpegia jartzen du]. Eta aldamenean zegoen beste tipa bat ere gelditu zen horrela [harritu aurpegia errepikatzen du] aldameneko mahaitik. [Bertakoaren erreakzioa imitatzen du, sorpresa adieraziz:] "Ah!". Eta orduan, "ah!" horrek niri pentsarazi zidan. Ulertzen? Orduan, inpunitate giro horretan bizi gara. Eta orduan, inpunitate giro hori ez da bakarrik legeek zer esaten duten. Eta orain lotzen dut lehenengo puntuarekin, presio sozialaren kontuarekin. Ez da bakarrik legeek zer esaten duten, ez da bakarrik ea legeek behartzen dituzten medikuak euskaldunak, profilak, ez dakit zer... Ez da hori bakarrik. Ez da hori bakarrik. Da edozein, gure arteko edozeinek ya hori "pf!" [axolagabekeria soinu egiten du] ez daukala irizpide bezala buruan. Esan nahi dut, en fin, "ba zer? Pues berdin!". Ulertzen? Igual ya hasten naiz konklusioetatik. Dago horrelako katxondismo bat. Baina katxondismo izugarri bat, non benetan ia inori ez zaion pitorik inporta euskararen rollo hori. Ze bai, euskararen rolloaren kontura pues jende asko bizi gara. Baina gero benetan, aber, euskaraz... Ni joan nintzenean atenditu ninduen tipoak esatea ez zekiela -hasteko, eh- ez zekiela zein mediku zen euskalduna eta zein ez. Inportantea. Datu inportantea. O sea, zuk lan egiten duzu osasun zentro batean eta ez dakizu zein mediku den euskalduna eta zein ez. Hasteko. Bigarrena: joaten da kontsulta egitera bulegoetara eta bueltatzen da esaten denak direla euskaldunak. Que oihal marinela, eh. O sea, hori... Eta hori ez da Urkulluk edo ez dakit zeinek ez dakit zer erabaki duelako, legeak ez dakit zer esan duelako eta ez dakit zer. Ez, ez, ez, ez, barkatu. Hori da katxondismo handiegia dagoelako eta euskara, benetan, jendeari -jende gehienari- pito bat inporta zaiolako. O sea, da kunplitu beharreko zerbait ez dakit zeren bitartez, ez? Ez dakit nora joanda aldian behin eta hori, eta ya está, nik kunplitu dut euskararekin. Baina gero, benetan, eguneroko bizitzan, pf. [Jendea imitatzen du:] "Eh, barkatu, gauza serioetaz ari gara eta ez hitz egin euskarari buruz". [Hori denborarekin aldatzen joan da?] Nik esango nuke duela 30 urte, eman dezagun, eta duela 40 urte zer esanik ez, askoz presio sozial handiagoa zegoela. Eta azken 20 urteetan nik nabaritu dudana izan da presio sozial hori diluitu egin dela. Nola garai likido hauetan, pues diluitu egin dela. Eta ez dagoela baina batere presio sozialik. Orduan, horregatik esan dut katxondismoa. Aber, si berdin du, euskararekin... Euskararekin ez, euskaldunekin egin dezakezu nahi duzuna. Eta ez da ezer pasatzen. 3

Nire ustez ez dago nahiko presio sozialik. Hernanin bizi zaitezke oso lasai erderaz, eta zailagoa da euskaraz erabat bizitzea. Nik oraintxe esaten dut- beno ba erosketak, dena delakoak eta halakoak eh- ez da hain erraza. Baina erderaz oso erraza da. Orduan hori da. Abiapuntua. Eta presio sozialik ez dago. Ez dago, jendeak badu gogorik, adibidez, Euskara Ari Du edo kanpainan egin zenean konpromisio horiei oraintxe bertan berriro eusteko? Ez berriro eusteko, ea gogoratzen dituzten hartutako konpromisio horiek? Zergatik? Ba ez dagoelako presio sozialik, ez dago. Jendeak nahiko kezka baditu beste gauza batzuekin eta, orduan, hizkuntza ez da ardatza, ez da beraien lehenengo kezka. Orduan hor galtzen ateratzen da, bestea inguruan asko daukagulako. 9

Hizkuntzen kudeaketa eremuan euskarak duen posizioaz hausnartzerakoan, beste gogoeta bat mahaigaineratu zen elkarrizketetan: "erdalgintzaren motore" ere aktibo dagoelako ideia. Hau da, ezin dugu ahaztu eta presente izan behar dugu beste hizkuntzen inguruko politikak ere aktibo daudela, ez euskararena soilik.

Uste dut oso xaloak garela pentsatuz aktibo dagoen motor bakarra gurea dela. Esan nahi dut, erdalgintzaren motorra oso aktibo dago. Eta ez diogu begiratu nahi. Horregatik aipatzen nuen lehen errenuntziena. Ze, klaro, ezagutza handitzen ari gara, baina ezagutza daukaten guztiak dira elebidunak eta, beraz, hizkuntza hegemonikoaren jabe direnak, frantsesa edo gaztelania. Eta hor gauzak gertatzen ari dira. Nik D ereduan ematen ditut eskolak; baina D eredu oso diferenteak daude, eta ikusten duzu berehala. Orduan, hizkuntzarena beti dago beste gauza batzuekin lotuta. 5

Oso erraza da erdal munduan erortzea eta erdal erreferentziekin funtzionatzea eta erdaldunekin bizitzea. Eta Diario Vasco hor daukagu eta badakigu. Errazagoa da, erosoagoa da. Bestean indarra behar da. Esaten duten bezala, hori da: "irakurtzerako orduan gehiago kostatzen zait euskaraz irakurtzea gaztelaniaz baino". Beno, bai. Zergatik? Ze gaztelaniazkoa ere itzulpena da eh, ze jatorrizko bertsioa ez da. Eta hori esatea ere ikastolan ikasi dutenek oso garbi adierazten digu hezkuntza ez dela nahikoa. Oso garbi. Ikastolan ikasitakoak dira baina, hala ere, esaten dute hori. Hor hausnarketa egin duzu zergatik? Gero hortik aurrera, Ikastola utzi ondoren, ze prozesu edo zer egin duzun, zer irakurri duzun, zer ez, zertara ohitu zaren...? Baina jendeak badu gogorik hori egiteko eta aldatzeko? 9

Egoera orokorretik diskurtsoaren mailan gertatu diren aldaketetara gerturatuta ere egin dira ekarpen batzuk. Berezik, gaur egungo egoera deskribatzeko bi faktore azpimarratu dira. Lehenengoa da helburua ez dagoela argi, nora joan nahi den edo zein den proiektatzen den helmuga.

Oinarrizko beste arazo bat daukagu: ez dakigu herri honetan nora jo nahi dugun. O sea, Baztarrikak beti esaten zuen arian-arian egin behar zirela gauzak. Arian-arian iritsi zaitezke, nora? Edozein lekutara. Arian-arian izan daiteke zerbaitetara iristeko edo izan daiteke inora ez joateko. Orduan, uste dut herri bezala esan behar dugula: "Bueno, helburua zein da? Nora iritsi nahi dugu?". Eta hor adostutakoan, ni ya prest nago hitz egiteko moduez, epeez, nahi denaz. Baina badakigu pareta horren kontra jo nahi dugula, ezta? Eta ez goaz ez horra, eta ez hara [bi norabide seinalatzen ditu, eta hirugarren bat markatzen du], hara goaz. Eta hori ez daukagu definituta. Ez dago definituta, eta ez da definitu nahi [azpimarratu egiten du]. Okerrena hori da, ez dela definitu nahi. Ze definitu nahi izan bagenu, aspaldi erabakiko genuen hori. Orduan, hemen askotan esaten da: "Ez, ez, ez, euskararen alde eta egin behar ditugu urratsak", eta ez dakit zer. Baina nahi dugu egin zerbait. Zerbait egin, ondo geratu, ondo zeratu. Baina hemen benetan planteatuko balitz: "Ez, ez, baina zerbait egin horrek esan nahi du X urtetan, hau da, esaten ari gara hurrengo 30 urte, 50 urte, ez dakit zer, herri honek euskaraz funtzionatuko duela, eh." Hori ez da planteatzen. Eta ez da planteatu nahi. 1

Bigarren puntu gisa, neurri batean aurrekoarekin lotuta, baloratu da azken urteetan mezueta galdu egin dela. Hau da, helarazten diren ideiak eta mezuak lausotu egin dira, ezer argirik ez adieraztera arte batzuetan.

Ni beldurrez jartzen naiz mezuak berri behar diren horrekin. Iruditzen zait euskararen inguruan mezua berri dugun bakoitzean atzerapauso bat eman dugula. Bai. Aurrena elebitasunaren gaiarekin. Gaizki planteatu zen, baina bueno, gaizki planteatze horrek eraman zuen ulertzera "hemen denak bi hizkuntzetan egiten dugu", gezurra denean. Gezurra denean. Jende gehiena elebakarra da, baina erdaldun elebakar espainola. O sea, orduan... Eta azkeneko urte hauetan euskara inposizio bezala esaten ari da eta gu ia-ia asumitzen ari gara. Ari gara horri esplikazioa topatu nahian. Baina ez dela horrela! Eta hemendik gutxira ya arrazistak izango gara euskaldunak garelako, ya klasistak bagara batzuen mezuan. Euskaraz aritzeagatik klasistak eta laster arrazistak izango gara. Eta orduan, nik esaten dut, "eh". Nire ustez ez da kontua mezua berritzea. Mezua emateko moduak

berritu behar dira asko jota. Baina helburuak eta...? Nik Euskal Herri bat nahi dut euskaraz funtzionatuko duena. Mezu zentrala horrek izan behar du. Eta gero munduko marketinglari guztiak elkartu daitezela eta erabaki dezatela hori esateko modurik onena zein den, igual dit. Baina hori esan dezala, eh. Ez "bueno, baina hori esaten baldin badu...", ez, ez. Hori izan behar da. Jendea ez da engainatu behar. Eta esan behar zaio jendeari: "Ez, hona goaz". Es que bestela... Eta hori falta zaigu. Esan nahi nuena zen askotan, "jo, es que gauzak ezin dira horrela esan" esaten dugun horrekin, mezua aldatu egiten dugula. Ez dugula bakarrik modua aldatzen, mezua bera aldatzen dugula. Eta ni horrekin ez nago konforme. O sea, moduak, pues ez badira egokiak hauek, aizu, pues ez baldin bada egokia horrela esatea gauzak eta hobe baldin bada pelikula batean esatea edo, ez dakit, denak Yogurinha Borovaz jantzita esatea politagoa baldin bada eta errazago iristen baldin bada, nik ez daukat problemarik nola iristen den. Baina iristen den mezu hori izan dadila argia eta behar den zerakoa. O sea, "ez, ez, es que limurtu egin behar dugu jendea, eta limurtze horretan...". Eta zer esan dugu limurtze horretan? Ia-ia que "nahi duzuna egin ezazu". Aber, pues ez du balio horrekin. Ez du balio horrek. Gero, ondoren, joan behar dugu Ahobizi eta Belarriprest eta ez dakit zer esaten? Ez, ez, ez. Horretarako behar duzu esan "ez, es que hemen...". Eta horretarako egiten dugu hau. Baina egiten dugu etorkizunean nahi dugulako izatea denak, mundu guztia hemen, gutxienez, Ahobizi edo Belarriprest. Eta orduan, horrek bide emango digulako euskaraz bizitzeko. Eta guk hori nahi dugu. Punto. Eta eskubidea daukagu, gainera, horretarako. Eta, gainera, euskarak, beste hizkuntza guztiek bezala, lurralde bat behar dute horretarako. Eta gure lurraldea hau izango da, euskararena hau izango da edo ez da izango. Eta diskurtso hori galdu egin dugu. Atzo Mondragon Korporazioko batek esaten zidan: "Jo, hartzen dituzu orain dela urte batzuetako gure TU Lankide aldizkariak, eta dena zen 'Euskal Herria' eta 'askatasuna' eta ez dakit zer eta badakit zer. Eta, orain, Euskal Herria ez da existitzen gure aldizkarian...". Eta euskalgintzan eta euskararen berdin gertatu zaigu. O sea, ya dira 'fiuu', mezu lauso-lausoak, ez dakit zer... Eta azkenean esaten duzu, "baina zer esan dugu?". Pues, nik hor uste dut hanka sartu dugula goitik behera. Izan da... 80ko hamarkadako AEKren matrikulazio-kanpainak ziren "Ser vasco no es suficiente, izan euskaldun". Hori, afixa horiek jartzen genituen kaleetan. Eta jartzen genituen, eta ez zer ezer pasatzen. Ez zen erboluzio bat izan. Ez alde eta ez kontra, baina kontra ere ez. Baina, handik gutxira, halako mezuak moteldu egin behar ziren, ez dakit zer eta badakit zer. Eta gero hasten gara margaritekin eta ez dakit zer egiten. Margaritak oso politak dira, baina es que ez badute ezer esaten, azkenean... "Ez, motibazio instrumentala landu behar dugu, eta orduan jendeari esan behar diogu euskaraz ikasten baldin badu lana izango duela". Oso ondo, perfektu. Lortzen baldin badugu horren bidez jendea euskalduntzera etortzea, ondo. Jo, pues diskurtso horiek aldatzen hasi ginenetik euskaltegiak hustu egin ziren. Orduan, esango didate: "Bueno, zein da lehenengoa? Aurrena euskaltegiak itxi ziren eta gero diskurtsoa aldatu zen, edo aurrena diskurtsoa aldatu zen eta gero euskategi horiek...?". Bueno, ez dakit zein izan zen lehenengoa. Baina azkenean ez zuen lortu lortu nahi zuena momentu hartan. Hori da gure errealitatea. Eta, pixka bat, horrek erakusten digu, nik uste dut, nola egin duen atzera. 1

Uste dut badagoela -orokorrean esango nuke, eh, euskararen inguruan- diskurtso hutsune bat-edo esango nuke, orokorrean, Euskal Herri mailan. Leku batzuetan gehiago edo gutxiago, egoera administratiboan. Baina orokorrean esango nuke. Eta klaro, horrek gurean ere eragiten du, ez? Euskaldunok daukagun inposaketaren zama hori eta zera hori latza iruditzen zait. Eta, orduan, hor badago, jarrera "euskararen alde bai, nola ez, baina kontuz", ez? O sea, da noiz arte inposatzen den edo noiz arte den errespetua edo noiz den eskubidea, eta... Horregatik, neurri handi batean, lehen aipatu dut ere bai, Kontseiluaren azken kanpaina honetan entzun dudana: "euskaraz eroso bizitzeko". Gustatzen zait "eroso bizitzeko" zera hori. Ze da... Beti bizi gara borroka batean, ez? Beti da edo aldarrikatzen edozein gune, momentu, espazio edo zeratan euskaldunak garela eta zera, baina borroka bat bezala; edo, bestela, gaizki sentitzen inposatzen ari garelako. [Barre egiten dute] Eta, orduan, inoiz ez gara eroso sentitzen. Orduan, zaila da, euskalduna izatea oso zaila da. Psikoemozionalki [barre egiten dute]. Baina nik askotan daukat, hori da, sentiarazten dit, eta inguruan ere... Hitz egiten denean eta sektorean ari garen jende asko pues lanketa horiekin... Baina orokorrean hori da: edo borroka edo inposatzen ari zara. Edo gaiztoa zara, edo... Edo gaiztoa zara, besterik ez dago. Orduan, halako zerekin, ez? Nik kanpainan "eroso" horrekin asko lotzen nuen, ez? Esaten nuen: "Joe, euskaldunak eroso sentitu daitezke? Zein da egoera hori non eroso sentituko garen?". 4

Aldi berean, espazio publikoan euskararen gaia eztabaida sozialetik kanpo gelditu delako irudipena dago eta, era berean, euskararen gaia politizatzeari ihes egiten zaiola susmatzen da. Joera hori lotu da neurri batean gatazka ulertzeko eta praktikatzeko izan diren moduekin Euskal Herrian azken hamarkadetan, eta horrek euskararen sustapenean eduki izan duen eraginarekin.

Badago desatxikimendu hori gauza politiko bat bezala. Ze, klaro, "euskara ez da politikoa izan behar, despolitizatu egin behar da", eta horrek aldatzen du. Eta argudiatzen oso zaila den gauza bat da. Jende askok ez daki argudiatzen momentu batean zergatik oposaketa batzuetan inportantea den euskara ala ez. Ze, momentu batean... Esan nahi dut, beste diskurtsoa makinariak oso potentea egin du. Orduan, azkenean errazagoa da "euskara hautu bat da eta nahi duenak egin eta...". O sea, konfliktuatzeko ere edo posizionatzeko eduki behar dituzu herramienta batzuk. Edo zara militantea eta zaude ondo jantzita, edo zaila da esplikatzen zergatik. Eta bestela ya hurrengo da erromantizazio totala. "Euskara, gure euskara, altxorra, galtze bidean doa..." eta erromantizatu egin behar da. Eta ezta ere. Orduan, klaro, ni oso pertsona politikoa naiz, eta orduan nik esango dizut hautu politiko batetik hartu behar dela eta klaro dela euskararen asuntua politikoa eta hortik ekin behar zaiola, eta linea desberdinak edukiko ditu. Bata instituzionala, eta hor sartzen dira parte asko. Esan nahi dut, egin behar dira kanpainak, egin behar dira laguntzak, euskaldun izateko bidea erraztu behar da, bermeak egon behar dute... Hori guztia. Eta hori, nik uste dut, bai edo bai. Baina egon behar du beste maila sozial batean ere... 2

[Nik esaten dut gaudela beste olatu batean, baina atzera doan beste olatu batean historia honetan. Eta orduan, nolabait, horri buelta eman ahal zaio gatazkatsu bihurtu gabe euskararen eremua?] Nik uste dut ezetz. Kontua da gatazka nola ulertzen dugun eta nola praktikatzen dugun. Eta gure herrian, zoritxarrez, praktika oso txarrak egon dira jokatu dutenak euskararen aitzinaratzearen kontra, esango nuke. Eta horretaz ez dugu hitz egin nahi, baina horrek eragin handia izan du. Borroka armatuaz ari naiz. Eta egon den gatazka instituzional, kontrakultural... O sea, nik uste dut politikaren zentzu ederrenean eta gatazkaren zentzu errealean hitz egin behar dugula hizkuntzaz ari garenean. 5

Euskara eztabaidagai izateko beldur hori argumentarioan dauden hutsune batzuekin lotu da. Hau da, gizartea (kolektibo desberdinetan jarrita fokoa: euskaldunak, gazteak...) diskurtso eta argumentario aldetik ahul edo hankamotz ikusten dira euskararen egoerari buruz hausnartzerakoan, hizkuntz-eskubideak aldarrikatzerakoan, askatasunaren diskurtsoaren aurrean, euskara baztertzailea edo klasista izatearekin, edo bestelako hainbat eztabaida aurrera eramateko unean.

A: Niri oso gogorra egin zait ikasleei galdetzen diezunean: "Aber, goazen hitz egitera honetaz: zuek nola ikusten duzue euskararen hau? Noiz erabiltzen duzue, noiz ez, zergatik, norekin bai...?". Gaiaz hitz egiten hasten zarenean, beraiek oso ondo dakite erreproduzitzen guk entzun nahi duguna. Politikoki zuzenak izaten badakite. Baina benetan sartzen zarenean gaian, desarmatuta ikusten dituzu. Ez dira gauza perspektiba historikoa edukitzeko, zer izan den hizkuntza, nola landu den, beste gai batzuekin lotuta ikusteko... Ikuspegi politikoari dagokionez, eta politikoa diodana ez da alderdiekin lotutakoa, baizik eta herri perspektiba batetik, nik hor desarmatuta ikusten ditut. Eta hori bada baita ere lan baten ondorio. Esan nahi dut, eskoletatik hainbat gai atera egin dira kontsentsuaren izenean, aurrera egitearen izenean. Baina hizkuntz ideologia egunero dago gure bizitzetan. Eta lehen aipatzen genuenean errenuntzia eta hauek guztiak, nire ustez hizkuntz ideologiarena da gai bat oso erdiguneko beharko genukeena. Baina ez dugu horretaz hitz egin nahi.

B: Eztabaida sozialetik kanpo dago. Bai gazteekin... Arlo askotan ikusten dut eztabaida-sozialetik, oro har, kanpo dago gaur egunean. Eta, orduan, nola bueltatzen gara horretara? Non daude gakoak horretan bueltatu edo sortzeko, birsortzeko? 5

Gazteria desarmatuta daukagu diskurtso mailan. Askatasunaren diskurtso hori eta aukera librearena eta... Horrekin lan egin behar dugu. Desarmatuta daude gazteak. 5

Elkarrekin ari ziren espainol hutsean, hauek nahastuta ere ez zuten egiten hitz bat euskaraz. Eta, egia esan, nik neronek ere eguna hala moduzkoa edukiko nuen eta esan egin nien: "Zuek euskaldunak izango zarete ba?", eta bai. [...] Eta esan zidan batek: "Bai, aukera daukagu eta". Aukera daukagu. Eta esan nion: "Bai, aukera daukazue". Eta ez nion ekin gehiago, nahiko... Elkarren ondoan geunden eserita eta neurri batean horregatik esan nion, ze ez neukan batere gogorik Donostiatik ez dakit nik noraino etorri behar zuten, Hernaniraino, ondoan haiek tankera hartan entzuteko. "Aukera daukagu eta" esan zidaten. Ez nuen elkarrizketa gehiago segi, batetik buruan momentu horretan arrazoa ez neukalako, erantzun horren aurrean arrazoa ez neukalako ondo pentsatua; edo, besterik gabe, egoera gehiago ez nahasteko. 6

Eta gero dago diskurtsoa diskriminatzailea dela. Hau da, egoera diglosikoak hori ere badakar. "Euskararena diskriminatzailea da" [esaten dute batzuk]. Orduan kanpotik datorren etorkinari, hau da, etorri behar izan du, ez dakit zer, bestea... eta gainera eskainiko diozu Lanbide Heziketa, hau da, lanera sartzeko daukan aukera bakarra, gainera eskainiko diozu euskaraz, eta orduan ikasi behar du euskara... Ya, gaztelera ere ikasi behar du normalean [erantzuten du berak]. Baina gaztelera ikasteko ez dago arazorik, eta euskara ikasi behar duenez arazoak daude? 10

Eta eztabaida horretan ere eztabaida horretan ere euskara eta klasearen kontuan ere, iruditzen zait... gainera orain euskalduna izateagatik barkamenak eskatu behar, ez? Esan nahi dut, beno, zer da hau? Hau da, fokoa zer da? Euskarak dauka arazoa? Edo arazoa beste nonbaiten dago? Hau da, kokatu ditzagun gauzak behar diren moduan eta... Ez dakit, batzuetan ematen du hori, errua non jartzen dugun... Ematen du euskara dela erruduna. Orain artikulu pila bat argitaratzen ari dira ere hezkuntza legea dela eta, eta segregazioa eta euskarak zein leku okupatzen duen hor. Euskarazko ikatetxeak direla burgesen ikatetxeak... Beno, orain euskara izango da banatzailea. Orain arte egon gara ez dakit zer eta orain euskarak dauka horren errua. Hori ez da horrela, fokoa jarri behar da jarri behar den lekuan, eta segregazioa baldin badago ez da euskara dagoelako. Da beste hainbat faktore daudela. 10

Ez denbora inbertitu ez dudalako eta irakurri ez dudalako eta eztabaidatu ez dudalako, da nire barruan resolbitu gabe daukadan auzi potenteenetako bat klasea eta euskararena. Intuizioak esaten dit que qué. O sea, orain euskalduna izate hutsagatik klase ertain-altukoak garela edo, ez dakit, klase altuagoko jendea garela. Baina ikastolek, Altus motxilek eta beste gauza, eta irakaslegoak, eta... O sea, irakaslegoak como, esan nahi dut, edo funtzionariadoak, edo konbertsazio batzuk esaten didate zerbait badagoela hor. Baina ezin dut horren simple formulatu. Ez dakit. Orduan, da zerbait resolbitu gabe daukadana eta asko begiratzen diodana, ez? Bere horretan euskalduna klase altukoa dela esatea iruditzen zait txorrada bat, baina gero badaude nolakotasun batzuk hor gurutzatzen direnak eta uste dut oso denbora gutxian aldatu direnak, generazio bateko kontuan izan daitekeela. Euskararekin dago lotua zuzenean? Ez. Baina horren bueltan egon zen kontzientzia klase eta borroka eta... Ba bai. Tesi bat egin behar du norbaitek a todo esto, eta gero esango du. Nik ez daukat soluzioa. Baina bai. Bai. Eta auzo pobreak kastellanoz aritzen dira. Orduan, hor badago zerbait. 2

3.1.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Euskara biziberritzearen inguruko diskurtsoari dagokionez, jaso diren aurrera begirako proposamenak hiru atal nagusitan antolatu ditugu: norabide orokorrari buruzko gogoetak, diskurtsoarentzako ekarpen zehatzak eta erabil daitezkeen tresna / estrategiak.

Norabide orokorrari buruz, lehenengo gomendio edo hausnarketa da errealitatearen irakurketa errealistetatik abiatzea ezinbestekoa dela, dauden arazo eta mugak zintzoki identifikatu behar direla haien inguruan hitz egin eta heldu ahal izateko:

[Euskaigintzaren impasse-az] Badakit aterako garela, eh. Nik ez dut ikusten momentu honetan, baina badakit bide bat izan behar duela honek eta nonbaitetik atera behar duela. Baina kontziente izan behar dugu errealitate honetaz. Ze, batzuetan, iruditzen zait egiten ditugula, horrela, pixka bat, irakurketa batzuk oso... [Ahopean] Esaten duzu: "Bah, aber. Ez da errealitate esaten ari garen hau". Nik askotan botatzen dut faltan hori. O sea, "Eh. [Instituzio publikoekin] akordio bat daukagu, baina ez goaz aurrera". Hori esaten duzu eta ikusten duzu jendea urduri jartzen dela. Eta esaten duzu: "Aber, baina errealitatea ikusteko beldurrez egon behar dugu?". Gero igual ez dugu horrela esango. Nik ez dut esaten horrekin kanpaina bat egin behar dugunik. Baina errealitatea hau dela kontziente izango gara gutxienez? Es que ez baldin badugu ezagutzen errealitatea ez dugu aldatuko inoiz, eh. O sea, horri ezin zaio aurre egin. Eta hori gertatzen ari zaigu euskaigintzan. 1

Nik uste dut, zailtasunak daudela baita ere benetan gertatzen ari dena ikusteko. Plazebo asko daude euskararen bueltan. Ni kritikoa naiz, eh. Eta ez ditugu desberdintzen zeintzuk diren benetan eraginkorrak diren neurriak eta zeintzuk diren plazeboak. Eta uste dut plazeboen gaindosia oso handia dela. Eta klaro, horrek eskatzen digun ariketa oso jasoa da: ikustea egiten dugun guztiak ea baduen ondorio positiborik, zein den norabidea... Askoz ere modu konplexuagoan pentsatu behar dugu gai hauetaz, nire ustez. Eta beste gai batzuekin oso lotuta. [...] Eta gero, nik uste dut kritikotasuna ere sustatu egin behar dela. Kritikotasuna ondo ulertuta, eh, baina prozesuek daukaten konplexutasuna eta falaziak detektatu, pentsatzen... Hori sustatu behar da baita ere. Ez dakit zein den bidea, baina sarritan oso erraz lasaitzen gara. Eta autokritika egitea asko kostatzen zaigu, termino pertsonal eta kolektiboetan. Eta prest egon behar gara horretarako. Ze legitimitatea ere hor irabazten da, benetan zintzoa bazara eta esaten baduzu, edo prest bazaude beste norbaitek, apreziatzen duzun norbaitek, esateko: "jo, ba hau edo beste", ez? Eta hori inkorporatzeko gai. Orduan, diskurtsoetan ere nik uste dut hori, autokritikoak ere izan behar garela. Eta asko irabazten dela hori... Beti igual ezin da publikoa izan, baina egin behar da. Egin behar da. 5

Bigarren gogoeta diagnosian aipatutako puntu baten harira egin da: helburua, nora joan nahi den eta zer lortu nahi den, planteatzea funtsezkoa da. Ikuspegi hori argi izatea lehen urratsa da pausoak ematen hasi ahal izateko. Are gehiago, baloratu da udal maila batean egiteko bereziki oso ariketa interesgarria dela egoera ideala planteatzea eta horren arabera moldatzea politikak.

[Helburua zein den, nora jo nahi dugun] Nik uste dut hori derrigorrez planteatu behar dela. O sea, Jauralaritzak kasu honetan, datorren gobernuak, berdin dit. Baina... Aparte, herri ekimenak esan behar du: "Ez, gure helburua da Euskal Herriko hizkuntza, lan hizkuntza euskara izango da." Hernaniko Udalak erabaki duena, bai? Lan-hizkuntza euskara izango da Jauralaritzan. Baina ez Jauralaritzan bakarrik, gure apustua da Euskal Herriak euskaraz funtzionatzea. Euskal Herrian, nahi baldin bada, bakoitzak ezagutuko ditu hamar hizkuntza, berdin dit zenbat ezagutzen dituen; baina bizi eta funtzionatu, euskaraz egingo dugu. O sea, ezagutzaz "pluri" izango gara, baina funtzionamenduz "mono" izango gara, eskema bezala. [...] Funtzionamenduan, kontuz. Horrek ez duela esan nahi gero bakoitzak izatea ez dakit zenbat hizkuntzaren ezagutza. Baina funtzionamendua. Eta pixka bat, agian, mezu batetik... 1

Garrantzitsua ikusten dut ere ikuspegi unibertsal hori edukitzea, ez? Norberak ikuspegi unibertsal hori eduki behar du. Bueno, Euskal Herria euskalduna nahi duenak, klaro. Berdin bazaizu [barrez] ez duzu izango. Baina hori argi daukateneke uste dut, alde batetik, ikusi behar dute edo dugu nola izango litzateke? Zein da gure helburu unibertsala? Nora heldu nahi dugun, nahiz eta, bueno, 10, 40 edo 100 urte barru. Baina zein da helburua, ez? Eta nondik, zenbat agente dira eta nondik egin behar dugu presio politikoa, ekintzak eta abar, ez? Eta gero, uste dut gauza bat, pauso zehatzak asmatzea edo zehaztea, nire ustez ariketa oso ona izango litzateke benetan pentsatzea zein izango litzatekeen egoera ideala. Benetan nola izango litzateke guk benetan nahi dugun egoera? Eta hori da, adibidez, nik aipatu ditudan hainbat puntu. Adibidez, etorkinen harrera euskaraz egiten da? Enpresa guztietan euskara planak daude udal eremu horretan? Denda guztiek dute entrenatzaile bat pertsonak euskaraz entrenatzeko? Guraso guztiek laguntza jasotzen dute beste gurasoekin euskaraz aritu ahal izateko? Eta futbola euskaraz eskaintzen dugu eta ulertzen ez duenak formakuntza [?] jasotzen du. Eta abar, eta abar. Hainbat puntu daude. Baina benetan puntu eta eremu guzti-guzti horiek pentsatzea edo irudikatzea nola izango litzatekeen egoera ideala. Eta gero, irudi hori egitea eta pentsatzea: "Bale, hemen gaude, eta nola lor dezakegu...", ez non dagoen oztopoa, "bai baina horretarako ez dago dirua", edo "hori ezin da" edo "ez dira ados egongo", edo "ez dago konpetentzia, baizik eta Europakoa edo Estatukoa" edo... Baizik eta eremu bakoitzean pentsatu zein izango litzatekeen bidea, nola izango litzatekeen konfortazioa, agian, norekin: jendearekin, sistema juridikoarekin, politikarekin, legalki, eta abar. Eta gero konfrontazio hori, adibidez, aurrera eramateko modu konstruktibo batean, ez modu batean kamikaze denak kartzelara eta dirua galduta, baizik eta modu konstruktibo batean, nola egin ditzakegu aurrerapausoak? Eta uste dut hori oso ariketa ona izango litzateke udalaren aldetik emateko pausoak erabakitzeko eta asmatzeko. Eta, baita ere, pixka bat inpotentzia gainditzeko. Ez pentsatzeko: "Jo, hemen daukagu borondate ona, baina mundu guztia daukagu kontra. Eta, azken finean, beti gauza bera egiten dugu", baizik eta nola eman pausoak barrutik, poliki-poliki, kanpora. Edo poliki-poliki eragin gunea handitzen. Eta zentzu horretan, uste dut, hori izango litzateke udalak izango lukeen potentziala hori egiteko. 7

Helburuarekin bezala, **diskurtsoari buruz** ere adierazi da ezinbestekoa dela diskurtso edo mezua argia izatea, koherentea izatea eta homogeneitate bat edukitzea gunen desberdinetan (udala, herriarrak, beste instituzioak, herriko eragileak...).

Niretzat, euskararen normalizazioa da euskaraz... Bueno, orain Kontseiluan erabiltzen ari den termino bera erabiltzeko, euskaraz eroso bizitzeko aukera izatea. Puntu. Hori da normalizazioa. Seguraski "normalizazio" hitza erabili behar dute bakarrik soziolinguistek, hizkuntza politika egiten dutenek eta euskalgintzako erakundeak. Eta puntu. Bai? Eta gero esaten dugu "normalizazio" hitza esaten dugu... Atzo nik neuk esan nuen prentsaurreko batean. Eta esaten duzu, "aber". Que no. Aldamenekoak ez du ulertzen zer den "normalizazioa", eta ez duzu horrela hitz egin behar. Hitz egin behar duzu lehen hitz egin dugun termino horietan, ez? O sea, "Eh, euskaraz bizitzeko aukera izan behar dugu hemen eta horretara goaz. Guk nahi dugu lasaitasun osoz euskaraz bizi. Puntu." Hori da normalizazioa niretzat. Eta horrela esan beharko genuke, eta "normalizazio" hitza utzi profesionalentzat. Eta askotan... Hori askotan gertatzen zaigu, eh: nahasten ditugu diskurtsoak. Esaten ditugu, hontan ari ez den jendearen aurrean erabiltzen ditugu hitz batzuk... Zer esan nahi du? Kontenidoz bete ezazu hori, ze bestela "normalizazioa" esan eta... "Euskararen berreskurapena", bueno, gehixeago ulertu daiteke. Baina ez, ez, esan behar da "euskaraz bizitzeko"... Eta uste dut normalizazioaz hitz egiten denean, bueno, nik behintzat horrela irudikatzen dut. 1

Nik uste dut erdiguneko dauden diskurtsoak eta diskurtso hori ematen dabiltzan pertsonak garai batekoak direla. Eta noruntz eraman diskurtsoa? Ba hitz egiten ari garen gai hauekin lotuta: jarraituko dugu honekin merezi badu. Belaunaldi bakoitza autodefinitu behar da zentzu horretan, ez?

Behin diskurtsoaren gakoak finkatutakoan, publikoen arabera mezua emateko modua, terminologia eta hizkerak moldatu beharko direla ere ikusuten da. Xede-talde bakoitzaren arabera kodeak eta elementuak aldatu ahalko dira (atxikimendua lortzeko, identitate bat sortzeko...), baina mezua konstante mantenduz.

Nik uste dut gure begirada aldatu behar dugula. Gauza batzuek ya ez digute balio. Eta hori konstatatzen dugu, nik gazteekin nagoela, egunero. O sea, zoaz soziolinguistika ematera orain arte guretzat funtzionatu duten diskurtsoekin, eta ya ez dute funtzionatzen. Konturatzen zara. Eta zintzoak baldin bagara, prest egon behar gara baita ere gu geu aldatzeko, eta gauzak ikusteko modua aldatzeko. Nik uste dut, nik behintzat irakaskuntza hortik ulertzen dut, pixka bat arte bat bezala. Eta aurrean daukazuna ikusi egin behar duzu nor den. Eta batzuetan goaz euskalgintzatik betiko begiradekin, urteetan eraiki ditugunekin, balio jakin batzuekin... Baina dena aldatu da ya. Orduan, uste dut beste prozesu batean sartuta gaudela. 5

Erabileraren soluzioa erabileratik etorriko bada, eta noski eman behar direla baliabideak nahi duenarentzako eta abar, ez? Baina atxikimendu hori izan behar du ikusten duzunean inguruan funtzionatzen duen kodigo bat dela. Funtzionatzen badu kodigo horrek, ba zuk ere orduan erabili nahiko duzu eta nahiko duzu parte izan. Hortik intuitzen dut gehiago. Esan nahi dut, nik eskoletan lan egiten dut genero indarkeria, LGTBI, patatin, patatan ematen. Klaro, nik aspaldi ikusi nuen horra joan eta ez zela esplikatuko behar: "Beitu, L da lesbiana, G da gay...". Badakite. Nola lortuko dut atxikimendu bat jende horrena gai honekiko? Nola lortuko dut interesatzea? Jaitsi behar duzu beren errealitatera, ikusi zuk ere nondik hitz egiten duzun... Kodigoa hasi behar duzu konpartitzen. Eta hor izan daiteke euskaraz jardute hutsa gai honi buruz... O sea, ez dakit, ez? Joan behar duzu egokitzen. Ez da esplikatzea: "Ez duzue izan behar matxistak". Oso ondo. "Bale, baina zer pasatzen zaizue zuei zuen egunerokoan?". Eta hortik lortzen dugu, zer edo zer lortzen baldin badugu. Ez dakit hori lortzen dugun [barrez], baina... Hor ere ikusten da, gazteekin askotan esaten da: "Gazteak nola datozen, gazteak okerrago... Hemen eduki dugun ardurarekin, oraingo gazteei ez zaie inporta euskara". Bueno, guri ere ya esaten ziguten hori. Eta orain dela 50 urte ere bai. Orduan, igual problema ez dira gazteak baizik eta gazteei begira gauden besteok esaten nola izan beharko lukeen. Hoixe. Hori esan eta ezer ez esan, más o menos igual. 2

A: Nire esperientzian, café para todos asko daukagu eta berdin tratatzen ditugu profil desberdinak, eta gauza diferenteak behar dituzte. Eta, beharbada, badaukagu gazteria bat gehiago jasoko lukeena beste bide batzuetatik. Gehiago esan nahi dut, jo, ba benetan gai hauetan eraldatzaile jokatzeko, gatazka sortzeko kalean, bideratzeko harremanak eraikitzeke beste kolektibo batzuekin, harremanak sendoak, benetan elikatzen gaituztenak... Eta lagundu behar diegu hori egiten. Niri iruditzen zait motor horrek oso garrantzitsua izaten jarraitzen duela. Eta ez daukagula oso aktibo, oso erraz konformatzen garela eskolaren bitartez ezagutza datuak igotzearekin. Hori hutsala da, zati bat bakarrik da. Orduan, nik hori aldarrikatuko nuke. [...]

B: Zuk oso ondo esan duzu, café para todos eta listo. Baina horri ez zaio benetako beste eduki bat eman. Lehen esandakoaren bidetik ezta ere, ez da elikatu kulturgintzarekin, ez da sendotu balioekin, ez da lotu... Bueno, pues ingelesa irakastearen pare, ezta? 5

Diskurtsoari dagokionez, bertan erabiltzeko elementuei buruzko gogoetak ere jaso dira. Lehenengo hausnarketa bat euskara balio erantsi izatetik gizartearen oinarri izatera pasatzearen norabidean joan da. Ikuspegi kritikoa jaso da euskara "balio erantsi" moduan planteatzeari, ulertzen baita horrela planteatuz gero euskara hautu bat dela. Aldiz, gizarte guztia zipriztinduko duen eta zalantzan jarriko ez den oinarria izateak beharko lukeela helburu ulertzen da, eta ez dena hautu bat izango. "Euskararen zaletasuna versus gizarte euskalduna" klabea formulatu da elkarriketetan:

Nire abiapuntua izango litzateke euskararen zaletasuna versus gizarte euskalduna. Eta iruditzen zait akats bat dela euskararen diskurtsoan jendeari eskatzea euskararen alde egon behar zarela. Edo euskara da zerbait zure motibazio berezia eskatzen dena. Eta da pixka bat gai bat ia-ia aisialdi moduan kokatuta-edo. Bueno, bat da futbol zalea eta bestea da, ez dakit, dantza zalea, eta ez zerbait gizarte osoan oinarri bat dena. Eta nik uste dut zaletasun edo aldeotasunaren diskurtso horrek beti daukala muga bat, zeren inoiz ez duzu lortuko gizarte osoa gai baten alde egotea. Zeren horretarako, hori lortzeko, jendeak berdin pentsatu beharko luke [barrez] eta hori ez da izango, ez? Edo gai bati garrantzia berdina eman beharko luketela eta hori inoiz ez da izango, ez? Eta, orduan, ba hizkuntza bat, azken finean, da oinarri bat bizitzarako, ez? Eta bizitza hainbat arlotan. Eta horregatik uste dut birplanteatu beharko litzateke diskurtso osoa beste leku bat emateko euskarari gizartearen bizitzan. [...] Ez hainbeste diskurtso, eztabaida, motibazio, eskatzea, sedukzioa... gabe; baizik eta jendea nekatu gabe [azpimarratu egiten du], zeren hori ere nekea da, beti eskatzea: "Ez, baina euskara oso garrantzitsua da eta euskaraz hemen eta euskaraz beste, eta abar...", baizik eta, ez egin pelmada jendeari [barrez] "zuk euskaraz egin behar duzu edo euskararen alde egon behar duzu", baizik eta eskaintzen dugu euskara eta eskatzen dugu euskara hemen gizartearen parte handi baten hizkuntza delako, hizkuntza ofiziala-koofiziala delako, eta horregatik ezagutza unibertsala izan behar da, gutxienez gaztelaniaren parean, eta bueno, aurrera begira euskararen gizarte hizkuntza edo kohesio hizkuntza edo bizitza publikoaren hizkuntza beste hizkuntzak baztertu gabe. Baina hara iristeko egun batean, gizartea euskaraz bizitzeko. 7

Horrekin lotuta, eta gizarte guztiaren oinarri izango den elementua izatearekin bat etorritik, diskurtsoak unibertsala eta barneratzailea izan behar duela argi ikusten da. Hau da, euskara ez bada hautu bat, ezin da sektore baten edo euskaltzaleen gaia bakarrik izan; eta, era berean, bizimodu desberdinak barne hartuko dituen proposamena behar du izan. Alde horretatik, bestelako kolektiboak ere (erdaldunak, ikuspegi desberdinetako pertsonak...) inplikatu eta interpelatzeko garrantzitsua da. Ikuspegia edo planteamendua ere enfoke barneratzailetik egin behar da:

Kontua da hizkuntza eskubide horiek ez erabiltzea norberaren estatusa biktima bezala [barrez] azaltzea edo transmititzea, baizik eta zerbait non gizarte osoa inplikatzeko den eta gizarte osoaren erronka den. Eta hizkuntza eskubideak ez da besteari kontra, baizik eta izan behar da zerbait besteekin batera edo erdaldunekin batera. [...] Ez da "orain, guk, euskaldunak, ixten ditugu hemen lerroak eta borrokatzen dugu mundu osoaren kontra", baizik eta nortasunarekin eta harrotasunarekin eskaintzea bi hizkuntzen ezagutza unibertsala. Baina ezagutza komunikatiboa, edo ez akademikoki ez dakit zein goi mailaraino, baizik eta komunikazio gaitasuna bi hizkuntzetan guztientzat modu barneratzailean. Inork ez du bere etxean euskaraz [egin beharrik] hitz egin nahi ez duenak, edo gaztelaniaz bizi nahi duenak ahal du gaztelaniaz bizi. Baina gizartearen hizkuntza euskara da eta euskaraz bizi nahi duenak ere euskaraz bizi ahal du. Eta, orduan, zentzu horretan, ahal da hori ere elikatu halako, ez dakit, lelo modernoekin. Adibidez: Excellence in Basque Living. Esan nahi du, bada bai hizkuntzak ikasteko moduan, edo orokorrean ikas moduan edo hizkuntzen elkarbizitza aniztasunean eta abar, badaude diskurtsoak munduan zehar edo aurrerapausoak ikaskuntza akademikotik alde egiten dutenak eta hizkuntzaren edo kulturen elkar ulertzea edo elkarbizitza babesten edo lantzen dutenak oso progresoarekin lotuta daudenak, bai? Progreso ekonomikoan edo progreso globalean... Eta hori zaleentzako gai bat bezala aurkeztea... Ahal da hori aurkeztu gizarte osoarentzako gaia. Eta Basque Excellence Cheese eta Basque Excellence gastronomikoa eta abarrekoak igual pixka bat atzean utzi eta hori lehenengo lerroan jarri: gure gizartean hori egiten dugu, hizkuntzak landu eta gure hizkuntza lasai eta harrotasunez edo nortasunez erabiltzen dugu eta eskaintzen diegu gure herritar guztiei. 7

Ikuspegi integratzailea behar dugu. Esan nahi dut, jendea onartua sentitu behar da. Profil diferentetako gazteak. Eta aitortua sentitu behar da. Jende askorentzat, Barakaldon bizi den gazte batentzat, bere errealitatea da euskara dela eskolako hizkuntza. Punto. Punto. 5

Hori bai da nik uste dut diskurtsoan landu daitekeen kontu bat: euskara dela integratzeko osagaia. Euskara da hemen jendeak elkarrekin, Euskal Herrian jendeak elkarrekin daukan gauza amankomuna

edo berdina edo partekatzen duena. Eta hori nik, garbi, horrela ikusten dut. Eta berdin dio nongo jatorria daukan pertsona batek edo zein azal kolore daukan edo beste edozer gauza, euskalduna baldin bada. Euskalduna da euskara duena, esan nahi da. Eta nik, hor, lehen esan dudana ikuspuntu eta arrazoi afektibo horretatik baita ere gu egiten gaituena. Baina ez da soilik afektiboa, baizik eta da praktikoa ere bai. Ze da elkarte eta gizarte baten parte da euskaraz egiten duena. Eta euskal hizkuntzaren bidez harremantzen den hori. Edo, behintzat, horretarako gauza dena. Eta hori berdin izan daiteke magrehtar bat edo eslaviar bat edo, ez dakit, Saharaz beheko bat. Berdin. [...] Euskaraz ez dakien bati euskaraz eginda mesede besterik ez diogu egiten. Horren kontzientzia ere hartu beharra dago. Zergatik? Batetik, pertsona horrek kontzientzia hartzen du hemen euskara dagoela, ikusten du euskara dagoela, ikusten du euskarak garrantzia daukala eta gainera, jarrera onez egiten baldin badiogu ari zatzaizkio azaltzen euskaraz gauza sinple batzuk gogoan hartu dituenak, edo ez. Baina agian euskararen bidea egiten du. Orduan, nahi baldin badu, hori ikasi egingo du, eta ez baldin badu ikasi nahi jakin gabe segiko du. Baina ikasteko bidea jartzen diozu. Integratzeko laguntza bat ematen diozu eta gaur egunean hemen lagungarria izan daitekeen baliabide bat ematen diozu. Orduan, ez dakien bati euskaraz egiteak mesede besterik ez dio egiten. Eta bestaldera, ez dakien bati euskaraz ez egiteak kalte egiten dio ze ez de euskararen kontzientziarik hartzen, berez ez du ikasiko. 6

Formula eta metafora desberdinak erabili diren arren, nahiko ohikoa izan da aurrera begirako helburu moduan euskara espazio publikoan zentraltasuna duen hizkuntza moduan irudikatzea. Norabide horretan, hizkuntzen ekosistemaren irudia aipatu da erreferentzia moduan:

Burura zetorkidan kontua zen hor dagoen kontzeptu bat: hizkuntzen ekosistemarena edo den kontu hori. Nola, azkenean, hizkuntzak ere, izaki bizidunak bezala, ekosistema batean dauden eta hor elkarrekin bizi daitezkeen. Eta ez zait zeharo aldrebesa iruditzen. Baina bai iruditzen zait, horretan ere, Euskal Herrian gauden neurrian, Euskal Herrian, nolabait esateko, espezie nagusia euskarak izan behar duela. Orduan, nik ikusten dudana planteamenduan izan behar du: ekosistema batean gaude, hainbat hizkuntza dauzkagu inguruan -ez bakarrik espainola, bistan denez- eta horiek kontuan hartzekoak dira nik uste eta egokia da eta, gainera, horrek gizartearen kohesioan laguntzen du. Onartzea besteak hor daudela eta horiek ere hor zeratzea. Baina guzti horien artean, hemen, nagusi izan behar duena euskara dela eta, orduan, hemengo berezko hizkuntza euskara den neurrian, berak izan behar duela nagusi. [...] Nik uste dut pentsatu behar dela baita ere iraunkortasunari begiratuta, euskarak izan behar duela nagusi. Besteen tartean, baina nagusi. [...] Nik ez dut esaten lehen, garai batean, euskararekin egin nahi izan zen bezala, besteak kendu behar direnik. Esan dudana, ekosistema bat, besteak ere bai; eta, gainera, nik uste administrazio publikoak ere beste hizkuntza horiekiko kontzientzia eta harrera ona eta baliabideak izatea egokia ikusten dut. Baina, guzti horien tartean, euskara nagusi. 6

Diskurtsoari lotutako ekarpenez gain, aurrera begira indartzeko interesgarriak izan daitezkeen **tresna, baliabide eta estrategia batzuei** buruzko ekarpenak ere jaso dira. Atal honetan jasotzen ditugu: makarrismoa, plano emozionala eta ongizatea, ahalduntzea, identitatearen lanketa, sistematizazioa, erraztasun eta zailtasun errealeen eskema eta feminismoaren eredua.

Lehenengo eta behin, baloratu da euskararen sustapena kalekotzea falta dela, makarrada pixka bat eta azken urteetan bizi ahal izan den instituzionalizazioaz gaindi beste eremu batzuetan ere eragitea (honetaz gehiago euskararen aldeko mugimendu sozialaren atalean):

Uste dut txantxangorri, Euskaraldi eta aparatu horiek instituzioei dagozkien gauzak direla, eta fenomenoko ederki eta hori da egin beharko dutena. Baina hor makarrada pixkat behar dugunean hori esaten dut, politizazio hori. Horregatik galdetu jendeari: "Zergatik egiten duzu euskaraz, eta zergatik egin beharko litzateke?", ez? Eta nik uste dut, ez dakit, euskaraz egitea makarrada bat da herri honetan. O sea, zuk pentsatzen baldin baduzu hotzean, euskaraz bizitzea makarrada bat da. Ez eskolan eta ez dakit zer. Zuk egitea zure eguneroko bat euskara hutsean, pentsatzen baldin

baduzu ondo, ez? Eta nik uste dut... Makarrada ulertzen didazue, zentzu onean esaten dut, eh. Kristoren puntu subertsiboa dauka, kristoren "bestearen" ideia baina potente hori, ez? Ez dut "subalterno" hitza erabili nahi, baina badauka kristoren potentziala. Eta hor ikusi behar zaio. Klaro, jendearentzako igual ez da guaia izatea supermakarra. Ez dakit. Baina nik uste dut hor ikusi behar dela, atxikimendu horretatik. Eta Katalunian ere badaude hainbat eredu, ez dakit, puntu irreberente horretatik. Orain dela gutxi ikusi nuen kamiseta bat atera zutela katalanek, eta katalanez jartzen du: "Perdona per parlar en català a Catalunya". O sea, hor zen, ez? Eta esan zuen batek: "Joe, hau euskaraz?". Eta egin dute kamiseta bat: "Barkatu Euskal Herrian euskaraz aritzeagatik". Eta da gainera horrela, tipo Whatsappeko emotikono hori-edo. Horrelako zerbait, ez? Eta, joder, o sea, pues eso es guay. Horrek, esan nahi dut, igual gazte batek esan dezake "Hostia". Ez dakit, ez? Más que "zaindu altxorra" eta motxila hori. [...] Uste dut beste puntu irreberente hori euskalgintzan potentea izan daitekeela eta gazte asko sar daitezkeela hortik potenteago, ez? [...] Bai, bai, kalea behar du. Eta makarrada. Bai, joder. Bai, ze askotan nik uste dut hor daukagula el punto ese de aguafiestas hori, ez? Eta daukaguna hori feminista bezala, o sea, joaten garen edozein lekutan. Eta euskaldun bezala ere bai. "Igual hemen euskaraz hitz egin behar dut?". Ez, ez, es que oraindik ez dakiguna da joan eta euskaraz egiten y a tomar por saco, asanblada bat dagoenean. Eta ez dut emango esplikaziorik. "Ah, zuk esplikazio bat eman didazu zergatik ari zaren kastellanoz? Ba nik ez dizut emango". Hor daude gauza pila bat, horiek modu egokian trasladatuta, jende askok egin dezakeena: "Es que egia da!". Ez dakidala nola, eh, baina... 2

Presio sozial handiagoa behar da. Baina presio sozial... Klaro, ez dakit modu siziliarrean, ezta? Aita Jauna pelikula estiloan. Edo bai. Nik ez daukat garbi, momentu honetan, ez ote dugun koertzitiboago jarri behar. O sea, aber, lehen aipatu ditut Ertzaintza, Osakidetza y la hostia. O sea, aber, Gernikako Estatutuak 40 urte egiten ditu. Ni han egon nintzen lehen bozketan, ulertzen? Bale. Berrogei urte pasa dira! Eta ni gaztea nintzenean, orduan mito bat zen frankismoaren gau luzea, ezta? Berrogei urtekoa ere, orduan. Eta hura zen izugarria, frankismoaren gau luzea, berrogei urtekoa y la hostia. Bueno, ba nik ya pasatu ditut beste berrogei urte, Gernikako Estatutuaren berrogei urteak, ezta? Orduan, bukatu da. Niretzat, bromak, bukatu dira. Niretzat. Orduan, aber, ez. Aber. Berrogei urte izan dituzue, edo izan ditugu, izan ditugu berrogei urte zerbait egiteko. Eta egin duguna, pues barkatu, pues da Osakidetza, Ertzaintza eta abar, eta abar. [...] Orduan, nik ya, niri pazientzia bukatu zait. Gauza batzuekiko pazientzia bukatu zait. [Osakidetzan] ez da posible euskaldunon eskubideak modu hain inpunean txuleatzea! Ez da posible! Ez da posible. Berrogei urteren ondoren, ez [barrez]. Izan balitz duela bost urte hasi ginela, duela hamar urte hasi ginela, bale, pues en fin, gauzei denbora bat eman behar zaie y la hostia. Baina mediku horiek ni baino gazteagoak dira denak! Ulertzen? Eta, hala ere, txuleatzen naute euskaldun bezala. Eta administrazioak ez du ezer egiten. Orduan, niri pazientzia bukatu zait. Bukatu zait. Eta, orduan zer? Ba nik ez daukat problemarik abizena aldatzeko eta Corleone abizena hartzeko. Eta egingo dizut proposamen bat errefusatu ezingo duzuna: gehien maite duzun zaldiaren burua azalduko da zure ohean esnatzen zaren hurrengo egunean. 3

Bigarren gogoeta bat euskararen eta, oro har, hizkuntzen sustapena egiteko ikuspegiarekin lotuta dago. Baloratu da euskararen sustapenean, azken urteetan, indar hartu duela ikuspegi zientifiko, tekniko eta profesionalak, eta, elkarriketatuen hitzetan, "hizkuntzaren pelikula ez da hori". Ikuspegi horri bestelako norabide bat gehitu beharra edo horrekin batera beste ildo batzuk jorratu beharra sumatzen da, gehiago lotuak emozioekin, balioekin, identitatearekin, herritarren beharrekin, ongizatearekin eta gizarte proiektu batekin.

Ni oso kezkatuta nago euskararen kosifikazioarekin. Kudeaketa ereduarekin, pentsatzea teknikoki gauzak ondo eginda gauzak aurrera joango direla, batzuetan zientziaz hitz egiten da... Nire ustez hizkuntzaren pelikula beste bat da, botere-harremanetan gauzatzen dena eta gizarte-aldaketek esplikatzen dutena. Jendeak zentzu bat topatu behar dio euskararen alde egoteari, bestela ez dauka zentzurik. Bereziki kanpotik etorri zaizkigun pertsona horiek, lehenago ere errenuntzia egin duten pertsona horiek... Guk gure ikasleekin gai hau eramaten dugu. Ez diegu esaten zer pentsatu behar duten edo nola egin behar duten. Esaten dugu: zuk nola ikusten duzu hau? Eta nik uste dut hortik, eraiki behar dugun berri hori, eraikitzekotan, hortik egin behar dugula. Askoz ere gehiago

jendearekin egon, harremandu, entzun, balioekin lotu... Gizarte proiektu batekin lotuta egon behar du euskararenak, bestela hutsal bihurtzen da eta zentzua galtzen du. Nik uste dut gure gizartean jende askorentzat ya zentzua galdu duela. Etorri dira beste, ba feminismoa etorri da, edo orain gazteen artean berriz ere marxismoa enegarren aldiz. En fin. 5

Jende askok ez du behar euskara. Orduan, beharrik ez baldin baduzu sortzen, pues oso politizatu-ideologizatua egon behar duzu etorri eta behar ez duzun zerbait... Askorentzat izango da rusoa ikastea bezala. "Nik zertarako behar dut hemen", ez? Orduan, beharra sortu beharko da, eta behar horiek izan beharko dute interes horiei tiraka, beraien, pertsona horiek izan ditzazketen interes batzuen bueltan. Eta horren bueltan espazio komunak edo punto komunak topatuz. [...] O sea, hortik ikusiko nuke: beharrak, behar horiek identifikatu, horietara inguratu eta horietan euskararen kudeaketaren gaia mahaigaineratzen joan. Eta errealitate bat bilakatu. 2

Herri bat gauza horien bitartez eraikitzen da: zaintza sareak, harremanen kalitatea, errekonozimenduak... azkenean hori da jokoan dagoena euskararekin ere. Bestela zertarako behar dugu euskara, ez bada horretarako? Egin diezaiozun baita ere gure buruari galdera hori, ez? Zertarako behar dugu ez bada hobeto bizitzeko, humanizatzeko konpartitzen dugun denbora eta espazio hau...? Oso oinarritzko galdera filosofikoak dira, baina nik uste dut horiek ere egin behar ditugula, ez? 5

A: Identitateen kontua, zer-nolako identitateak garatzen dituzte gazteek? Baina zer-nolako identitateak garatu zituzten gure aurrekoek eta guk, tarteko beste belaunaldi honek ere garatu ditugunak. Pixka bat nolabaiteko kate-begia ez moztea, ez etetea. Orduan, hortxe igual asmatu beharko genuke baita ere. Nik uste dut hori ere falta zaigula. [...] Justu gure aldagai honek behar duena hori da: da humanizatu, harremana, ze sare sozialetan baldin badaude da bilatzen dutelako harremana. Eta hori da gazte belaunaldi honek erakutsi digun gauza bat, zein prest dauden harremantzeko beste jendearekin, ezagutzeko, ikusteko, obserbatzeko, voyeurrak izateko... Hor dago indar bat, lapiko bat izugarria dena. Nola egiten dugu hori, hor sortzen dena, lotzeko euskararekin, herritartasun batekin, kultur ondare batekin...? Nola egiten dugu? Ze beraiek oso prest daude ikasteko, eh. Asko interesatzen zaie. Asko interesatzen zaie. [...] Jendeak euskararen aldeko apustua egiten jarraituko du merezi badio. Eta zer dago "merezi izan" horren atzean? Ba gauza asko. Orduan, jendearekin eraiki behar da hori, beste...[...] Argi dagoena da hautu bat dagoela horren atzean. Hori atmosferikoki ez dela gertatzen. Gure baldintzetan, behintzat. Orduan, hautuaren atzean zer dago? Eta nola elikatzen dugu hautua kolektibo diferenteekin? Haurrekin, gazteekin, kanpotarrekin, emakumeekin, gizonekin, kulturgileekin... 5

[Komunitate eta harreman-sare denso bat izatearen eta harreman berrien arteko tentsioaz] Esaten da tentsio bat sortzen dela baina baita ere komunitario eta gertuko horren beharra ere azaleratzen duela. Orduan, beste tentsio mota batera goaz, ez? Beste egoera batera. Eta igual hori da tokatzen zaiguna: bien indarguneak edo tentsioak ekar ditzazkeen indarguneak politika publiko bihurtzea, ez? Baina egia da ere taldetasun bat ere behar dugula pertsonok. Eta hori gure esperientzietan ikusten da: talde berri batera goaz eta segituan sortzen dugu gure azpitaldea babeserako. Eta gero igual hortik, indar horretatik edo osasun horretatik goaz beste baten bila. Baina hori ere oso beharrezkoa da gizakiarentzat. Bai. Nik uste dut gai hauetaz gehiago pentsatu behar dugula. Eta modu interdiziplinarrean, arlo diferenteetako pertsonok elkarrekin pentsatuz. Baina hemen badago hezurra, badago zerbait. 5

"Osasun" terminoa ere ez da atera asko, baina nik uste dut dela klabeetako bat. Nola lotzen dugun euskara osasunarekin, osasuntsu egotearekin. Dolor de llengua, gogoratzen zara? Zein min daukan euskaldunak hizkuntza dela-eta. Hori da alderdi bat. Baina baita ere zerk egiten digu osasuntsu bizitzea? Eta hizkuntzak zein rol jokatzen duen horretan, ezta? Osasunaren ideia, gizarte osasuntsu bat... Geruza asko dauzka. Osasunarena... Naturarekin bat egin, datorren kataklismo ekologiko horri aurre egiteko ere nola prestatzen garen. [...] Hor dago ezagutza arlo oso interesante bat baita ere, hori guztiarekin lotuta. Eta sormenarekin lotuta dago baita ere. Nola sentitzen garen, dugun bestea, dugun gizartea, zein begirada mota daukagun gaiekiko... Hor ere daude sormenarekin lotutako aukera oso ederrak hizkuntz politika osasuntsu baterako. 5

Identitatea lantzearen garrantziari lotuta, hausnarketa zertxobait harago eraman da, eta hizkuntza ikasteko dauden motibazioen inguruan hitz egin da. Baloratu da edozein motibazio dela zilegi euskarara gerturatzeko, denak ezagutu eta landu beharko direla, eta kolektibo bakoitzarengana iristeko beren interes propioak erabili. Baina, aldi berean, behin euskarara gerturatutakoan, kontzientzia bat eta motibazio identitario bat ere landu beharra ikusten da; bestela, hautua hankamotz gelditzeko arriskua sumatzen delako.

Nik uste, igual, ez dakit, nik uste dut hutsune handi bat badaukagula: ez dakigula ondo nola eutsi, ez? Ezagutzaren... Bai, helduen ezagutza hori, baina ezagutza horretan zer heldu eta nola erakarri jende hori euskalduntze prozesura, ez? Horregatik bueno, gero eta gehiago euskaltegieta baina, askotan da lan-munduaren bidez edo. Esan nahi dut, pertsona bat bere kabuz ez bada euskaltegiara hurbildu, agian bere lana, bere lan zeraren bidez euskaldundu edo motibazio hori-edo landu daiteke, ez? Baina hor badago tipologia bat dela oso... Esaten da motibazio instrumentala, ez? Helburu bat daukana. Titulu bat nahi dut edo lan hau lortu nahi dut eta euskara ikasten dut zerbaitetarako, ez euskara tresna izatea nire kultura aberasteko, nire bizimodua, nire zea aberasteko. Eta bestea da motibazio emozionala edo izendatzen den hortan. Hori da, pixka bat, bueno, ba ez dagoena. Eta jende berria hurbiltzen denean da migrazioarekin-eta lotutakoa. 4

Niri iruditzen zait jendea erakartzeko garaian edozein motibaziok balio duela. Esan nahi dut, ni motibatu naiteke euskara ikastera maiteminduta nagoelako eta horrekin ligatu nahi dudalako, eta, en fin, hori izan daiteke nire motibazioa. Beste batena izango da lana eta beste batena identitatea izango da, nahi dena. Baina behin motibazio hori lortu baldin badugu, oso argi daukadana da motibazio identitario esango genukeen bat landu behar dela. O sea, euskaltegiek ezin dute mugatu bakarrik eskolako klaseak ematera. Eta "Ni X naiz" ikastera besterik gabe. Horrekin batera kultura bat eta hizkuntza baten inguruko zera guzti bat egon behar du, heziketa bat egon behar du horrekin batera. Ez da bakarrik hizkuntza ezagutzea; heziketa batekin lotuta egon behar du. Iruditzen zait gurea bezalako hizkuntza batean, eta are gehiago gaur egungo mundu globalizatu honetan, kontzientziatik ez baldin bada, oso zaila dela euskarari eustea. Hautu kontziente bat izan behar du euskararena, beti. Hemendik 50 urtetara, lehen esaten nuena lortzen badugu, mundu guztiak euskaraz badaki eta badago horrelako euskaraz hitz egiteko ohitura bat eta... Igual orduan. Baina iruditzen zait gaur egun munduak daraman bidearekin, hori ere bai. Seguraski, gainera, urte gutxitan ez bakarrik euskarak, o sea, arazo bera eduki dezakete italianoak, frantsesak eta espainolak ere. [...] Eta nola egin behar dugu? Pues ahalik eta... Pixka bat fiktizioa baldin bada ere askotan, ahalik eta eskaintza eta aukera gehiago izanik euskaraz egiteko. Eta naturaltasuna emanez zera horretan. Eta uste dut hor dela, pixka bat, Hernaniko Udaletxean lortu den arnasgune edo euskaraz funtzionatzeko gune hori bezala, hori lortu behar dugu herriko leku guztietara eramatea. Izan behar du kirolguneetan, izan behar du enpresetan, izan behar du kuadrillettera, etxeetara... Lortu behar dugu horrekin, ez? Uste dut hor daukagula, nik hor jarriko nuke indarra. 1

Nik gazteak ikusten ditut, adibidez, nortasunari dagokionez, gehienek esango dizute beraiek euskaldunak direla. Identitateari dagokionez. Hori, nire ikaslegoan behintzat, gehiengo hori dago. Egongo dira batzuk ez daudenak hor, baina oso gutxi dira. Hori ez dute hainbeste binkulatzen hizkuntzarekin. Eta gero falta zaie horri edukia ematea, perspektiba historiko hori, edo bueno, historiaz haratagokoa ere badena, eh. Baina ezagutu non bizi zaren, nolakoak diren bizi zaren lekuko pertsonak... Daukatenez jaso dute etxetik. Eskolak hori ez die eman. Oso eskola gutxitan lantzen dira gai hauek ondo. Orduan, nik uste dut hor daukagula apustu sendo bat irakaskuntzan egin behar dena. 5

Euskara ikastera gerturatzen direnak alde batera utzita, euskaldunen kolektiboari begirako lanketa bat ere funtsezkoa ikusi da: hain justu, ahalduntze ariketa bat edota euskararen inguruan posizionamendu eta jarrera bat edukitzeko argumentarioa, diskurtsoa, ideiak eta oinarria lantzea.

Oraindik ere kezka bizi dugu edo iruditzen zaigu, en fin, baztertzen ari garela. Gu geu gara pentsatzen ari garenak baztertzen ari garela. Horregatik kokildu egiten gara diskurtso horiek daudenean, ez? Daudenean "euskara baztertzalea da" bezalako diskurtsoak kokildu egiten gara. Ze barru-barruan sinestu egiten dugu. Horregatik horrela jokatzek dugu, sinestu dugulako horretan, ez dugu egiten. Orduan, ahalduntzea derrigorrezkoa da. 1

Nik uste dut ahalduntze kolektibo bat egon behar duela, beldurrik ez esateko zergatik nahi dugun eta zergatik daukagun deretxoa euskaraz hitz egiteko eta zergatikan den garrantzitsua kolektiboki eta norberarentzat, eta identitarioki, eta zergatik ez nazio ikuspegi batetik -ze ematen du orain dela hizkuntzek ez daukatela ideologiarik eta ez datozela inondik-, o sea, uste dut beldurra kendu behar zaiola esatea zergatik nahi dugun euskaraz egin. Eta batek nahiko du Anbotoko Mari gogorarazten diolako. Ba oso ondo iruditzen zait erromantizazio hori. Baina nik politizazioa, exigentzia, beldurrik gabe egingo nuke. Eta gero, batez ere esan dudana: ahalduntze kolektiboak uste dut daukala indar potente bat. "Euskaraz bizi nahi dut" kanpaina bera ere nire ustez momentu batean zen: begiratu zer eskatzen ari garen. O sea, esaten duzula, "ostra". 2

Azkenean presio sartze horretan euskaldun hiztunok presioa sartu dezakegu, baina horretarako kontzientziatu eta ahaldundu egin behar dugu. Presioa sartzeko gogo baldin badaukazu ahalegin bat eskatzen du, eta ohitu arte... Eta ohituta ere ahalegina eskatzen du baina ohitu arte behintzat hori sekulako zailtasuna da. Eta horretarako lehenengo egin behar duzu kontzientzia hartu, pentsatu hori egin nahi duzula edo pentsatu "zer arrazoi daukat nik ibiltzea euskarari eusteko aurreko espainolez ari zaidanean?". 6

Beti da beste gauza bat ateratzen dena hitz egiten dugunean transmisioaren inguruan: "zuek zenbat uste duzue, zenbat euskaldun daude gela honetan?" Eta ba beraiek batzuk euskaldun... Beraiek dute kontzeptua: euskalduna berdin euskalzalea. Orduan "ni... ez naiz euskalduna". Nola ez zarela euskalduna? Zuk badakizu euskaraz hitz egiten? Bai, orduan euskalduna zara. "Baina nik ez dut erabiltzen". Hori da beste gauza bat, baina euskalduna bazara. Orduan soziolinguistikako kontzeptu batzuk ere nik uste inportantea dela beraierengan jartzea, ze batzuetan ikusten dute bere burua direna baino askoz ere gutxiago. Batez ere horiek, eh, [euskara erabilera ohiturarik ez dutenak], eta orduan horiek nik uste dut erakarri behar ditugu. Horiek ekarri egin behar ditugu. Igual ekarri nahiko dituzu hogeia baina ekarri dituzu bost, ba bost ekarri dituzula zure ingurura. Orduan nik uste dut hori soziolinguistika-eta lantzerakoan kontzeptu batzuk behar direla, jakiteko non dauden. 8

Ahalduntze ariketa horretarako gakoetako bat memoria historikoa berreskuratu eta belaunaldi desberdinen arteko harremanak sustatzeko dagoela aipatu da.

A: Nik uste dut askoz ere erdigunekoago bihurtu beharko litzatekeela Euskal Herriak eduki duen ibilbidea. Genozidio bat bizi izan dugu. Eta horretaz orain ezin da hitz egin, gaudelako apustua egiten inklusioaren alde, instituzioak, normaltasuna... Bai? Hor gaude, baina nondik gatoz? O sea, zer izan zen XX. mendea? Hori nik uste dut oso erdiguneko bihurtu behar dugula, kokatzen gaituelako munduan baita ere herritar bezala. Baina egin behar da irakurketa gaurtik baita ere. Ez antzinako... 60. eta 70. ya joan da. Joan da. Baina perspektiba historiko hori nik uste dut indartu behar dugula diskurtsoetan. Ez biktimismotik, hori ez da interesatea; baina bai esperientziatik. Eta, zentzu horretan, gure zaharrekin lan egitea ere plazer handi bat da, ze beraiek asko daukate kontatzeko. Beraiek dira historia bizia. Jo, ba hori ere kontuan hartu beharko genuke hizkuntz politikan, eta prestigioa baita ere egin dituzten apustuak eta hori, harremanetan jarri belaunaldi diferenteak...

B: Genozidioa esan duzu, nik esango nuke oraindik ere su moteleko genozidio bat daukagula. Eta horretaz ere ez gara hain-hain kontziente. Nik uste dut hor kontzientzia pixka bat jarri beharko genukeela eta horri begiratu. Ze pasatzen uzten ditugu gauza asko esaten duzuna "baina, baina, baina", ez? Ze ez gara konturatzen benetan norainoko mina egiten duten gauza askok. Belaunaldien arteko harremana, uste dut hori ere ez diogula ematen behar besteko baliorik. Eta hori uste dut garrantzitsua dela. Entzuten jakin zaharrei eta gazteei baita ere. Gazte gizajoak, joe, ba orain egun hauetan "eta gazteak, eta gazteak, eta gazteak". Gaitzesteko, zigortzeko... Aber. Hor ere hizkuntza

sartzen da, eh. Hori alde batetik, eta gero ya sasoi batetik aurrerakoa baldin bazara eta, bueno, emakumea bazara, ba ya balioa galtzen duzu. Jo, ba justu berreskuratu dezagun. 5

Aurrera begirako estrategien artean, beste gogoeta bat sistematizazioaren norabidean joan da, bai dagoeneko egin diren eta emaitza positiboa izan duten jardueren kasuan, eta baita euskara sistematikoki gizarteko esparru eta espazio guztietan presente egon dadin ere.

Gure [elkartearen] jarduera da ikastaroak ematen, ez? Ikastaroak, segun: bi astez, hiru hilabete edo herri batek edo Foru Aldundiek edo beste erakundeek kontratatu diguten moduan. Baina beti ziren ikastaro salbuespenak edo, esateko. Ez da eguneroko bizitzan zerbait egiten dena, baizik eta parte hartzen duzu, hori, ikastaro batean eta gero jarraitzen duzu berriro zure bizitzarekin pentsatuz hor ikasi duzuna erabiliko duzula. Eta hor hainbat eremutan oso garrantzitsua izango litzateke eskaintzen dena edo egiten dena orokorrean edo beti eskaintzea. Eta bai irakaskuntza informalean, gurean bezala, jendeak bolondres moduan izena ematen du eta parte hartzen du; baina gero badaude beste eremuak lehen ere aipatu nituenak, adibidez Helduen Hezkuntza Iraunkorra, gero Lanbide Heziketa; edo baita ere aisialdi jarduerak edo ekintzak, ez dakit, futbola, gimnasia eta abar... Non lortu behar den euskara beti presente izateko, beti leku bat izateko. Jarduera bat gaztelaniaz ez izatea, eta beti hausnartzea, gaztelaniaz bada, zuk ukatzen dizkiezu hor parte hartzen duten euskaldunei beraien hizkuntza eskubideak. Edo, adibidez, etorkina baldin bazara, bakarrik gaztelaniaz ikasten baldin baduzu zerbait, egun batean hori erabiltzen baduzu, adibidez ostalaritzan egiten baduzu ikastaro bat edo formazio modulu bat, egun batean lanean ez badakizu euskaraz, zuk behartzen duzu egun batean euskaldun bat beste hizkuntza batean jardutera zuk bere hizkuntza ez dakizulako. Eta, orduan, beti da faktore bat euskararen presentzia ezak baztertzen ditu euskaldunak. Eta, horregatik, printzipioz euskararen sistematizazioa egon behar da eremu guztietan, bai lantokietan, bai zerbitzu eremuan (dendak, tabernak...), aisialdian eta abar; eta bai hezkuntzan orokorrean euskararen presentzia egon behar da eremu guztietan, euskaldun guztiei euskaraz bizitzeko aukera eskaintzeko.

7

Gizartea sistematikoki euskalduntzeko prozesu horretan, baloratu da euskararen aldeko hautuak egiteak emaitza, ondorio edo inpaktu errealak izatea egunerokotasunean funtsezkoa dela. Hau da, benetako aldea nabaritu behar da euskarara gerturatzeke hautuen eta besteen artean ("balio erantsiaren" diskurtsoaren kritika ere norabide honetan koka daiteke). "Erraztasunak eta zailtasunak" eskema gisa ere irudikatu da: euskarara gerturatzen direnek erraztasunak izan ditzatela (hobariak, doakotasuna...) eta euskarara gerturatzen ez direnek zailtasunak, edo ez behintzat erraztasunik.

Erraztasunak eman behar zaizkio alde batetik, eta arrazoizko neurri batean, erantzukizunak eskatu eta jarrera kontrakoa daukanari zailtasuna. Zailtasuna zer da? Ba esate baterako, hurrena udaletxean komertzioentzat diru laguntzaren bat edo baimenen bat eskatzen duenean inprimaki guztiak berez euskaraz egotea, eta nahi baldin badu espainolez espresuki eskatu behar izatea, edo gutxienez deituta edo ez dakit. Zailtasun bat. Euskaraz ikasi nahi baduzu lagunduko dizugu ahal den guztian. Ez duzu ikasi nahi? Kontrako jarrera daukazu. [...] Jarrera ona duen pertsona horri ahal diren laguntza denak eman behar zaizkio. Hori da laguntza, erraztasuna, baina bestalde, udaletxera joaten denean zerbait galdetzeraz edo herriko edozeinekin dagoenean kartel guztiak, nagusiki, nabarmen eta ahal balitz, soilik, euskaraz ikusiko lituzke. Beraz, jarrera ona badauka eta gainera hori ikusten baldin badu, bidea hortxe jartzen diozu. Baina jarrera txarra baldin badauka testu guztia euskaraz ikustean zailtasuna sortzen dio. Baina zailtasun hori azkenean berak sortzen dio bere buruari. Zailtasunaren planteamendua da baina ez zara ari pertsona horri zailtasunak jartzen eta ez zara ari legez kanpoko ezer egiten ari. [...] Baina horrelako jarrerak "hau ez dijoa nirekin" eta "ez dut jakin nahi" dituen jendea badago baina pertsona hori konturatu behar da jarrera horrekin bere buruari zailtasunak jartzen ari dela. Ze hemengo berezko hizkuntza euskara da, beraz, hemen lanean edo jendearekin harremanean hemen aritu behar badu jarrera horrek zailtasunak sortu beharko lizkioke. Hori da esaten dudana. Eta zailtasun hori nor berea da. Eta jarrera horretatik buelta hartu nahi badu behar dituen erraztasunak emango zaizkio, eman daitezkeen guztiak. 6

Amaitzeko, diskurtsoaren eta aurrera begira pausoak emateko norabidearen gaian, euskararen sustapenaren gaiarentzat feminismoa erreferente bat izan daitekeela hausnartu da.

Niretzat gauza askotan, eta hori asko hitz egiten da, baina euskalgintzarentzat, euskararen normalizazioarentzat, mugimendu feministak erreferente bat beharko luke. Niretzat zera askotan bada, baina bada nola egin -ez dakit nola esan hau- mugimendu feministak lortu duena, zailtasunak zailtasun eta hutsuneak hutsune, da hizkuntzarekin nola lortu, ezta? Bueno, hor gero badaude intelektual asko hitz egiten dutenak hizkuntza eta feminismoak eta zein lotura dauden eta... Hor daude. Eta jende bat horretan mugitzen ari da. Baina iruditzen zait ildo interesante bat dela. Eta Hernanin, juxtu, mugimendu feminista oso potentea daukagu. Nik, urteetan, udaletxean egon naizenean, herri mugimendu potentea azken urteetan eta ni udaletxean egon naizenean, herri mugimendu potentea zen mugimendu feminista. Eragile asko, oso dinamikoa, oso motorea, oso ikuspegiarekin... Zein da problema? Euskalgintzarik ez daukagula jarraitzeko [barre egiten dute]. 4

3.1.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK

Elkarrizketetako edukiak aurkeztuta, honako ekarpenak jaso dira kontraste saioetan (herritar eragileen saioko ideiak / [euskalgintzakoak](#) / [udal langileenak](#)):

DIAGNOSTIKOA	- Ados agertu dira euskara ez dela borroka gaia eta diskurtsoan galera izan dela; ez da arrankatzen. Instituzioetan dagoen artean babestua dagoelako ideia edo euskara ezagutzaren areagotzearekin lasaitzea (kalitatea jaisten ari den bitartean) tranpa moduko bat da, gako berriak aurkitzea beharrezkoa da. Aldi berean, zalantza agertu da euskararen gaia "borroka" moduan ikustearekin. 80ko hamarkadan gaia oso politizatua zegoen eta hortik ere aterata egin behar zela ikusten zen (agian ez da asmatu handik irtetean nora joan). Enpatiatik gehiago irabaz daiteke. - "Akonplejatuak" gaude, gurea eskatzen dugunean erradikalak garela sentitzen dugu. Eleaniztasunaren aurrean ez gara ongi kokatzen. - Hizkuntzaren sustapena ardura indibiduala da neurri batean, baina baita instituzionala ere. Euskararen aldeko diskurtsoa orokorra den arren, praktikoki euskararen kontrako erasoak egunerokoak dira (mezuetan, ekintzetan...), nahiz eta politikoki zuzenak ez izan. Euskarak bazterrekoa izaten jarraitzen du, eta egiten den eguneroko politikan ingelesari edo gaztelaniari botere sinboliko handiagoa ematen zaio. - Gazteen belaunaldiari begira gauza asko nabaritzen dira ("egina" gisa jaso dela, herri mugimenduak lasaitu direla...) baina gizarte guztian gertatzen den zerbait da eta helduen eremuan eragiten duena eta helduei ere badagokiena. Gazteengan foko handiegia jartzea arriskutsua dela baloratzen da. - Tresna gisa bizi da gaur egun euskara (adb, lanerako), balio erantsi moduan, eta ez da gai militante/identitario bezala bizi. Formaltasunean irabazi du, informaltasunean galdu. Hizkuntza erabat instituzionalizatu egin da, eta lotura identitarioa (euskalduna=euskara) galdu. Euskara ikasketa tituluekin lotzen dira. - Euskararen sustapena alderdi politikoekin eta alderdikieriekin lotzen ari da. - Gizartean euskararen inguruan bizipen desberdinak daudela ikusten da: kuadrillaka egoera desberdina da, euskaltzaleagoak diren eta ez diren taldeen artean... - Erreferente kulturelei eta identitateari dagokionez, espainolizazioa gertatzen ari da.
PROPOSAMENAK	- Euskarak gizartearen oinarri izan behar du eta modu naturalean egiten dela sentitu behar da, helburua euskaraz funtzionatuko duen gizarte bat izanik. Gaur egun gizarteko eremu batzuetan bere falta dago edo euskarak gauza batzuen falta du. Aipatu dira: gazteen esparrua, helduen eremua, iritsi berriak diren pertsonentzako aukerak eta lana, legeak, administrazioaren esparru batzuk (Osakidetza), ikusentzunezkoak eta sare sozialak, euskal erreferenteak, eremu ludikoa, eremu emozionala, identitatearekin lotzea eta kontzientzia, belaunaldien arteko harremanak, militantzia, kalea. Era berean, euskal munduan zer-nolako edukiak sartu nahi diren hausnartu behar da (mezu matxista eta arrazistak dituzten edukiak sortu edo euskaratu nahi dira?). - Euskararen profesionalizazioa jorratzen jarraitzea beharrezkoa da. Ikuspegia aldatu behar da: ikerketa asko egiten dira, baina ikuspegi tradizionaletik. - Diskurtsoan eraldaketak: "euskaraz hitz egin behar da hizkuntza zaharra delako" edo "altxorra" gisakoek ez dute funtzionatzen. Aldi berean, makarrismoarekin ere zalantzak agertu dira, normalizazioaren bidean etsipena erakusten duelakoan. Era berean, mezu zuzenak behar dira. Filosofian txerta daitekeen ikuspegia: ikasi euskara hemen bizi naizelako. - Hautua vs. beharra. Gai irristakorra dela baloratzen den arren, "behartzearen" ideia azpimarratu da: koertzio gehiago beharrezkoa da, adibidez euskalduntzean areagotzeko edo erabilera sustatzeko. Beharra sortu behar da, gizarteko oinarritzko elementu bat behar luke izan eta ez balio gehigarria. Horretarako, zenbait diskurtsori kontra egiteko tresnak eta argudioak behar ditugu, gure diskurtsoaren lausotzean erori gabe. - Euskararen gaia modu unibertsalean edo guztiona den moduan landu behar da. Alderdikieriaz jokatzeari saihestu behar da. Euskararekiko jarrera ezkorra izatera iritsi da jendea, beraiek euskaldunak direnean.

- Hezkuntzatik eragitea gakoa da. Gazteek ikusi behar dute ez bigarren mailako hizkuntza moduan. Gai bezala mahai gainean jarri behar da, hizketagai bihurtu.
- Baliabide instituzionalak eta herri mugimenduak uztartzeko beharra ikusten da. Instituzioen eta herriaren arteko elkarlana landu behar da. Aldi berean, exigentzia maila areagotu behar dela uste da: botere publikoekin gehiago borrokatu, tentsioa sortu, "pelmak izan", gehiago exijitu (bai herrian eta baita instituzioetan ere). [Instituzioek beren lana egiteko herri oinarri batek ere egon behar du. Bi hizkuntza ofizial izatearen ideia erreala izan dadin, politika publikoak eta bereziki inbertsioak behar dira \(zer sustatu, zein laguntza jarri...\).](#) Horretan exijitu behar da.
- Naziogintza/Estatugintza landu behar da euskararen normalizaziorako. Estatua izan arte ez da euskararen normalizazioa lortuko.
- Hizkuntzaren erabileran zein ikuspegi sustatuko den pentsatzea garrantzitsua da. Honako gakoak planteatu dira: zuzentasunaren aurretik egokitasunari garrantzia eman, praktikarekin euskaraz bizi daitekeela erakutsi, bi hizkuntzetako elkarriketak normalizatu. Une honetan gaztelaniaren presentzia ezin da baztertu; zer egin testuingururu horretan euskarara gerturatzeko? Euskara ezagutza unibertsala helburu bat da, egin nahi duenak erabiltzeko aukera edukitzeko. [Askatasun linguistikoaren bidean euskara unibertsalizatu. Hizkuntza eskubide sozial moduan ulertu eta landu lehenengo eta gero dator identitatea edo nortasunaren gaia.](#)

3.2. EUSKARAREN ALDEKO MUGIMENDU SOZIALA

Bigarren gai-bloke moduan, euskararen aldeko mugimendu sozialari buruz hitz egin da. Abiapuntu moduan, Hernani herriko egoeraren inguruko honako argazkia aurkeztu zen:

GOGOETARAKO ABIAPUNTUA

- Hernanin herri mugimenduek historikoki presentzia eta esku-hartze garrantzitsua izan dute, baita euskararen normalizazioaren arlokoek ere: AEK (60. hamarkadan sortutako gau eskolen ondorengoa eta gaur egun martxan dirauena), Dobera euskara elkarte (90eko hamarkadan sortua) eta Kronika (Doberak 2000tik aurrera argitaratzen duen herri komunikabidea). Udalak guztiekin ditu hitzarmenak beren jarduna diruz laguntzeko.

Segidan jasotzen dira elkarriketetako eta kontraste saioetako gogoetak.

3.2.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA

Gaur egungo egoera ulertzera iristeko, ezinbestekoa da atzera begiratzea eta azken hamarkadetako bilakaera ulertzea. Elkarriketetan aipatu den moduan, euskararen sustapenaren gaiari belaunaldi batek eutsi dio, 60 eta 70. hamarkaden bueltan sortuak. Hamarkada horrek ekarri gaitu gaur egungo egoeraraino.

Iruditzen zait oso nabarmena dela honi guztiari, euskararen aldeko biziberritze prozesuari, belaunaldi batek heldu diola, bere logika propioak zituena, 60-70. hamarkadan sortutako jendea, beste gizarte batean bizi izan zena, balio batzuekin lotuta... Eta, nolabait, txanpa edo olatu handi horrek ekarri gaituela gaur egunera arte. Iruditzen zait, eta horretan zuek zarete seguraski ni baino jantziagoak, gizartea izugarri aldatu dela. Orduan, momentu honetan bizitzen ari garela, ez dakit paradigma hitza oso potoloa den, baina beste olatu baten beharra han eta hemen. Oso-oso nabarmena da. Eta, seguraski, garai batean sortu genituen erantzunek ez dute gaurko gizartearentzat balio. Eta, nolabait, hustutzen joan da euskararen biziberritzean zegoen indar hori. Eta zegoen gauzak ikusteko, egiteko eta proiektatzeko modu horiek erori egin zaizkigu. Nik uste dut hori nahiko gauza nabarmena dela. Zaila dena da gaurkoari nola erantzun, nondik erantzun, efektibamente hori da egin behar dugun ariketa. Hori, horrela, ideia orokor bezala. 5

Belaunaldi hark, euskararen gaiari kaletik eta mugimendu sozialetatik heltzeaz gain, instituzioetara sartzeko apustua ere egin zuen. Hala, instituzioetan dauden –eta gaur egun jubilatzea iristear dauden– euskara teknikari ugari eraldaketa sozialaren gogo horrek akuilatutako pertsonak dira.

Azkenean, jo, 80ko hamarkadan hasi ginenean, hasi ginenok euskara teknikari modura, zergatik hasi ginen? Euskaltzaleak ginelako, gure sasoi hartako balioekin pentsatzen genuelako zerbait egin beharra zegoela. Ez horrenbeste interesatzen zitzaigulako administrazioetik mundua aldatzea. Baina bueno, bai ikusten genuen botere leku bat zela eta beharbada botere leku horretatik gauzak aldatu genitzakeela. [A: Eta gizarte proiektu bat zegoen apustu komunitario horren atzean. [...]] Belaunaldi oso bat jubilatuko da orain.] Bai, ze administrazio autonomikoa 80ko hamarkadan sortu zen. Orduan, hor jende asko sartu ginen hortxe, denok batera eta hainbat lanbidetan. Baina gurean bai, gurean nabarmen-nabarmen, eh. 5

Alabaina, fase horren amaierara iristen ari garela susmatzen da. Garai hartako olatu hura bere azkenetara iristen ari da, eta une honetan egoera desberdin baterantz goazela ikusten da. Oro har, dagoen testuinguruaz pentsatzen jarrita, “nekea” eta “etsipena” gisako adjektiboak erabiltzen dira, bai egoera orokorraz hausnartzeko baina, bereziki, euskararen aldeko mugimendu sozialean edo giroan dabiltzan euskaltzaleen kasuan.

Iruditzen zait momentu honetan -nik ezagutu dudak garaitik behintzat, 80tik honutza-, momenturik baxuenetan gaudela euskalgintzari dagokionez eta euskararen normalizazioaren inguruan egon litezkeen kezka eta egon litezkeen gizarte jarrera bati dagokionez. Horra iruditzen zait ekarri gaituztela gauza diferentetiek. Bata da momentu batean agian ilusio bat egon zitekeen benetan Euskal Herrian euskarak beste leku bat izan zezakeen ilusio bat, eta denborarekin hori hoztutzen joan da. Pues ikusi dugulako igual, mundu guztia kontziente izan delako, behar handirik ez dagoela. Bai? Ze momentu batean igual egon zitekeen... O sea, ez dakit. Niri hori, adibidez, Nafarroan NaBaik hartu zuenean gobernuak, Nafarroan esaten zen, ez? Pixka bat, euskararekiko interesa eta euskaltegiak eta... Mugitu egin zen eta ez dakit zer. Baina konturatzen denean jendea ez zela horrenbesterako, ez dagoela, egun batetik bestera ez dugutela euskara askoz gehiago eskatuko eta ez dakit zer eta badakit zer, hori pixka bat, globoa, flup [jaisten den zerbaiten seinalea egiten du]. Eta uste dut guri gauza bera gertatu zaigula 80tik honutza, neurri batean. Horrek badu eragina. Hori, nolabait, agian

kontzientzia baxuena izan dezakeenak, esan dezagun. Baina kontzientziatuenak, berriz, etsipen puntu bat ere bai. Esaten duzu: "Pf... Zenbat lan, zenbat esfortzu, ez dakit zer, eta aurrera ere ez dugu egiten". 1

Zure galdera zen zer aldatu den azkenengo berrogei urteetan. Ez dakit. Eta gero, aparte, ez dakidala aldaketarik egon ote den. Horretaz ere ez nago seguru. Nik uste dut aldaketa egon izana baino dela, joder, ba nik nire inozotasunean, edo idealtasunean, espero nuela berrogei urtetan zerbait gehiago aurreratuko genuela [barre txikiarekin amaitzen du], ulertzen? Nik uste dut gehiago dela hori ezer galdu izana baino. Baina, alde horretatik, 80ko hamarkadako Euskal Herrian Euskaraz, adibidez, niretzat bai zen erreferentzia bat heavy-a kaña emateko. O sea, 80ko hamarkadan Euskal Herrian Euskarazek egiten zuen kaña eman. Kaña eman, kaña eman, kaña eman, eta inguruko jende guztia "Joder, ze sobratuak diren horiek", ezta? Bai, bai, bai, bai. Baina hori ya 90eko zeran bukatu zen. 4

Niri iruditzen zait gehiago [barre egiten du] jendea amore ematea gehiago edo. [...] Duela urte batzuekin konparatuta iruditzen zait -baina hori da benetan nire tripako sentsazioa- baina iruditzen zait jende gehiagok pentsatzen du: "Azkenean nik ere erdaraz hitz egingo dut, ze zergatik denbora guztian rollo hori euskararekin?". Eta iruditzen zait duela 5-10 urterekin konparatuta presio gutxiago. [...] Jarrera hori ez dator jendearen borondate libretik, baizik eta hori badator ere konplikatu dela euskaraz bizitzea. Zure ingurua erdaraz daukazu, zure ibilbide profesionalean azkenean erdaraz jakin behar duzu. [...] Orduan, ez da presio falta edo interes falta edo. Amore emate horrena da azkenean ya presioa aguantatzen ez duzulako. Eta hori guztiz humanoa da eta ulergarria da, eta aztertu behar da: nondik dator, non daude indarguneak hori imposible egiten dutenak, euskaraz bizitzeko, edo non daude gaztelaniaren indarguneak dena okupatzen dutenak eta zein bide aurkitu hori hausteko eta euskaraz bizi nahi dutenentzat, edo euskaldunei edo Euskal Herriko biztanleei aukera ematea euskaraz bizitzeko naturaltasunez. Eta, orduan, nik batez ere ikusten dut jendearen borondate onari dei egitearen beharrean, ordua da esatea: "Guk, udalaren aldetik, instituzioaren aldetik, euskararen alde garenok eta benetan, seriotan ari garenok, non lortzen dugu eremuak jendeari askatasun hori emateko?". Hori da nik uste dudana ibilbidea edo nahi nukeen aldaketa. 7

Euskararen aldeko edo euskararen inguruko presio soziala eta kalean kezka giroa ez dagoela presente baloratzen da eta gaitik aldentzen ari diren pertsonen "errenuntzien" poltsa handitzen ari dela denborarekin. Gaia ez dago presente ez orokorrean eta are gutxiago Hernaniko herrian (non historikoki gaia ez den lehentasun bat izan, bestelako eremu batzuk izan diren moduan).

Uste dut, oro har, gizarteak asumitu duela nahikoa dela euskararekin egin den politika eta orain beste gai emergente batzuk daudela urgenteagoak. Eta jende asko dago trenetik jaitsi egiten dena. Orduan, iruditzen zait hizkuntz politikak horri ere begiratu behar diola: ez bakarrik zein igotzen den euskararen trenera, baizik eta zein jaisten den eta zergatik. Ni, behintzat, azkenengo urteetan horri oso begira nago. Ez gaurkoak bakarrik, iraganean ere. Zein faktore egon diren jendea trenetik jaisteko. Sortzaileak, kulturgileak, gure familietako hainbat pertsona... Jendea zergatik jaitsi da? Uste dut hor dagoela baita ere ikertzeko beste alderdi interesgarri bat. Ez bakarrik irabazia, baizik eta argazkiaren negatiboa, beste aldea. Eta hori, motor hori, oso-oso aktibo dago. Oso aktibo dago. Errenuntzien masa hori eta profil horiek-eta gure artean bizi dira eta hori gertatzen ari da, bai. 5

Egia da, seguraski, alde horretatik, Hernani izan da herririk exkaxenetakoa beti. 80ko hamarkadan ere, Euskal Herrian Euskaraz Hernanin bi ziren edo hiru ziren, baina bi-hiru kontatuak, eh. O sea, ez zegoen talde esanguratsu bat. Euskaltegiko irakasleak ere ez pentsa erraz topatzen zirenik, eta euskara mugimendurik, inoiz ez da egon euskara mugimendu indartsu bat herrian. Ez dakit zergatik gertatu den hori, eh. Eta nik beti esaten nuen: "Hernanin beste lehentasun batzuk dituzte, eta euskara...". O sea, ze beti sekulako irudia du herri militantea eta ez dakit zer, eta badakit zer. Bueno, beste gauza batzuetan izango zen, ze euskararen gaian ez genuen hori topatzen. 1

[Hernanin] saiakera batzuk igual egon dira, baina ez dugu asmatu euskalgintza kohesionatu bat, euskalgintza koordinatu bat edukitzen non motorra ere izan daitekeen. Edo motorra izan gabe ere, lehen aipatzen nuen Udalaren elkarlan hori, Udalarekin elkarlanean aritzeko zera bat, ez? Baina beharrak planteatzeko, egitasmoak bideratzeko... O sea, uste dut euskalgintzan bagarela nahiko... Zergatik, klaro, udaletxea ere ezagututa, ba nahiko eskatzailea, ez? "Ba guk gurerako... Guk euskaltegia, AEK, behar dugu, guk ikusten dugu gure beharra", zera, gure hitzarmena, gure Zilegi Eskola... Hau da behar duguna guk gurean eta gure arloan oso ondo, eta beste eragile batek berea eskatuko du. Baina ez dago gunerik, ez dago espaziorik hausnarketa konpartituak egiteko, ez dakit zer. [...] Bertigoa. Euskalgintzak niri bertigoa ematen dit. Da pixka bat horrela: uuf! "Euskalgintza" entzun eta uuuf! [neke tonotan]. 4

Gaur egun euskalgintza, beraz, oso ahul dagoela baloratzen da. Belaunaldien aldetik ere, 60 eta 70. hamarkadakoak erretiratzen ari diren honetan, ez da belaunaldi gazterik sumatzen². Gogoeta puntu garrantzitsuetako baten moduan horixe planteatzen da: nola aktibatu euskalgintza eraginkor bat?

Ea nola ikusten dudana euskara eta euskal kultura biziberritzeko herri mugimendua eta herritarren inplikazioa orokorrean. Ba ikusten dudana da, ahul. Ahul ikusten dut. Eta eskas, etsita eta etsigarri. Horrela ikusten dut. 6

Zein da gaur egun Hernanin dagoen euskararen inguruko herri mugimendua? [Eskuarekin zero bat sinbolizatzen du] Esaidazue baten bat ari dena... Bueno, bai, Euskaraz Ari Du. Zein gehiago? Niretzat, ez dago herri mugimendurik. Zero. Ez dago herri mugimendurik. 3

Momentu honetako kezka nagusietako bat izango litzateke nola aktibatu berriro euskalgintza eraginkor bat. Bai Hernanik eta bai hortik kanpo ere. Baina Hernanira mugatu garenez orain, pixka bat, nire kezka nagusia batez ere hor egongo litzateke. Ez horrenbeste, igual, nire burua hor ikusteko ere, baizik eta dinamika bat ikusteko. Iruditzen zait azkeneko urte hauetan, pixka bat... Jo, adibidez oso esperientzia polita izan da Euskara Ari Du eta Euskaraldiaren artean hor egin dugun prozesua Hernanin. Baina, era berean, nik kezkaz ere bizitu det. O sea, talde horretan 50 urtetik gorako jendea geunden. Horrek ezin du etorkizunik izan. O sea, horrela ez goaz ondo. Orduan, ni, batez ere, horrek kezkutzen nau momentu honetan. Iruditzen zait, seguru nago, en fin, 80-90eko hamarkadan euskarak eta euskalgintzak bazuen bestelako konnotazio bat gizartean, beste leku bat ere bazuen gizartean, eta iruditzen zait horrek berriro etorri behar duela, ez? Baina seguraski hurrengo belaunaldiek ekarri behar dute, guk ez dugu ekarriko hori. 1

Hausnarketa hori euskalgintzan oso garbi ikusten den moduan, oro har gizarte mugimenduetan gertatu den bilakaera bat dela ere susmatzen da, gizartearen dinamika eta inertzia batzuk aldatu diren adierazle. Belaunaldi berriek gai sozialei hel diezaieten belaunaldi zaharrek uztea izan daitekeela bide bat ere hausnartu da:

Uste dut gizarte bezala ebidentea da sekulako aldaketa dagoela. Eta horrek eragiten du. Gatoz garai batzuetatik non herri ekimena oso indartsua zen, baina edozein behar zegoen... Edozein gizarte beharren aurrean herri ekimen bat antolatzen zen. Berdin zuen euskararen alde izan, edo nuklearraren kontra, edo autobaiaren kontra, edo ez dakit zer aurrera ateratzeko. Gizarte aldaketa honetan, orain, ez dugu horrela jokatzeko. Gehienetan jokatzeko dugu esatera "administrazioari eskatu behar zaio". Eta, bueno, nire ustez administrazioa atzetik etortzen da. Administrazioak ez du aurrea

² Ikerketa honen prozesuan ere nahiko agerian gelditu den elementua da horixe, ez baita gazte ahotsik jasotzerik lortu. Hala ere, badaude adierazle batzuk kontrakoa adierazten dutenak, eta gazteei gaiak interesik sortzen ez diela edo eragiten ez diela pentsarazten dutenak (elkarrizketetan jaso da interesa bai erakusten dutela, gazte mugimenduek euskaraz hitz egiteko inertzia handiagoak dituzte gaur egun edota euskararen erabilera altuagoa da gazteen artean helduen artean baino...). Beste gogoeta batekin uztartuz, agian gaiari heltzeko modua eta euskararen aldeko mugimendua ulertzeko beste eskema batzuk planteatzen dituzte etor daitezke pista batzuk.

hartzen, ez baldin bada berari oso interesatzen zaion zerbaitetan. Orduan, hor oso zaila da, nik uste dut, zeratzeko. Orduan, pausoak, pauso sendoak eman nahi baldin badiugu euskararentzako bide batean, iruditzen zait herri ekimen indartsu baten beharra dagoela horretan ere. Eta, bueno, gizarteko gainontzeko gaien aurrean gertatzen ez den bezala, euskararen inguruan ez da gertatzen. Eta hori nola aktibatu, pues da gai potoloa, eta nik, egia esan, erantzunik ere ez daukadana. Horren aurrean erantzunik ez daukat. Baina beharra oso argi daukat. Eta hau gure taldean, Hernaniko taldean ere batzuetan komentatu izan dugu esanez: zenbateraino gara gu geu oztopo sortu dadin horrelako mugimendu bat? Esan nahi dut, urteetan hor egon garenak hor egoteak igual oztopatzen du belaunaldi berriek ardura hartu dezaten eta eutsi diezaioten gaiari, ez? Orduan, igual, pues momentu batzuetan esan behar duzu: "aizu, utzi dezagun eta aber nola sortzen den edo nondik datorren". Ze, es que, gu ez gara kapazak izan transmisio bat generatzeko, belaunaldi berriak ekartzeko guzti honetara. Orduan, igual momentua da pauso bat eman atzera eta esateko: "etorri daitezela". Ez da... Gauza diferentea izango da seguru. Baina, en fin, beste mugimendu batzuk sortzen diren neurrian inportatea, hobe izango da gaur egungo impasse-a edo egoera hau baino. 1

Euskal lurren artean, ildo honetatik egoerarik "geldoen" EAEn egon daitekeela susmatzen da. Hau da, testuingurua kontrakoagoa den lekuetan (Iparraldean eta Nafarroan), euskararen aldeko dinamikak beste ezaugarri batzuk ditu, eta beraietatik ikasteko aspektu interesgarriak egon daitezkeela adierazi da:

A: Nik uste dut bai Iparraldean eta bai Nafarroan gauza batzuk argiago ikusten dituztela hemen baino. Eta beraiegandik ikasi behar dugula. Arnasguneen inguruko diskurtsoekin ni nahiko kritikoa naiz, ze iruditzen zait hori berehala aldatuko dela, 50 urtetan aldatuko da [B: Lehenago ere.]. Orduan, "mantentzearen" ideia hori, nire ustez periferietan daude erantzunak gehiago EAEn edo arnasgune diren leku horietan baino.

B: Periferian zerbait gertatzen denean, azkenean bihotzeraino heltzen da. Eta ez baldin badiogu arreata jartzen periferian gertatzen ari denari, eta urteetan gertatzen ari denari, azkenean bihotzera heltzen denean "Ene! Hemen zer da ba...?". Ea ba. Ze bien bitartean, Bertolt Brecht-en bertso famatu hori: nire bila etorri zirenean beranduegi zen. 5

Euskararen aldeko mugimendu soziala moteltzea eragin duen beste faktore garrantzitsu moduan profesionalizazioa markatu da. Azken urteetan euskararen aldeko mugimendu soziala profesionalizatu egin dela ikusten da, bai administrazioaren barruan eta baita kanpoan (euskara elkarteetan, adibidez) ere. Fenomeno horrek onura batzuk badiuen arren, bere arriskuak ere badiu. Arrisku horien artean dago, hain justu, herrigintza desaktibatzea: herritarren masak liberatuen eskuetan uzten du jardueraren pisua; eta, bestalde, erakundeak mantentzea ere jardueraren barruko helburuetako bat bihurtzen da.

Nire ustez, Hernaniko euskara elkarteak ez du betetzen euskara elkarte bati eskatuko litzaiokeena. Seguraski -bueno, batzuk haserretu egingo zaizkit hau esaten dudanean, baina- euskara elkarteek ez dute betetzen, oro har, bete beharko luketen funtzioa. Nire ustez. Nire ustez. Oso ondo dago herri aldizkariak egitea, oso ondo daude gauza horiek; baina hori da parte bat, beste parte bat ahaztu egin da. Eta galdu egin da. Eta, orduan, nire ustez aktibazio sozialera bideratu behar da zera. Iruditzen zait gaur egungo euskara elkarteetatik ez dagoela erraza hori egitea. 1

Euskara elkarteetan oso nabarmena da -aurretik euskaltegietan ere bai, baina azken urteetan euskara elkarteetan-: liberatuak jartzen diren neurrian eta jende ordaindutakoa dagoen neurrian, masa desagertu egiten da. Ya haien arazo bihurtzen da hori. Masa desagertu egiten da. Eta hor hanka sartu dugu. O sea, hor ez dugu asmatu eta ez diogu heldu, gainera, gaiari behar zen bezala. Eta hori oso-oso potoloa da. O sea, ezinezkoa da bi arrazoiengatik ezinezkoa da bakarrik profesionalekin horrelako historia bat aurrera ateratzea: bata, nolabait, profesionalekin bakarrik ezin

delako masa mugitu, o sea, ezin da; eta, bestetik, bakarrik profesionalak geratzen direnean eta horiek bakarrik erabakitzen dituztenean gauzak, azkenean, erakundea bera salbatzea lehentasun handiagoa bihurtzen da erakunde horrek sorreran jarri zuen xedea baino. Orduan, azkenean, momentu honetako arrazoi nagusia edo izateko arrazoi nagusietako bat -izateko arrazoa ere ez da, baina-, bere lanaren arrazoi nagusietako bat zer da? Diru-laguntzak lortu soldatei eusteko, ez dakit zer, badakit zer. Hori horrela da. Orduan, hau hankasartze handia da. Eta hor asmatu behar da etorkizunera begira bestelako formula bat. Jo, ni asko poztu ninduen, eta esan nien beraiei, oso interesantea iruditu zitzaidan han [Aiaraldeko Ekintzen Faktorian] egiten zuten ariketa: jendeari planteatzen diote urtean zehar ez dakit zenbat ordu modu boluntarioan ematea hango... Aber funtzionatzen duen! 1

Gaur egungo euskalgintzaren inguruko fenomeno hori ulertzeko, paralelismo bat egin da 90. hamarkadaren bueltan feminismoan zegoen giroarekin, hain justu, berdintasun formalaren ereduak indar hartu zuen garaian izandako instituzionalizazio eta herri mugimenduaren jaitsierarekin.

Nahiko diagnostiko konpartitua da Euskal Herriko Mugimendu Feministak 70-80an daukan boom hori jaisten da, 2000. hamarkadan nabaritzen da bajada, o sea, 90.ean hasten da jaisten. Ia denek lotzen dute 88an Emakunderen sorrera eta berdintasun formalaren ideia horrekin. Ni hasten baldin banaiz militatzen, esango dizut, 2005 edo hortik, esaten dizut nire kintako jendea, o sea, feminista izatea es que no estaba de moda no, lo siguiente. Esan nahi dut, lau... O sea, nik lehenengo ezagutu nituen nire adineko feministak Leioan izan ziren egin genuenean... Bueno, Bilguneko batzuk baina ni baino sei urte gehiago dituzte, edo zortzi. Leioan, eta Leioako Asanblada Feministan igual ginen zortzi. No sé qué decirte, eh. Ez zela una cosa de echar cohetes. Eta begira orain, ez? Orduan, nik uste dut hor dela berdintasun formalaren ideia hori. Eta seguramente, orain paralelismoa egin duzunean, euskararekin hortik joan daiteke. [...] Egon daiteke puntu horretan euskalgintza, nik uste dut. Berdintasun formal horretan, kasik ya oposizioak ateratzeko gauza bat da. 2

3.2.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Aurrera begira har daitekeen norabideari dagokionez, proposamen batzuk edo ideia batzuk jaso dira, nahiz eta ikuspegi orokorra izan den nahiko mugatua dela Udalak instituzio publiko moduan eremu honetan egin dezakeena. Lehenengo gogoeta, hain justu, gogoeten "kritika" bat izan da. Hausnarketak eta diagnosiak beharrezkoak direla baloratzen den arren, gauzak "egiteko" behara aldarrikatu da:

Nik uste dut inork ez dakiela zer egin behar dugu benetan gure helburua lortzeko. Baina egiten ez badugu ez dugu asmatuko. Ni ia-ia honen erabat, ez da kontrakoa baizik eta aspertuta. Diagnostikoak, azterketak eta halako gauzak egitea, eta "ikus dezagun zenbat euskaldun dauden hemen, zenbat ez..." ez. Badakit ere ezin ditugula gauzak itsu-itsu egin helbururik gabe edo oinarririk gabe. Abiapuntu bat behar dugu eta horretarako dira diagnostikoak eta horrelako gauzak, bai, ados. Baina egin behar dira gauzak. Eta ez dugu asmatuko lehenengoan, eta bigarrengoan ere ez eta hirugarrengoan ere ez... Baina egin egin behar dugu. Egin behar dugu eta sortu behar ditugu eremuak, eta erabilera badakigu giltzarria dela, oso garrantzitsua dela. Eta erabilera sustatzeko egitasmoak. Egin, egin, egin. Ni banaiz igual horren zera. Aspertu naiz beste guztiaz, pentsatzeaz edo. Egin. 9

Egiteko dauden gauzen artean, orain erretiratzear dagoen euskara teknikari belaunaldiaren ezagutzak jasotzea dela gakoetako bat esan da:

Iruditzen zait belaunaldi batek egin duen lana oraindik dagoela jaso gabe, ikertu gabe, sistematizatu gabe, balioan jarri gabe... Eta hori da lan bat orain egin behar dena, jendea jubilatzen ari delako. Eta hor dago know how oso-oso-oso handia. Batez ere egiteko moduetan, harremantzeko moduetan. Hau da, intangibleak diren konpetentzia horietan. Eta esango nuke Hernanin bereziki zortedun izan zaretela [...]. Esan nahi dut, ezagutza horiek, hor daudenak, bildu egin behar dira. Eta orain da momentua hori egiteko. Orduan, ni joaten naizenean horrela lekuetara, gonbidatzen nautenean, insistitzen dut gai honetan. Ze ofizio bat inbentatu da 50 urtetan. Eta badoa. Garai bati erantzun dion ofizio bat da, baina hor daude gauza oso-oso baliotsuak. Eta sekulako galera izango litzateke hori joatea, besterik gabe, ikertu gabe. Gu, ezagutza arloan gabiltzala, nire ustez hau da lehentasun handi bat. Eta bereziki Hernanin iruditzen zait lan horrek zentzu guztia daukala. [...] Etorriko da jende berria gauzak aldatu nahi dituen, erakundeak humanizatu nahi dituen, herritarrekin beste era bateko harreman bat bilatzen dutenak... Olatu hori hartu behar da. Ze egin da, egin da. Hori euskara zerbitzuetan egin da. Egin da, egia da. Ez guztietan, baina bai egin da. Eta hori balioan jarri behar da. Horregatik prestigiatu behar dugu baita ere egin den hori. Hori bildu, sistematizatu, ikertu, eta udalei esan: "Eh, hau egin da. Hemen horrelako prozesuak egin dira". Eta da lana egiteko modu bat baita ere prestigiatzeko politika bat. Gero beste gauza batzuk egin ahal izateko, urrutirago joateko, beste aliantza mota batzuk egin ahal izateko... 5

Bestalde, euskararen aldeko mugimendu sozialari dagokionez, funtzionatzeko moduak gaur egungo gizartearen ezaugarrietara moldatzen asmatzeko gonbitea egin da. Norabide horretan, baloratu da jendeak konpromiso puntualak hartzeko prestutasun handiagoa izan dezakeela talde bateko partaide modu finkoan izateko baino, eta agian bide horretatik diseina daitekeela egitasmoak.

Jendea gauza puntualetarako mugitzen da baina gero egunerokotasunean jardun batean aritzeko, nik ikusten du behintzat, jendea ez dela mugitzen. [...] Orduan, nola lortu daiteke inplikazio gehiago? Nik ikusi dudana da esan dizudana, ekimen puntual horietan jendea mugitzen dela. Beraz, zer planteatu daiteke? Niri burura datorkidana da ekimen puntualetan banatu, nolabait, taldekatu eta atalkatu. Ekintza handiak plan osoan.... Ez dakit ze plan dagoen. Nolabait, bide horretan,

hizkuntzaren ekosistema honetan euskara gailentzeko lan honetan banakako ekimenak planteatu eta horretarako saiatu jendea biltzen, hori egin daiteke. 6

Jendea mugiarazten duten ekimen horien moduan, azken urteetan martxan jarri diren euskara erabilera aktibatzekeo ekimenak aipatu dira besteak beste, Euskaraldia eta Hernaniko kasuan Euskara Ari Du. Oro har ondo baloratu da ekimen horiek izandako eragina, hainbat gauzatarako balio izan dutela uste baita (aldeko jarrera sortzen, sentsibilizazioa areagotzen, hitzarmen batzuk lortzen, euskaldunen ahalduntzean...):

Oso interesantea da ze horiek guztiek aldeko jarrera hori ere sortzen dute, sentsibilizazioa sortzen dute eta inportantea da. Baina are gehiago, hainbat eragilerekin-eta hitzarmenak egin dira, lanak egin dira... O sea, kirol-arloarekin, arlo sozioekonomikoarekin, hor egiten diren, hor eragiten den guzti hori interesgarria da gure ekosistema hau gero eta euskaldunagoa izan dadin eta euskarak gero eta presentzia gehiago izan dezan. Azkenean, orain dela gutxi Kontseiluak aurkeztu duen kanpainan aipatzen zena: da euskaraz eroso bizitzeko, o sea, dela helburua. Euskaraz eroso. Ez sartu behar zarela komertzio batera eta ez dakizu, "honek jakingo ote du edo ez du?". Hori, euskaldunok bizi dugun tentsio puntu hori? Ordua, hori egiten da eta Euskara Ari Du, Euskaraldia eta guzti horiek asko laguntzen dute. Laguntzen dute, nolabait, egitura horiek -kirol-elkartee, enpresak, kultur elkarteak...- euskara ere hor edukitzen edo euskalduntzen neurri batean edo bestean. Eta, bueno, horrek laguntzen du gero hor erabili edo euskaraz lan egiteko edo euskaraz funtzionatzeko. Bai, inportanteak dira, oso inportanteak dira. 4

Beitu, Euskaraldia, ni hasieran nintzen súper reticente Euskaraldiarekin. [...] Eta bat-batean, hor gertatu zen zerbait hibridatzen duena, bueno, pixka bat bienquerismo hori ahalduntzearekin, ez? Ze, klaro, kodigo konpartitu bat zegoen berriz ere. Eta zuk ikusten baldin bazenuen Ahobizi bat, Belarriprest bat, sortzen zen hori. Eta zu sartzen zinen nonbaiten eta, ez bakarrik komertzioetan: kalean. Eta nik uste dut egon zela energia hori. Eta nik, hor, aziertoei aziertoa esan behar zaie. Hor ikusi zen. Ikusi zenbat garen, harritu zenbat jendeak dakien eta zenbatek ez, zenbat aurreiritzi ditugun... Nik uste dut hor funtzionatu duen zerbait dela, ez? 2

Aldi berean, baina, arrisku batzuk ikusten dira etorkizunean: kontuz ibili behar da egindakora ez mugatzearekin, ezin baita formula hori perpetuatzen ibili. Beste zerbait eskaini beharko dela laster baloratzen da, bai Euskaraldian edo baita Korrikaren gisako ekimenetan ere.

Iruditzen zait, abiapuntu interesanteak izan daitezke Hernanin, bere garaian, Euskara Ari Du edo Euskaraldia bera. Baina arazoa izan daiteke horretan geldituko garela. Perpetuatu gaitezkeela Euskaraldia egiten hurrengo hogeitaz urteetan. Ez. O sea, batetik bestera ez badu saltorik ematen... Korrika bera. Korrikak berak mezu fuertagoa eman behar du. Korrika egiteak, gaur egun, milaka lagun biltzen du. Ostras, hori orain egin behar da mezu sendagoekin zentratu. Eta mezuekin batera ea konpromisoetara iristeko gauzak dauzkagun. Dauzkagun tresna horiek nola erabiliko ditugu pauso bat aurrera eramateko? Uste dut horretan pentsatu behar dugula. Jendearentzat Euskaraldia bezalako gauza bat erakargarria baldin bada eta ondo badago, oso ondo dago. Oso ondo dago. Bat egin dugu, bigarrena egin dugu. Hirugarrena berdin egingo dugu? Nire ustez hanka sartzea izango litzateke. Pentsatu behar da: "Aber, hirugarrengoa zein eratako saltoa eman dezakegu eta nongoa planteatuko dugu? Zein konpromiso planteatuko ditugu?". Gutxienez hor egon daitezkeen kontzientziatuenekin. 1

Zentzu horretan, agente batzuekin konpromiso zehatzak hartu eta lantzen joatea garrantzitsua izango dela baloratzen da, bereziki publikoki jarrera aldekoa duten baina mugitzeko zailak izan daitezkeen subjektuekin (politikari eta ordezkari batzuk, adibidez), edota gisako gogoeta bat

egitea baita ere hausnarketa sakon batetik ez datozen subjektuekin baizik eta "postureorako" (gazteak, esaterako):

Euskaraldiak eta zera guzti horiek asko laguntzen dute euskararen aldeko jarreran jendartean. Baina politikoki edo arlo politikoan edo langile politikoengan eta ordezkari politikoengan-eta, oso labainkorra izan daitekeen edo bi alde dituen zera bat da. Denak gaude euskararen alde, baina erabakiak, hizkuntz-politikak egiteko gaitasuna duten politikari eta ordezkari zera horiek ere, gero hori aktibo nola bihurtzen duten, ez? Ze aldekotasun hori egon badago, baina nola pasatzen da hortik aktibotasunera? Ze argazkirako? Eta guk, momentu batean, udaletxean geundenean, lehen aipatu det, alderdi politikoen artean eztabaida asko genituen hizkuntzaren inguruan, baina gauza formaletan: plenora iristen zen txosten bat, ez dakit zer, "ez dut ulertu txostena", "baina ez dakit zer", "baina nik egin nahi dut ez dakit zer ze diru-laguntza asko ematen da"... Ez dakit, ez? Ziren oso zera, euskararen inguruan batzuetan... Baina gero, Euskaraldia iristen zenean zegoen ahobizi, belarriprest eta argazkiprest [barre egiten dute]. Eta argazkiprest asko zegoen. Eta sutu, niri da gauza bat sutu egiten didana. Ze, klaro, denak geunden argazkian, eta oso ondo. Horrek bere balorea du, bere balioa du eta hori erabili behar dugu edo jakin behar dugu hortaz baliatzen ere. Baina gero, egunerokotasunera itzultzen garenean eta etxe barruko lanetan-eta... Bai? Orduan, horrelako gauzek diskurtsoa errazten dute, neurri batian, diskurtsoaren aldekotasun hori; baina prest gaude, argazkirako prest gaude. Hortik haratago, zer? Eta nora? 4

Euskaraldiarekin ere asko zabaldu zen, ze izan zen bonbardeo bat hor: benga, benga, benga! Bonbardeo bat. Eta horrelako gauzetara postureoarengatik gazteak, txapita bat... Orduan jendea animatzen da. Baina ez gero hor hausnarketa bat egon delako edo prozesu bat edo... Orduan, gure-gureak, bete-betea daudenak, zer egiten du horrek txapa horrekin? [...] Jendeak - klaro, garai horretan ere [altuan pentsatzen ari da]-, ekintzetan eta parte hartzeko, garai horretan erdi jai erdi hori... eta orduan apuntatzen dira. Batzuk, klaro, puroak direnak nahi dute beste pauso bat. O sea, ez da jai eguna, egin behar dugu lana, hemen gelditu behar dugu eta egin behar dugu, eta beste askok egiten dute martxa. Orduan hori beti izan da. 8

Egitasmo horien beste muga bat iraunkortasuna dela baloratzen da: hau da, ekimen puntualak izatetik beren eragina denboran luzatzeko eta konstante mantentzeko moduak bilatzea garrantzitsua litzateke.

Euskaraldia ez da egin behar bi astez, baizik eta urte osoan [barrez]. Noski, probatzeko, hasiera batean ondo da, nonbaitean hasi behar da eta ondo da bi aste egitea. 7

Euskara Ari Du eta Euskaraldia, oso ondo. Oso ondo erabilera hortxe dagoelako, ardatzean edo, eta horretaz hitz egin behar da, hori mantendu behar da, ez dakit tentsio puntu hori edo dena delakoa. Jendeari pentsarazi behar zaio, bai? Hau da, berez batek egingo lukeena, beno ba dagoen giroa edo dinamikagatik, ea horrek bultzatuta egiten duen, bai? Orduan, Euskaraldiaren kontuarekin, erabilera helburua jartzearena eta hori dena, oso ondo. Egin zen bere momentuan eta nik inguruan ikusi nuen eta ikastolan egin zen kanpaina, talde guztietan azaldu, guraso askok eman zuten izena... Beno, eman zuten izena, hori lortu da, besterik ez bada, ez dakit, bost minutu-hamar minutu horri buruz pentsatzea. Bada, zerbait bada. Pentsatu dute eta bete dute papera edo konpromisoa. Hortik aurrera oso luzea da eta egin behar da, baina hori gabe ere ez zuten egingo, ezta bost minutu ere pentsatu horren inguruan edo beraien artean komentatu edo gela bileran ere aipatu zenean. Orduan banaiz [horren aldekoa]. Egia da gero beti bezala lausotu egiten dela. Uste dugu indar hori mantendu egingo dela, eta ez da. Da momentukoa, kanpainak horrelakoak dira, kanpainak momento jakin batean, bai: Euskararen eguna, egun horretarako hau eta hau antolatu eta gero "bufffff" [indar hori desagertzen da]. Zailena hori da, mantentzea. Mantentzeko egin behar dira, egin, gauzak, egitasmo ezberdinak...

Erabilera aktibatzeko ekimenak izanda Euskaraldia eta Euskara Ari Du, antzekotasunak ikusten zaizkie baina baita desberdintasunak ere. Desberdintasun nagusia sortzen duten talde izaeran kokatu da, eta "ghetto" izaeran (Euskaraldiak ez duena, zabalagoa baita; eta aldiz Euskara Ari Du-ren kasuan gehiago indartu zena). Bakoitzari bere alde onak eta mugak ikusten zaizkio, eta bien beharra egongo dela baloratzen da.

Euskaraldiak duena bada zabalagoa dela. Zabalagoa esan nahi dut instituzio aldetik badago halako zera bat eta beno, horrek komunikazio aldetik ere, teorian jende gehiagorengana iristen zara. Eta hori da: gero eta jende gehiagok ezagutzen badu, jende gehiagok pentsatuko du horri buruz. Ez zaio arrotza egingo ikustea ahobizi txapa, ez? Zure eremuan gelditzen baldin bazara... Azkenean nahiko ghetto bagara, ghettotan mugitzen gara. Badaude ghetto asko. Eta orduan beno, Euskaraldiak beste... Handiagoa edo ez dakit nola... Hori ona da. Gero hori ere, indarra "fiuuu"... [galtzen da]. Baina egon horren inguruan. Nahiz eta gero horrek ere desgastea dakarren. Etengabe entzuten duzun mezuak, azkenean ere, indarra galtzen du. 9

Euskaraz Ari Du kanpaina, edo kanpainetan, nik bizi nituenak konparatuta adibidez Euskaraldiarekin, bai gehiago, gustokoagoak izan nituen gauza sinple batengatik. Behintzat kanpotik ikusita, eh. Kanpotik ikusita, Euskaraldian edonor kabitzen zen. Eta Euskaraz Ari Dun ez zen edonor kabitzen. Eta orduan, niretzat hori oso inportantea da. O sea, aber, hau ez da Kilometroak edo Ibilaldia edo Herri Urrats bezala, nahikoa duzula toki batera joan eta kilometro batzuk egin eta diru bat eman eta ya daukazu barkamena bizitza osorako, ulertzen? Hori da Euskaraldia. Euskaraldia da, en fin, absoluzioa guztientzat eta pixka bat es mucho eta dena zoragarri, ezta? Eta ez dut esaten hori gaizki dagoenik, eh. Baina Euskaraz Ari Du kanpainak bai transmititzen zuen gehiago, askok kritikatu izan dutena, nahiz eta ni konforme ez egon, eta da: ghettoaren sentsazioa. "Bai, horiek dira los vascos". Ulertzen? Baina ni horren alde nago, eh. Ni nago... Ze jendeak ikusiko balu: "Eh, eh, barkatu, que ahí están los vascos y cuidado, eh. Que esos a la mínima te montan un pollo". Ulertzen? Eta orduan... Ari naiz guztiz kanpotik, nire sentsazioei buruz hitz egiten. Baina nik hori nahiago dut, o sea, esatea... Ze es que bestela katxondismoan erortzen gara. Orduan, ez, ez, barkatu, "hor daude batzuk, puf, kontuz horiekin". Bueno, "kontuz horiekin", harik eta haiengana hurbiltzen zaren arte. Haiengana hurbiltzen zarenean ikusten duzu joder, pertsona maitagarriak direla eta ez direla inposatzaileak. Ya, ya, baina pauso hori eman ondoren, ulertzen? Ze bestela, Euskaraldiaren zeraren barruan denak kabitzen gara. Baina denak kabitzen gara, baita Felipe VI ere, ulertzen? Felipe VI kabitzen da euskaraldiaren barruan ere. Eta María Chivite eta denak kabitzen dira Euskaraldiaren barruan. Eta bale, ondo dago, hori ere egin beharko da. Baina nik beste zerbaiten beharra ikusten dut. 3

Euskararen aldeko mugimendu sozialak aurrera begira dituen erronkekin amaitzeko, barne-elementuez gain bestelako agenteekin dauden harremanei ere erreparatu zaie. Alde batetik, beste mugimendu sozialekin dauden loturak aipatu dira, hain justu esateko euskalgintza eta beste eremu batzuen arteko zubiak faltan sumatzen direla.

Daukat sentsazio bat, nire belaunaldiko bueltan [30 urte inguru], falta dela errelebo bat edo euskalgintzarekiko zera hori. O sea, nik neuk hartzen dut ardura horretan, ez? Delako inkomodoa debate batzuei lotuta, justu oraintxe ari ginenari lotuta. Eta nik bai botatzen ditudala faltan, nahiz eta horrek ez duen berpiztuko ez erabilera ez ez dakit zer, eduki ahal izateko euskararen aldeko estrategia findu bat behar dugu jende bat erresolbituta dituen hainbat... Edo ez resolbituta, edo gutxienez eztabaidatzeko espazio bat daukana. Niri tokatu zait joatea [euskararekin lotutako leku batera] feminismoa eta euskararen inguruko hitzaldi bat ematera, y hostias. Niri ematen zidan lotsa zein nibel baxuan ari nintzen feminismoaren inguruan, eta han zegoen jende bat burua ari zitzaiona lehertzen. Eta, klaro, baina aldi berean etortzen da norbait euskalgintza kañero batetik mugimendu feministara, eta batzuk daude esaten: "Ostra, klaro, guk egin dugu hau eta hau", ez? Orduan, hor falta dira zera batzuk. Baina nik bai botatzen ditut faltan estrategia komunak, politikoak eta... Ez politikoak politikari lotuta, esan nahi dut estrategia politikoak fintzeko esparruak. Eta igual hau da

nik faltan botatzen dudan zerbait. Ze, zein da estrategia? "Euskaraz bizi nahi dut"? Estrategia da, pues hoixe, Euskaraldia? Ez dakit. Zein da? [...] Orain egin dugun hau nik bai eskertuko nuke beste batzuekin, antzeko gauzak pentsatzen dituztenekin esatea... Porque igual me he caído de un pino eta ni ari naiz pentsatzen hemen dakidala, edo pentsatzen dudala ez dakit zer, eta derrepente ez. Eta resolbituta edo pentsatu zer izango litzatekeen estrategikoa eta zer ez. Hori bai, nik bai botatzen dut faltan hori. [...] Debate zail hauek planteatzen dituzuenak, ba nik uste dut kolektiboki erantzun behar direla. 2

Esate baterako, lehen esan moduan, komertzioekin. Hemen Hernanin badago Berriak Elkartea, horrekin ere hartu-emana izan lezake. Edo badaukagu beste langile bat Doberan Euskaraldiaren bide horretatik hasi zena eta bada ekimen bat Euskara Ari Du izena duena eta hortik ere euskara biziberritzeko asmoarekin hasi zena eta orain kirol taldeekin eta pixka bat lanean ari dena. 6

Aipatu den beste eremua herrigintza eta instituzioen artekoa da. Gaur egun kolaborazioaren eta elkarlanaren eredia dagoela indarrean baloratu da, baina eredu horren inguruan gogoetatu beharra dagoela adierazi da: zein puntura arte da erreala? Zein muga ditu? Eta zein da horren aurrean herri mugimenduak hartu beharreko rola? Zein puntura arte gatazka giro batean hobeto moldatuko litzateke herri mugimendua?

Niri iruditzen zait gatazka giro batean herri ekimenak askoz ere hobeto funtzionatzen duela edo errazago moldatzen dela. Edo topatzen du bere... Ez dakit, topatzen duelako bere izateko arrazoiak, edo zer. Bestela, iruditzen zait... Ze, besteak beste, gertatzen dena da, zintzoak izanda, kolaboraziorako giro hori ere ez delako erreala. O sea, kolaborazioko giro hori da, bueno, en fin, "arnasa kenduko ez dizun egoera bat onartuko dizut, baina hortik ez pasa". Orduan, azkenean, bueno, bai, kolaborazio bat dago, baina benetan, ez? [...] Orduan, esaten duzu: bueno, zenbateraino onartu behar dugu? Hau da jokoa? Pues tranpa bat da neurri handi batean. Eta, orduan... Baina gertatzen da hori: daukazu erakunde bat, daukazu langile batzuk, daukazu ez dakit zer... Horri soluzio bat eman behar diozu eta, beste alde batetik, horri soluzioa emateak berak ahultzen du zera. Orduan, uste dut herri ekimena dagoela oso egoera zailean, bidegurutze oso-oso zail batean. Azkenean, bere bizirauteko menpekotasun ia erabatekoa administrazioekikoa da eta, orduan, horrek zaildu egiten dio edozein konfrontazio minimo, eh. [...] Oraindik ez daukagu kultura nahikorik batak bestea den bezelakoa eta bete behar duen funtzioarekin onartzeko. Eta esateko: "Bale, nik administrazioa onartu behar dut maila batean, baina zuk ere onartu behar nauzu ni, eta ni aterako naizela pankartarekin zure aurrean, eta egingo ditudala gauzak, ze nik izan behar dut presioa". 1

Niri etsipengarriak -pertsonalki, eh, ez dut esaten ideologikoki- baina pertsonalki niri etsipengarriak egiten zaizkit pues azkeneko hogeitaz urte hauetan modan jarri diren kontsentsu, ez dakit zer y la hostia eta rollo horiek denak. Niri, etsipengarriak zaizkit. [...] Eta orain dena da itunak, itunak, itunak... Baina itunak, letrak. Baina aber, zer egin behar dut nire auzoak euskaraz hitz egin dezan, euskarazko produktuak kontsumitu ditzan, euskaraz bizitzeko ahalegina egitera behartuta senti dadin? Ni fase horretan nago. Es que ez baditugu behartzen, ez dute egingo. Oso gustora bizi dira Espainian. Nahiz eta EH Bildukoak izan y la hostia y no sé qué, nahiz eta euskaraz izan, oso gustora bizi dira espainolez eta Espainian. Oso gustora bizi dira. Orduan, ez baditugu behartzen, alferrik da. Bolkatuko ditugu nahi ditugun, en fin, zer esplikatu dizuet zuei txostengintzari buruz. En fin, txostenak, en fin, dozenaka eta ehunka orrialde, ezta? 3

3.2.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK

Elkarrizketetako edukiak aurkeztuta, honako ekarpenak jaso dira kontraste saioetan ([euskalgintza](#) soilik landu zen espresuki, eta beste ekarpen batzuk ere jaso ziren beste saioetan):

DIAGNOSTIKOA	- Herri mugimenduak, oro har, ahul daude (ez euskalgintza bakarrik). Gizartea eta ohiturak aldatu egin dira: gizarte gero eta indibidualistagoa da eta bolondres gero eta gutxiago dago. Euskararen inguruan gizarte mugimendurik ez dago, baina eta beharrik sumatzen da? "Egina dago" logikan gauden zintzilikatuak eta beste gai batzuetan dago jendea, urrundu egin gara euskaratik. Bereziki euskararen aldeko mugimenduan neska gazteak daude inplikatuak, baina ghetto itxietan ari da gelditzen euskararen gaia. Baliabideak ere mugatuak dira eremu batzuetan (AEKn, adibidez), eta zaila egiten da gazteak erakartzea. - Egia da euskalgintza gero eta profesionalizatuagoa dagoela. Hori ez da gaizki ikusten, baina kalekotasunarekin orekatzeko beharra dago. Ikusten da belaunaldi aldaketa bat badatorrela, bereziki lanpostuen eremuan (sartu zen belaunaldi bat bere ibilbidea amaitzen ari delako). - Oro har gizarte guztia, subjektu guztiak eta eragile guztiak euskararen alde daude, baina une garrantzitsuetan atzera egiten da, edo gero eta laguntza gutxiago daude. Zergatik gertatzen da, denok alde bagaude? Denok alde gaudelako diskurtsoaren baitan bizitzea gai baten inguruan dagoen mugimendu soziala desaktibatzeke modurik eraginkorrenetakoa dela baloratzen da.
PROPOSAMENAK	- Euskararen aldeko herri mugimenduen aktibazioa bultzatzeko beharra dago. Aktibazio horretan gazteek parte hartu behar dutela baloratzen da, erreleboa hartu behar dutela. "Eginda dago" sentimenduari buelta ematea garrantzitsua litzatekeela baloratzen da eta txip aldaketa bat izan. Belaunaldi bakoitzeko heldu beharreko gaia da honakoa. - Herri mugimenduen arteko sareak sortzeko beharra dago euskalgintzaren eremuan. Bestelako subjektu eta agente batzuekin interlokuzioak sortu beharra azpimarratu da, eta beste espazio batzuetan eragin. Euskara zeharlerroan sustatzea garrantzitsua da. Eragin beharreko eremu moduan honakoak aipatu dira: kirola eta hezkuntza. - Herri mugimenduez gain, udalek (herritarrengandik gertuen dauden instituzioek) euskararen normalizazioa babestu eta bertan eragin behar dute. Ildo horretatik, gogoetatzen da azken urteetan euskararen erabilera aktibatzeke eta ahalduz aktibatzeke egin diren saiakeretan Udalak parte hartu duela eta positiboki baloratzen da izandako prozesua. Norabide horretan, zalantza adierazi da Udalak agente aktibo izan behar ez duelako ideiarekin. Agian euskararen aldeko mugimendu sozial bat aktibatzeke ez, baina leku bat eta izaera aktibo bat eduki behar duela baloratzen da, eta mugimendu sozialetan esku hartu. - Lehen, helburua ezagutzen zegoen. Orain erabileran egon behar du (badago baina ez dakigu nola bultzatu). Euskaraldia eta Euskara Ari Du bezalako ekimenek oso ongi funtzionatu dute eta egiten jarraitzea garrantzitsua da beraietan diru eta baliabide gehiago inbertituz, edota bestelako dinamika indartzea (adibidez, komertzioetan sustatzea lehen hitza euskaraz egin dezaten eta ez itxarotea bezeroak zein hizkuntzetan hitz egiten duen entzutera; edota Udalarekin harremana euskaraz bakarrik politika batean oinarritzea). Hala ere, ekimen puntualek erraz galtzen dute indarra eta horri arretaz begiratu beharko zaio. - Ez gara konturatzen zenbat gaztelania hitz egiten dugun egunerokotasunean. Euskaraldiak eta bertan jarritako txapak lagungarriak izan dira horretan. Balio izan dute. Gehiagotan edo maiztasun handiagoarekin egin beharko lirateke horrelako gauzak. - Dinamika eta ekintza zehatzez harago, diskurtsoa berritu beharra ere nabaritzen da. Gaur egun erabiltzen diren diskurtsoak zaharkituak daude eta motz gelditzen dira. Era berean, aldeko diskurtso ez-errealak bistarazteko edo agerian uztea garrantzitsua litzatekeela baloratu da, beren eragin desaktibatzailea neutralizatzeke.

3.3. EUSKAL KULTURGINTZA

Bigarren gai-blokea osatzeko, adar zehatz bati buruz eztabaidatu da baita ere: euskal kulturgintza eta euskal sorkuntzaz zehazki. Segidan jasotzen dira gai honi dagozkion gogoetak.

3.3.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA

Lehenengo gogoeta izan da euskarazko kultur produktuen kontsumoa oso baxua dela, bai gazteetan eta baita helduetan ere.

B: Beno, beste gauza bat, ez dugu aipatu, da: [nerabeek] ez dute batere kontsumitzen euskal kultura. Zero!

A: Zeinek kontsumitzen du euskal kultura? 8

Are gehiago, euskaraz ez izateak ez du esan nahi gaztelaniaz denik: gero eta ingelesaren eragina handiagoa dela nabarmentzen da, eta ingelesezko produktuek gero eta pisu gehiago dutela.

Hori da askotan ikusten duten, edaten duten edo jaten duten komunikabideek eta serieek eta pelikulak eta hori, 10etik 9, ez esateagatik 10etik 10 gazteleraz, gero eta jende gehiago ingelesez baita ere. Inglesa ere bai, eh. Gero eta gehiago, serieak ikusteko eta horrela ikusteko gero eta gehiago ingelesez. [...] Baina proportzioa da 7-3. Zazpi gaztelaniaz eta hiru ingelesez, bai. Eta euskaraz 0. Eta hortik sortzen diren gauzak, hor ere jaso egiten dituzte. 8

Euskarazko kultur produktuak egon badaude, agian gauden euskaldun kopururako ez hain gutxi eta dena. Edozein kasutan, publiko eta adin-tarte batzuei begira bereziki hutsune nabarmenak badaudela ikusten da (hain gazteak ez diren gaztetxoentzat, adibidez):

Nik uste dut produkzio gehiago daukagula kontsumoa baino euskaraz, kasik, seguramente. Proportzionalki, beste edozein hizkuntzetako zerak hartzen baldin baditugu. O sea, esan nahi dut, ez da naturala dela Durangoko Azoka batean produzitzen duguna garen hitzun kopuru gutxirako. Eta Durangon erosten den guztitik zenbat kontsumitzen den... [barre egiten dute] Osasuntsu gaude kontuan hartuta zein den panorama, baina bueno. 2

Argi dago euskarazko eskaintza oso pobrea dela. Badago. Oso militantea izan behar duzu. Hala da. Aipatzen dute... Badaude, ez? Oso burubelarri eta oso militanteak direnak eta, bai, pelikulak jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Nik beti esaten dut: "barkatu, baina nire 11 urteko alabari ez dio denbora ematen irakurtzeko". Indarra, esfortzu bat egin behar du. Euskara Ari Du, ez? Sirimiri bezala jaso behar dugu, ez? Hori ere bai, ikusentzunezkoak. Bikoizketa bere garaian egiten zen baina bide hori eten zen. Bai, baina oso inportantea da. Umeek Doraemon, Dragoi Bolarekin jaso zen natural-natural. Dragoi Bolaren zera guztiak edo Doraemonen... hori da, zuk esaten duzu "kasko hegalaria" eta ondo, iruditzen zaie normala. Beno, normala, hala jaso duzulako. Baina gero dago sekulako etena: gazteentzako ez dago ezer, eta Goazen motz geratzen da, oso motz. Gero beste zera bat dago, eh. Baina beno, euskarazko eskaintza da, bale, ikusten dute baina oso adin jakineko umeek, gero hortik aurrera ia ez dago ezer. [...] Eta gero denetik daukagu, barkatu baina denetik dago. Eta gaur egun telesailak, bestea, ez dakit zer, badakit zer... Eta hori dena ia erderaz jasotzen dute. Beno, erderaz produkzio ikaragarria da. Eta oso zaila da produktuarekin asmatzea Goazenekin

asmatu duten bezala, oso zaila da, bai. Baina ez bada egiten ez da sekula asmatuko. Ez bada eskaintzen, ez da lortuko ikusentzule euskaldunik. [...] Orduan, aisialdiko eremu horietan gaur egun ikusentzunezkoena oso garrantzitsua da. Eta gazteen artean ikaragarria. 9

Azkenik, euskal kultur sorkuntza urte batzuetan gidatu izan duen planteamendua sedukzioaren logika izan dela adierazi da: euskaraz jakin bai baina bizitza erdaraz egiten duten pertsonak erakartzea eta publikoa hortik irabaztearena. Bide antzua izan dela baloratzen da, eta planteamendua aldatu beharra dagoela adierazi.

Ni literaturaren munduan ibili naiz eta nabil, argitaletxe baten inguruan eta hori. Eta beste egunean hau irakurtzen eta gaur errebasatzen eta hori, kaguen dios, es que ez dugu ikasten. O sea, duela hogeitaz urte, ez modan jarri zen, baizik guztiz ezarri zen erdua euskal kulturak egin behar zuela seduzitu. Euskarazko kulturak egin behar zuela erdalduna seduzitu, erakarri y la hostia. Eta orduan, joder, pues en fin, produktuek y la hostia, no sé qué, izan behar zutela erdal... Ez erdal, "euskal"... O sea, euskaraz egiten ez duten, euskaraz dakiten horiek ere erakartzeko aski erakargarri y la hostia. Zenbat urte pasatu genituen diskurtso horren menpe? Eta izan da frakaso totala. Baina frakaso totala, en fin, zenbakiak ikusi besterik ez dago. Baten batek egin beharko du balantzzea, ezta, horrena ere? [...] Egin behar dugu erakarri, seduzitu y la hostia. Bale. La hostia, saiatu gara, la hostia, saiatu, en fin... Aber, la hostia, kristoren liburuak literaturan, kristoren antzerki lanak, kristoren ez dakit zer y la hostia egin ditugu, baina haiek zer egin dute? "Haiek", euskaraz dakiten erdaldunak barne. Ze euskaraz dakiten erdaldunek espainolez irakurtzen dute Atxaga, ulertzen? Orduan, haiek zer egin dute? Zer ahalegin egin dute? Bueno, 0'5. Eta guk egin dugu ahalegina % 165. Orduan, bale. Bale. Bukatu da niretzat. Bukatu da rollo hori jendeak... Aber, gaur egun dago eskaintza... Egon zitekeen askoz gehiago? Noski. Baina norbaitek nahi badu disfrutatu eta gozatu euskarazko produktuekin literaturan, antzerkian, musikan, la hostia, no sé qué... Dauka, la hostia dauka. Eta segitzen dugu duela hogeitaz urteren antzera. Orduan, aber, baten batek esan beharko du diagnostikoan problema ez ginela gu. Problema beste nonbait zegoela. Diot. Ez? Hori inork ez du egin. Nik dakidala... [Antzeko kontsumoan esaten duzu, edo...?] Ez kontsumoan, inork ez duela jende hori presionatu. Presionatu zentzu ez siziliarrean, eh. O sea, presionatu modu adeitsuan. [Abegikorrean] Abegikorrean, hori. Eta hori da galdu dena, guztiz. 3

3.3.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Euskal kulturgintzari dagokionez, aurrera begira eman daitezkeen pausoetan pentsatzen jarrita, lehenengo azpimarratzen den puntua da kultur produktu batzuetara gerturatzeko hezi egin behar dela jendea. Adibidez, irakurzaletasuna sustatu edota komikien gisako produktuak prestigiatu (hizkuntzaz harago doana):

Hezi egin behar da jendea ya ez euskaraz, baizik eta irakurtzen erakutsi, nahi duenarentzat, ez dakit. Komikia oraindik tope denostatuta dago. 2

Segidan, gehien aipatu den puntua irisgarritasunarena izan da. Euskarazko produktuak egon badaude, baina zalantza adierazi da bereziki ea jendeari iristen zaion beren inguruko informazioa. Baloratu da gaur egungo gizartean gero eta gutxiago bilatzen direla edukiak aktiboki, eta euskal kultur sorkuntza nahiko ahul ikusten da badagoen materiala helarazteko bideei dagokienez. Difusio kanalak indartzea aurrera begirako gako nagusi moduan aipatu da.

Ez gara bizi mundu batean gaur egun non gauzen bila joaten garen. Etortzen zaizkigun gauzeekin zeratzen gara. Zer irakurtzen dugu? Sare sozialetatik iristen zaiguna. Ez naiz bila joaten. Ez, ez, iristen zaidan horrekin gelditzen naiz ia-ia, ehuneko parte handi bat. Orduan, iritsi egin behar da. Ni ezin naiz euskaraz zer dagoen bila hasi, ze jende gehiena ez da hasiko. Orduan, naturaltasunez iritsi behar zait euskaraz dagoen guzti hori. Eta hori lortzea oso inportantea da. Eta horrek eskatzen du euskaraz programatzea, euskaraz egitea gauzak... Ze niri askotan gertatzen zait, oraindik, euskaldunak ere ez direla enteratzen euskaraz zenbat gauza dagoen. Eta hori gure artean gertatzen den zerbait da. [...] Orduan, goazen hori potentziaztera; goazen hori indartzera eta goazen hori eskaintzera eta jendeari sartu dakiola leku guztietatik. Sentsazioa izan behar du jendeak "joder, hemen euskaraz bizi gara eta hemen euskaraz besterik ez da egiten". Bizitza osoa daramagu pentsatzen hemen erdaraz besterik ez dela egiten, orduan, batzuetan sentitu dezatela besteei "hemen euskaraz besterik ez da egiten". [...] Nik uste dut inbertitu egin behar dugula gehiago sustapenean. Sustapenean inbertitu behar dugu. Eta pelikula bat euskaraz egiten baldin bada, asteburu horretan egon behar du herri guztietako zineetan pelikula hori euskaraz. Denetan. Utzi hiru hilabetetan iristearena Euskal Herri osoari. Euskal Herria txikia da. [...] Batzuetan iruditzen zait oso polita dela manteroan irudi hori. Zenbat gauza erosten ditugu behar ez ditugunak? Pues pena ematen digulako, ez dakit zer... Baina beste askotan, ikusi dugulako eta gustatu egin zaigulako, hori ere bai. Inork ez du esaten, baina hori ere gertatzen zaigu. Ikusi egin dut eta, "hostia, pues erosi egingo dut". Baina zergatik? Ikusi egin duzulako. Bestela ez zenuen egingo. Orduan, jo, kontzeptu hori uste dut euskal kulturara eta euskal zerara ekarri egin behar dugula, manteroaren irudi horrekin funtzionatu. Erakutsi, erakutsi. Eskura jarri. 1

Euskarazko material gehiago Euskal Telebista batean edo Euskal Irratiak. Zenbat euskal irrati daude? Gure etxean uste dut hiru bat harrapatzen ditugula. Eta espainolezkoak zenbat? Beste guztiak. 6

Ez da ez dagoela produktu kulturalik, baizik eta horiengana iristea ere zaila dela. Edo ez dela erakusten. Hori gazteekin. Helduekin. Nik irakurle taldeak gidatzen ditut, euskaraz, eta jende asko apuntatzen zait horrela euskaraz irakurtzeko. "Es que ez daukat ohiturarik. Es que ez dakit euskaraz irakurtzen, es que ez dakit zer irakurri behar den euskaraz". Eta lo cual digo oso ondo, eh. Oso gauza... Esan nahi dut, iruditzen zait arrazoi oso eder bat apuntatzeko. Eta gero joaten dira harritzen, "jode, ba nik ez nekien honetaz eta ez dakit zer". Esaten dut: "ostras". Zu irakurle zalea baldin bazara, hernaniarra baldin bazara eta harritu egiten zaitu, ez dakit, Euskadi Saria irabazi berria duen idazle batek horrelako temak zeratzen dituela, hor transmisio falta bat dago ere bai. Eta ez dira hamasei urteko gazteak ez dakitenak irakurtzen. Orduan, zubi-lanak ere falta dira, ez? Kultura hori irisgarria egiteko. 2

Zabalpena indartzeaz gain, sorkuntza bera ere gehiago sustatu beharra aipatu da. Administrazio publikotik euskarazko kultur sorkuntzan soilik inbertitzea lehenetsi da, gaztelaniaz sortzen diren produktuen kasuan halako beharrik ez dagoela baloratuta.

Kulturan inyeztatu behar dela asko, eta hor bai naizela nazi totala. Kultura euskaraz sustatu behar da eta punto. Espainola ez, sustatuko da. Bere eszepzioekin, baina... Herri honetan, sustapena egin behar baldin bada, kultura bultzatzeko, kultura euskaraz sustatu behar da. Ze guk bai ditugu faltan beste kanal guzti horiek: nazioartekotasuna, biabilitate hori... Mugatua da ya gurea berez. Orduan, hor ez daukat dudarik baietz. Ez enteratzeko ni, eh, kastellanozko kultura hasten direla sustatzen Hernaniko Udaletik [errita tonuan esaten du]. Broma da, broma da. 2

Horretan badaude gehiago ere esaten dutenak euskal ekoizpenari laguntzak eman behar zaizkiela. Eta hor berriz ere, lehen esan dudana, erraztasunen eta zailtasunen bidea. Euskal ekoizpenei erraztasunak baina erderakoei, agian, zailtasunak jarri behar zaizkie. Espainiako argitaletxe handi batek ateratzen duen liburu bat Euskal Herrian banatzeko zenbaterainoko laguntza behar du liburu edo argitalpen horrek? Oker ez banago, Frantzia bertan ekoiztutako kultur produktuei lehentasuna ematen zaie eta hor kuota batzuk daude. Non daude kuota horiek Euskal Herrian? 6

Pauso bat gehiago emanda, sustatutako sorkuntza-prozesuen eta produktuen izaerari buruz ere gogoetatu da. Euskaraz sortzen duten eragileekin (dantza taldeak, literatura, bertsoa... dena delako eremukoak) landu daitekeela ikusten da zer den transmititzen dutena, zein hizkuntza eta identitatekin lotuta.

Esango nuke belaunaldi berriak, hemen bai, ez duela aukeratzen. Eta berari iritsi egiten zaiola eduki asko, eta hori dela kontsumitzen duena. Orduan, ahalegin bereiz bat egin behar da bistaratzeko, eskura jartzeko euskaraz sortutako kultura. Baina hori bezain garrantzitsua iruditzen zait dela jendea sortzen jartzea. Ze hortik, igual, bitartekari direnek egin behar dute transmisio lan hori, ezta? Aukerak eman sortzeko. Ez dakit, Hernanin, ba dantza taldea baldin badago, nola planteatzen da dantza taldea? Zer da transmititzen dena? Zer da ez dena transmititzen? Hor daudenek zein formazio daukate? "Daudenek" esan nahi dut bideratzaile edo... Zein puntura arte eskuratzen diete euskal dantza ikasten ari diren haurrei atzean dagoen ezagutza, ondare hori guztia? Zein harreman mota sustatzen dira beste dantza talde batzuekin, edo Euskal Herriko beste leku eta paraje batzuekin? Esan nahi dut, egin behar dugun politika ezin da izan bakarrik Netflix euskaraz jartzea. Igual hori ere beharrezkoa izango da, ze Netflixen denok gaude, edo ia guztiok. Baina ezin dugu konpetitu beste hizkuntza batzuekin ere. Orduan, gure indarguneak zeintzuk diren ere oso erdigunera ekarri behar dugu. [...] Nire lankide batek esaten zion beste lankide bati, baina txistulari izan zena bere herrian, oso erdaldundutako herri batean, zein garrantzitsua zen beretzat igandeetan entzuten zuenean txistulariak pasatzen etxe azpitik. Zein garrantzia izan zuen bere bizitzan hori bizitzeak. Jo, ba igual txistu taldea ere oso diferente biziko da hortik bizi bada, ez? Esan nahi dut, eskura dauzkagunak ere biprentsatu behar ditugula, eta osatu gehiago. [...] Euskaldun ez da hizkuntza bat jakitea, da egitea, izatea. Eta hor dago etika bat, dago bizitzeko modu bat... Hori sustatu, ezta? Eta herri guztietan daude eredugarriak diren pertsonak zentzu horretan. Pues kultur politika horruntz gehiago. 5

Gogoeta horrekin lotuta, antzeko hausnarketa bat egin da sustatzen den sorkuntza-lanen izaerari dagokionez. Hain justu, kritika egin da "gauzak sortu euskaraz sortzeagatik" planteamendu bati, eta adierazi da sorkuntza lanak ez badira kalitatezkoak, eragin negatiboa ere izan dezaketela euskaraz sortzeagatik egindako materialek:

Ya bale horrekin. Ez, o sea, "es que klaro, dena han [telebistan eta youtuben] dago eta orduan egin behar ditugu euskal youtuberrak", ez dituenak inork ikusiko. O sea, bale ya. "Eta egin behar dugu TikTok euskaraz", eta... Ba ateratzen bada aterako da, baina... Ulertzen didazu? Hor baita ere jartzen da batzuetan: "Gazteei eman egin behar diegu", ez? [...] Nik uste dut testuinguruaren arabera

youtube eta telebistak eta instagramek baino eragin handiagoa daukala zure gertuko sozializazioak. Hau da, zu baino bi urte gehiago dituzten kuadrillak zertan egiten duen, zein eskaintza dauden (kulturala, soziala, ez dakit, zure auzoan zer dagoen...) horrek eragin gehiago daukala. Eta horrek eman ahal dizu atxikimendu bat, eta hori da formula bat ere hemen askotan saiatu garena, ez? Batzuetan ere bai ardura gehiegi jarritz "zuek izan behar duzue eredu beraiek zeratzeko", eta igual errealitatea ez zen horrela. Baina horrek sortzen du, nik uste dut, askoz ere kontagio handiagoa bestelako artefaktu artifizial batzuk asmatzeak baino. [...] Euskarazko produkzioa iruditzen zait oso inportantea dela musikan, zinean eta literaturan, antzerkian, eta abar. Kultura interesante bat, ez euskaraz delako, baizik eta kultura produktu hori interesantea delako. Ze askotan beste bide batetik joan gara edo sortu dugu zerbait euskaraz izateko intentzioarekin. Eta hor batzuetan funtzionatu izan du, baina oso gutxi. 2

Era berean, publiko desberdinei balio dieten kalitatezko produktuak behar direla ere azpimarratu da: pop-agoak, elitistagoak... Hau da, kultura popularra ere sortu eta ez soilik mugatu goi mailako kultura intelektualari.

Euskararen presentzia bizitza publikoan. Hau da, komunikabideetan, publizitatean, euskal telebistan, orain egiten den Pantailak Euskaraz kanpainan... Adibidez, hori oso beharrezkoa da eta oso egokia, hain zuzen, komunikazio modernoan dauden eremu guztietan euskaraz bizi ahal izateko. Eta hori ere kanpora begira zaintzea, ez? Zaintzea modu positiboan. Esatea: "Begira, gure hizkuntza bihurtzen da edo egokitzen da, beste hizkuntza guztiak bezala, modernitateari". Edo balio unibertsala dauka, eta horrekin batera ere gure kultura eta gure nortasuna, ez? Eremu guztietan. Eta ez mugatzea ere kultura oso zehatz bati edo goi-mailako kultura intelektualari, hori ere guztiz beharrezkoa da, baina kultura popularra ere egon behar da aktibo. Existitu behar da euskaraz: publizitatea, eta kultur emankizunak, eta kontzertuak edo serieak, eta konkurtsoak, eta abar, eta abar. [...] Adibidez Kronika, Hernaniko Kronika iruditzen zait zerbait adibide oso lortuta, horri erreparatuta. Iruditzen zait guztiz asmatu dutela eta hori da benetan zerbait denentzat dena, ez? Ez da antzekorik erdaraz, ez da, eta hori jendeak kontsumitzen du euskaraz. Hori da herriarentzat, edo jendearentzako egunkaria. Ez da... Dira eguneroko gauzak eta doanik da, eta posible da edozein tokitan hartzea. Eta hori da bai kultura popularra, eta eskelak eta iragarki txikiak eta guzti. Oso tokiko albisteak, eta albiste txorradak: "kotxe bat irten da errepidetik" edo... Horrek bakarrik interesa du zure herrian, ez? Eta hori da ere euskaraz eskaini behar dena. 7

Esan dizuet pop literaturaren edo pop kulturaren alde nagoela. Eta horrek ez dio kentzen ez sakonerarik, ez edukian garrantziarik jarri nahi izaterik-edo. Uste dut euskara irisgarri bat ere eskertzen dela. Niri liburuekin pasatu zaidan gauzarik ederrenetakoa da deitzea euskaltegi batetik joateko eta esatea norbaitek "irakurri dut eta ulertu dut". Eta esatea, ostra. Eskolan baldin baditugu gauzak ulertu gabe irakurtzen, euskaltegietan ere bai, al parecer. [...] Orduan, nik uste dut kultura maila ere izan daitekeela pixka bat jolasteko eta bide bat egin nahi duenarentzako, egin nahi ez duenarentzako. Baina irisgarria izan behar duela ere bai, existitu behar duela kultura irisgarri batek, euskara irisgarri batek. Hori bai sinesten dut. 2

Sarritan aipatu den beste gako bat erreferenteena da. Euskal munduan eta euskaraz funtzionatuko duten erreferenteetan, eta bereziki gazteei begira, hankamotz dagoela ingurua baloratu da, eta gisa horretako erreferenteak sustatzen lanketa egitea garrantzitsua dela adierazi:

Kontua litzateke gaur egungo youtuberrak, influencerrak eta horiek guztiak eta gazteek edo gaztetxoek kontsumitzen dituzten guzti horiek... [...] Gazteak kritikatzeko kontu erraza da, baina azkenean elikagairik jartzen ez baldin badugu mahai gainean, oso zaila dute. Ni ere bat nator zugaz, X, erreferenteen kontua eta horixe. Zuk erreferenteak jartzen baldin badituzu mahai gainean, denok mugitzen gara erreferenteei begira. Denok, denok. Eta gaztetxoak eta gazteak, are gehiago. Orduan, non dauzkagu erreferente horiek? Zer-nolako erreferenteei begira bizi gara? Alde horretatik uste dut

ere zerbait daukagula ikasteko eta arakatzeko. [...] Orain dela gutxi DBH4an egin dugun lan baten harira, euskal musikariak ezagutzen dituztela esan ziguten. Bueno! Ba urte... Lehenengoko bider ikusten dudana. Ze urte askotan euskarazko musikaririk ez zegoen euren baitan. Orduan, bueno, ba bada zeozer. Baina musikariak badaude gaur egun gazteen gustukoak? Bale, ba goazen esploratzera alde horretatik. Igual alde ludikotik ere gehiago heldu behar diogu erabilerari. Eskolako kontua baldin bada, horrek bide laburra dauka. 5

Nik gero ikusten dut falta zaiela beraiei erreferenteak. Horrela, ez dakit, euskal erreferenteak, hau da, prestigio izatea. [...] Horiek behar dute momentuan pertsonak, erreferentziak... ez dakit, ikustea gizartean badagoela euskara. 8

Erreferenteak sortzeko lanetan, Hernaniko kasuaren bi berezitasun adierazi dira: batetik, herrian badaudela pertsonak erreferente gisa susta daitezkeenak; eta, bestetik, Udalak berak ere dagoeneko egiten duela lanketa erreferentzialtasun horiek sortzeko.

Uste dut erreferenteak dituztela baina ez dira ohartzen hizkuntzak zer garrantzi duen, bai? Hau da, ez dute lotzen hizkuntzarekin. Erreferenteak dira beste gauza batzuegatik. Ez dakit oraintxe zer esango nukeen, adibidez nire semeak agian futbola gustatzen zaiolako. Futboleko erreferenteren bat? Baina da futbola. Baliteke euskaldunen bat edukitzea erreferente, adibidez alaba, musika edo dena delakoa eta agian erreferente gehiago ditu euskal abeslari edo euskal taldeetatik edo dena delakoa, baina ez da konturatzen hizkuntzagatik dela. Orduan, erreferente izatearena, ez dakit... Iruditzen zait oso inportantea dela, eredia eta hau eta bestea, adibidez orain futbolarekin gogoratu naiz Realak, eta behin etxean aipatu nuen, Realak martxan jarri zuen prentsaurrekoak euskaraz bakarrik emango dituztela euskaldun diren... ez dakit non, tarteka edo dena delakoa. Bueno, bazen garaia. Triste da eh, triste da, orain arte inoiz ez zaio...? Erabat normala prentsaurrekoak-eta, ez? Eta orain zera hori, hau da, prentsaurreko batzuk, eta badituzte jokalaria batzuk, noski, euskaldunak direnak eta orduan prentsaurreko horiek euskara hutsean emango dituzte. Nik hori etxean aipatu nuen. Triste da gaur egun oraindik horrelako gauzak nabarmendu behar izatea. Oso naturala izan beharko luke hori. Nola da posible? Edo bere garaian kirolarien artean egin zen kanpaina hura, hau da, ETB-ri euskaraz bakarrik egingo zizkiotela deklarazioak. Euskaraz. Hortik aurrera ba jarri azpidatziak... eta zenbati eskatzen zaie bi hizkuntzatan egitea: euskaraz egin eta gero erderaz. Batzuek egiten dute eta beste batzuek, ba eskerrak. Orduan, arlo hori... Eta horiek dira erreferenteak. [...] Maialen Lujanbio, hernaniarra, Txapelketa Nagusiko txapelduna. Hernaniarra. Hemen benetan konturatzen gara zer esan nahi duen horrek? Eta hori erreferente bat da. Benetako garrantzia ematen zaio erreferente horri? 9

Eta nik uste dut herri honetan bastante zaintzen direla. Sortzaile mota desberdinak daude: musika aldetik, berriz esaten dut, bertsoetan... Baina uste dut badagoela zera. Eta hori sustatzea, hori erreferentzialtasuna sortzea da. Esaten genuena lehen, ez? Ez dakit gero gazteentzako guaia izango den edo ez den guaia izango, baina jakitea, joder, zure herrian honek egiten duela edo besteak, ez dakit zer, ez? Hor sortzen duzu pixka bat zera. Udal honetan, nik uste dut, bueno, zaintzen dela leku batetik edo bestetik. 2

Amaitzeko, dimentsioen inguruko gogoeta bat ere egin da, gauza txikiek duten garrantzia azpimarratuz. Hain justu, proiektu txikiak, zeinetan sarritan emakume-sareek pisu dezentea izaten duten, prestigiatu behar direla eta balioan jarri gogoetatu da. Norabide honetan, Ikarrizketa batean adierazten zen euskal kultur sorkuntzari 2020ko pandemian bizirauten lagundu diona plaza eta zirkuito txikietako funtzionamendua izan dela hein batean.

B: Zaila da ikusaraztea gauza txiki horiek daukaten garrantzia. Ze ez da baloratzen. "Bueno, gauza txiki bat da". Bueno, ondo, baina gauza handiak, handi izateko, lehenengo txikiak izan behar dira, ez? Eta txiki askok ere eragin handia izan dezakete. Eta orduan, bueno, zergatik utziko dugu ere... "Bah, hori gauza txiki bat da". Ba ez, ez, ez. Hori da inportanteena. Zuk igual ekimen bat martxan

jartzen duzunean lau, sei lagunekin jartzen duzu martxan, baina gero horrek bere bidea edukiko du, eta jende gehiago interesatuko da, eta sorkuntza lan bat egingo da hortxe, eta harremanak egingo dira, eta beste gauza batzuk ere sortzen dira hortik, beste ideia batzuk, beste aktibitate batzuk, beste ekimen batzuk. Orduan, saretze lan hori, ez?

A: Bai, eta hona ekarri genezake baita ere genero perspektiba: gauza horiek, prozesu horiek askotan emakumeek hobeto zaintzen dituzte. Baina baloratzen daudenak askotan gizonak dira. Eta ez zaie ematen daukaten garrantzia. Baina gero, herri bat gauza horien bitartez eraikitzen da: zaintza sareak, harremanen kalitatea, errekonozimenduak... azkenean hori da jokoan dagoena euskararekin ere. 5

3.3.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK

Elkarrizketetako edukiak aurkeztuta, honako ekarpenak jaso dira kontraste saioetan (euskalgintzan soilik landu zen):

DIAGNOSTIKOA	- Euskal kultur sorkuntza badago, baina jendea bertara iristea edo gerturatzea da gakoa. Kultura jaso egiten da, eta bilaketa aktiboa gutxi egiten da. - Kultur sorkuntza orokorrarekin agertu da zalantza, ez soilik euskarazkoarekin, nahiz eta egia den euskarazko materialak lortzeko mugak handiagoak direla (azpiegiturak, baliabideak... asko gaztelaniaz dago). - Belaunaldi desberdinetan gertatzen den kontua da, ez soilik gazteei eragiten diena. - Sortzaileei baliabideak falta zaizkie eta ez dira entzuten. - Euskara hutsez ematean, badirudi kexen beldur garela.
PROPOSAMENAK	- Eduki kulturalak sortzea ere garrantzitsua da erabilera areagotzeko. Ikus-entzunezkoak sustatu behar dira eta euskarazko produktuak egon daitezela. Hala ere, hausnartu behar da sortzen diren edo sortu nahi diren edukien izaeran. Edozein motatako saioak egin nahi ditugu euskaraz? Edo balio eta ikuspegi batzuk dituztenak sortzea ez zaigu interesatzen? - Herritarrak erakartzeko, kultur eskaintza beste gune batzuetara pasa behar da, kalera atera behar da. - Aisialdiaren aldekoak, alderdi ludikoa sustatu behar da. Euskaraz hezkuntza formaletik kanpora atera behar da. Ondo pasa euskaraz... Gehienetan umeentzako pentsatzen da, baina helduentzako ere egin behar da. - Testuinguru batzuetan behartzea ere falta daiteke agian. Aipatu diren hiru gune: (1) ETBn euskaraz egitea, horretarako akuilu lana, (2) interneten euskararen presentzia handitzea, edo (3) plataforma digitalak, Netflix adibidez. - Euskara hutsezko espazioak edukitzea Hernanin klabea litzatekeela baloratzen da, "hau da nire gunea" sentituko lukeena jendeak. - Erreferenteen beharra, kultur sorkuntza bultzatu, eta erreferenteek euskaraz egitea.

3.4. EUSKARA GAITASUNA: EZAGUTZA ETA ERABILERA

Laugarren gai-blokea euskara gaitasunari buruzkoa izan da, zehazki euskara ezagutza eta erabileraren inguruan izandako bilakaerari dagokiona. Abiapuntu moduan, honako ikuspegia jaso da:

GOGOETARAKO ABIAPUNTUA

- Azken 35 urteetan handitu egin da euskaldunen kopurua. Erdaldunen taldea zen lehen jendetsuena eta orain euskaldunak gehiago dira Hernanin, baina erdaldunen beheranzko joera "tope" puntura iritsi da 2006tik.
- Euskal Herriz kanpoko migrazio berriaren (2000tik honakoa) euskara-gaitasunaren tasa 50-70. hamarkadetan etorritakoen antzekoa da.
- Euskara-gaitasunari dagokionez, auzoak elkarren artean homogeneousatzen ari dira: erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen.
- Hizkuntza-ibilbideen bilakaerari begiratuta (BILA indizea), irabaziak handiagoak dira galerak baino: euskarara gerturatu den jendea gehiago da urrundu dena baino.
- Gaztelaniak segitzen du izaten etxean gehien hitz egiten den hizkuntza, eta euskarak ez du goranzko joera garbirik. Eta etxean hitz egiten den hizkuntzak eragin oso handia duela ikusten da haur eta gazteek kalean egiten duten euskara erabileran.
- Euskararen kaleko erabilera antzeko mantendu da 2001etik hona, % 30aren bueltan. Auzo batzuetatik besteetara alde handiak daude, eta emakumezkoek gehiago erabiltzen dute gizonezkoek baino.

Segidan jasotzen ditugu elkarriketetan eta kontraste saioetan ateratako ideiak.

3.4.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA

Euskara ezagutza eta erabileraren gaian, nahiko jakina da azken hamarkadetan gizartearen gaitasuna, oro har, areagotu egin dela. Hala ere, erabilerak ez du halako hazkunderik izan edo jaitsiera zantzuak erakusten ere ari da.

Hernaniko kasura gerturatuta, bi joera kontrajarri jaso dira elkarriketetan: batetik, susmoa adierazi da kalean eta gunen batzuetan ez ote den euskara gehiago erabiltzen duela urte batzuk baino, gazte kuadrilla batzuetan bereziki.

Garapen bat ikusten da kalean ere. Guk hemezortzi urte genituenean edo gaur, nik inpresioa daukat gazteen artean euskararekiko, adibidez, beste lotura bat dagoela eta euskara gehiago erabiltzen dela, nahiz eta oraindik erabilerak datuak txikiak izan, ez? Herri mailan behintzat. Nik askotan esaten dut, esaten denean: "gutxi erabiltzen da...". Puf, guk hemezortzi urterekin ez genuen euskaraz egiten. Guk geuk ez genuen egiten pixka bat kontzientzia hartzera iritsi ginenera arte. 1

Nik badaukat sentrazio bat orain dela hamar urte baino euskara askoz gehiago entzuten dudala Tiloetan. Orain entzuten dudala gehiago, batez ere 20 urte bueltako gazteek, uste dut, guk erabiltzen duguna baino dezente gehiago erabiltzen dutela. [...] Segun zein ordutan zoazen, segun zein kuadrilla, segun zein juntatzen diren. Eta oraindik gaztelaniaren presentzia badakit oso altu dagoela. Baina bai gazteek, eta neskek batez ere, ikusten ditut euskaraz egiten dutela beraien arteko hartu-eman hori. Eta ez daukatela sentrazio hori militantziaz ari direnik. Hori esango nuke. Igual beraiek esango dizute kontrakoa, eh, eta pentsatzen dut badaukatela kontzientzia bat-eta, klaro. Eta hemen egiteagatik ez du inork egiten. O sea, beti dago kontzientzia bat eta ardura politiko bat. Baina ez akaso guk behin gelditu eta esan behar izan genuen bezala: "Hostia, zer ari gara?", eta klak bat egin. Ez dut uste prozesu hori egin behar izan dutenik. 2

Ezkiagan lau gazte elkarrekin ari direnak, horiek badakite beraien gurasoek ez dutela euskaraz egiten haien artean. Eta, hala ere, haiek euskaraz egiten dute. Orduan, horiek dira euskararen aldeko militanteak, gazte horiek. Ze ni ia seguru nago beraien gurasoek ez dutela haien artean euskaraz egiten. Eta, hala ere, beraiek sortu dute beraien arteko konplizitate bat haien artean euskaraz egiteko, nahiz eta beraien gurasoak praktikan erdaldunak izan. Orduan, aber, nik nerabe eta gaztetxoak eta gazteak-eta, miresmena besterik ez. Presioa dinosauroei. Dudarik gabe. Imaginatu halako batean Kale Nagusian, Andrekalen, Plazaberrin, Ezkiaga Pasealekuan y la hostia, derrepente 50 urtetik gorako % 80 hasten direla haien artean euskaraz. Bueno, es que nerabeek eta umeek eta gazteek flipatu egingo lukete. Esango lukete: "Hau zer da, kamera ezkutuko programa bat, ezta? Ze, aber...". Es que aldatzen da dena. Baina aldatzen da dena. Eta orduan, 50 urtetik gorako euskaraz dakiten guztiak... Euskaraz ez dakitenak ez dezatela egin, baina euskaraz dakiten guztiek euskaraz egingo balute Kaxkoan, ez dut esaten ya beste auzoetan, Kaxkoan egingo balute hori, es que nerabeek eta gaztetxoek eta umeek esango lukete: "Ah, hau zen? Euskararen rollo hori hau zen?". 3

Gazteen artean hori gertatzen ari den heinean, ordea, euskaldundutako 35-50 urte bitarteko pertsonen artean ("guraso" direnen belaunaldia) jasotako euskara ezagutza praktikan ez dela erabiltzen nabaritzen da, edo dinamika orokorrak gaztelaniz direla. Hori bereziki arriskutsua dela baloratzen da, hain justu, gaur egungo haurrak bizi diren etxeak direlako horiek.

Iruditzen zait badela generazio bat ya ezagutza baduena, ikasketak euskaraz egin dituenak, baina erabat gaztelaniz funtzionatzen duena aisialdian, harremanetan... Uste dut gu bagarela, gaur egun hogeita hamapiku-berrogei-berrogeita hamar urtera arteko generazio hori, euskalduna, euskararen aldeko jarrera duena, ez dakit zer, baina ez dena... Erabat gaztelaniz funtzionatzen duena, ez? Esango nuke, ba bai bikote harremanetan, inguruan, kuadrillan, bai? Orduan, hor ez dakit nola egiten den. Eta hori lotuta dago, ze gure generazioak ya umeak... Hor umeak daude eta etxeko transmisio

hori... [...] Orduan, hor ikusten dut ezagutzatik erabilerarako erronka handi bat. Hor, gure generazio horretan. Ze ez dakit patro hori errepikatzen den, edo errepikatzeko arrisku hori egon daitekeelako. Ze hor dago galera bat nolabait. Ze da generazio bat ya euskaldundua dagoena, ya ikastolatik atera garenak, ikasketak, inkluso lana eta zera euskaraz egiten dutenak, baina bere eguneroko bizitzan eta egoera informalean eta familian gaztelaniaz dextente funtzionatzen dutenak. 4

Ikusten dituzunean ikastolako ikasle izandakoak, orain guraso direnak, eta horiek ere haien artean erderaz. Eta ez da momentu batean erderaz ari direla, baizik eta konturatzen zara haien harremana erderaz dela. Haiek ohituta daude erderaz egiten. Horrek zer pentsatua ematen du. Ez dakit, hor gauza asko daude, hor tartean. Eta gero ere, noski, oso garbi daukagu denok ikastolan matrikulatzen dugu umea, hori dena, diskurtsoa oso garbi, bai. Kontzientzia, teorian sentsibilizatuak, bai. Baina gero ez da guztiz erreala. Ze beno, bai, mantentzen dute, noski. Seme-alabekin euskaraz hitz egiten dute baina beraien arteko harremana ez da euskaraz. Eta gurasoen arteko harremana ere ez. Hori oso garbi ikusi dut, urteak. Guraso talde batzuk erderaz. Eta nik egin izan dut, beno, uste dut denok egiten ditugunak, probak. Whatsapp taldean bezala: whatsapp erderaz, erderaz, erderaz, nahita bidali nik mezu bat euskaraz eta orduan aldatu ia, eta ia euskaraz, euskaraz, euskaraz. Baina beno. Zeozer lortu da tontakeria batekin. Guraso taldeekin ere bai. Nik horrelako probak egin ditut mila. Iritsi, hasi zerbait euskaraz esaten eta, poliki, batzuk aldatu bai. Beste batzuk ez. Baina joera hori, hau da, ni ez banaiz iristen edo ez badut euskaraz zerbait esaten, erderaz segitzen dute. 9

Testuinguru orokor hori interpretatzen lagunduko duten klabeen artean, elkarriketetan azpimarratutako lehenengo ideia izan da gizarte mailan espazio batzuk euskaldundu direla, baina ez hala beste batzuk (lan mundua, Helduen Hezkuntza Iraunkorra, Lanbide Heziketak...). Hala, azken urteetako "euskalduntzearen" ideari ere ñabardurak egitea garrantzitsua da.

Gazteei hezkuntza eskaintzen zaie euskaraz, baina bizitza ez. Eta hori da, batez ere, orain akats handi bat, zeren geografikoki eremu batzuetan hezkuntza guztiz euskaraz da, DBH edo Batxilergoa bukatu arte. Baina gero lan mundua eta beste gizarte mundua ez da euskaraz. Eta orduan kontraesan handia da haur eta gazteen hezkuntzan, ze mezua botatzen duzu eta gero zein da errealitatea? Eta gero, badira eremu batzuk guztiz erdaldunak, ya galtzen dutenak hizkuntza eremu horretan, eta hori ere dagokie etorkinei. Eta hori da Helduen Hezkuntza Iraunkorra, Lanbide Heziketa, prestakuntza profesionala, lan gizarteratzea... Horiek guztiak dira erdaldunak % 99an-edo. 7

Transmisioa nik ikusten dut etxean bai, transmisioa egiten da, gero ikastolan... Baina hor badago koxka handi bat, eta da mundua. Eta umeak kanpora begira baldin badaude, eta logikoa da eta hala behar du. Ez zaude etxera begira, baizik eta kanpora, noski. Bizitza, beste mundua... Eta mundua erdalduna da. Orduan, derrigorrean erdaldundu egiten dira. 9

Gazteen eta helduen joera linguistikoak desberdinak izatea ere neurri batean uler daiteke bilakaera historikoarekin. Euskararen biziberritzea belaunaldi gazteen euskalduntzean kokatu zela baloratzen da, bereziki eskolaren bidez (eta horixe izan da euskaldundu den gune nagusietako bat, eta baita gizartean gaitasuna zabaltzearen gako bat ere). Baina, horrekin lotuta, ez zen hainbeste zentratu edo ez zitzaizen hainbeste erreparatu pertsona helduei. Bigarren norabide horretan hutsune bat gelditu dela ikusten da; hain justu, "gazteen" eta "helduen" munduak ez baitira banandutako bi dimentsio, baizik eta elkar elikatzen dutenak.

Bai, nik pentsatzen dut lehenago akatsa egin genuela gure belaunaldian, pentsatzen zen ia behin euskara hezkuntza munduan sartuta ya está, konponduta zegoela, listo! Oso logikoa zen garai hartan, "ikasten baldin badute ba erabiliko dute". Listo, ikasi-erabili. Baina hor hasi ginen ikusten gero, ikasi bai, baina gero erabili, ez da erabiltzen. Orduan beti "hezkuntzan euskara era informal batean...". Baina es que hezkuntza da erakunde formal bat. 8

Eta gero ikusten dut oinarrian badagoela –bueno, hau nire irakurketa da, baina- uste dut hanka sartze handi bat egin zela garai horietan, eta izan zen euskararen berreskurapena kokatzea etorkizuneko belaunaldietan. Haurrengan zeratzea. Eta hor ixtea. Esatea: "Ez, ez, hauek belaunaldiak euskaldunduko dira eta hortik etorriko da." Eta nik gogoratzen dut, orain dela gutxi ibili nintzen dokumentu batzuen bila eta ez nituen topatu, baina gogoratzen dut garai hartan AEKtik-eta zer diskurtso geneukan: helduak ez baldin badira euskalduntzen, eta helduen mundua ez bada euskalduntzen, hurrengo generazioak ez dira euskaldunak izango. Eta, zoritxarrez, betetzen ari den zerbait da, ez? Eta hor, nik uste dut klabea izan dela hori, pixka bat, hurrengo urteetan gertatu dena ulertzeko. [...] Nik uste dut benetako hizkuntz politika bat nahiko bagenu, lehentasuna markatuko nuke. Bueno, gutxien-gutxienez, gutxien-gutxienez, hirurogei urte bitarteko franja horretan, 50-60 urtera artekoa. Esan nahi dut, gaur egun seme-alabak dituzten eta seme-alaba haziak ere bai, baina dituzten horien euskalduntzea izan liteke oso inportantea, hain zuzen ere, modelo izan daitezkeelako benetan euskalduntzen ari garen zera horretan, ez? Eta iruditzen zait horrek izan beharko lukeela. 1

Gazteen belaunaldiak euskararekin duen harremana ulertzeko, beste bi fenomeno ere azpimarratu dira. Lehenengo, gaztaroa –eta bereziki nerabezaroa- hizkuntza ohiturak oso aldakorrek diren garai bat dela. Eta gaur egun aldaketa nagusia jatorriz euskaldunak diren eta gaztelaniaz erosoago hitz egitera pasatzen direnetan dagoela baloratzen da.

[DBHn dauden gazteen artean] daude bi perfil mota: batzuk askoz ere erosoago sentitzen direnak, bere ama hizkuntza euskara izan dutenak eta askoz ere erosoago sentitzen direnak euskaraz. Eta dago portzentai majo bat, ez dakit, 22tik zenbat? 10 edo hola? Zortzi-hamar edo horrela. Beste batzuk ama hizkuntza izan dutenak gaztelania, eta horiek garbi esaten dute askoz ere erosoago sentitzen direnak. Baina hor daude fuga bat, hor daude lau edo bost persona, berez ama hizkuntza daukatenak euskara eta etxean, bah, batek-edo ez daki -normalean ama hizkuntza daukatenak, ama euskalduna aita erdalduna; aita euskalduna eta ama erdalduna, normalean ama hizkuntza gaztelania, normalean eh-, eta hor dago fuga nik uste dut, lauren bat edo horrela, hor daude fuga bat etxean ez dagoelako... O sea, pasatu egin da. O sea, nahiz eta ama hizkuntza euskara izan, ia iristen da momentu bat nagusitzen dena gaztelania. Eta, orduan, gero horri eransten baldin bazaio lagunekin juntatzerakoan, garai horretan, ez dakit, DBHn –Batxilerren, ya hortik aurrera ez dakit, baina DBHn- lagunekin DBH1etik 4ra hartzen diren ohitura horiek 12-16 urte bitartean, orduan ia hartzen diren ohitura horiek asko errotzen dira eta azkar. Asko eta azkar errotzen dira [indartu nahi du]. Orduan hor daude gela bakoitzean lau-bost pertsona ama hizkuntza euskara izan arren, ya pasatu direnak gaztelaniako... Beraiek esaten dute: "erosoago sentitzen naiz gaztelaniaz". [...] Gero beste batzuek egin dute horrelako hausnarketa oso polita esanez, gutxi batzuk badaude Eusle militanteak, beraiek badakite beste guztiek ulertzen dutela euskaraz, orduan beraiek ez dute, beraiek gainera esaten dute: "nik ez dut hizkuntzaz aldatzen, nahiz eta erdera izan koadrilako hizkuntza nik badakit nik euskaraz hitz egiten dudala eta denek ulertzen dutela eta ez daukatela inolako zailtasunik ulertzeko". Hori da ya uf... oso aurreratua. Eta beste batzuk esaten dute: "jo, ikusten dut... (pena sentsazioarekin) nire gelako batzuei asko kostatzen zaiela eta ezin dutela espresatu nahi dutena euskaraz". Orduan lagundu beharrean, beno, bai laguntzen diete, baina nola? Gaztelaniaz. Orduan lagundu egiten diete besteari erosoago sentitzeko. Orduan iristen da momentu bat non zu ia erosoago sentitzen zaren beraren hizkuntzan eta listo. 8

Bigarren, hezkuntzaren eta D ereduaren bidez belaunaldi berrietan lortu den euskara gaitasun "unibertsala" ere erlatibizatu behar dela baloratzen da. Izan ere, hezkuntzan D eredutik pasa izatak ez du bermatzen euskara komunikazio-hizkuntza moduan eskuratu izatea. Kalitatearen auzia, kontrolatzen diren erregistroak, aberastasun linguistikoa... Ere sartzen dira tarteko, eta horren guztiaren ondorioz zein hizkuntzetan dauden erosoak.

Gaitasuna, zeren arabera neurtzen dugu gaitasuna? D ereduaren ikasi dugula, hori da gaitasuna? Esan nahi dut, jakintza izan daiteke ezagutza kontua, baina gaitasuna edukitzea, pff... Nik ingelesez jakin

dezaket puntu batera arte eta eduki dezaket First-a. Nik gaitasuna daukat aritzeko? Gaitasuna beste faktore pila... O sea, ez da ezagutzen bakarrik oinarritzen den kontu bat. Orduan, askotan esaten dugu: "Joe, gazteen % 90ek badaki euskaraz baina erabiltzen du 30ek". Ez dakit zenbat diren datuak, asmatzen ari naiz. Eta da: bueno, bueno. % 90ek daki eskola reglatuan gauza batzuk erantzuten de aquellas maneras [azpimarratuta esaten du], ere ikusi egin behar da... Ze klaro, es que ematen diogu gaitasuna edozeini! Ni eskoletan sartzan naiz askotan, eta balorazioak eskatzen ditudanean, gainera sueltoago daudela ze da... Esaten duzu, "ostra. Batxiler batean zaude eta ez dakizu idazten euskaraz". Baina seguramente gure datuak hartuko bagenitu, pertsona horri egotziko genioke... Eta ez ortografia aldetik. Por supuesto. Ez, ez, adierazkortasunaren aldetik. Orduan, batzuetan nik uste dut gu ere bai hasten garela ya gure burua matxakatzen ze aurreuposatzen dugu "egin dugu egin behar genuena, eman diogu jende honi tabla minimo batzuk". Eta nik dudak ditut tabla minimo horiek egitan eman diren. Erakutsi diogu esparru batean erabiltzeko kodigo eta hizkuntza bat. Klaro, hizkuntza hori zuk harremantzen baduzu ataza hauek aurrera eramateko, zuretzako hizkuntza gaitasuna da horretarako. Orduan, nik uste dut gero hor gure burua matxakatzen dugula pilo bat, "zer ari gara egiten gaizki? Nola aktibatuko dugu jende hori?". Es que klaro, ba jende horri -eta hori, klaro, soluzioak hemen nik ez ditut emango- baina klaro. Ba bueno, berdina da: zer da euskaraz jakitea? Es que euskaraz bizi ahal izateko kontesturik gabe, zure euskara gaitasuna, nahiz eta paper batean idazten jakin, ez da % 100. Eta beste batek igual ez du bukatuko DBHrik eta dauka gaitasun oso handia ze dauka plaza bat, dauka familia bat, dauka entorno bat. Orduan, niri, nik uste dut datu hori dela beti egur handiena ematen dioguna geure buruari, eta uste dut hasi behar dugula fintzen hori zer den. 2

Gure ikasleak, adibidez, oso kritiko dira eskolan hizkuntza jasotzeko dauden moduetaz. Oso kodeari begira, exijentziatik... Egiteko moduetan ere... Eta hor dago diferentzia. Azkenean, portaera horiek eta harremantzeko modu horiek dira pertsonak aldatzen dituztenak alde batera edo bestera. Orduan, egia da 50 urtetan sortu ditugula kategoriak gai hauetaz hitz egiteko lehen existitzen ez zirenak, eta hor badago know-how bat, baina baita ere kategoria horiek humanizatu egin behar ditugu, errealago bihurtu behar ditugu. 5

Ez baldin badira Ereñotzukoak edo horiek bizi direla, eta horiek badakitela, hemen Hernaniko kaleumeentzako gauza fuerteak esateko, gaztelaniaz. Instultoak eta horrelako gauzak gaztelaniaz, indar handiagoa daukate. Arbitroa insultatzeko, zer esango dio? Txotxolo? Txotxolok ez du ezer esaten. Bai, horregatik. Eta gero beste lagun bati zer deituko diozu? Txotxolo, zure lagun bati? Bai, bai. 8

Belaunaldien arteko desberdintasunez gain, etxeen inguruan ere hitz egin da. Lehenengo eta behin, azpimarratu da etxeak oinarritzko guneak izan direla euskara transmititzeko eta euskaldun aktiboak edo kontzientziadun jendea sortzeko. Ezaugarri horretaz kontziente izatea beharrezkoa dela eta eremu hori zaintzen jarraitu behar dela esan da.

A: Familiak izan dira Euskal Herrian lehenengo instituzioa. Eta horrek eutsi dio gauza askori. Hori balioan jarri behar dugu. Eta hor gertatzen dena oso-oso erdigunekoa da. Ez dakit nik politika publikoak egin behar diren familia sustatzeko, baina behintzat begirada jaso bat familiak gure gizartean suposatu duenaren inguruan, hori bai. Uste dut beste edozein instituzio baino lehenago egon dela familia eusten hizkuntzari, besteak beste. Baina ez da bakarrik hizkuntza: dira harremanak, da sostengua, da ekonomia, da politika, gauza asko dira. [...] Oso gutxi pentsatzen dugu familiaren inguruan termino hauetan. Eta izan da gure lehenengo instituzioa. Eta oraindik ere pisu handia dauka, handia. Familia mota diferenteak, por supuesto, eh. Ez familia tradizionala.

B: Politikak bultzatzeko orduan, elkarren arteko harremana ere bai bultzatzea izango litzateke. O sea, familiak gaur egunean ez dira bizi isolatuak bakoitza bere etxean, ez? Modu sozializatuago batean ere lantzea.

A: Gorputz sozial bat da. Bai, igual gai honek ematen du zerbait berria eraikitzeko. 8

Ebidentea da erabileraren apustua egiten dutenek, neurri handi batean, etxetik jaso dutela. Orduan, etxeak dira landu behar ditugunak. Eta hor gertatzen den hori arakatu behar dugu ezagutza hori lotzeko beste gauza batzuekin. 5

Eta gai bat bai, transmisioarena oso garrantzitsua iruditzen zait gerora begira, etorkizunari begira. Esan nahi dut, ume bat etxean gurasoak erderaz ikusi dituenak, hor etxeko giroa ez da izan erabat euskalduna, ume hori gero guraso denean, ze giro sortuko du bere etxean? Ze hor bada oso, harreman afektiboena eta... bai? Hau da, berez, natural, zer aterako zaio? Zein familia mota? Eta hori hautu bat da, aukeratu egin behar duzu zer hizkuntzatan. Baina noski, aldezturik edo txikia zenez ia baldin baduzu ingurune hori, seguruenak, nahi gabe ere, zuk hori sortuko duzula. Orduan hor bada kezka. Hau da, etxean horrela... gerora? [...] Lehendik transmisio hori jaso baduzu errazagoa da, hainbeste indar ez da egiten, berez ateratzen zaizu. Nik horrela ikusten dut. 9

Etxeen tipologia aldatu egin dela uste da, eta gaur egun euskara ezagutzaren arabera mixtoak diren gurasoak ugariagoak direla baloratzen da duela urte batzuk baino. Euskara ezagutza aldatu izatearekin batera, euskaltzaletasuna gaur egun etxeetan zein neurritan transmititzen den zalantza adierazi da: zein ezagutza transmititzen dira? Zein euskal kultura, erreferente eta identitate?

Transmisioarena oso inportantea da. Transmisioa familian, gurasoengandik seme-alabengana. Lehenago aipatu dudak horretan, hor ez dago transmisiorik. Hor batzuk agian izan daitezke euskaldunak baina ez gero izan euskalzaleak, gurasoak. Orduan hor transmisioa dagoen tokian ikusten da badagoela, mugitu egiten dela, goitik behera, familiatik eta lagunak eta... Ikasle bat baldin badago goitik etortzen baldin bazaio... Rayatu gabe. Ze beste batzuetan etortzen dira, eta gehiegi ere, ha, pasatzen dira. Orduan baldin badago transmisio normalizatu bat eta gero lagunak artean baldin badago beste pasillo bat eta gero gizartearekin dago, pertsona hori salbatuta dago. "Salbatuta" esan nahi dut, daukala pauso denak: familia, lagunak... denak. Hor arazoa da ez daukana transmisiorik, ez daukana lagunak, ez daukana lagun... 8

3.4.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Aurrera begira, gaur egun dagoen gako nagusietako bat euskaraz badakitenen erabilera aktibatzea aipatu da. Izan ere, baloratu da euskara ezagutza unibertsala erdibideko geltoki bat izan daitekeen arren, euskaraz funtzionatzen duen gizarte batera iristen ez garen neurrian atzerapausoak segituan hasiko direla.

Iruditzen zait ezagutzaren hori tarteko helmuga bat dela. Azkenean, benetan lortu behar duguna da euskaraz funtzionatzen duen, funtzionamenduz elebakarra izango den territorio horretara, nolabait esatearren, hora iritsi behar da. Bestea da tarteko helmuga. Tarteko helmuga, non gutxienez ezagutza batek niri ziurtatzen dit nik, behintzat, ez dudala zerarik izango. Egia da hurrengo pausoa ez badugu ematen, hau atzeraka berriro segituan hasiko dela. Baina tarteko helmuga bezala, igual balekoa da, esaten duzu "bueno, pues igual ez da txarra". O sea, bada behintzat. Ze horrek, gutxienez, marko bat ematen du euskaraz egin dezakeen horrek egin dezan. Eta euskaraz normaltasunez entzun dezagun. [...] Orduan, tarteko helmuga bezala iruditzen zait badela zera. Baina helburua markatzerakoan ez nuke hor markatuko helburua, baizik eta helburua markatuko nuke funtzionamenduz euskaraz bizi den herri batean. 1

Gaur egun dagoen erabilerara trasladatzen ez den gaitasuna aktibatzea begira, gogoeta batzuk mahaigaineratu dira. Lehenengo eta behin, zergatik dagoen egoera hori jakitea garrantzitsua dela baloratu da: hau da, galdetzea ea zerk bultzatzen dituen pertsonak beren hautu linguistikoetara, bai euskaraz hitz egitera eta baita ez hitz egitera ere.

Bai, noski, badago ezagutza bat, bizi ahal izateko. Eta ez dago erabilera bat. Eta hor ikusi beharko zen ya zenbatekoa den hori. O sea, jardun dezakeena, naturaltasunez dakiena eskolatik kanpo ere, esango dugu, erabiltzeko baldintzak dituen, kapazidadea, eta ez du erabiltzen. Hor ere ikusi behar da zein hautuk eramaten duen horretara. Zein bidek. [...] Baina zer da, zein da atxikimendu falta pausoa egiteko? Nik... Hori da galdera. Ez zergatik erabiltzen duten kastellanoa. Bueno, pues guaiagoa, daukagu hemen diglosia eta nahi duzun guztia. Bale. Zergatik ez dute nahi erabili euskara? Zer ez du ematen? 2

Euskaraz jakin bai baina erabiltzen ez duten pertsonen kasuan, sarritan aipatu den gako bat da kontzientzia falta: hau da, ez direla jabetzen gaztelaniaz ari direnik eta uste dutela euskaraz ari direla. Lehenengo pausoa jendea egoera horretaz jabetuaraztea dela adierazi da. Horretarako diskurtsoaren moldaketak eta presio bideak diseinatu beharko direla uste da.

Hori bera gertatzen zait Hernanin. O sea, jendeak pentsatzen du euskaraz ari dela. Eta ari da espainolez. Orduan, nola esan behar zaie pertsona horiei euskararen etsaiak direla? Bueno, igual "etsai" hitza exajeratu dut. Baina aber, eta ez dut noski erori nahi naziek juduengan-eta jartzen zuten gurutzeetan, baina antzeko zerbait egin beharko da, ezta? Ze bestela, es que ez dira kontziente espainolez ari direla. Ez dira kontziente. Ez dira kontziente. Benetan, eh. Hori nik, nire landa lan murriztean, hori nik konprobatuta daukat. Ukatu egiten dizute espainolez aritu direnik. Esaten dizute: "Ez! Euskaraz! Bueno, tartean sartuko genuen esaldiren bat espainolez eta hori". Ez, ez, ez, ez. Alderantziz: ibili zarete % 90ean espainolez eta tartean sartzen duzue edo sartu duzue euskarazko esaldiren bat. [...] Gaur egun euskararen inguruan dagoen diskurtsoaren arabera, Hernaniko euskaldunek segituko dute orain arte bezain erdaldun izaten edo gehiago urtetik urtera. Ulertzen? Orduan, edo asmatzen dugu presio bideren bat, hasteko, kontziente izan daitezen. Ez baitira kontziente. Hasteko, kontziente izan daitezen erdaldunak direla praktikan, eta ondoren euskaldunak izan daitezen. Edo asmatzen dugu zerbait hori lortzeko, edo eboluzioa izango da erabileraren aldetik eta ez erabileraren aldetik... Erabileraren aldetik gainbehera. [...] Presioa jendea, hasteko, kontziente izan dadin espainolez bizi dela. Jendea ez baita kontziente espainolez bizi dela. Eta, baina hori da

alcohólicos anónimos bezala, eh: aurrena onartu egin behar dute benetan espainolez bizi direla. Ze sinestuta daude ezetz. Orduan, aurrena onartu egin behar dute espainolez bizi direla. Eta hori onartu ondoren erraztasunak eman, pues hori, euskaraz bizi daitezten. Euskaraz dakitenei buruz ari naiz, eh. Baina es que hori konpondu gabe, ze hostia ari gara migrazioari buruz [barrez] eta ez dakit zeri buruz eta hori? O sea, aber, basikoena hori izango da, ezta? Euskaraz dakitenak euskaraz bizi daitezela. Diot. Ez dakit. 3

Hor, kalean gabiltzanean, gure aisialdian poteatzen edo bestela paseatzen edo mendian, azken aldian mendian asko ibiltzen gara. Egia da euskararen presentzia da eskasa edo eza, zuk esan duzun bezala, edo urria. Eta hor, ez dakit. O sea, uste dut hori lotuta dagoela beste lehen aipatu ditugun kontzientzia eza, nola eragin aktibo izateko... Ez dakit. Hor, nola eragin gehiago, kontzientziario lan bat ikusten dut, erabileraren inguruko kontzientziarioa... Ez dakit hori sustatzeko programak eta zerak-eta nola egin eremu informal horretan. 4

Nola edo non eragin galderaren aurrean, bi norabide posible azpimarratu dira. Batzuen ustez, biderik eraginkorrena norbanako mailan, kalean eta banakoan eragitea da. Horrek izango du ondoren inpaktua instituzioetan eta egituretan (administrazioan, hedabideetan, politika publikoetan...).

Baina niretzat klabea, zeren eta oinezkoengan eraginez gero, nire ustez eragin hori iritsiko da Osakidetza eta Ertzaintza. Ulertzen? Edo irits daiteke, gehi Udalak egin dezakeenaz... Ulertzen? Baina oinarri-oinarrian dago oinezkoa. Herritarra. Banakoa. Eta banakoa presionatu egin beharra dago. Nola? Ba esaten: "Hi español puta bat haiz". "Ni español? Bai zera! ¡No sé qué!". "Españolez ibiltzen haiz egun osoan". [...] Edo hori egiten da, edo segituko dugu roloa mareatzen gainbeheran. [...] Usaindu egiten da [barrez] euskarak ez duela piperrik balio. Baina hori usaindu egiten da. Zer uste dugu? Tontoak direla? Ez. O sea, nerabeak zerbait baldin badira, eta umeak, umeak eta nerabeak, zerbait baldin badira, dira intuitiboak eta harrapatzen dituzte gauzak baina "raka" [airean harrapatzeko keinua egiten du]! Eta orduan, berehala dakite baten baten begiradarekin bakarrik "horrek mania dit". Intuitiboak dira. Eta orduan, bai, horiei esplikatu iezaiezu Euskal Herria eta euskara y la hostia. "Ez, ez, barkatu, nik usaimena daukat. Eta nik, kalera atera, eta badakit euskarak, Hernanin, ez duela ia piperrik balio. Kalean". [...] Da esatea: "Nola euskara ez dagoen ez dakit zein plataforma ez dakit zertan, hori da falta handi bat". Bai, bai, bai, falta handi bat bai. Bai [luzatuta esaten du], pues en fin. Askoz falta handiagoa dago ETBn euskarazko fikzioarena, ezta? Baina hori ez da niretzat fundamental. O sea, niretzat da kalea. Eta kalean, aber, kalean nerabeek ez badute ikusten kalean euskarak ezertarako balio duenik, alferrik da TikTok, Twitter, ez dakit zer, alferrik dira. 3

Alderantziz, beste ikuspegi baten arabera norbanakoan eragitea eta presio bideak jartzea baino eraginkorragoa eta egokiagoa da testuinguruko egiturazko baldintzak aldatzea eta gizartea euskaraz eskaintzea, modu horretan errazagoa izango delakoan euskaraz bizitzeko hautua.

Adibidez, denda guztietan komunikazio guztia gutxienez bi hizkuntzan baldin bada eta dendari edo ostalari bakoitzak astero bisita bat jasotzen badu ea posible daukan denak euskaraz atenditzeko eta menu-karta hau euskaraz azaltzeko, eta ezin badu ba astero laguntza jasotzea hori lortzeko. Eta laguntza jatorra eta atsegina bere lanean dagoen bitartean, eta ez beste nonbaiten, eskola batean. Eta halako elementuek eguneroko presentzia baldin badute, gehi telebista nagusia euskaraz baldin bada, gehi politikari guztiek beraien komunikazioa euskaraz egiten badute gehi formazio eskaintza nagusia euskaraz baldin bada eta aisialdiko eskaintza ere euskaraz baldin bada, edo behintzat, nahiz eta gaztelaniaz izan, beti euskara elementu bat baldin bada horren barruan, asteroko tailer baten bitartez adibidez, orduan beste presentzia eta bai beste prestigioa ematen diozu edo beste balio bat ematen diozu euskarari. Eta uste dut ekosistema horretan, ikusten baduzu nagusia dela, alde guztietatik euskara nagusia dela eta euskaraz dela bizitza, horrek eramaten du jendea euskaraz hitz egitera. Uste dut funtzionatzen ez duena dela ingurugiro guztia gaztelaniaz bada jende euskaldunari

esatea: "Baina zuk hitz egin euskaraz edo", beti gaztelaniako ingurugiroaren kontra. Niri naturala iruditzen zait jendea gaztelaniara pasatzea. Zeren entzuten baduzu alde guztietatik gaztelania, eta hori da pixkat guay eta moderno eta unibertsala, ez bazara bereziki militante bat-edo, erraz gaztelaniara pasatzen zara beste mundu guztiak egiten duelako, ez? Eta, orduan, eremu guztietan egin behar da lan: bai jendearen kontzientzia eragin ahal da; baina, aldi berean, ingurugiroa landu behar da eta ez eskatu bakarrik jendeari "egin euskaraz". Baizik eta eman lehentasuna edo enfokea ingurugiroaren eraikuntzan, nik aipatu ditudan elementu horiekin eta gero ikusi zer gertatzen den. 7

Ingurugiroaren eraikuntza horretan, ezinbestekoa baloratu da aisialdi eremuaren edo espazio ludikoaren lanketa. Aurrez adierazi den moduan, euskara eskola-munduarekin lotzen joan den hizkuntza da pixkanaka-pixkanaka. Horri buelta emateko, eremu ludikoan eragin behar dela nagusiki ikusten da, eta bereziki herri mailan edo gertuko eta maila lokalean egin daitekeen zerbait dela irizten da (are gehiago, erdaldunagoak diren auzo batzuetako errealitateetara ere gerturatzen lagun dezaketela).

Aisia. Gaur egungo munduan, ordu asko pasatzen ditugu edo kirola egiten, edo kultur emanaldietan, edo dena delakoetan. Eta hor, nik uste dut, bueno, nik uste dut hori Hernanin egiten dela neurri handi batean: ahalik eta gehien euskaraz izan dadin bilatzen da. Oraindik ere datuetan, bueno, pues ez dago hain... Ematen duena baino baxuago dago, ez? Baina iruditzen zait hor ere pauso bat eman behar dela. Normalizatzeko. Askotan esaten da "Jo, es que eskolako hizkuntza bakarrik bihurtu da euskara". Klaro, es que gainontzeko guztian ez baldin badago, normala da. Nik zinera joan eta ez baldin badago inoiz pelikula bat euskaraz, normala da ez izatea, ez? Horregatik garrantzia handia du leku guztietan euskaratik atakatzeko. Eta hori, gaur egun, kalean bakarrik egin dezakegu, eh. Ez gaitezen nahastu. Telebistaren aurrean jartzen garenean, hori ezin dugu lortu. Residuala da telebistaren aurrean euskara. Internetera joaten baldin bagara, puf, ez dizut kontatuko. 1

Aisialdi zeratuan, kultura, ez dakit zer, kultura antolatu horretan edo jarduera fisikoan edo kirola, edo kultura edo egiten denean-eta, uste dut Udaletik programatzen dela eta hor politikak nahiko argiak direla. Bueno, nik dexente ezagutzen ditut eta interesantea dela hor zer bide egiten ari den eta, gainera, horrek gainera laguntzen duela askotan egiten dena -eta aipatzen da-: euskaldun gehiago baldin badaude erdaldunak baino, euskaraz egin. Uste dut horrek haserteren bat sor dezakeela, eta nik badakit nire esperientziarengatik. Ni iritsi nintzenean, kultur-ikastaro batzuetan-eta, bronka batzuk eta jendea haserretu dena: "¡Joe, euskera, si yo no sé euskera!". Bai, badaude, baina horrek ematen du lanketarako. Eta haserreak egongo dira, baina gehiago ematen duela pues jende bat hurbiltzeko. Es que yoga egin dezakete euskaraz, inongo arazorik gabe. Edo makrame edo spinning edo han behean egiten diren ikastaro zera horretan. [...] Auzoetara ere eraman dira jaiak. O sea, San Juanak auzoetan ere ekintzak-eta izan dira, ez? Eta uste dut hori ere badela auzoetara edo gune erdaldunago batzuetara ere hurbiltzeko. Aisialdia, kulturaren bidetik, eskaintzatik, elkarlanean auzo-elkarteekin eskaintza hori euskaraz izan dadin. Ze uste dut badela ere gehienbat euskararen kontrari edo "¡Que yo no sé euskera!" edo jarrera horiek desaktibatzen pixka bat. 4

Euskara aisialdian sustatzeko baliabide edo tresna moduan, bi gako zehatz aipatu dira: batetik, udaleko kultur politikekin eta kultur teknikariekin lanketa estua(go)a egitea.

Azpimarra jarriko nuke egiten den kultur politikan baita ere. [Beste elkarrizketatuak arrazoi ematen dio] Ze, herrien artean, konparazioak egiten hasten bagara, udala baldin badago sustatzen kultur dinamikak herritarrekin, harremana erdigunean jarrita eta abar, naturalki doa hizkuntza baita ere. Orduan, nola irudikatzen dugun udaletik baita ere egiten den kultur politika. Nola babesten ditugun dauden taldeak, nola sortzen ditugun berriak, elkargune horiek... Eta ez errenditu bakarrik kulturatik egiten duguna programazio bat edukitzera edo festa batzuk antolatzen, ez? Nik kultur politikak ere uste dut hizkuntza politikan askoz ere erdigunekoagoa beharko lukeela izan. Eta, askotan, kultur teknikariaren profila oso diferentea da. Oso diferentea da. Eta udal askotan gatazka iturri ere izan liteke. Orduan, Hernani bezalako udal batean iruditzen zait esploratu behar direla beste aukera

batzuk. Udal batzuk badaude aukera ematen dutenak pentsatzeko elkarrekin: zein kultur politika egin behar da Hernani bezalako leku batean? Norengana goaz, zer egitera? [...]Eta hor ere hizkuntza natural doa. Doa gozamenarekin batera, doa harremanekin batera... Eta kolektibo asko daude harreman bila, era batera edo bestera. Eta harremanarena da oso erdigunekoa gure errealitatean: nola ekartzen dugu hizkuntzarena horra, ezta? Hortik. 5

Bestetik, gertutik zaintzea aisialdi antolatuko begiraleek eta arduradunek zein hizkuntza praktika dituzten errealitatean.

Adibide gisa: futbola. Bai? Semeak futbolean jokatzen du. Joaten naiz tarteka futbol partidetara. Nik oraindik ez dut ulertzen, behin, ez naiz gogoratzen, Donostiako talde baten kontra jokatu eta ezin nuen sinetsi, baina entrenatzailea erderaz jo ta ke. Esan nuen: "Hori Hernaniko klubean gertatzen da, entrenatzailea erdalduna eta hantxe noa esatera ez". Erdalduntzen ari zara, oraintxe bertan, adin honetan, oso inportantea den eremu bat: aisialdia. Beraien gustoko gauzak. Ez dut ulertzen Donostin horrelako... beno, tokatu zait, eta Astigarragakoak, ez hain zera, eta erderaz. Eta Hernanin bertan ere bai. [...] Gauza horiek zaindu egin behar dira, ze dituzu 14 edo 15 urteko neskak entrenatzaile erdaldun batekin. Sartu dituzu eskubaloian erabat erderaz. Neska horiek, orain egingo dugu aurrera, neska horiek hemendik 15 urtera baten bat agian entrenatzaile izango da. Nola entrenatuko ditu? "Instrukzio", "jokaldi", zera guztia jaso duenean erderaz. Zenbat indar egin behar du hori itzultzeko gero? Ez zaio natural aterako, jaso du lehenengo den-dena erderaz. Gehi, ez hori bakarrik, momentuan bertan ere sortzen duen harremana, haien artean azkenean ere hitz egingo dute erderaz, bestela entrenatzailearekin eta... Orduan, ez da bakarrik transmisioa. Hezkuntza, pasatzen gara aisialdira, eta hor behar ditugu, nire ustez, behar ditugu adibidez kirol arloko entrenatzaile, hezitzaile eta horiek denak, baita ere oso-oso sentsibilizatuta. Bestela... Oso-oso garbi eduki behar dute hori, euskaraz edo nola nahi duten. [...] Baina entrenatzaileak uste dut ez direla konturatzen horretaz, eta uste dut gogoeta egin behar dela horri buruz. 9

3.4.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK

Elkarrizketetako edukiak aurkeztuta, honako ekarpenak jaso dira kontraste saioetan (euskalgintzan soilik landu zen):

DIAGNOSTIK	- Inoiz baino euskaldun gehiago dago eta gaztelania gehiago entzuten da. Belaunaldien arteko euskara-transmisioak ere zalantzan jartzen dira batzuetan (gurasoek euskaraz ondo eta seme-alabek ez hainbeste). - Kontzientziaren auziarekin ados agertu dira: batzuek erderaz egiten dute konturatu gabe. - Gaztelaniaz bizi daiteke, horregatik euskaraz ez dakitenek ez dute ahaleginik egiten euskara ikasteko, nahiz eta erraztasunak izan. Beste guztiak berdin jarraitzen badu, alferrikakoak dira saiakerak.
PROPOSAMENAK	- Kontzientzia eta euskaraz egiteko presioa indartu behar dira, jendea xaxatu; presio sozial gehiago egin beharko litzateke. Identitate bat sortu behar da. Elebidunak garen neurrian, nola sortzen dugu kalera ateratakoan euskaraz hitz egiteko giroa? - Belaunaldien arteko kontuak: Helduek eredu izan behar dute. Bestalde, gazte eta nerabeak zaindu egin behar dira, kalean euskara ikusi behar dute. - Norbanakoan vs. egituraren eragin: goitik bultzada izan behar da, instituzioetatik, norberak sustatu eta erabiltzeko, eta publikora begira dauden gune guztietan euskarazko harrera egongo dela bermatu. - Euskaraz ikasteko beharra sortzea da bidea, eta euskaraz bizitzeko tresnak eman (ligatzeko, iraintzeko...), hizkuntza bizi moduan eta ikuspegi ez-purista batetik. - Euskara eremu ludikoarekin lotu behar da. Aisialdia, ikastaroak... euskaraz bakarrik eskaintzea bide bat izan daiteke eta kale ekintzekin lotu (garrantzitzkoa da, eta zaila, aisialdian benetan funtzionatuko duen formula bat topatzea). Horrelako ekintzak gaur egun badaude baina gehiago egin beharko lirateke. Aisialdiko begiraleei eta entrenatzaileei formakuntza eman behar zaie, beren eremuko hiztegiak eta ezagutzak euskaraz transmititzeko. Euskara ikasketa eskolatik kanpora atera behar da. - Euskara hutsezko guneak sortu behar dira, eta hori Udalaren egitekoa litzateke. Defentsa edo babes-gune bat litzateke euskaldunentzat. - Planteatutako aldaketak egiteko diru-inbertsio handiak behar dira.

3.5. BILAKAERA DEMOGRAFIKOA, URBANISTIKOA ETA HIZKUNTZA

Hizkuntzarekin zeharka lotuta dagoen gai bati ere heldu zaio: Hernaniko bilakaera urbanistikoari eta herrian antolaketa espazialak izan duen bilakaerari eta dauzkan ezaugarriei. Eztabaida hasteko, honako ideiak planteatu ziren:

GOGOETARAKO ABIAPUNTUA

- 50-70 hamarkadetan sortutako auzoek jaso zuten, nagusiki, orduko migrazio-olatuak. Uholde berria, haietako batzuetan eta Kaxkoan ari da kokatzen, batik bat. Auzoen artean alde handiak daude biztanleen jatorriari dagokionean.

Segidan jasotzen ditugu elkarrizketetan eta kontraste saioetan ateratako ideiak.

3.5.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA

Hernanik izan duen eta gaur egun duen herri bizitzaren inguruko gogoeta batzuk jaso dira hasteko. Donostiaren ondoan egon arren, herri bizitza izan eta mantendu duela baloratzen da, gaur egunera arte behintzat:

Ez da herri txiki bat, 20.000 biztanleren bueltan dagoen herri bat da gora-behera, beti hor. Baina herri funtzionamendua daukana da. Badauka kaxko bat, badauka zentro bat, baditu puntu batzuk non hor mugitzen den herria. Eta azkenean badago denok ezagutzen garenaren sentsazio hori, ez? "Hau honen hau da, hau beste..." Orduan, eduki du, nahiz eta biztanleria potentea eduki eta gauzak, eduki du herritxo funtzionamendu hori. Eta uste dut horrek jarraitzen duela funtzionatzen. Ez dakit, ni etortzen banaiz beti da "Hombre, aspaldiko! Gu hemen, herria zaintzen". Logika horiek mantentzen diren herri bat da. Eta uste dut badaukala izaera oso potente bat, ez dakit zenbat jaitsi diren komertzio txikiak, eta jaitisiko ziren, beste leku denetan bezala, baina baita ere hor badauka izaera oso potente bat nik uste dut, ez? Kaxkoak berak, Berriak dendarien elkarteak eta abar. Eta nik uste dut hor baduela euste puntu bat eta jendeak badaukala horrelako leialtasun edo fidelitasun edo ez dakit nola deitzen zaion bat. Orduan, baldintza nahiko onak ikusten dizkiot zentzu horretatik. 2

Bertara bizitzera etortzen diren pertsonen kasuan ere, dinamika sozial orokor moduan, susmatzen da hasiera batean herriarekin harreman handirik ez edukitzea posible den arren, denborarekin auzoan eta bizilekuaren bueltan egunerokotasun bat sortzen hasten direla pertsonak, modu batera edo bestera:

Jendea iristen da leku batera bizitzera eta lo egiten du, hor igual lo egiten du. Baina, pixkanaka-pixkanaka, hori asentatzen badoa eta hasten da bizimodua egiten. Eta hori da pixka bat Hernanin gertatu dena Latsunbe eta guzti horrekin. Edo hemen aipatzen da: batzuk lotara. Bai, lotara... Jende hori asentatzen da denborarekin. Eta batzuek umeak Donostiako ikastoletan izango dituzte, baina bueno, denborarekin... Bai, batzuk erabat Donostian geratuko dira, baina eguneroko bizitza, eguneroko kafea, eguneroko poteoa, ezagutzen dituzu bizilagunak... Eta pixkanaka badoa, nik uste dut asentatu egiten dela hori. 4

Hala ere, aurrera begira, Hernaniri etorkizun iluna ikusten zaio. Donostiaren ondoan egonda, metropolizazio-prozesu sakon bat bizitzeko arrisku handia duela ikusten da. Herri gisa dauden dinamiketan eragiteaz gain, bertako komertzioan eta Hernaniren ekonomian ere eragingo duen aldagaia dela uste da.

Gu kondenatuta gaude, Donostiren ondoan gaude, eta hori hala da. Kondenatuta gaude. Eta batzuentzat Hernani ez da izango haien herria, batzuentzako. Hori hala da. 9

Gaur egun begiratzen duzu Hernani eta begiratzen dituzu Tolosa, Ordizia, Beasain... Pixka bat parekoak izan daitezkeen zerak, eta ikusten duzu komertzioa, batzuetan eta besteetan dagoena, eta Hernanin, o sea, ia-ia ez da existitzen komertzioa, eguneroko gauzak ez baldin badira eta tabernak. Oso-oso gertu dago Donostiatik eta beti izan da, gainera, Donostiatik oso gertu dagoen herri bat. Eta orduan, horrek, zaila du. [...] Nik uste dut Hernanik ez duela erraza zentzu horretan. Hostia, denda txikiak, niri pena handia ematen dit zeratzea, baina gaur egungo bizimoduarekin ere oso zaila da ere konpaginatzea. [...] Eta, bueno, esaten dugu inguruko zeran dauden superfiziek handiak eta horrek zeratzen gaitu; baina momentu honetan daukazu superfizierik handiena Amazon da, beste hauen gainetik dagoena. 1

Azken urteetako bilakaera urbanistiko eta soziologikoaren inguruko diagnosa amaitzeko, nahiko konpartitua izan den beste irudipen bat da auzoak soziolinguistikoki homogeneizatu egin direla azken urteetan. Fenomeno hori positibotzat jo dute elkarrizketatuek, herri izaera bateratu bat edukitzeko eta guneen arteko botere harreman sinbolikoak apurtzen joateko balioko duelakoan:

Garai batean Kaxkoa zen ghettoa eta orain ghettoa izateari utzi dio. "Zorionez" nire ustez. Hernanin bizi aurretik ere, duela 21 urtetik, nik Hernani pixka bat ezagutzen nuen. Pues Egin-en lan egin nuen etabar eta hernaniar lagunak eta hori. Orduan, "jatorren ghettoa", ez?, Kaxkoa da. Nire ustez, nik horri bonba bat jarriko nioke. Bueno, bonba bat, bonba noski, metaforikoki bonba bat jarriko nioke. Ze nik nahi dudana da Lizeaga, Antziola, Florida eta Antzieta herri bera izatea. O sea, niri ez zait batere interesatzen egotea lau kale non herriko jatorrenak eta ustez euskaldunenak -praktikan ez-, ustez euskaldunenak, biltzen garen. Ez. [...] Nik Katanga entzuten dudak bakoitzean, es que oso mingarria egiten zait. Eta orduan, haiek ya beraiek onartzen dute Katanga direla. Eta hori da la hostia. Eta orduan, beti existituko da Katanga kolonialismoa existitzen den bitartean. Eta Hernaniko ustezko hiper-jator horiek denak dira kolonialistak, xenofoboak, la hostia en verso. Orduan, auzoen -hori apuntatuta neukan- auzoen homogeneizazioa? Por supuesto. Eta, desde luego, ez da euskara gutxiago entzungo Kaxkoan ez dakit zenbat migrante... Ze lehen ere ez zen ia-ia entzuten, beraz, ezin da gutxiago entzun. 3

Egia da hor aipatzen da txostenean zenbait auzo euskaldunak zirenak... Orekatu egin direla, ez? Lehen erdaldunak zirenak pixka bat euskaldunekin elebidunagoak dira nolabait, eta portzentaje hori edo orekatu egin dela. Nik uste dut hori neurri batean positiboa dala. Bueno, Ereñozu erdaldunagoa izatea igual ez da hain positiboa, baina zenbait auzo, eta soziolinguistikoki eta historikoki, gure herrian (Zikuñaga, Lizeaga...) aurreko mende erdi-bukaera aldera egon zen mugimendu migratorio guzti hori kokatu zen auzo erdaldunago horiek ya ez dira hain erdaldunak. Ba bizi direlako gaur egun ere gure generazioa eta gazteagoak diren zera batzuk ya euskaldunak bagarenak ere bai, ez? Orduan, niri oreka hori interesatzen zait. 4

3.5.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Aurrera begira Hernanik herri moduan izango duen bilakaerari erreparatzeko, lehenengo planteatu den hausnarketa da herria ulertzeko ditugun marko edo eskemak errebisatzea komeni dela. Hau da, Hernani oso desberdinak daude, eta irudipena dago begiratzeko moduan Kaxkoak eta Tilos inguruak zentraltasuna edukitzen jarraitzen dutela. Baina "periferia" gisa ulertzen diren beste gunek batzuetan jende gehiago bizi da, soziologia eta dinamika desberdinekin, baita hizkuntzaren inguruan ere. Alde horretatik, periferiei erreparatzeko beharra eta haietan lan egitearen premia azpimarratu da.

[Hernani herria, denek elkar ezagutzen dutena...] beti izan da fikzio bat aldi berean. Ze hor bueltan ari garen herririka horretan, zenbat izango gara, herriko ehuneko zenbat izango da realmente? Baina hori betidanik pentsatu izan dut, ez? Marieluts osoa hartzen duzu, horri auzo berri bat da literalmente. Esan nahi dut, hogeitaz urte edukiko ditu, hogeitaz hamar urte edukiko ditu horrek? Hori lehen ez zen ezer, ez? Jende horretatik, guzti hori, zenbat da nire Hernani herri logika horretan sartzen dena? Bale, hori berria delako auzo hori. Baina es que Zikuñaga bat hartzen duzu, edo Karabel bat, orain gainera triplikatu dena eta abar... Orduan, aldaketa guzti horiek ez dakit zenbat ari diren, o sea, zenbat dauden nik "Hernani" esaten dudanean eta herria buruan daukadanean dabilen mugimendu horretan. Seguramente Hernani asko daude. Eta ez dakit horrek zenbat eragingo duen, ez dakit horiek gehiago joango diren Mercadonara edo ez. Askotan ere kaxkoa daukanean herri batek pentsatzen dugu hori dela herria, ez? Eta justu horrelako herri handi batean sentsazioa badaukagu batzuek kontrolarena, baina ez. Daukagu deskontrol bat Hernaniko poblazio handi batena seguramente. Beste bizitza bat, beste eguneroko bat, beste erabilera bat daukatenak. [...] Ni etorriko banintz hona hernaniarra izan gabe eta eskatuko balidate Hernaniren inguruko ikerketa bat egiteko, politikoki bazterretara joko nuke urgenteki. Klaro, esan nahi dut: zeinek salbatuko du euskara Hernanin? "Kaxkoak", esango dizut nik. Baina nik uste dut joan behar dela Etxeberrira, Zikuñagara, Karabelera, Antziolara eta Katanga, eta bazterretara joan behar da. Ze, seguramente, proportzionalki, jende gehiago dago hor. Eta igual da gaitasunak dituzten horietakoak eta hitz egiten ez dutenak. [...] Nik gutxiago kontrolatzen ditudan errealitateak dira auzoak, eta igual hor badago zer eginga, ez? Edo klaberen bat. Edo igual hor da galdetu behar dena edo ikusi behar dena zein aritzen den euskaraz eta zein ez den aritzen eta zergatik. Eta igual hortik etortzen da erantzunen bat, ez? Guk aurretik sinatu baino. Porque guri okurrituko litzaiguke hantxe, gaztelekuan, euskaraz esateko gazteei, eta zer? Lau kartel, nahi badute euskara klaseak eskaini, eta ez dakit zer. Ez? Egin ditugun gauzak. Eta igual beste zerbait topatzen dugu. Edo igual dago generazio aldaketa bat klabea dena eta beraiek egiten dute auzoan aldaketa. [...] Bazterrak ez baditugu begiratzen, diferentzia handitu egingo da beti. Orain, nola, beti asmatu egin behar da. Eta horretarako behar da planak eta kanpainak eta baino gehiago, jendea joango dena al barro. Eta jendea, hor behar duzu jendea joango dena. Eta ez diezuna eskatuko hemendik biharrera ekartzeko soluzio bat. Joango dena, egongo da, egingo du lan bat, fallatuko dio, lortuko du, erori egingo da, beste bat... Ez dira, horrela, proiektu oso ikusgarri eta errentableak, baina. 2

Ni Zinkoeneatik gora ez naiz igotzen. Anbulategira joan behar baldin badut edo autobusa hartu behar baldin badut, baina nire bizitza soziala, nire aisialdia egiten dut atletismo pista ondoan, harriko zea horretan. [...] Orduan, hor gure "Hernani" kontzeptu hori ere zabaltu beharko genukeela auzo.. Auzo baino, ze auzo batzuk geratzen dira... Da Hernani handi hori, ez? Zer da Hernani? Zer da Hernanin zentroa? Ba igual harri plaza da gaur egungo zentro... Ez dakit geografikoa mapa batean jarrita, baina soziologikoki, sozioekonomikoki, aisialdiaren ikuspegitik... Ez dakit. Eta horrek, igual, hizkuntzaren gaiarekin ere zer pentsatua emango liguke, ez? Non, zein esparru diren landu beharrekoak, erakarri beharrekoak, nola... Guk askotan ba matrikulazio kanpainak eta egiten direnean: txartelak hemen, autobus geltokietan, Tilosetako tabernetan... O sea, betiko... Zenbat jende bizi da Etxeberri eta Antziola artean eta hor lehengo trenbidearen pasean? Hor zenbat jende ibiltzen da egunero bueltaka paseatzen? Han egiten dute bizimodua: pote bat hartzen dute, erosketak egiten dituzte, kafea hartzen dute... O sea, guk Tilosetan eta Plazaberritik Plazara bitartean egiten dugun bizimodu hori, han egiten dutena, ez? Orduan, hor nik uste dut, eta orokorrean, badaukagula zer pentsatua edo nola iritsi jende horrengana. 4

Periferian eta erdigunea ez den beste zonaldeetan eragiteko, bertan aktiboak diren agenteekin elkarlanak bilatzea gakoa dela baloratu da. Alde horretatik, auzo elkarteak aliatu interesgarriak izan daitezkeela adierazi da. Beren jardunean (ekintzak edo festak antolatzerakoan) euskara zeharlerroan landu daitezkeela esan da.

Hor nik uste dut klabe bat dela auzo-elkarteekin lanean aritzea. Uste dut klabeak direla eta uste dut... Auzo-elkarteak badaude auzo guztietan edo ia auzo guztietan. Uste dut Udalak oso harreman ona daukala auzo-elkarteekin, azpiegiturak dituztenak, gaur egun programa askotan laguntzen zaie eta horrela, eta bueno. Orain, pandemia egoera honekin ez dakit, baina bestela nahiko aktiboak diren auzo-elkarteak direla. Eta hor, aurrekoan honi buelta batzuk ematen, uste dut klabea izan daitezkeela hizkuntzaren gaia ere auzoetan ere lantzeko, ez? O sea, nolabait, hizkuntzaren gaia ere auzo-elkarteekin lantzeko. Lantzen dira kulturako diru-laguntzak, espaloiak, farolak, bankuak eta asfaltoak, ez dakit zer... Bueno, ba Udaletik ere hor izan daitezkeela zera bat. Da gai bat, ez dakit nola esan, paralelismo modura hartuta, da euskararen gaia hor jartzea ere, ez? Da feminismoak pixka bat lortu duena: emakumeen gaia edo feminismoa edo parekidetasuna hor egotea, agendan egotea eta leku guztitan egotea, ba auzo-elkarteekin horrelako zerbait lantzearena, hizkuntzaren kontu hori. Seguruena beste behar asko dituzte, egia da auzo elkarteak, nik pixka bat ezagutzen dudanarengatik, nahikoa dute bere auzoko parkea, bere auzoko zea, bere... [...] Zergatik ezin dira eskaini, eta igual auzo-elkarteekin batera, ipuingintza zerak igual aiton-amonen kolektiboari zuzendua bilobekin hitz egiteko edo ipuinak irakurtzeko edo. Oso gauza zehatzak. O sea, segun eta zein kolektibo ez dugu euskaldunduko [zalantzan jartze ahotsarekin esaten du] edo ez dugu zeratuko, baina bai erakarriko dugu mundura, erakarriko dugu igual ikuspegi bat edukitzera, lortuko dugu euskararekiko beste ikuspegi bat edukitzea, errespetu bat eskubideekiko, eta euskaldun bat eroso sentitu ahal izatea gune horretan ere bai, ez? Eta gehiago nahi duenak euskaltegiak dauzka eta beste ibilbide batzuk badauzka. 4

Azkenik, planteatu da auzo batzuk duten soziologia anitzak hizkuntzarekin lotutako proiektuak garatzeko aukera eskaintzen duela. Kaxkoa hartu da adibide: bertan kokatzen dira migratzaile ugari, baina baita gazteak ere (eta horiek euskaldunak dira). Bizilagun anitz horien arteko proiektuak gara daitezke euskara ezagutza eta erabilera areagotzeko.

Kaxkoan kokatzen baldin badira gaur egun etorkinak, batez ere, edo Karabelen esaten zen, ezta? Baina etorkinak Kaxkoan kokatzen ari baldin badira, izango da Kaxkoko etxeak izango direlako merkeenak horretarako. Baina, era berean, gazteak dira baita ere etxe merkeenak behar dituztenak, baliabide gutxiena dutenak. Eta dira sektore euskaldunena. Joder, ba biak leku berean topo egiten baldin badute, ez goaz gaizki. O sea, orduan, pixka bat igual topatu behar ditugu gune horiek eta egin behar ditugu politika jakinak, bai etorkinak eta bai gazteak hor koka daitezen, elkarrekin bizitzen. Horretara, getizazioa ebitatu dezakegu neurri handi batean eta -ahalduntze prozesu batekin, por supuesto, gazte hauen ahalduntze prozesu batekin- nolabait euskara entzutea egunero, euskara goazen normaltzat jotzera, izango litzateke. Es que horrelako gauza batzuk bilatu beharko ditugu jendearengana iristeko eta zeratzeko. Eta uste dut, adibidez, kasu horietan, es que direla bi mundu elkar erraz topatu dezaketenak, baldin eta politika egoki samarrak egiten badira horra begira, ez? Etxebizitzaren politikaren aldetik [...] iruditzen zait uztarketa horrek lagundu dezakeela bide horretan. 1

Kaxkoan, niri gauzak pixka bat nahastu egiten zaizkit. Bere garaian eta udaletxetik-eta bazeuden horrelako egitasmoak nola uztartu Kaxkoan, ez hizkuntza aldetik bakarrik, Kaxkoan jende heldu asko ere kontzentratzen zen non igogailurik ez dagoen, mugikortasun arazoekin.. Orduan, nola egin lanketa bat Kaxkoan bizi diren adineko pertsona horiekin auzo irisgarriagoetan bizi daitezen, bizi kalitate hobeagoarekin eta Kaxkoan jende gazteagoa edo migranteekin... Ze migranteak (eta hori leku guztietan gertatzen da) alde zaharretan kontzentratzen dira, normalean alokairuak merkeago direlako. Orduan, hor nik fokoa Kaxkoan jarriko nuke pixka bat eta, gero, uste dut gaur egun Zikuñagan ere kontzentratzen dela migrazio zera hori edo. 4

3.5.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK

Elkarrizketetako edukiak aurkeztuta, honako ekarpenak jaso dira kontraste saioetan (herritar eragileetan eta **udal teknikarien** saioetan landu zen):

DIAGNOSTIKOA	- Hernani desberdinak daude, auzoen artean desberdintasunak daude eta bakoitzak bere izaera du. Etxeberritik ari da hazten gehien herria, eta bertan badago lotara bakarrik joatearen fenomeno. Zailtasuna dago Hernaniko sentimendua edukitzeko, zailtasunak baitaude umeak elkartu eta aisialdi jardueretan parte hartzeko. Bestetik, auzo batzuk besteak baino euskaldunagoak dira. - Donostia hain gertu edukitzeak eragin dezake. Hernani Donostiaren lo-hiri gisa hartua dago autobia egin zenetik. Hernani metropolizazio prozesu batean dago (hori herriaren etorkizuneko bilakaera urbanistikoa ulertzeko elementu zentral bat izan behar da), Donostiako auzo bat izaten amaituko du. - Planifikazio urbanoak deshumanizatzeko joera izan du, harreman sozialak ahuldu egin dira. Garrantzitsua da kontuan hartzea non egiten den komunitatea eta zerk ematen dion bizitza herriari: Biterin, ikastetxeetan, tabernetan, komertzioetan... Azken bi horietatik gero eta gutxiago daude. - Jende ugari datorrenean herrira batera, arriskua dago baita ere ez sentitzeko halako herriratzeko beharrik. Euskarari dagokionez, gazteleraz dakitenean ez dute euskara ikasteko hainbesteko beharrik, Hernanin erderaz bizi daitekeelako. - Auzoak hustutzen ari dira. - Bilakaera urbanistikoarekin batera, garrantzitsua da kontuan hartzea aldaketa demografikoak ere (adin-piramideak, migrazioak...). Haurrak, nerabeak eta gazteak biztanleria orokorrarekiko gero eta gutxiago izango dira. Beraz, adin hauen euskalduntzea ezinbestekoa bada ere, beste adin tarte batzuei erreparatu beharra ere egongo da.
PROPOSAMENAK	- Dena da beharrezkoa: auzo berrietan eta etxeak eraiki direnetan lan egitea, baina ez hor bakarrik. Kaxkoak potentziala du jende asko ibiltzen delako bertan, eta, era berean, nahikoa lan ere badago bertan euskara sustatzen. Aldi berean, periferiei ere erreparatu behar zaie, auzo periferikoetan euskara irakatsiz, bertako jendearekin egonez, sutileziak euskara txoko gutzietan sartuz ("Olinpiadak" aipatu dira adibide moduan)... - Udalak auzokako politikak sustatu behar ditu? Bide hori herri izaera mantentzearekin kontrajar daitekeela ere ikusten da, eta tentsio hori presente eduki beharra azpimarratu da. Herri izaerari eustea ezinbestekoa da; hor non sartzen da hizkuntza? - Etorkizuneko Hernaniren eszenatokitik pentsatu behar dugu Hernaniko euskara; hala ere, eszenatoki horiek susma daitezkeen arren, udal kudeaketa baten eskuetatik ihes egiten duen eremu bat da honakoa. Garrantzitsuena arreta ez galtzea da eta kontuan izatea gertatuko diren moldaketa guztiak. - Geografikoki bestelako konfigurazio bat hartzen ari da Hernani eta gure eskemak oraindik zaharrak dira. "Lo-gunea dena bizitoki bihurtu" prozesua bideratzea auzoen eta herri mailan, hori egin beharko litzatekeela baloratu da: sozializazio esparruak bermatu, behar sozialak asetu, zerbitzuak eskaini, komunitatea egiten duten guneak zaindu... Lana zaila da baina gizartearen birsortzea bermatu. Ahuldu diren harreman sozialen errestituziora jo behar dugu. Elkartegintza sustatu, eta prozesu horretan lortu euskara oinarri izan dadin, erdian jarrita, modu nahiko tajantean. - Euskaraz bakarrik politika batera jotzea ondo baloratzen da (umeein aurrera eramatea errazagoa izan daitekeela baloratzen da helduagoen belaunaldiarekin baino). Bi norabide uztartzea ikusten da aukera moduan: antolatu euskaraz, eta gero dinamizatzailearekin modu barneratzaile batean egin hizkuntzen kudeaketa. Planteatuko diren politikek integratzaileak izan behar dute. - Herri eragileak, herri mugimenduak eta gazteak aliatu gisa hartzea gakoa da, eta agente horiek auzo bizitzetan fokalizatu. Auzo elkarteak aliatu gisa planteatzearekin zalantza adierazi da, ea zein indar daukaten auzo elkarteek benetan (ezagutzen diren jarduerak mugatuak dira, nahiz eta taldeka aldatu kasua); aldi berean, lehen baino indartsuago daudela eta gehiago daudela ere adierazi da. - Auzo elkarte eta eragileez gain, baloratu behar da "desaktibatuei" nola piztu sua, ilusioa. Eztabaida egon da zein den estrategia: barita magikoa edo latigoa. Beharra ikusi egin behar dela hausnartu da. - Ikuspegia aldatzea beharrezkoa da: ez jokatu iritsten direnak erdaldunasunaren arduradun izango balira bezala (aurreiritzi hori egon badago).

3.6. ARLO SOZIOEKONOMIKOA

Hizkuntzarekin zeharka lotutako gaien artean, aipatu den beste bat arlo sozioekonomikoarena izan da. Eskura dauden datuetatik abiatuta, honako gogoeta jarri zen hasiera batean:

GOGOETARAKO ABIAPUNTUA

- Sektore ekonomikoen kasuan, industriak zeukan nagusitasuna galdu du zerbitzuen mesedetan. Txikizkako komertzioak beheranzko joera izan du azken urteetan eta superfizie handiek lekua irabazi dute.

Segidan jasotzen ditugu elkarrizketetan eta kontraste saioetan ateratako ideiak.

3.6.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA

Arlo sozioekonomikoaz hitz egiterakoan, abiapuntua da euskara ez dagoela mahai gainean, eta hizkuntzaren gaia lantzen hasiz gero ere beti agertzen direla gauza garrantzitsuago eta urgenteagoak:

Argi dago euskararen gaia momentu horretan, ez dut esango bat ere ze ez dakit, baina enpresa oso gutxitan dagoela mahai gainean. Orduan zaila da nolabait ari garenean gure eguneroko jornalaz hitz egiten, euskararen gaia edo hizkuntz eskubideak ere hor txertatzea. [...] Gero agian gertatu zaigu ere, urtebeteko lana egin, formatu langileak, ze formazio bat eman behar zaie ere (zer dira hizkuntza eskubideak...) eta formatu langileak, rol playingak egin, ez dakit zenbat batzar... eta heltzen denean ordua enpresan eragiteko eta ez dakit zer, beti dago zerbait garrantzitsuagoa. Eta orduan ez du ematen pentsatzen zenuena emango zuela. Batzuetan hori ere gertatzen da, zuk pentsatzen duzu ez dakit zer eta gero ez du ematen edo kostatzen da asko martxan jartzea edo... 10

Aldi berean, bereziki helduen ikuspuntutik begiratuta, euskara ikasteko egon daitezkeen motibazioen artean pisu handia izan dezakeena lan-munduan baliagarria izatea dela baloratzen da, eta alde horretatik potentzial handia ikusten zaio:

Ekonomiarekin ere oso lotuta dago kontu hau. Hemen dauden galdera asko bai gizartearekin eta ekonomiarekin eta beste antolaketa kontu batzuekin lotuta daude. Azkenean, zergatik ari da jendea gaur egunean txinera ikasten? Konfuzio eta ez dakit zein poeta txinatarrengatik edo...? Ba ekonomian gora doazelako eta gero eta indar handiagoa daukatelako. Zergatik gailendu da ingelesa? Zergatik zeukan halako indarra frantsesak lehen? Dena diruarengatik. Orduan, hemen lan egiteko euskara behar den neurrian, horrek ere bultzatuko du jendea. 6

Arlo pribatuan administrazio publikotik, eta udaletatik, egin izan dira saiakera batzuk euskararen erabilera eta presentzia bultzatzeko. Ekimen simple bezain positibo moduan ikusten dira, esaterako, errotulazioa euskaraz jartzeko diru-laguntzak. Horien artean, erabili izan den tresna ohikoenetakoa Euskara Planak izan dira. Hauen kasuan, balorazioa gazi-gozoa da. Beharrezkoak ikusten diren arren, azken urteetako bilakaerari erreparatuta, emaitza mugatua ematen ari ez ote diren galdetzen da: enpresentzat zerbait nekeza bezala ikusten dira, prozesu geldoak dira, eta beren eraginkortasuna edo emaitza errealak ez dira erraz ikusten. Ideia berritzaile falta egon daitekeela hausnartu da.

Alde sozioekonomikotik, jo, ba mundu sozioekonomikoan, enpresa munduan-eta sartzea, ba bai, baditugu urte pila batean euskara planak enpresetan-eta. Baina oso geldo doaz. Eta oso leku murrizetan baita ere. Orduan, bale, eskolaren bitartez irabaziak izan ditugu; etena dago lan-mundura sartzen direnean. Eta 15-20 urtetan enpresetako euskara planek ez dute aurrera egiten. Orduan, talka horretan ikusten dugu hor ez dagoela aurrerabide handirik. Edo indar handi-handi handiak jarri behar dira eta, hala eta guztiz ere, emaitza ez dela hain ona, ez? 8

Urteak darama euskalgintzatik eta administrazio publikotik eta udaletatik ere lan-mundua euskalduntzeko planak eta programak eta ikastaroak eta egiten. Gertatzen dena da bueno, pues pixka bat arlo zaila ere izan da. Nire inpresioa da beti zailagoa izan dela. Eta batzuetan, gero igual nik entzunda, enpresak-eta: "Es que jo, rollo bat da guretzat. Da Euskara Plana eta Euskara Plana. Sortu behar duzu batzorde bat eta gero zazpi mila bilera. De repente sortzen duzu estruktura bat plan bat egiteko eta...". Hori kritikatu izan dute dezente enpresa edo eragile sozioekonomikoek euskara planekiko. Astuna. Orduan, hor bilatu behar dira moduak hori ere arinago egiteko. 4

Iruditzen zaigu eremu sozioekonomiko euskalduna sortzeko planak egin bai baina sustatu eta bultzatutik harago ez dela neurririk hartzen. Eta neurririk hartzen ez baldin bada ba "sustatu eta bultzatu" hori da pixka bat abstraktua, zentzu horretan. [...] Nik zalantza daukat euskalduntzeko plan horiek zenbaterainoko eraginkortasuna duten. Hau da, bai, baina azkenean leku guztietan dira berdinak edo antzekoak: edo liburuxka bat egiten da edo ematen dira trebatze saioak edo... Eta uste dut hor pixka bat ere bai aurrera egin behar dela. Uste dut ataskatuta gaudela, planen egitura horretan ere ez dagoela ideia berritzailerik. Ez dakit ataskoa, baina emaitzak non daude? Esan nahi dut, merkataritza planak aztertuko bagenitu Gipuzkoan egin diren azken 10 urtetan egin diren merkataritza planek eman duten eraginkortasuna edo izan duten emaitza kanpora begira edo barnera begira: zenbat langile euskaldundu diren, zenbat komertzio egin duten errolutazioa euskaraz, zenbat bezerorengana heldu da... Ez dakit, hau da, iruditzen zait gehiago dela adibidez Donostia batean udan datozenentzako, esateko: "ba beno, hemen euskara ere euskara badago" Eta.. "Kaixo, kaixo"... Pixka bat turistentzat eragina izateko... Benetan ez dakit nik ze eraginkortasun daukan. 10

Azkenik, bi ohar eman dira arlo sozioekonomikoan hizkuntza-kudeaketari dagokionez hartzen den ikuspegiarekin, biak ala biak txikizkako merkataritza eta interpelatzeko diren subjektuen izaerarekin lotuak. Batetik, baloratu da joera arriskutsua dela arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko ardura merkataritza txikia eta parez pare topatzen ditugun langileen gain planteatzea, eta zeini zein erantzukizun eskatu, fokoa ondo kokatzea garrantzitsua dela.

Askotan fokoa jartzen dugu langilearengan. Aldatzen da langilea eta komentatzen da "langilea erdalduna da". Ya, eta berak errua dauka erdalduna izateagatik? Berak ez dauka errurik. Hau da, agian ez zaio eskaini aukerarik edo ez dakit. Hau da, beste kasu batzuetan agian da ez duelako nahi baina... [...] Erantzukizuna noren gain jausten da? Erantzukizuna zer da, egunerokotasunean lau euro ateratzen 10 ordu dendan lan egiten duen pertsonarena? Edo nork dauka horren ardura? [...] Hau da, exijitzen zaiola norbera azpitik ikusten duzunari, nolabait esateko. Exijitzen zaio Boliviatik etorri behar izan den etorkin horri taberna bat hartu duena, familia guztia horrekin mantendu behar duena... horri bai. Orain, Osakidetza ez zaio exijitzen Markinara ekartzeko pediatra euskaldunik, UEMAn dagoen herri bat. Hau da, pixka bat esango nuke klase perspektibak ere eragina duela nahiz eta pentsatu ezetz, baina bai. Jokatzeko dugula apur bat inkonszienteki, baina... Horregatik esan dut exijitzen diegula merkataritza txikiei, bai, eta Donostiako udalari exijitzen dio norbaitek zerbait? Ez dakit ze prentsaurreko ematen dutenean... inork ez. Baina merkataritza txikiak derrigorrez egin behar du, "es que qué sinvergüenza" [barrez]. Pixka bat e, sentsazioa daukat. Herritar gisa presio hori egiterakoan ere fokoa ez dugu ondo jartzen, hau da, ez dakit nola esan... [...] Da pertzepzioa gehiago eh, ez dakit klasea deitu, ez dakit nola esan, hau da, askoz errazago exijitzen diegula gure berdina den bati benetan ardurak dituenari baino. Pertsona horren ardura da euskaraz ez jakitea? Ba izango ditu mila kontu, eta bai, berak egin dezake zerbait. Baina esan nahi nuena zen benetan erakundearen gain eta hizkuntza politika bat ez daramagula edo nik edo zuk. Esan nahi nuena zen, benetan hizkuntza politika baten arduraduna dela dena. Zerbaitengatik jarri ditugu edo daude gobernuan edo ardura postuetan. Hau da, gurea ez da... guk egin dezakegu ba beno, gure aletxo jarri. 10

Arlo sozioekonomikoa eta hizkuntzaren ikuspegiari dagokionez, bestetik, herriko komertzio txikiaren "erromantizazio" edo "idealizazioa"-rekin lotutako ohartarazpen bat egin da: ez pentsa herriko komertzio txikia, herriko komertzio txikia izateagatik bakarrik, euskaldunagoa denik.

Komertzio txikiaren rolloan niretzat dago pufo handi bat. Ze ni, Garberara edo Urbilera joaten naizenean, dendariarekiko harremanean erraztasun handiagoak daukat euskaraz egiteko Hernaniko komertzio txikian baino. Orduan, ez ditzagun gauzak nahastu. Ze bai, oso jatorrak dira Kaxkoko komertziantek, baina haiekin espainolez egiten dugu eta iruditzen zaigu euskaraz ari garela oso jatorrak garelako denok, ezta? Ulertzen? Orduan, cuidado. [...] Ni joaten naiz Urbilera kafe bat hartzera, eta ez pentsa Hernaniko Kaxkoa baino erdaldunagoa denik, eh. 3

3.6.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Aurrera begira egin daitezkeen gauzen artean, aipatzen den lehenengo kontua sistematizazioa eta orokortzea da. Hau da, modu sistematikoan hartu behar direla neurriak, ibilbide guztia kontuan hartuko dutenak (harrera, formazioa, lana...) eremu guztietan egon dadin euskara presente eta modu koherentean funtzionatuko duen sistema bat izan dadin:

[Eremu honetan diharduten] Ikarteak eta inkluso Euskaltegiak gara partxeak esateko: "Ah, bai, baina eskainiko dugu pixka bat edo ahal duzu ikasi zure formaziotik kanpo". Baina hori ez da unibertsaltasuna, hori da norberaren lepoen gainean ardura jartzea gizarteko erakundeek ardura hartu beharrean. Eta, orduan, nik uste dut gizarteko erakundeak, bai udalak eta gero bai Jaurilaritza, Foru Aldundia eta beste erakundeak sartu behar dira hor beste maila batean esateko: "Hemen behar dugu horren unibertsaltasuna eta eskubide guztia daukagu". Bestela beti bai euskara planak... Beno, euskara planek daramate 30 urte eta aldaketa izan da, baina ez orokorra. Eta formazioa, beno, Lanbide Heziketa, Helduen Hezkuntza Iraunkorra, eta abar, eta abar, onartzen da hainbat eremu erdaldunak eta gero harritzen zara zergatik ez duen jendeak gehiago erabiltzen euskara lan munduan? [Barreak] Hori guztia da prozesuaren sistema oso bat gaztelaniaz dela, eta ezin da eskatu norberari "zuk atera", baizik eta eskaini behar da. Eta hori lortu, eskaintza hori lortu benetan egin ahal izateko. [...] Sistematizazioak esan nahi luke, adibidez, euskara plana ez izatea zerbait enpresa batek izena eman behar duena, baizik eta enpresa guztietan existitu beharko litzateke. Beste planak bezala, lan seguritatea, istripuen babes, pentsio plana eta abar. Eta hori nork eskatu beharko lukeen, hori da gaia. Berriro gai juridikoa, gai politikoa. Noraino esan ahal du udal batek, adibidez, "gure udal eremuan dauden enpresa guztiek euskara plana aplikatu behar dute gure laguntzarekin edo gure teknikariekin". Hori izango litzateke bide bat. Eta, batez ere, burokraziarik gabe, gastu berezirik gabe eta abar. Eta kontua da gero nola zehaztu edo nola gauzatu. [...] Nik uste dut, egongo balitz hori modu sistematiko batean, pixka bat kale hezitzaileen moduan, zerbait. Dendekin eta tabernekin lan egiten duen euskara entrenatzailea edo, dendaz denda joaten dena, eta modu atsegin batean, edo laguntzaile moduan, jendearekin lan egiten duena hizkuntza aldatzeko edo hizkuntza gaitasunak lantzeko. 7

Eta honekin gauza bat ikusten nuen lotua, pixka bat hezkuntzarekin lotua, bereziki igual Lanbide Hezkuntzarekin, ze Lanbide Hezkuntzan itxura denez hor arazo handiagoak daude, jendeak espainolez hartzen du. Jendeak zergatik hartuko du hori espainolez? Gero ikusten duelako lantokietan-eta dena espainolez ari dela. Orduan, gizartearen bidetik eskari bat baldin badago edo eskaria, igual, berez horrela eskari argi eta zuzena ez izanagatik, nolabaiteko sari bat baldin badauka euskaraz aritzeak. Ba euskaraz ari denari bezero gehiago joaten bazaizkio-edo, orduan enpresak ere hasiko dira euskaraz lan egiteko gauza diren langileak eskatzen, eta Lanbide Hezkuntzan ere euskaraz jende gehiagok hartzeko bidea ireki lezake horrek. 6

Hori hala izango dela bermatzeko, baliabide edo norabide garrantzitsu bat muga juridiko eta legalak arakatzea izango dela hausnartu da. Hau da, zein aukera daude euskara eskaini eta eskatzeko lan-eremuan eta formakuntzaren eremuan?

Adineko arretan ikusi genuen askotan muga batzuetara iritsi ginen bai formakuntzan eta bai langileen formakuntza iraunkorrean edo langileei eskatzen zaien hizkuntza gaitasunetan, ez? Eta muga horiek ziren nor den formazio programen arduraduna. Eta hor, adibidez, prestakuntza okupazionala, neurri handi batean, Europako Batasunak finantziatzen du. Aurreratzen du bai Eusko Jaurilaritzak, bai Espainiako Gobernuak, baina gero fondoak iristen dira Europako Batasunetik, eta horiek ere zehazten dituzte edukiak, neurri batean. Hori da adibide bat, gero ahal da erabili beste eremu batzuetan. Baina hor, hain zuzen, oso eragin zuzena du. Zeren eduki horietan, Europar Batasunak eskatzen dituen edukietan, hizkuntzaren formazioa bereziki ez da sartzen. Eta, orduan, hor hasten da sorgin gorpila, zeren nahiz eta udalak, adibidez, - eta egin izan da, eh, Andoain, Hernani eta inguruko herrietan

eskaini zen arreta soziosanitarioko ikasleei euskara klaseak, baina ikastaro formaletik kanpo. Eta, orduan, oso mugatuta izan zen, eta jendea ez zuen ikusi hori zerbait, horren parte zena, ez? Eta, orduan, ikusi behar da nola lortu hasieratik inplikatzeko programan bertan, eta agian hor ere konfrontazio juridiko-politiko batean sartu, eta argudiatu hemen lan egiteko... Gainera, Gipuzkoan zahar egoitzak, bai Hernaniko zahar egoitzan berez langile finkoentzat eskatzen da hizkuntza perfila eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ere dauka horrelako hizkuntza protokoloa, Kabia erakundearen bitartez, euskara eskatzea langile finkoei. Eta, orduan, sortu behar da hor konfliktu bat: "Hemen ikasten duenak ikasi behar du ere egoiliarrekin edo beste jendearekin edo pazienteekin euskara haiena izateko. Eta horregatik guk sartzen dugu euskara gaia bezala ikastaro horretan". Eta uste dut oso garrantzitsua dela horrelako lanketarik egitea, nonbaiten hasi... Eta oso egokia iruditzen zait, adibidez, Hernani bezalako herri batean, non dauden bai baliabide ekonomikoak, bai borondate politikoa eta bai beharra, bai populazio euskalduna eta gero bai daude beste udalak ere antzeko egoera batean daude. Eta gero daude UEMA bezalako erakundeak horren babesa ere ematen dutenak. Baina nonbaiten hastea. Hemen ez dugu guk esaten hasieratik: "Baina hori ezin da Europar Batasunagatik, edo hori ezin da Estatuko diruagatik, edo hori ezin da ez dakit zein arrazoigatik", baizik eta pauso bat ematea "guk hori egingo dugu hemen beharrezkoa baldin bada". Eta, nire ustez, halako konfrontazioa edo halako gauzak, gauzak ondo hasten badira, prestatzen badira eta diskurtsoa oso argia eramaten dena eta azalpenak ematen direnak, eramatea gero ez dakit zein mailaraino egongo litzateke niretzat gakoa. 7

Administrazioak eta lege-inguruneak eskain ditzakeen aukeren artean, bereziki azpimarratu da lan-hitzarmenak sor ditzaketen aukerak arakatzea interesgarria izan daitekeela, nonbaitetik eragiten hasteko.

Adibidez Gipuzkoan grafikagintza eta papergintzako hitzarmen orokorrean egin zen borroka bat hor eta izan da berriztu behar zela eta abar, eta sartu ziren euskararen puntuak. Leku batzuetan badaude beste leku batzuetan ez daude. Orduan hitzarmenetan sartzen direnean, adibidez udaleko teknikariek eta abar, ba ez dakit hemen agian dago Gráficas Hernani, asmatzen ari naiz eh, baina... [...] Hau da, [hitzarmenean] jartzen du "bultzatu, sustatu"-eta egingo dugula Euskara Batzordea. Beno, ba Euskara Batzorde horrek ze funtzio izan behar du? Eta beno, pixkat sindikatuaren definitzen genuen eta gero horra eraman. Bidea? Ba askotan da egin eta egin edo saiatu eta saiatu, eta gero emaitzarik lortu ez. Baina beno, ba hor urratzen ari gara zerbait ezberdina. Eta hor udalak zer egin dezakeen? Ba ikusi zein motatako enpresak dauden eta ea dagoen hitzarmenean zerbait sartuta, ze ya desberdina da. Hitzarmenik ez badago edo ez badago ezer... Baina, aizu, bere hitzarmenean edo enpresako paktuan baldin badago jarrita "euskararen erabilera sustatuko dut", zu, ba hemen badaukazue hau.... "Eta zelan egiten duzue?" "Honela, bestela..." 10

Arlo sozioekonomikoaren baitan, administrazio publikoak leku argi bat izan behar duela baloratzen da euskararen presentzia eta erabilera bermatzen, eta horretarako baliabideak jartzen.

Lanpostu publikoari dagokionez, klaro, ni oso tajantea naiz: bai, klaro behar dela. [...] Uste dut baietz, udal batetik exijitu egin behar dela, bermatu egin behar dela, eta eman behar direla baita ere baldintzak eta, esango dut, errekurtsioak horretarako. 2

Administrazio publikoak eduki dezakeen eredugarritasun izaera hori garbi ikusten da Hernaniko Udalaren kasuan. Aurrerago agertuko den moduan, azken urteetan euskararen pisua asko areagotu da udalaren barnean, eta baloratu da ekimen pribatuan eragiteko aukera bat izan daitekeela Udalak egin duen bilakaera hori transmititzea, lan-mundura trasladatu ahal izateko.

Herrira etorrita, nik uste dut udalean egin den apustua asmatu beharko genukeela lan mundura eramaten. Hor egin den bide hori ea kapazak garen formula bat bilatzen esateko: "Eh, hau...".

Erakuts dezakegu. Es que eredua da eta motoreia izan daiteke udala bera, esateko "Udala, azkeneko urteetan, hartu eta iritsi gara euskaraz funtzionatzera". Hau trasladatuko dugu aldameneko enpresetara, eta enpresa hauetan hasiko gara planteamendu bera egiten, eta ea X urtetan irits gaitezkeen horretara? Eta ez da hain zaila. Ez da hain zaila gutxienez ulermen maila batera iristea. Eta, orduan, ulermen maila batekin, gutxi gorabehera, parte handi batean funtzionatu daiteke euskaraz. Orduan, posible izango litzateke. Orduan, nik uste dut pixka bat igual horrelako gauzak sustatu behar ditugu, ez? Nik uste dut lan munduak garrantzia handia duela, batez ere helduak hor daudelako, teoriar behintzat. Lan mundu horrek harrapatu behar dituelako heldu horiek. Eta orduan, nik hor zera handia jarriko nuke. 1

Gogoeta orokorreari dagokienaz, azken puntu moduan jaso da garrantzitsua dela emandako pausoen eta eskaintak baliabideen emaitzak aztertzea eta ebaluatzea aldiro.

Eta diru laguntzak ematen direnean ba gero eskatu bueltan, ez? Ze bestela da hori: "Udalak ematen du mila euro ez dakit zertarako", adibidez. Eta gero zer? Horrekin zer egin duzue? "Bi langile bidali ditugu AEK-ra". Ez dakit, bi langile bidali dituzu. Beno, ez dago... Ez dakit, pixka bat... ondo eh, bidali badituzte bi ondo, baina beno. 10

Marko orokor horrez gain, bi elementuk hartu dute nagusitasuna elkarriketetan: **diskurtsoak** eta **elkarlanak**. Bakoitzaren inguruan esan direnak aletuko ditugu segidan. Diskurtsoari dagokionez, kritiko agertu dira euskara balio erantsi moduan eta bestelako elementu batzuekin (bertakoa, KM0, ekologia...) lotzen duten diskurtsoekin. Lehenengo eta behin, euskara balio erantsi den heinean hautazko izaten jarraitzen duelako, eta hori gizartearen oinarri izatearekin kontrajartzen da:

Hor beti daukazu hori, euskara zerbait erantsita. Baina, azkenean, hori ez da kontua, eranstea [barrez], baizik eta oinarritzea, ez? Eta, horretarako, uste dut bai diskurtsoa eta bai programa mota ezberdinak egon behar dira. Eta horretarako, printzipoz, oso egokiak udalak, zeren hor ezagutzen duzu pixka bat zer dagoen herrian: zein denda, zein komertzio... Eta egin ahal duzu azterketa bat edo diagnostiko bat non dauden beharrak, eta behar horiek gero bete. [...] Diskurtso orokorra izan behar litzateke: "Hemen zerbitzu guztietan edo herri bizitza guztietan, nahi dugu eskaini mundu guztiari euskaraz aritzeko, eta gero bere etxean bakoitzak nahi duena. Baina gure elkarbizitzan argi eta garbi daukagu: euskara da gure komunikazio elementua." 7

Bestetik, planteamendu horrek bere horretan ez duelako emaitzarik edo ondorio errealik. Alde horretatik, konpromiso zehatzak hartu beharra azpimarratu da, eta konpromiso errealak eskatu:

Iruditzen zait interesantea dela mezua. Baina problema da emaitzak segituan, azkar daude edo hori bukatzen da segituan. O sea, zuk komertzioei esaten diezu: "Ez, ez, mezu honekin eta euskara eta ez dakit zer". Ya, ya, baina niri etorriko zait, bueltatuko zaizkit bezeroak edo bezero gehiago etorriko zait, edo bestela hau pelikula bat da. Eta, zoritxarrez, indar handiak daude kanpora begira. 1

Ba hori, gaur-gaurkoz, bestelako neurri gehigarriak hartzen ez bada, gaur-gaurkoz iruditzen zait pufo bat. Sartzea euskara hor, iruditzen zait euskaldunak iraintzea. Zeren, benetan, ez baita izango balio erantsi bat. Ez bada bestelako neurriak hartzen. Ulertzen didazu? O sea, esatea: "Bai, KM0, ez dakit zer, burujabetza, la hostia, bestea, ekonomia zirkularra eta euskara", ezta? Ah, bale, eta? Eta? Zein da konpromisoa? Zein da konpromisoa? Euskaraz egiten dutenei % 5eko deskontua egingo zaie? Edo zein da konpromisoa? Edo espainolez egiten dutenei % 5 gehiago kobratuko zaie? Zein da konpromisoa, zein da presioa euskara erabil dadin? Ulertzen? Ze, bestela, "Euskara? Bai, noski". Pentsa, Felipe VIak ere esaten du, eh. Eta Macronek ere esaten du, eh, euskara dela altxor bat. Orduan, zerk desberdintzen gaitu? Macronek sinatuko luke hori. Esatea: "Bai, bai, bai, euskara inportantea da". Eta? Zer gehiago? Non dago, euskaraz egitearen eta ez egitearen artean, non dago

diferentzia? "Ah, ez, bueno, bakoitzak ahal duena egiten du". Ah, bale, pues ya está. Ba ni Garberara joango naiz. [Isilunea egiten du] Broma da, eh. Da esateko modu bat. Garbera urruti dago [barrez].
3

Zentzu horretan, diskurtsoa beste elementu batzuen inguruan mugitzea interesgarria izan daitekeela hausnartu da, esaterako, beharra, salmentetan izango duen inpaktua edo lan-mundua euskaraz edukitzea eskubide bat dela eta euskaldunen "erosotasunak" langileen atxikimenduan eta eraginkortasunean izan dezakeen inpaktu positiboa.

A: Azkenean balio erantsiaren aldetik beti da aukerakoa, orduan ez baduzu nahi ez erabili eta listo. Nik uste dut gehiago doala, enpresa baten ikuspegitik edo denda bat edo, bezeroak. Hau da, bezeroen % ez dakit zenbat euskalduna da. Orduan ez da balio erantsia, hau da, gazteleradunak dituzu baina euskaldunak ere bai. Eta euskaldunak gainera baloratzen du euskaraz artatzen baldin baduzu bera. Orduan pixka bat beraiek ere sartzea gorpil horretan. [...] Eta nik uste dut kasu honetan ere, hau da, ez dakit, Ternua batek erabakitzen baldin badu bere zera euskaraz egitea dela, ulertu duelako potentzialki salduko duela. Edo... ez dakit, ez da bakarrik balio erantsia, baizik eta merkatu bat dagoela hor. Hau da, ez da egin nahi duzulako, baizik eta beno, daukazu merkatua. Bestela galtzen duzu. [...]

B: Bai, nik uste dut azkenean dela beharra ikusi behar dutela, ez? Eta beharra ikusten ez badute ba oso zaila dela. Ze beharra ikusten ez badute da kontzientziazio batetik, eta urteak daramagu kontzientziazio saioak eta [antolatzen]. Gero ez dute ezertarako balio. Orduan edo beharra ikusten dute edo motibazio oso on bat... 10

Guk badaukagu gure zera, dela lanean ere badaudela hizkuntza eskubideak eta daukagula lana euskaraz egiteko eskubidea, lanean euskaraz aritzeko eskubidea eta ez baldin badakigu, ikasteko eskubidea ere. [...] Langileen ikuspegian jarrita eta abar, guk komentatzen duguna da langileek, eskubideak izateaz gain, pixka bat rol playingak egiten genituenean eta esaten genuen norberari norbere hizkuntzan lan egiteko aukera eskainita erosoago egongo zarela lanean. Orduan lanean eroso egoteak, horrek bai badakar enpresarekiko atxikimendua, ez dakit zer... Hau da, beste gauza bat. Ez da berdina joan behar izatea lanera eta egunero egotea borrokan eta hitz egin gabe edo deseroso, ez dakizulako edo ez duzulako maneiatzen hizkuntza eta abar, edo joatea eta esatea: "beitu, ba nik lan egiten dut euskaraz eta pozik nago." Beno, pixka bat alde biak uztartu behar dira. Langilea pozago doa aukera eman zaiolako horretarako eta pozago zaudenean uste dut eraginkortasunaren aldetik ere hobeto. 10

Diskurtsoa albo batera utzita, elkarlanaz ere ugari hitz egin da arlo sozioekonomikoaren gaian. Lehenengo aipatu den elkarlanerako subjektua Berriak merkatarien elkarte bera izan da, bere bidez eremu ugaritan eragitera irits daitekeelakoan. Hala ere, ohartarazten da hain justu erdigunea ez diren auzoek dutela presentzia txikiena elkartearen, eta alde horretatik dituen mugez kontziente izan behar garela adierazi da.

Berriak-ekin elkarlanean beharbada hor aurrera egiteko. Elkarlan hori interesantea iruditzen zait: Udala, euskalgintza, existitzen ez dan euskalgintza hori [barre egiten dute], euskaltegiak, edo Berriak edo... Arlo horretan. Eta hor ere pixka bat gertatzen da, "komertzio" esaten dugunean niri etortzen zaizkit Plazaberri eta Plaza arteko denda guztiak eta taberna guztiak. Baina hor badaukagu... Ez? Zer gertatzen da Zikuñagako komertzio eta zerarekin? Saiakerak egin dira, badakit, eh. Baina bueno, gure erronkak hor daudela, auzoetan, ez? Igual ahaztu egiten gara. Ze auzo horiek dira urrunen gelditzen direnak, pertsona migrante gehien bizitzen ari diren lekuak eta, orduan, horietan nola... Eta horiek dira Berriak-en ez daudenak. Orduan, Berriak bada erreferente bat, baina dena ez da Berriak ere bai. Badaude bai komertzianta eta bai tabernariak, ostalariak ere, ez daudenak Berriaken. Baina Berriak-ek, bueno, garai batean, gaur egun ez dakit zein den errealitatea, baina ia ehun bazkide zituen, behintzat hemendik eta Latxunberaino, eh? O sea, ez da bakarrik Kaxkokoa. Latxunbeko

komertzioak, zerak, tabernak... Hor behealdekoak ere, Lizeagakoak ere jasotzen zituen eta denengana zabaldua dago eta iristen zen ere bai. Baina es que oso, Berriak-ekin elkarlanean, Berriak-ek bere zeretari barneratzen baldin badu hizkuntzaren gaia, beste asko bezela, ba hor lanketa handia egiten da edo errazten da. Eta egiten dira gauzak. Baina Berriak bada eragile interesante bat.

4

Horrez gain, Hernanin bestelako foro interesgarri batzuk sorzten ari direla adierazi da, bereziki ekonomia sozial eraldatzailearen bueltan, eta eredu ekonomikoa balio batzuekin lotuta sustatzen duten proiektuei dagokienez. Eredu horietan eragitea apustu bat izan behar dela planteatu da.

Iruditzen zait azkenaldian Hernanin ere oso egitasmo interesgarriak badaudela eta planak-eta badaudela ekonomia-sozial eraldatzailearen inguruan-eta, eta hor arlo industrialerako, bere garaian egitasmo bat egin zen erantzunkidetasunaren inguruan, pixka bat arlo ekonomikoa, arlo soziala, administratiboa... Eta orduan, bai iruditzen zait direla foro berriak edo gune berriak edo espazio berriak edo modu berriak arlo sozioekonomikora iristeko. Eta kasu honetan esaten ai naiz enpresa txiki/ertain/handiagoetan eta tailer, arlo industrial-mekanizatu zera horretan-edo, non ekonomia sozialaren ikuspegitik-eta, lan egiteko eta gestionatzeko modu horretan, printzipio eta balore batzuek garrantzia baduten. Eta bat da hizkuntzarena, ez? Parekidetasunarena bezala, kontziliazioa, lan-malgutasuna... gauza asko diren bezala. Iruditzen zait ekonomia-sozial eraldatzailearen zera horretatik eta egin diren azken urteetako egitasmo eta zera, izan daitekeela bide bat lan-mundu horretara iristeko ere bai. [...] Hor sartu. Udalean dagoen edo Iturrolan dagoen ekipo teknikoarekin-eta hor lan handia egiten ari direla. Eta hor iruditzen zait izan daitekeela modu bat hizkuntzaren gaia lan-munduan eta arlo horretan zeratzeko. Ze, berez, nolabait pack batean doa: baloreen artean da enpresaren kudeaketa horretan parte-hartzea, berdintasunaz... Hizkuntza da beste balore bat. Eta ez da joatea euskara planarekin. Da joatea zure gestionatzeko modu demokratiko zerago edo irekiagoan... Hor bagoaz beste diskurtso batekin, beste enfoke batekin goaz, non hizkuntza ere txertatua dagoen. 4

Hirugarren, enpresekin beraiekin –edo bertako agenteekin, sindikatuetoako ordezkariak esaterako- zuzeneko tratua izatearen garrantzia azpimarratu da: hau da, udalek eta enpresek nolabaiteko lotura izan behar dutela, naturala eta gehiegizko lan-kargarik ekarriko ez duena.

Sindikatuetik esaten duguna da harremanak naturalizatu behar direla herria eta enpresaren artean. Hau da, Tubacexen 129 langile kaleratu nahi baldin badituzte herritarrek ere erantzun dute 129 langile horien kaleratzearen aurrean. Hor egon da sinergia bat. Zergatik daude beti aparte? Zergatik horrelako kasu extremoetan bakarrik...? Ematen du enpresak beste mundu bat direla, eta ez, hemen badago industriagune bat eta bertako jendeak egiten du lan hor. Orduan herriko problemek hor eragiten dute... Azkenean 8 ordu pasatzen ditugu, eta bertako arazoek ere herrian eragiten dute. Orduan zergatik ez euskararena ere hor bozkatu? Nolabait normalago egin harremanak edo, bestela izaten da beti kirol elkarteak, aisialdi elkarteak, euskal elkarteak, ikastetxeak... eta enpresak inoiz ez daude. [...] Orduan naturalizatu harreman horiek nolabait, ez foro egonkor bitartez, baina beno, ba informazio udalarena bertara bidaliz eta nahi izanez gero langile batzordeetan ere nolabaiteko kuku bat eginez. Gero egia da gauza horiek sortu sortzen direla eta gero jarraikortasuna ematen zaie izaten den arte. Ze beti gaude denok super okupatuta, inoiz ez daukagu agendan tokirik ezertarako, eta... beno, hau da, batu por batu, ba ez. Baina proposatzen dena da pixka bat naturalizatzea harreman horiek eta ulertzea ekosistema beraren parte bezala nolabait. 10

Udala eta enpresen artean egon daitekeen tratua horri begira, ideia gisa planteatu da enpresa zuzendaritzekin eduki daitekeen tratua gain edo horrekin batera oso garrantzitsua dela langileekin eta langileen ordezkariarekin lan egitea, haiek izango baitira neurriak onartu eta aurrera eramango dituztenak.

Momentu honetan Hernaniko udala joatea ez dakit ze enpresatara Hernanin esanez "beno, hemen Euskara Plana jarri behar duzue martxan", horrek ez dauka inongo eraginkortasunik baldin eta langileak ez badira izan beharrian hori ikusi dutenak. [...] Udalak jartzen direnean langileekin edo harremanetan ematen du zuzendaritzari salto egiten zaiola. Eta beno, ez da hori, baina beno, izan daiteke bide bat ere enpresa desberdinetako komiteekin egoteko. Hau da, Euskaraldian zergatik jartzen gara enpresa zuzendaritzarekin harremanetan? Agian jarri behar gara langileekin, langileek indarra egin dezaten zuzendaritza horretan. Edo udalak eta langileek egin dezaten indar. Esan nahi dut, beno, Euskaraldia martxan jarriko bada ez dakit ze enpresetan hemen ba egingo dugu enpresa komite horretako kideekin berba, udaletik esango dute: "aizu ba aukera gehiago dago hemen, ikusten duzue..." Eta agian izan daitekeela beste bide bat, eta beno, uste dugu eraginkorragoa dela eta langileak hartzen direla kontutan. Ze orokorrean egiten dena da langileak kontutan hartu ez eta zuzendaritzari esan Euskara Plana, Berdintasun Plana edo ez dakit ze plan martxan jartzeko. Eta langileei heltzen zaie "beno, hau egin dugu". "Hau zer? Nondik dator orain bat batean kontu hau guztia?" [esango dute langileek] Ze batzuetan eragin zuzena du. Errotulazioa euskaldundu edo ez ba agian ez dauka eragin zuzenik, baina hasiko baldin banaiz plantilla erdiari euskara klaseak ematen, ba badauka eragina, eta beno, hori nondik datorren... [...] Iruditzen zaiguna da ez dela kontutan hartzen askotan, beti egiten da... ez zaigu ezer esaten, baina ematen du organo gorenetik gorenera, ez? Zuzendaritzak udalarekin eta... Eta, azpian, eragin-esparru hori guztia norena da? Hau da, nori eragiten diote gauza guzti hauek? Benetan hor lanean ari direnei. [...] Niri eraginkorra iruditzen zaidana da langileekin beraiekin hitz egin, eurek izatea identifikatzen dituztenak gabeziak eta gero, pixka bat... gainean egon behar da, hori ez dut ukatuko. Baina pixka bat beraiek izan daitezela zuzendaritzara doazenak. Ze azkenean ari gara hitz egiten plantilla ahalduntzeaz, eskatzen den moduan soldata igoera, eta kosta egiten da "ai ama, zelan eskatuko dugu, enpresa txarto doa..." Beno, ba eskatzea horrelako gauzak. Ahaldundu eta zuk dakizunean zertaz ari zaren hitz egiten errazago egiten duzu eskaera. 10

3.6.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK

Elkarrizketetako edukiak aurkeztuta, honako ekarpenak jaso dira kontraste saioetan (herritar eragileetan eta **udal teknikarien** saioetan landu zen):

DIAGNOSTIKOA	- Eremu pribatua izatea eta lantokien heterogeneotasuna zailtasunak dira: lehenengoa, eremu horretan eragiteko sortzen diren mugei dagokienez; bigarrena, euskara gaitasun eta profil oso desberdineko pertsonak elkartu ahal direlako lanean. - Euskaraz jarduten dutenak erresistentzia-guneak dira. Enpresa batzuetan, hala ere, badaude euskararen inguruko lanketa langileen beraien iniziatibatik ateratzen da (ziurtagiriak eskatzea...). - Euskara planen eta txostenen formula agortua dago. Baina euskara planen mugei buruz, edo formula agortzen ari ote delako gogoetaren inguruan, erantzun da "planik ez" logika arriskutsua dela. Baloratu da hein handi batean Udalak urte hauetan guztietan aurrera egin badu hortik izan dela (planak egin eta aurrera eramaten). - Enpresen ezaugarriak eta elkarren arteko desberdintasunak kontuan izatea garrantzitsutzat jo da. Enpresa oso desberdinak daude (jarduerak, tamaina...). Enpresaren tamainak ere eragiten du: errazagoa izan daiteke euskarara gertura daitezen lan egitea enpresa txiki eta gazteetan. Aldi berean, enpresa txikientzako koste handia izan daiteke euskararen sustapenean, orain arte egin den moduan, sartzea.
PROPOSAMENAK	- Euskara lanarekin eta ikaskuntzarekin lotzea oso garrantzitsua da, edota laguntzak lortzeko bidea ere euskararekin uztartzea. - Bi norabide posible behintzat ikusten dira: (1) kontzientzia, erabilerari dagokionez diskurtsoa eraiki, eta (2) zerbitzuak euskaraz eskaini daitezkeela erakutsi. - Euskara ezagutza langileen profiletan txertatzea da koxka bat (bereziki publikora begira lan egiten duten pertsonen kasuan) ,eta ondoren erabiltzeko motibazioan eragitea lehen hitza euskaraz egiteko edo dagoeneko badauzkagun joera batzuk puskatzeko lana hartzeko (enpresaren eta langilearen ardura, biak uztartzen dira). - Euskaraz bakarrik politika batera gerturatzea litzateke planteamendua. - Enplegu publikoaren bidez lan baldintza duinak eta anitzak bermatu behar dira. Ondoren, sektore pribatuan ere mekanismoak pentsatu behar dira (hobariak edota Google itzultzailearen igsako baliabideak, adibidez). - Funtzionatu dutela ikusi den gauzak, eraginkorrak diren bitartean erabiltzen jarraitzea da gako bat. Horietako kasu moduan planteatu da Euskaraldiaren dinamika, eta urtean zehar konstantzia batekin errepika daitezkeela adierazi da. - Bertikalitatea gainditzea eta Hernaniko beste taldeekin lan egitea garrantzitsua da, eta euskara beste gai batzuekin lotzea. - Elkarlanerako subjektuei dagokienez, langileekin lana egitea ondo ikusten da (are gehiago, norbanakoen eremu pertsonalean eragin behar dela baloratzen da, txikitasunetik eta interpelazio zuzena eginez), baina bereziki azpimarratu da nagusien babesa behar dela. Baloratzen da nagusiak eredu baldin badira, hobe dela. Zuzendaritzen eta nagusien eremuan babesak bilatzea garrantzitsua dela ikusten da, erabakiak hartzeko guneak horiek baitira, eta bertatik eratortzen baitira irizpideak, protokoloak eta bestelako neurriak. Zuzendaritzak konpromiso emale rola duela azpimarratu da. Adibide gisa jarri da futbol taldeetako zuzendaritzek erabaki dezaketela zein hizkuntzetan bidali mezuak familietara. Norabide berean, nagusia euskaraz hitz egiten ikusteak inpaktu positiboa izan dezakeela adierazi da. - Zalantza adierazi da Udalaren jarduera non kokatzen den enpresa pribatuan eta ea lehentasunezko gaia den. Aukerak egon badaudela baloratzen da, baina nola eragin eta zein baliabide jarri behar dituen Udalak hausnartu behar dela esan da. Izan ere, enpresa munduan bi logika daude: enpresa beraren barrura begirakoa eta kanpora begirakoa. Udaletik baloratzen da barrura begirako esparruan sartzeko zailtasunak handiak direla, bertan gertatzen denaren ezagutza falta handia dagoela eta eremu zaila dela eragiteko. Aldiz, kanpora begirako norabidean baloratzen da azken urteetan enpresa gehienek euskararen presentzia minimo bat bermatua dutela (kanpo-harremanen arduradunak euskaldunak izan ohi direla, adibidez). Udalak enpresekin duen harremana, hein handi batean, norabide honetan gertatzen da. Zentzu horretan, ekimen pribatuaren munduan gero eta argiago ikusten da euskaraz bizi gaitetzkeela, errealitate objektiboa da. Gutxitan gertatzen da kanpora begira dagoenak ez jakitea euskaraz.

3.7. MIGRAZIOA

Atal bat eskaini zaio migrazioaren fenomenoari, zehazki Euskal Herriz kanpotik datozen pertsonen osatzen duten migrazio-fenomenoari. Ideia pare bat aurkeztu ziren gaia kokatzeko:

GOGOETARAKO ABIAPUNTUA

- Azken urteetan biztanleriak gora egin du, bereziki migrazioaren eraginez. Migrazio horrek berak laguntzen du adin-piramidea "gaztetzen".
- Migrazio berria nagusiki Ertamerika eta Hegoamerikatik dator; gaur egun ia parean daude, kopurutan, Espainiar Estatutik etorri zirenak eta uholde berrikoak.

Segidan jasotzen ditugu elkarriketetan eta kontraste saioetan ateratako ideiak.

3.7.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA

Euskal Herriz kanpoko migrazioaren fenomeno eta euskarari dagokionez, fenomeno oso konplexuak gurutzatzen direla baloratzen da (aldagai sozioekonomikoak, lehentasunak, hizkuntzekiko aurreko testuinguruak...). Kontuan izan beharreko esparrua den arren, abiapuntu moduan adierazi da kontuz ibili behar dela euskara eta migrazioaren inguruan sortzen diren diskurtsoekin eta ikuspegiekin, euskararen "arazo" gisa ez planteatzeko "migranteak".

Desde luego, atenditu egin behar den zerbait da. Esan nahi dut, hori ez daukat inongo dudarik. Orain, reverso, beti esaten dut: daukagu tendentzia euskararen heriotza, badatorren heriotza hau, beti datorren heriotza, migranteen kulpaz izango dela esatea edo pentsatzea da ez edukitzea, ez dakit, gure gertuko historiarekiko begirada, ya ez kritiko bat, begiradarik. O sea, orain euskara hilko da Afrikatik eta Ameriketatik migranteak datozelako? Venga, hombre. Hemen zenbat jende dago 70 urterekin, 60rekin, 40rekin euskaraz ez dakiena? Eta aukerak, seguramente, baliabide sozial eta ekonomiko gehiago eduki dituen? Orduan, hor ere bai... Orain, klaro egon behar dugula atento eta klaro izan behar duela bide bat eta klaro jarri behar dugula esfortzu bat. Baina hemen lehenagotik daukagu tara, eh. O sea, migranteak egon aurretik hemen euskaraz aditzeko, jo, bagenituen arazoak. Orduan, hor ere batzuetan: "Euskara! Eta migranteak!", digo "Eh, tx, tx, tx, itxoin. Nahikoa lan daukagu hemen". Ze gero Ondarroara joaten zara eta ez dago problemarik horrekin, eh. Migranteekin justu. Orduan, horrekin ere ojo, porque batzuetan "euskara", eta orduan "ah, eta migranteak", digo, bueno, bai. Baina etxeko lan handia. 2

Are gehiago, azken urteetan etorri den Espainiar Estatuz kanpoko migrazioaren kasuan, baloratzen da sarritan euskararen inguruko jarrera aldekoagoa dutela aurreko migrazioa kideek baino, bertan hamarkadak daramatzatenek, karga historikoa desberdina delako baita ere.

Nik uste dut euskararekiko errespetu, atxikimendu, interes, gogo gehiago duela Afrikatik, Asiatik edo Hego Amerikatik iritsitako edozein pertsonen, hemen uste askotan euskaldundu ditugunak edo hemen jaiotakoak eta zerak baino. Euskara-gaztelaniak eduki duen, momentu batean, konfrontazio edo egoera hori dela-eta. Normalean, beste jatorrietatik etortzen direnek ezagutzen dituzte hiru, lau, bost hizkuntza. Eta hau beste bat da. Hau beste bat da, oso argi daukate bertako hizkuntza dela eta bertako... Migrante izateak nik uste dakarrela "ni mugitzen banaiz ez dakit nora, ba hizkuntza eta integrazioa eta zera egin beharko ditut eta hemen euskara baldin bada, ba daukat hori". Eta gero, gehienek, beraien ama hizkuntza... [...] Hasten direnak zerotik migrante zeretara, da gozada bat. O sea, gozada bat da lan egitea. Ze, orokorrean, oso prest daude. Eta es que interesatzen zaie "Kaixo! Egun on. Ogi bat nahi dut" edo "Bi zurito" eskatzea bezainbeste gustatzen zaie Lantzeko inauteria dela, momotxorroak direla edo hemen Olentzero eta Mari Domingi dauden pertsonaia batzuk direla... Hori dena da, ez? Eta hori da oso tresna interesantea integratzaileak. Hor badago elementu bat, eta hori gertatzen zaigu hemen bizi eta euskaldundu ez den jende askorekin edo euskarara hurbildu ez den jende askorekin. Baina ez Afrikatik iritsi... Orokorrean ai naiz. 4

Horri igual ematen dioguna baino garrantzia gehiago eman behar diogu. Zenbat jende bildu den baita ere, profil diferentetakoak, europarrak, euskarara. Horiek youtuberrak bihurtu behar ditugu, eredu jarri behar ditugu. 5

Ez dira gutxi Hernanin ere ez ya Hernanitik kanpo, baizik eta Euskal Herrikan kanpora eta Europaz kanpotik etorritako jendeak dauzkan komertzioak, direla hego asiarrak edo latino-amerikarrak edo dena delakoak. Eta horietan, egia esan, horiek egokitu zaizkidan horrelako komertzioetan, nik oso jarrera ona sumatu dut. Jarrera oso ona sumatu dut. Euskara da hemengo egiten gaituena, ez azalaren kolorea ez ezta nongoa den. 6

Hala ere, onartzen da profil honetako pertsonak ez direla kasu guztietan euskarara gerturatzen. Horretarako, beren testuinguruari lotutako ezaugarriez gain (baliabide ekonomikoak, bizitza garatzeko sareak...) edo horien gaineratik ikusten da harrera gizarteko errealitate soziolinguistikoa: euskara erabilgarria dela ikusiko balute Hernanira iristen diren pertsonak joera handiagoa izango lukete ikasteko, baina ez da sentsazio hori helarazten.

Zein da kontua? Denda bat irekitzen duenak ikusten badu ez duela euskarak ezertarako balio, pues ez du esango ezta "egun on" ere euskaraz. Baina hori da argi ikusten dutelako Hernanin euskarak ez duela piperrik inporta kalean. Eta hori da euskaraz dakigunon kulpa, ez migranteen kulpa. Kalek kale saltzen ibiltzen direnak, afro euskal herritarrek edo izaten direnak, horrela ibiltzen direnak, horiek, nik flipatzen dut: horiek kristoren ahalegina egiten dute euskaraz egiteko. Kristoren ahalegina egiten dute. "Egun on, zer? Gaur gutxi", berak esaten du. "Gaur gutxi saldu, eh, gaur gutxi saldu". Horiek bai. Eta tabernariak, "migranteak" [berak jarritako komatxoak] ez. Zergatik? Ni puta idea. Baina niri interesgarria iruditzen zait aztertze. Ze hor ibiltzen direnak poltsak bultzatzen eta hori, eta "Gaur, joder, gaur gutxi saldu, eh, gaur gutxi saldu". Zergatik horiek bai? 3

Ulertu behar da errealitatea dela datorren pertsona horrek ze beharizan dituen eta ze egoera linguistikorekin topatzen den. Ba agian Hernani ez da izango adibidea, baina Euskal Herriko herri gehienetan esaten du "gasteleraz bizi naiteke eta euskaraz ez". Orduan kontua ez da gasteleratik baztertzea, edo... beno, agian ikasi behar du, baina egon behar da beste bide bat esaten duena, erakutsi behar diona hemengo hizkuntza zein den eta berari sortu behar diona gogoa. Hau da, ulertuta seguruenik izango dela interna bat 24 ordu egongo dena etxean, ez duela edukiko ez dirurik ez denborarik ikasteko, eta kalean erabiltzen ez baldin bada... 10

Horrez gain, etorkinekin oso zuzenean lotuta dauden espazio batzuk gaztelania hutsez dira. Nabarmena da egoera, esaterako HHI edo EPA zentroen kasuan, etorkin ugarirentzat heldulekuak direnak.

Hor garrantzitsua da oso lan kontzientea egitea jende horientzat, ez? Eta ezin dut gehiegi aipatu EPArena zeren hori da... Zeren, azken finean, beti gure etsai nagusia, zeren hor bada leku bat, helduleku bat jendearentzat hor egoteko. Doanik da, ezagutzen dituzu beste pertsonak, irakasleak eta abar, ez? Eta hori guztia erdaraz da. 7

3.7.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Aurrera begira gaia nola landu hausnartzen hasitakoan, azpimarratu den lehenengo ideia izan da harrera une gakoa dela: transmititzeko euskarak zein leku duen hemengo gizartean, identifikatzeko zein behar eta ezaugarri dituen pertsona bakoitzak eta bere ezaugarrien araberrako ibilbide egokietan txertatzeko.

Etorkin bezala etortzen den jendearentzat harrera egon behar da euskaraz. Harrera esan nahi dut ez esatea "egun on", baizik eta eskaintzen diren ibilbideak euskaraz izatea, euskara ikasteko aukerarekin eta gero lana aurkitzeko aukerarekin, ez? [...] Nola eragotzi daiteke edo nola saihestu daiteke espainola ez den beste hizkuntza horiek berezko dituen jende horiek hemen hartu-emanitzen direnean espainola erabiltzea? Ba horretarako zuba egin behar da. Baina zuba nola egiten da? Ez espainolarekin. Baldin badaukazu, demagun -elkarrizketa honen harira pentsatu dudana adibide bat, ez?-, pentsa dezagun hemen daukagula pertsona bat magrebtarra eta arabiera hitz egiten du. Etortzen da Euskal Herrira, Magrebetik zuzenean, eta orduan zein aukera jartzen zaizkio? Askotan, jartzen zaion aukera da "ikasi espainola aurrena", eta horrela zubi hori egiten duzu. Bueno, baina baldin bada, demagun udaletxeak, esaterako, badauka baten bat arabiera hitz egiten duena, pertsona horren hizkuntza hitz egiten duena edo hor laguntzea daukana, eta gainontzean udaletxeak, gaur egun egiten duen bezala, material gehiena euskaraz eduki eta baliabide guztiak euskaraz eduki, eta udaletxeak egiten duen bezala euskarari lehentasunezko postu bat eman, eta pertsona horri harrera behar duenean, euskaraz ailegatzen ez denean, arabieraz eman, orduan pertsona horrek espainolaren beharrik ez luke izango. Eta beharra ikusiko luke, izatekotan ere, euskararekiko. Orduan, euskara planteatzen baldin bada integratzeko elementu bezala... 6

Uste dut gakoetako bat harreraren dagoela. Beste era bateko harrerak antolatu behar ditugu, eta harrera horrek joan behar du laguntzarekin lotuta. Esan behar dugu: "Eh, tx. Euskarategira baina ya. Eta bitarte horretan, nik jarriko dizkizut baliabideak bizitzeko". [...] Hasiera-hasieratik planteatu beharreko gauza bat da. 1

Azkenean, popurri bat eginda, herriak behar duela harrera bulego bat, atzeritarrak etortzen direnean ya harrera bulego horretara zuzendu, harrera bulegoak eskaini beharko luke euskara doan ikasteko aukera mundu guztiari eta erraztasunak jarri, ze badaukigu askotan dela jendea egiten duena lan eguneko ordu gehienetan edo dira interinak nonbait edo ez dakit zer... seme-alaba horiek dira askotan eskolara bakarrik joaten eta etortzen direnak eta agian ez dutenak parte hartzen gero herriak eskaintzen dituen, ez? Ba Dobera, Euskaraz jolastu edo kanika bat eskaintzen dizun aisialdia edo. Agian ez direnak leku horietara joaten eta pixka bat marko hori eta harrera bulego horretan eskaintzea "beitu, familia bat edo heldu bat edo ez dakit zein iritsi da. Beno ba eskaintza hau dago orrian, animatzen zaitugu doan euskara ikastera, udal euskarategian edo zera bat eginda AEK-rekin edo berdin zait nola. Eta gainera ditugu zure familiarentzat eskaintza hauek ere". Eta pixka bat hori, motibatu eta erakutsi euskararen beharra edo tresna bat bezala eta zerbait positibo bezala. 10

Harrera egokia egitearekin lotuta, partikularitasunari erantzuteko mekanismo egokiak prestatuta edukitzearen beharra dago. Profil eta abiapuntu desberdinetatik datozen pertsonak daude (noiz egin den migrazio prozesua, maila sozioekonomikoak, hezkuntza-maila, dakizkiten hizkuntzak, espektatibak, familia eta harreman-sareak...). Bakoitzaren kasuistikara egokitzea ezinbestekoa da, bakoitzaren esperientziak ezagutu eta konpartitzeko espazioak sortzea eta pertsona bakoitzaren behar eta interesak zeintzuk diren asmatzea.

Desberdintasuna dago nondik datozen. Ez da berdina Latinoamerikatik datozen etorkinekin, ia gaztelera badaukatela eta orduan hona datozen gaztekeraz bizitzeko ez daukate inolako arazorik. Beraz, euskarara saltoa ematea zailagoa den, edo herrialde arabiarretatik, Txinatik edo Errumaniatik

datozenekin. Haiek gaztelerarik ez dakite, ez daukate, eta orduan, zergatik sartzen ditugu gaztelerara? Euskarara sartu eta listo. 10

Mugimendu feministarekin hartuta. Nik uste dut irakaspen handiak hartu ditugu, ez? Nik gogoratzen dut momentu batzuetan andre batzuekin euskara hutsean hasi ginenean funtzionatzen eta xuxurlari sistemarekin eta, batzuk haserretu egin zirela, jende migratu bat, ez zutelako ulertzen edo iruditzen zitzaielako "joder, nahikoa lan eta tal". Eta gelditu egin genuen gure zera guztia eta egin ginen eseri eta egin genien esplikatu zer zen guretzako euskara. Eta hor ere oso polita: pues hoixe, batentzako Aitorren hizkuntz zaharra eta beste batentzako ez dakit, erresistentzia bide bat. Baina solasaldi oso interesanteak eduki genituen, ez? Zergatik zen guretzako inportantea eta abar, eta abar. [...] Eta, azkenean, bilakatu zen punto de encuentro bat. Eta konbertsazio hori eman egin behar zen eta oso luze eman zuen. Eta horrek eman zigun kasik etetea urtebeteko jardun bat mugimendu feminista bezala. Baina gaur da eguna emakume migrante horiek askok euskara ikasteko bidea, seme-alabekin bide hori hartu, gutxien molestatuko dietena edo inoiz... O sea, gehien defendatuko dutenak euskaraz izatea jardunaldiak, kartelak... Beti ere baldin badaude baldintzak jarraitu ahal izateko. Ematen delako negoziazio hori. 2

Eta, horrekin batera, bereziki iritsi berriak diren migratzaileen lehenengo belaunaldiari begira, lan munduarekin uztartu behar dira euskara irakaspenak, bai lanean euskara benetan presente egongo den elementu bat izatetik eta baita euskarazko ezagutza batzuk jasotzeko aukerak lanean bertan eskaintzetik edo laneko espazioarekin lotzetik. Izan ere, pertsona horien kasuan ikusten da motibazio instrumentala bereziki indartsua izango dela kasu askotan, eta euskara interesgarria izango zaie baldin eta lanerako behar badute. Horregatik, garrantzitsua ikusten da lanarekin lotutako zubiak, proiektuak eta euskara-irakaspenak sortzea, ibilbide integral batean planteatuta (harrera, formakuntza eta lana).

Eta iruditzen zait hemen badago gauza bat oso gutxi esplotatu izan dena, eta da: sekulako beharra dago, daukagu gure gaur egungo gizartean, adineko jendearen zaintzarako. Zergatik ez gara ari jende hori euskalduntzen horretara begira? Esanez: "Begira, hemen lana dago, euskaraz egiten baldin baduzu. Nik emango dizkizut laguntzak, ez dakit zer. Urtebete, hartzen duzu bi urte oinarritzko euskara bat zeratzeko eta lana edukiko duzu honekin eremu honetan". Horretan, bale, bien, baina eremu bat da. Lanerako eremu bat da. Ze, azkenean, hor ari dira lanean. Zoritxarrez, gehienetan emakumeak. Baina hori errealitate bat da. Igual Hernanitik horrela pixka bat arraroa egiten da, baina Goierriko herri txiki guzti horietan, orain arte erdaraz ez zen entzuten eta orain zaindari horiekin erdara sartu da. Orduan, zergatik herri guzti horietan ez da planning bat egin esateko: "Aizue, goazen antolatzen eta goazen jende honen euskalduntzera, esanez...". Aizu, lana eskainiz, eh. Esatera: "Tx, honekin lana izango duzu. Ze nik nahi dut nire gurasoak zainduko dituztenak euskaldunak izatea". Eta uste dut hor bide batzuk badaudela. O sea, ez dela hain-hain-hain zaila zenbait eremu jartzea, ez? Ez dakit nola egingo dugun, baina uste dut horrelako bideetatik ez baldin bada, ze hasieran bai horietan instrumentala izan behar du, erabat, iristeko modua. Kasu horretan ez dut ikusten beste aukerarik. Instrumentala izan behar du, eta gero... O sea, zuk imajinatu: zu etorri zara hona, ez dakizu, ematen dizute aukera ikasteko, horrekin batera lan bat lortzen duzu, eta lan horretan, gainera, euskaraz ari den batekin ari zara zaintzen eta zeure hizkuntza hobetzen ari zara. Ba egongo da, egongo da hala ere ikasiko ez duenik. Baina mesedez, o sea, jende gehienak... Eta, gainera, jarrera onean. Ze bere, hartu duen herrirako integrazio bide izan da eta bere lan eta diru-bide izan da horrek eman diona. Pues es que, iruditzen zait... Mezu positiboak eman behar direla ez du esaten mundu guztiak? Hori baino positiboagorik ba al dago jende horri begira? 1

Ez zait astakeria iruditzen zeharo dohainik izatea euskara ikastea. Erraztasuna da eta behar du. Gainera pertsona horren arazoa daukan lanarengatik tarterik ez duela hartzen bada, ordainduko dizkizugu asteen bi ordu euskara ikasteko. Esan dudana, administrazio publikoan egiten da, ez naiz ari ezer iraultzailerik esaten. Administrazio publikoan jendea eszedentziak ematen zaizkio euskara ikasteko. Ba hau da herriko komertzioetako dendari bat edo dena delakoa, eta nahi baldin bazaie

herriko dendei eutsi eta herriko interes bezala ikusten badira, herriko administrazioko langile batek adina badira horrelako laguntza bat emateko. 6

Eta hori da igual lehen hitz egin genuena, lan munduaren eremua, ez? Hori da beste gai bat. Zeren euskaraz ikasi duenak eta euskaraz hitz egiteko gai denak lortu behar du lanpostu bat euskaraz eskatzen den enpresa batean edo leku batean. Eta hor ere askoz gehiago saretu behar da: non daude halako aukerak eta non, kontzienteki, kokatu ahal da jende hori, ez? Eta ibilbidea egon behar da pentsatuta bere fase guztietan: jendea iristen denean non lortu ahal da hizkuntzaren hizkuntzaren formazio egokia, bai euskara eta bai gaztelaniaz, hirugarren hizkuntza hitz egiten baldin badute, eta gero non lortu euskararekin lanpostu bat. Jendeak sentsazioa edukitzeko: "Hori ez da hemen zerbait polita dela edo mundu guztiak eskatzen duela eta gero ez duela ezertarako balio", baizik eta kontzienteki planeatzea hemen lan merkatuan dira eskaintza horiek eta bideratu ahal dugu jendea bere hizkuntzaren gaitasunarekin batera. Eta horrelakorik egiten da igual goi mailan, formatzen da jendea "ez dakit zein teknikariak behar dira ez dakit nonbait", baina ez da pentsatzen "bueno, garbitzailea formatu behar dugu familia euskaldunetan lan egiteko" edo "nekazaritza laguntzailea formatzen dugu baserri euskaldunetan lan egin ahal izateko", edo adinekoen zaintzan adibidez, ez? Baizik eta da motibazio diskurtsoa: "ikasi euskara, laguntzen dizu". Baina hori geratzen da airean eta ez da jendea akonpainatzen bide horretan. Eta uste dut hor dago gakoa helduen kasuan. Haurrentzat ez, haurrak beste gai bat da. Baina batez ere helduen kasuan. Baina hor, lehen aipatu dudana bezala, ekosistema batean non ikusten duzun "euskarak benetan balio du", eskaintzen dizute ikasteko zuk ahal duzun moduan, eta gero horrekin lortzen duzu lan bat eta zure ingurua ere euskalduna da, guztiz beste balio bat du. 7

Adibidez sindikatuan hartu dira neurriak hori ez gertatzeko. Aldatu dugu hizkuntza politika eta orain arte zen euskaraz ez dakien inor ez da kontratatzen, eta ikusita gure apostua dela bazterretara begiratzea eta jendea integratzea eta abar, ba ikusi dugu euskaraz ez dakien inor ez badugu kontratatuko, etorkinek eta abarrek oso aukera gutxi dauzkatela sindikatuko liberatuak izateko, besteak beste. Nahiz eta izan oso aplikatuak, oso militanteak edo oso... Eta orduan egin duguna hizkuntza politikan, printzipio orokorra da euskaraz ez baldin badaki ez dugu kontratatuko. Baina salbuespena egin behar bada X motiborengatik, "aizu, honek egin du lan pila bat hemen, ondo", edo beno... demostratu beharrik ez eh, baina pentsatzen baldin badugu ez dakit nor kontratatu behar dela, ba hizkuntza politikan jarriko da epe bat euskalduntzeko. Emango zaio epe bat euskalduntzeko pertsona horri eta orduan ulertzen dugu bazterretan gelditu daitekeen jende hori edo aukerarik ez duen jendea izan ez gero, guk ere eskaintzen diogula ere "beno, aizuz, nahi baldin baduzu jakin gure hizkuntza euskara dela eta horrela funtzionatzen dugula" eta horrekin batera ere, oso beldurtuta, onartzen dugu pertsona horiek euskalduntze bidean dauden bitartean eremu batzuk erdalduntzen joan daitezkeela eh. Baina beno, utzi dugu hor eztabaida eta onartu dugu, esan dugu beno, gure teoriak eta egin dugunean ponentzietan eta azken kongresuan egin genuen hausnarketa zen "bazterretan dagoen hori integratzera, bizitzak erdigunera" eta abar. Eta ez betiko gizon sindikalista hori, haratago joateagatik... ba orduan hizkuntza politikak ere egokitzen bat behar zuela ulertu genuen eta beno, horretan ari gara. Eta egin duguna da hori, epe bat jarri, esan: "gure hizkuntza bai da euskara, baina ulertzen dugu eta jartzen ditugu bideak...". Jende horri ordaindu egiten zaio euskalduntzea. Hau da, epe bat eta ordaintzen da euskalduntzea, eta bere euskalduntze bidean jartzen dira zera ezberdinak. Eta beno, ba horrela ea nola ateratzen den. 10

3.7.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK

Elkarrizketetako edukiak aurkeztuta, honako ekarpenak jaso dira kontraste saioetan (herritar eragileetan eta **udal teknikarien** saioetan landu zen):

DIAGNOSTIKOA	- Lehenetsuna ez da euskara. - Helduek euskara ikastea zaila da; aldiz, ume denak eskolara doaz. Horrela, bigarren belaunaldia euskalduntzen da. - Hezkuntzari dagokionez, HHian euskara ematen da hasieran, baina denbora gutxi dute. Euskaltegiek eskaintzen dituzte ikastaroak, Mintzalagun badago... Batzuen iritziz, badago nahikoa. Beste batzuek diote ikasle gehienak titulu bila baldin badoaz, hizkuntza ikasketek ere norabide hori har dezaketela. Haurren kasuan, hezkuntza sisteman segregazioa gertatzen dela ikusten da, eta ikasleetatik adierazten da ez dagoela nahikoa baliabide ez dakitenek euskaraz ikasteko. Aratz eta Hernaniko herriaren kasuan lotura falta da: Aratzek ez du harremanik herriarekin, bi mundu dira (bertako haurrak Gaztelekura doaz eta beste guztiak herrian dabilzala baloratu da). - Migratzaile batzuk ez dute hemen bizitzen gelditzeko asmorik, eta horrek eragiten du euskara ikasteko. - Oraingo jarrera eta lehengo oso desberdinak dira. Kontuan hartu behar da "bertako" zenbaitek ere ez duela ikasi euskaraz. Hernanin jabetzen dira inportantea dela euskaraz jakitea; baliabideak dira mugatuak. - Elkarren arteko harremanak: bizilagunak egitasmoa arrakastatsua izan zela baloratzen da. Norabide horretan, alderantzizko bidez ere hausnartzea komeni da. Pertsona hauek ekartzen dutena (kultura, hizkuntza, ohiturak...) nola iristen da guregana? Badaude kanalak? Aisialdia, kulturaren bidez, baliabideak eskainiz, euskararekin elkartrukeak sortuz... - Gaia lantzeko agenteen artean, SOS Arrazakeria gako bat da. - Euskaldunok ere asko galdu dugula adierazten da: ohiturak, hiztegia, harremantzeko modua euskaraz izatea... Lehen beste kontzientzia bat zegoen, orain nahasketa gehiago dago.
PROPOSAMENAK	- Foko garrantzitsua da baita ere gertuko lekuetatik etortzen diren pertsonen migrazioa, adibidez Donostiatik. - Zein ikuspegitik heldu gaiari planteatzea ezinbestekoa da, adibidez, exijentzia eta baliabideak logiketan. Euskara ez da zama edo oztupo gisa planteatu behar; are gehiago, euskararen kanpoan uztea ere oso paternalista da. Gure ikuspegiaren karitatea arrastratzen ari gara. Euskara langa bat bezala planteatzen da, eta ez luke hala behar. Kultur etxea eta gisako lekuetara hurbiltzeko mekanismoak jartzea interesgarria litzateke. - Lan-bermea ere gako da, etorkinei lan baldintza onak bermatzea eta modu horretan euskarara gerturatu. - Lehen hizkuntza galdu gabe euskara txertatzea da erronka bat. - Euskaldunon aldetik ere animatu egin beharko litzateke. - Partikularitasuna: auzoetan aniztasuna landu. Bolondres lana egin. Harrera egiteaz gain euskara ere hor egon daiteke. Udalak bultzatzea dezakeen zerbait da auzo elkarteekin. Logika informal eta doakoetara gerturatzea, adibidez, mintzapraktikekin (ohiturak sortzeko gune eta aukera dira), euskaltegietatik at - Euskararen erabilera sustatzeaz gain, sentipenak ere landu behar dira, bestela zaila izango da. Motibazio instrumentalari motibazio identitarioa gehitu. - Euskaldunok printzipio batzuk ez ditugu argi, eta diskurtso, jarrera eta posizioak lantzea garrantzitsua da. Adibidez: hizkuntza komuna gaztelania da? "Eta gainera..." logikatik atera, euskarak balio gehigarri izateari utzi. Diskurtso aldetik landu behar da gaia, nola gerturatzen garen eta zein gakotan hitz egiten dugun. - Euskaltegiei buruz. AEKren lana balioan jarri. Baliabideak oso mugatuak dira (askotan informazioa bera ere ez da iristen nahikoa), euskaltegiak oso zurrunka eta mugatuak dira. Esparru berriak aztertu: eskolaz kanpoko laguntza ematen zaie haurrei, esaterako, baina euskararen inguruan emakume helduek izan ditzaketen beharrak ez dira hain kontutan hartzen. - Udaletxeak duen harrera espazioan gaia landu, ikusarazteko zein garrantzitsua den eta zer dagoen. Gaur egun urtean behin egiten dena sarriago egin beharko litzateke. - Ikuspegi aldaketa: etorkinak ere entzun behar ditugu (foro hauetan falta dira) eta elkarrekin egin. Aldi berean, kontziente izanda zein subjektuk diseinatuko dituzten udal politikak. "Integrazioa"-k dakarren autozentrismoa ere errebisatu behar da ("haiek gure kulturara eta ohituretara integratu" logika).

3.8. HEZKUNTZA ARAUTUA ETA HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Beste gai-bloke bat hezkuntzari buruzkoa izan da, hezkuntza arautua batetik eta helduen euskalduntze-alfabetatzeari buruzkoa bestetik. Honako ideiak aurkeztu dira hasiera batean:

GOGOETARAKO ABIAPUNTUA

- Euskaltegietako matrikulazioa 300-400 ikasle bueltan mantendu da azken urteetan. Ikasleen profila aldatzen ari da: gero eta ikasle helduagoak dira, titulu bila doazenak eta ordu gutxiagoko moduluak nahi dituztenak; etorri berriak ez dira gehiegi euskaltegietan.
- Ikastetxeetan D ereduak nagusitasuna hartu du, baina azken hogeitaz urteetan haren zabalpena geldituta dago % 85 bueltan. A ereduan 300-400 ikasle ari dira urtero, gehienak Helduen Heziketarako Ikastetxean (HHI-EPA), eta besteak Oinarrizko Lanbide Heziketan (OLH) eta Erdi Mailako Lanbide Heziketan (EMLH). A ereduak eskaintzen den eremuetan etorkinen edo haien seme-alaben matrikulazioa bereziki altua da.
- Hernaniko ikastetxeetan, etorkinen (Euskal Herritik kanpo jaioak edo haien seme-alabak) ehunekoak oso ezberdinak dira: HHn eta LHn Aratz itunpeko ikastetxean eta Urumea eskola publikoan kontzentratzen dira (D ereduan); DBHn Aratzen dago proportziorik altuena (B ereduak eskaintzen da). Batxilergoan oso etorkin kopuru baxua dago (%5,3-D ereduak) eta OLHn edo EMLHn kontzentratzen dira gehienak (A ereduan).
- Eusko Jaurlaritzaren eskumena den arren, Udalak ekimen batzuk jarri ditu martxan ikasle etorkinen integratzeko: epe kanpoko eskolatzeen inguruan aholkuak emateko batzorde bat; errefortzu eskolak; eta harrera protokoloa (laster martxan jarriko dena).

Segidan jasotzen ditugu elkarrizketetan eta kontraste saioetan ateratako ideiak.

3.8.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA

Hezkuntza arautuaren aldetik abiatuta, elkarrizketetan adierazi den lehen ideia ereduen planteamenduarekin lotuta egon da. Ikusten da hezkuntzan ezarritako ereduen modeloak muga handiak dituela, D ereduak berak ere ez baitu aurreikusitako euskara-gaitasuna bermatzen. Are gehiago, kukdeaketa moduak berak ere arazoak sortzen ditu euskarazko eskaintza bermatzeko (Lanbide Heziketaren kasua aipatzen da, non matrikulatutako ikasleen hizkuntza-gaitasunaren arabera euskarazko taldea sortu gabe gelditzeko arriskua dagoen):

Aurrekoan, beste liberatu batekin hitz egiten, Lanbide Heziketakoa dela, esaten zidan: "Da inkreible, apuntatzen dira 6 D eredurako eta 2 A eredurako eta nola gela osatu behar den A ereduak bihurtzen da". Hori ia zentro guztietan. 10

Hernanira gerturatuta, **hezkuntza arautuaren** panorama azken urteetan baldintzatu duen elementu gisa fusioa aipatu da. Abiapuntuan profil linguistiko desberdinak zituzten ikastetxeak elkartu direnean, euskararen gaian eskola batzuen egoera okertu egin dela susmatzen da (Langile bereziki), eta besteek, aldi berean, irabazi.

A: [Langilen] Aldaketa nagusia sumatu dut fusioa egin zelarik. Hor ikastetxe desberdinak elkartu zirelarik, beharbada, erdal giroko edo zutelako, bai Elizatxo bai Urumea, eta elkartu direnean, nik ikusi dut, jo, gazteleraren gorakada eskolan izugarri. Eta hori euskara irakasle izan gabe, ez? Nik sumatzen nuen pasiloan eta gelan bertan. Niri, jo, lehenago inolatan ere gazteleraz zuzenduko ez zaidan bezala... jo. Gero, oso arrunta bihurtu zen, nire azken urtetan oso arrunta zen neska-mutilak gazteleraz zuzentzea. [...]

B: [Urumean] Fusioa hasi ginenean, fusioa egiterakoan, batzuk ikusten zuten bezala "bua, zer da hau? Ze galera izan dugu fusioarekin", nire aldetik zen "jo, zenbat irabazi dugun". Nire aldetik ikusten nuen beste aldetik. Esaten nuen lehenago oso zaila zen entzutea euskaraz era informal batean, eta hemen entzuten da. Eta zuek ikusten zenuten alderantziz, beste aldetik ikusita "jo lehen ez genuen ia entzungo gaztelaniaz eta orain entzun egiten dugu". Eta gurea zen "lehenago ez zen entzuten euskaraz eta orain entzuten da euskaraz". 8

Zergatik dago halako aldea, adibidez, ikastolen artean ikastolak izanik? Argi dago, aldea dago. Langile edo Urumea, Elizatxo... Hor badago aldea. Eta umeek beraiek oso garbi egiten dute, oso. "Ez, ez, horiek erderaz ari direnak, horiek Urumeakoak dira", kalean edo parkean jolasean sumatzen dituztenean. [...] "Bai, bai, Elizatxokoa da baina euskaraz egiten du". Horrela dauzkate beraien artean, 9 urterekin-10 urterekin horrela. Gero poliki-poliki hori dena ia DBHn lausotu egiten da. [...] Hor [fusioan] Langilek galdu zuen eta galdu genuen denok. Gero eta garbiago daukat: fusioarekin galdu egin genuen. Eta asko galdu genuen. 16 urte bitarteko tarte hori galdu genuen. Langilek eusten zion, eta eusten dio hizkuntzari. Hori aitortu behar zaio Ikastolari. Eusten dio, eta ahultzen ari da zera hori, eh, baina eusten dio. Eta lehen, begira, DBH zeukan, baina orain fusioarekin, akabo. Es que hura ia beste gauza bat da, institutua oso handia dela, eta hor... Baina beno, hizkuntzarena ez dakit zer esan, ze beste gauza batzuk ere ikusten ditut ia hezkuntza aldetik ere. Dago halako aldaketa eta halako saltoa, nik ikusten dut Langiletik institutura, sekulako saltoa, eta orduan hor galtzen ateratzen da, eta hizkuntza da horietako bat. Zentro handiegia da. Hori bai hezkuntzan, edozer gauza martxan jartzeko-eta, txikiago beharko luke. 9

Baina bi hizkuntza presente dauden testuinguruak zaila da denboran berdin eta orekatuta mantentzea, eta fenomeno hori Hernani Institutuan ere agerian gelditzen ari da: hasiera batean azpi-komunitate batzuetan euskara gehiago entzuten bazen eta beste batzuetan gutxiago, gero eta euskararen presentzia txikiagoa edo ahulagoa izaten ari dela ikusten dute elkarrizketatuek.

Jaisten ari dela. Egiten dugu lau urtez behin, ikasleei ematen zaie erabilera, zenbat erabiltzen duten eta hori. Datu berdinak fidagarritasun berdinarekin, zortzi urtetik lau urtera galdu zen portzentai bat: %4-5. %63tik %58ra, oker ez banago, erabilera. Hau da, 2014tik 2018ra galdu ziren %63ko erabilera ikasleen artean, %58ra. Eta nik pentsatzen dut orain gutxiago egiten dela. [...] Portzentaia hori da, tendentzia hori. 8

Gure umeak erdaldundu dira Ikastolan, erdera ikasi dute Ikastolan. Eta gero orduan batzuetan pentsatzen duzu: "hau ez da guk nahi genuena". Badakigu erderaz ikasi behar dutela, baina hor sartzen dira zera batzuk eta... Baina ikusten da, eta Langilen oso garbi, eta irakasleen artean badago kezka eta. Baina ikusten da nola, poliki-poliki, ikasleen arteko harremana ere, gero eta gehiago dela erderaz. Eta DBHra ia akabo, akabo. Orduan hori badago eta beherakada dator, lehen eusten zitzaion baina beherakada dator. 9

Ikasleen artean gero eta gaztelania gehiago entzuteko dinamika indarra hartzen ari den aldi berean, beste testuinguru batean alderantzizko joera nabaritu da: guraso bileretan, hain justu. Azken urteetan lanketa kontziente bat egin da guraso bilerak soilik euskaraz izan daitezen, eta baloratzen da hasierna gatazka batzuk eta tentsio batzuk bizi izan ziren arren, denborarekin errotu den sistema bat dela eta gaur egun onartzen dena.

A: Fusioaren hasieran hasi ginenean, egiten zuten pues bakoitzak ahal zuen bezala. Ikusten zuen bezala, erosoena... Orduan, orain dela 8 urte-edo zehaztu genituen hizkuntza irizpideak, eta horretan dira: bilerak soilik euskaraz izango direla. Guztiak euskaraz [indarrez]. Eta gero bermatuta geldituko dela hizkuntza, ba baten batek nahi badu galdetu gaztelaniaz, erantzungo zaio gaztelaniaz. Eskatzen baldin badu euskaraz, ba euskaraz.

B: Erabaki genuen euskara batzordean egitea eta hurreneko urtea gogorra izan zen. Gogorra esan nahi dut... konfliktiboa. Batez ere hasieran izan zen. Jo, ni gogoratzen naiz gela-bilera batean: "¿y todo va a ser así? ¿Todo va a ser en euskara?" Bai, bai. Nik horrelakoak entzun behar izan nituen, ez? Baina nor... Prestatzen zen, beste guraso batzuk ere prestatzen ziren. Eta "aizu, ez. Itzuliko dizut". Edota... ez zegoen gure aldetik ere... "Ez duzu zerbait ulertu? Ba azalduko dizut". Alde horretatik prest geunden, ez? [...] Hori pixkanaka egiten joan zen zerbait izan zen. Hala ere, nik uste bitartekoak zeratzen genituela, ez? Nahiz eta euskaraz egin power pointa erabiltzen genuen, gazteleraz oinarritzko behintzat ideia nagusiak jarri... ez dakit, zenbait bitarteko erabiltzen saiatzen ginen. Eta maila horretan, nire azken zeran behintzat, nahiz eta gurasoen gehiengoa erdalduna izan, bilerak euskaraz egiten ziren.

B: Bai, gaur propio etorri zitzaidan bat eta "jo, nire gelan daukat proportzioa 0-12. Hau da, 0 euskaldunak eta 12 elebidun eskatu dutenak komunikazioa". Eta esan nion "jo, ba hor euskararen presentzia nabarmendu, ikusi egin behar da. Ez dizut esaten... Ba agian elebitan egin kasu honetan. Baina gutxienez nabaritu dezatela euskaraz egiten dela. Kasu honetan propio". Eta justo gaur gelditu naiz eta klase honetan zeuden proportzioak ziren 1-11, ez zen 0-12. Esan diot: "ba bateko horrek behar du, horrek eskubidea dauka dena euskaraz jasotzearena". Orduan ez da berdin 0-12 edo 1-11, ze 1 horrekin... Alderantziz izango balitz beti egiten dugu: "batek ez du ulertzen...", ba bat horrek badauka. Eta horrekin aritu gara. Baina lehen esan duzuna hizkuntz irizpideak eta hori, guk nahi genituen bi gauza: [...] ikasleak euskaraz ikasteaz ez ezik, euskaraz bizitzea zen helburu bat, eta bigarrena, gurasoen artean ez sortzea bi komunitate, ez genuen nahi bi komunitate sortu gurasoen artean. Hau da, guraso euskaldunak 17:00etan, guraso erdaldunak 18:00tan. Ez, denak bat. Orduan, denak bat izateko, ba euskaraz. Bale, beno, goazen ea ze bitarteko jartzen ditugun besteentzako. Orduan, hemen daukagu [irizpidea irakurtzen du]: "Ahozko komunikazioa. Gurasoein egingo diren talde-bilerak euskaraz egingo dira. Guraso batek gaztelerazko azalpenak behar baditu, irakasleak aukera hori emango dio, horretarako bide egokiren bat eskainiz. Irizpide horren helburua informazio bikoizketa saihestea izango da eta ikastetxean euskararen erabilera lehenestea". Gero oso inportantea da bilerara joan baino lehen gurasoek ia jakitea bilera euskaraz izango dela, ze bestela ia nerbioak sortzen dira. Orduan, ni baldin banago toki batean konfunditu... Ni noa ideia batekin eta

han topatzen naiz bat batean euskaraz dela. "Ba ez noa" esan dezakezu. Orduan, aurreko deialdian jartzen baldin bada, eta hemen daukat nola diren deialdiak [orrien artean ereduren bat bilatzen ari da]. "Bilerak euskaraz izango dira eta guraso guztiek bermatuta izango dute bilerako informazioa" [deialdian adierazitakoa irakurri du]. Gogoratzen naiz aurreko originala zela: "bilerak euskaraz izango dira baina guraso guztiek bermatuta...". Jo, ibili ginen honekin... "Baina " zergatik justifikatu egin behar da? "Baina" ez, "eta"! Eta mila buelta, eta azkenean lortu genuen: "Bilera euskaraz izango da eta...". Ze, bestela, "baina" zen justifikatu egiten zenuen euskaraz izango zirela. [...]

A: Kosta da, baina nik uste dut garrantzitsua izan dela, eta irakasleontzat ere... lehen beno, intseguritatea alde guztietatik.

B: Gaur egun zalantza zero. 8

Azkenik, ikasketa zentroen artean desberdintasunak markatzen dituen beste aldagai bat Hezkuntza Delegaritzatik datozen banaketa irizpideek sortzen dituztela baloratzen da, gurasoen aukera lehenesten delako haurrak zein eskoletan matrikulatu aukeratzeko (eta horrek jatorri migranteko haurrak leku jakin batzuetan kontzentratzea ekartzen du).

Daukazu Aratzen atzeritar kopurua dela kasik %80. Urumean ere pila bat egoten dira, Elizatxo dago hor eta Langilen oso gutxi daude. [Hau da, areagotzen ari da diferentzia urteekin?] Kontua da gero gehiago iristen direla. Orduan, udaletxean antolatu zen matrikulazioa batzorde horrek ere, epez kanpokoak, laguntzen du pixka bat sakabanatzen hori, baina azkenean nola delegaritzak jartzen duen lehenengo aukeran familiaren aukera errespetatu behar dela, ba zaila da. Zergatikan ez da berdina, segun ze eskolaz hitz egiten duzun errealitatea oso-oso ezberdina da. 10

Hezkuntza arautua albo batera utzita, **Lanbide Heziketa** ere hizpide izan da. Euskararen presentzia eta erabilerari dagokionez testuinguru zailena bera dela hausnartu da. Batetik, funtzionamenduaren aldetik, bertan sartu eta eragiteko oso ingurune zaila dela adierazi da.

Eta gero arazo potoloena, eta jartzen du, Lanbide Heziketan da, herri mailan eta Euskal Herri mailan ere. Uste dut hor guretzat ere proposamen bat egitea oso zaila dela. Ez da bat ere gardena, ez da... Lanbide Heziketa da zerbait, ez dakit nola definitu ere; baina kezka handia sortzen du. Hau da, sindikatuak asko ari dira horretaz hitz egiten. [...] Ez da finantziarioa eta ya, hor dago lanketa oso-oso potolo bat egin behar dena oinarri oinarritik eta oso zaila dena. Ze gainera irakasle guztiak ez doaz zerrenda batetik, batzuk dira... ez? Kontratazio mota oso ezberdinak daude Lanbide Heziketan ere. Orduan, esan nahi dut, ez da... niri ez zait oso gardena iruditu Lanbide Heziketa. Eta gero hor sartzeko muturra ere, ez? Pixka bat nondik. 10

Hizkuntzaren aldetik, ikasle elebidunen portzentaia handiagoa joaten dela iruditzen da Lanbide Heziketara Batxilergora baino (bigarren honetan euskaldunen ehuneko handiagoa gelditzen dela).

Nik ikusten dut hemen baita ere, behin laugarren maila bukatuta asko joaten direla Lanbide Heziketara. Orduan, ia hemen mordoxka bat joanda dago. Eta normalean baita ere Lanbide Heziketara dijoaztenak, proportzio handiagoa dela elebidunak direnak. Nik ikusten ditudan perfilengatik Lanbidera doaztenak perfil elebidunagoak dauzkate institutuan gelditzen direnak baino, Batxilergoa egiten dutenak baino. Hori horrela da, errealitate bat da. 8

Eta Hernaniko kasu zehatzera etorruta, susmoa adierazi da Hernaniko Lanbide Heziketak ez ote duen bereziki irudi txarra, lotuta neurri batean Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasketak bertan eskaintzearekin. Hala, hernaniarrek bestelako zentro batzuetara joateko dinamika dutela

iruditzen da eta herrira beste leku batzuetako ikasleak datozela, sarritan profil linguistiko erdaldunagoarekin baita ere.

Hernaniko Lanbide Heziketak ez dauka itxura ona publiko aldetik. Ze gainera eskaintzen dutenez lehengo Oinarrizko Lanbide Heziketa, hau da, lehengoko CIPak, ba Oinarrizko Lanbide Heziketara joaten da jendea ba ez dakit, ba nahiko arazo izan dituenak orain arte ikasketetan, dena... Orduan, bakarrik horren itxurakoekin ya joaten baldin bazara ate irekietara, horrelako jendea ikusita, ba ya jendea atzerago geratzen da. Orduan, gure ikastetxetik DBH 4n, nik esanda: "jo, ba begiratu. Hernani ere badago". "Baina Hernanin ze jende egoten den... eta ze jende dagoen eta ze jende dagoen". "Baino ze jende dago?". "Joe ba konfliktiboak, gainera CIPa dago". Oraindik jarraitzen dute "CIPa dago" esaten, ia dago duela bi edo hiru urte "Oinarrizko Lanbide Heziketa". Orduan, gure ikastetxetik DBH 4n joan zen jende gehiena Lanbide Heziketara, ia denek joan dira Salesianosetara, Don Bosco, La Salle... Hernanin, gauza bera eskaintzen, ez doaz. Eta, orduan, hona zeintzuk datoz? Ba lehengo zirkulo bizioso hori. Orduan, elikatu egiten da. [...] Eta nik pentsatzen dut zergatik eskainiko da A edo B eredu, edo ez dakit ze eredu ematen duten, A eta D, uste dut. Zergatik eskaintzen da? Ba behar dutelako jendea. Zergatik eman zien Hezkuntza Departamentuak Oinarrizko Lanbide Heziketa? Ba ez zegoelako beste inon ere, eta orduan behar zutelako. "Nola ez daukazuen ikaslerik, ba tori, Oinarrizko Lanbide Heziketa, eta guk dugun gabezi hori betetzea". 8

Hezkuntzaren eremuarekin amaitzeko, **helduen euskalduntzea eta alfabetatzea** ere hizpide izan da. Azken urteetan eremu honek izan duen ibilbideari erreparatuta, baloratu da hizkuntzaren ikasketa neurri handi batean Europako Erreferentzia Markoaren arabera antolatutako tituluak eskuratzearekin lotu dela. Bilakaera horretan eragin izan duen faktore moduan ikusten da administrazio publikoan eta bestelako lan-eremuetan profil linguistikoak eskatzearekin eta horiek eskuratzeko interesa duen gero eta jende gehiago joatearekin euskaltegietara. Hizkuntzaren ikasketan gailentzen ari den ikuspegi horrek ikasle batzuen beharrak ez dituela asetzen baloratzen da.

Inpresioa daukat, euskaltegietan bertan taldeak egiterakoan hartzen dela tituluaren erreferentzia hori. Horrek dakarren euskalduntzearen planteamendua distorsionatzen du. O sea, pertsona baten euskalduntze prozesua lotuta doa bere mila gaitasunekin. Baina ez titulu edo azterketa batetik lotuta. Egia da dagoela gero eta demanda handiagoa eta gero eta jende gehiagok behar dugu lanerako eta eskatzen diete ez dakit zer lanpostutako B2, C1... Euskaltegiko ikasleen portzentai dexenteko bat esango nuke da sektore pribatuan lanean ari den jendea, berrogei urtetik gorakoa, titulu lortu nahi duena administrazio publikoan oposatzeko. [...] Orduan, horrek baldintzatzen du. Eskaera hori egon badago, euskaltegietara hori iristen da. Jendeak behar du B2 edo "C1 nahi dut". Hori bada, eta bestea da antolatzea euskalduntze prozesua horren arabera, ez? Pertsona baten helburuak edo pertsona baten euskalduntze prozesua, edo pertsona baten ezagutza-maila gure euskalduntze prozesuan edo gure hizkuntzaren normalizazioan ez da B2 edo A2 edo C1 edo... Da bere gaitasunak hobetzea bere bizitzan euskaldun aktiboa izateko, ez? [...] Eta horrek baldintzatzen du euskaltegiaren antolaketa, taldeak nola egiten diren, klaseak nola ematen diren, arlo didaktikoa, ekintzak... [...] Zer da euskalduntzea? Zer da pertsona baten euskalduntze prozesu hori, ez? Eta orduan, hor, ezagutzen oso zentratua; ezagutzen baino, tituluak [azpimarratu egiten du] lortzera oso zentratua, maila batzuk lortzera... Eta erabilera pixka bat galduta. [...] "Gaingitze-tasa hainbestearainokoa da" eta gaingitze-tasa da zenbatek lortzen duten titulu. Eta zenbat hasi da erosketak, egunerokoan komertzioan euskaraz egiten? Zenbat hasi dira umeekin...? Zenbat hasi da bere lanean lankideekin modu informalean edo modu formalean...? Uste dut hor distorsio handi bat daukagula. Eta areagotzen duela ezagutza eta erabileraren kontu hori. Helduen erabilerarekin bi kontu horiek ikusten ditut. Bat, helduen euskalduntze-alfabetatzean ez ote daukagun erabilera pixka bat despistatua, ezagutzen ez ote garen gehiegi zentratu, badela gure funtzioa baina nire ustez biak lotuta daude. Gure funtzioa euskal hiztunak [azpimarratu egiten du] sortzea da, ez tituludun [azpimarratu egiten du] pertsonak sortzea. Eta uste dut fokoa hor jartzean ere areagotu egiten dugula ezagutza eta erabileraren distantziamendu hori, lotuago landu beharko genukeena. 4

3.8.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Aurrera begira eman daitezkeen pauso eta moldaketez hausnartzerakoan, hezkuntza arautuaren kasuan, lehenengo gogoeta da oso mugatua dela udal baten ikuspegitik egin daitekeena, ez baita bere eskumeneko eremu bat. Marko orokorrago batera jota, aurrera begira egin daitezkeen lehenengo gauza moduan hezkuntza sistemaren zereginaz, hizkuntzek eta euskarak bertan duten lekuaz eta horren arabera egin beharreko politikez hausnartzea dela adierazi da. Susmoa adierazi da planteatutako ibilbideak eta curriculumak errealitate batzuei ez diela erantzuten, eta kasuz kasu hobeto egokituko diren mekanismoak jarri behar direla martxan iritzi da.

Zer da inportanteena: euskaraz ikastea eta gero ikasketak egitea, ikasketak egitea, hor edukitzea sei orduz? Zer, zer... Zein da helburua? Eta nik hor ditut duda pila bat. [...] Sei ordu hor edukitzea, ikastea zerbait, euskara ikastea...? Ez dakit, eh. Botatzen ditut galderak, ez dakit. Orain, nik klase horretan ikusi ditudan gauzak, ba zen bat Sri Lankakoa, ez zekien ez kastellanoz eta ez ezer; ingelesez bakarrik zekien. Eta zegoen beste bat Afrikako ez dakit nongoa ingelesa zena bere bigarren hizkuntza eta kastellanoz bazekiena. Bueno, han egiten zuten una cadena de xuxurlaris... Nik ez dut ikusi autogestio bikainagorik. Eta esaten duzu: hemen zerbait badago potentziala. Orain, daukagun hezkuntza-ereduarekin, horrek ez du ezertarako balio. [...] Hor curriculumean egin behar da errebisio oso-oso kritiko bat. Euskara aintzat hartuko duena. Niri ez dit balio dikotomia horrek, zer da inportanteagoa. Ez, ez: euskara ikasten den bitartean gauzak ikastea, baina eskolarizazioan bertan hor, iristen da jendea ez dakiena irakurtzen ez dakit zein adinekin, oso errealitate desberdinak. Oso desberdina da Txinatik zatozen, Ukrainatik, Latinoamerikatik edo Burkina Fasotik. No, denak igual. Oso desberdina da zein adinetan. Eta ez dago. Ez dago protokolo zehatz bat, ez dago curriculum bat, eskola batzuetan daude, puf, gainera hitz egiten dizute umearen aurrean: "Es que etorri zaigu hau, ez dakigu zer egin honekin", hantxe dabil umea bueltaka. Ya ez naiz sartuko ume horren garapen psiko-emozionalean, o sea, en fin, dabilizatela aurrera eta atzera. Orduan, hor drama bat dago. Orain, euskara dela ume horien problema, ezta ere. O sea, "Ez, es que klaro, eta gainera euskaraz egin behar diegu, eta orduan, klaro, se suma". Y digo: bueno, euskara eta mate eta gauza asko egin beharko ditu, eta errefortzua... [...] Eta, bat-batean, nik esaten dizudan klase honetan ematen zen sinergia hori, autogestio hori, inplikazio hori, joder, ba bale, era la ONU eta segregazio bat zen, baina es que kristoren klase ona zen. O sea, eduki aldetik, beraien arteko harremanen aldetik, lortu zuten konplizitate bat del copón... Orduan, es que igual no quieren estar con los blancos. Eta momentu batean, igual, estrategikoa da momentu, edo momentu batzuk behintzat edukitzea konplizitate horretarako, errealitate horretarako, zapalkuntza horietarako, ez? Baina hori sistematikoki inoiz ez nuke jarriko. Ze, esan nahi dut, azkenean hor bai ya segregazio purora goaz. 2

Eta gero, gure ustez behintzat oso gaizki egiten dena da atzerritar horiek etortzen direnean gure eskoletan sartzen ditugu, egiten zaie azterketa bat maila ikusteko, normalean dela askoz baxuagoa hemengoa baino, orduan jaisten dituzu ez dakit zenbat maila eta hasten zara klase ematen. Pertsona horiek ez gaituzte ulertzen. Orduan berez egin beharko litzatekeena da, lehenengo bi hilabeteak edo urteak bakoitzak behar duena eskaini hizkuntza ikasteari, eta behin hizkuntza barneratuta daukala hasi nahi duzuna erakusten. Bestela ari zara sortzen denbora guztian frustrazioa, euskararen kontrako jarrera normal bat, ez? Ze zu joaten bazara Saharara eta hasten bazaizkizu hitz egiten, ez? Ba... ba ni lehenengo iruditzen zait hizkuntza erakutsi eta gai naizenean ulertzeko hasi esplikatzan. Eta hor ere kristoren akatsa dago. 10

Beste maila batera pasata, Lanbide Heziketaren kasuan garbi ikusten da aurrera begira eman beharreko pauso nagusia eremu hori guztia euskalduntzen joatea dela. Lehenago aipatutakoaren haritik, pertsonen hezkuntza eta lan ibilbideak euskaraz izateko bidean, Lanbide Heziketa euskaraz eskaintzera pasatzea funtsezko pausoa da.

A: Beno, eta hitz egiten ari da horretaz, eta zureari pixka bat lotuta, Lanbide Heziketatik suposatzen da langileak sortzen direla ere eta gero enpresetara doazela. Orduan badauka bere garrantzia Lanbide Heziketa euskaldun bat izateak, gero enpresetara doan jendea euskalduna izan dadin eta ez dezaten aitzakia erabili gaur egun erabiltzen dena, besteak beste, " gero langileak datoz eta ez dakite...". Hau da, enpresariak esaten dute: "zertarako jarriko ditugu makinak euskaraz, Lanbide Heziketa gazteleraz baldin badago eta gero baldin badatoz eta ez badakite euskaraz lan egiten, ez?".

B: [...] Ari gara prestatzen gure gazteak lan mundura joateko eta ari gara ukatzen 0 urtetatik 16 urtetara euskaraz ikasi duten ikasle guzti horiei ari gara kentzen euskaraz ikasteko aukera, eta euskaldunak direnak gainera arazoak edukitzen dituzte ez dutelako sekula erderaz ikasi eta behartuta daudelako azkeneko bi urte horietan materia guztia erderaz jasotzera. 10

Hizkuntzen irakaskuntzari eta hezkuntzaren bidezko euskalduntzeari dagokionez, honako gogoeta egin da baita ere: hizkuntzaren biziberritzea planteatzeko eta hizkuntza gaitasunak neurtzeko beste parametro batzuk behar ditugu. "Ezagutza" eta "erabilera" kategoriek, orain arte planteatu diren moduan, dagoeneko ez digute balio. Gaia konplexutu eta kasuistika zabaltzeko beharra azpimarratu da. Hala egin beharko litzateke bai hizkuntza biziberritzearen fenomenoak ulertzeko eta berari begiratzeko garaian, eta baita pertsonen euskalduntze prozesuak diseinatu eta garatzerakoan ere.

Hizkuntza biziberritzea ikusteko enfokea da garai batekoa. Bereiziki esango nuke, edo atentzioa deitzen didana gaur egun ere da ezagutza eta erabileraren artean daukagun betaurrekoa. Ze iruditzen zait ya gauza batzuk pentsatzeko modua aldatu egin behar dugula. [...] Nik esango nuke kategoria zurrin bezala dabilzkigula biak. Eta atzean gauza asko daudela. Orduan, esaten dugunean ezagutzaren aldeko politika bat egin behar dugula, adibidez, eskolaren bitartez edo euskalduntze-alfabetatzaren bitartez eta abar, jo, atzean nolakotasun handiak daude. Eta horiei ere begiratu behar diegu. Konplexuago bihurtu behar ditugu kategoria horiek. Eta gero, nik uste dut oso garbi dagoela ezagutzak erabilera ez dakarrela, baina erabilerak daudenean ere nolakotasun handia dago horren atzean. Orduan, uste dut hori begiratu behar dugula. 5

Nabarmendu nahi nuke hizkuntzaren komunikazio gaitasunari lehentasuna ematea, ez zuzentasun akademikoari. Komunikazio gaitasuna ez da derrigorrez hizkuntzaren zuzentasunarekin lotuta, baizik eta lortu behar duzu komunikazioaren helburua. Eta hor badaude ere proiektuak. Hizkuntza eskakizunak ere uste dut birplanteatu egin beharko lirateke eta askoz gehiago egokitu benetako komunikazio beharrei, edo guztiz kendu agian. Baina badaude azterketa motak edo balorazio motak, ez da bakarrik azterketa filtroa bat bezala, baizik eta pertsona baten gaitasuna baloratzeko "ona" edo "gaizki" sailkatu gabe; nola lortzen duzu lan-komunikazio egoera bat, edo nola gaingaitzen duzu? Eta, ez dakit, pertsona bat dator, sartzen da dendan eta galdetzen dizu: "Non dago udaletxea?". Eta orduan, horren arabera, zuk galdera hori ulertzen baduzu eta zuk eskuekin edo zuk dakizkizun hitzekin hori azaldu ahal baduzu, gaingaitu duzu komunikazio egoera hori, ez? [...] Hori da irizpidea, azken finean: ea zuk komunikazio elementu guztiekin lortzen duzun komunikazio behar hori gaingaitzea. Eta orduan, horren arabera, hori da elementu garrantzitsua nire ustez, eta ez zuzentasun jakin bat. Orain aipatu dudana, adibidez, komunikazio gaitasunak neurtzeko metodo hori Alemanian aplikatzen da. Scenario du izena. Eta scenario da: zuk eszenario bat planteatzen duzu eta, horren arabera, neurtzen duzu gaitasuna. Izan liteke orain kontatu dudana hortik, kalea edo udaletxea non den galdetzetik; izan liteke txosten tekinko bat idazteraino. Eta txosten tekniko bat idazteko beste gaitasunak eduki behar dituzu, ez? Da bakoitzaren behar guztiak kontuan hartuta, ez? Horrek ez du esan nahi edozein modutan hitz egin dezakezun edozein gauza lortzeko, baizik eta badaude mailak eta neurriak. 7

Aurreko aipuaren norabidetik, gogoeta ugari egin dira helduen euskalduntzean egin daitezkeen pausoen bidetik. Lehenengo proposamena da tituluen bilako hizkuntza-ikasketen ibilbidearekin batera, bestelako ezaugarriak eta beharrak dituzten profiletzako ikasketa-prozesuak

eskaintzea: komunikazio-egoerak aurrera ateratzean oinarrituak, arinagoak, testuinguru zehatzetara bideratuak (adibidez, aiton-amonen behar zehatzei erantzunez edo lanerako gaitasunak garatzeko), komunitatea eta harreman sozialak indartuko dituztenak, eremu ludikora gerturatzen direnak edo euskaltegietakako formatuaren alternatiba izango direnak...

Euskaltegitan dago jende bat hurbiltzen dena titulua lortu behar duela[ko]. Esan dut, antzematen dut nik horrelako olatu bat sektore pribatutik publikora pasa nahi duela mundu guztiak. Hori bai antzematen da. "Es que oposaketak prestatzea" edo "hona aurkezten naiz, aurkezten naiz..." Baina euskaltegietan da: "Ez, ez. Es que nik titulu hau nahi dut ze orain ari naizen enpresan ez dakit zer, baina nahi dut udaletan-edo probatu, edo Jaurilaritzan, edo nahi dut zera, eta horretarako euskara titulua eskatzen didatenez, ba...". Hori da tipologia bat. Baina gero dago tipologia bat etortzen dena euskara ikastea. Egia da euskara ikastera hurbiltzen den jende gehiena, horrela, zerotik esango genukeena, jende migrantea-edo da. Hemen, bueno, Hernani batean. Bueno, lehen aipatu detena, hogeita hamar urtez hemen daraman pertsona bat edo hemen jaio dena eta erdalduna, orain arte ez badu pausorik eman... Badaude, eh? Badaude amon-aitonak ba amona-aiton izaera horrek, bilobekin hitz egiteko motibazio horrek, bultzatzen dituenak eta "ba zer edo zer nahi det", eta... Baina tipologia da migranteena. Migrantea estatuko beste leku batzuetatik edo migranteak beste kontinente batzuetatik hurbiltzen direnak-edo. Eta horien zera da, hori beste tipologia bat da. Neurri handi batean egon daiteke beharra: lanerako beharra, bizitzako oinarritzko zerak eta euskara behar izatea lanerako. [...] Badago jendea, eta batzuetan juntatzen da zortzikote bat B1 mailako azterketa gainditu nahi duena, eta horiekin igual lanketa, bale. Baina badago jende asko euskaltegian oraindik ez duena titulua nahi. Baina honek asko distorsionatzen du. Eta gero, ikuspegia nire ustez, irakasle askorena da ikasleak hurbiltzen direnean euskara ikastera: "Irudikatzen dut bere euskalduntze prozesua noiz iritsiko den B1-era, B2-ra". Ez, igual iritsiko da hizkuntz-gaitasun batera non bere eguneroko bizitzan, familian, umeekin, erosketetan eta lanean euskaraz egingo duen. Bai? Hori da bere ezagutza. Eta horrek ez dauka zenbakirik. H4 edo R7 den, hori ez dakigu baina da bere ezagutza maila. Ze lotuta dago bere erabilerarekin. Ezagutza hori lotuta dago erabilerarekin. Hor distorsio... Txapa hau guztia dator pixka bat esan duzuna, ezagutza eta erabileraren arteko diferentzia hori nola aktibatu? Eta horregatik ere esaten nun lehen ere. Ba ez dakit oso ondo nola aktibatu behar den baino euskaltegiaren ikuspegitik igual ikusten ditut zailtasunak ezagutza hori erabilerarekin ere lotzeko. 4

Iruditzen zait helduei serio eutsi behar zaiola eta esan behar dela: "Ez, ez, egin behar dugu apustu bat". Bere garaian hurrekin egin genuen bezala, egingo dugu apustu bat eta hurrengo bost urteetan lortuko dugu helduen ez dakit zein kopuru euskaltegietatik pasatzea edo enpresan egitea. Berdin dit. Horretarako uste dut, neurri batean, tresna egokiak planteatuko balira, eta laguntza kontzeptuan. Esan nahi dut, jendea euskaltegira joatea gaur egun oso zaila izango da. Eta lanetik atera eta euskaltegira joatea askoz ere zailagoa. Ba benetan nahi baldin badugu pauso hori egin, igual planteatu behar dugu "ez, ez, ez, dirua jarriko dugu hemen eta lantegi guztietan astean bost, lau, zortzi ordu euskarako klaseak emango ditugu". Hori apustu bat izango litzateke. Hori herri apustu bat izango litzateke, esateko: "Es que guk hau lortu nahi dugu. Orduan, ez, ez, hurrengo bost urteetan zeratuko dugu. Eta zu lanera joango zara, baina laneko bi ordu pasako dituzu horretara". Eta horrelako gauzak egin daitezke. Iruditzen zait oso egingarriak direla, baldin eta nahi baldin badugu. Eta orduan, kontua da nola egiten den hori, nola lortzen dugun hori martxan jartzea. Baina nik uste dut oso inportantea dela. Eta gero, eta hau ya... Bueno, hor sartzeko ya jartzen gara gobernuen dinamikek sartu behar dute eta horiek hartu behar dute horretarako erabaki bat, ez? 1

Dauden kolektibo desberdinen artean elkarguneak, kohesio sozial hori bilatzeko baita ere. Ez igual, nahi baldin baduzu, hizkuntzaren helburua lehenengo lerroan jarrita, baina hortxe edukita. [...] Uste dut baita ere herri dinamika, kohesio soziala baita ere, bultzatu behar dela. Eta euskara kohesio sozial horretatik landu. Orain dela gutxi jardunaldi batzuetan entzun nuen Arrasaten egin zutela, "Arrasate euskaldundu dezagun" taldetik sortutako beste taldetxo bat emakume migranteekin egiten zutena: elkartu eta josi, edo eskulanak, edo bakoitzak zekiena egiten, ez? Beharbada horren bitartez euskara ikas daiteke. Ez da zertan igual euskaltegi batera joan, ez? Eta euskara ikas daiteke modu bizi batean, ez horrenbeste gaur egunean erakusten den moduan, ez dela hain erakargarria, ezta? Helburu komunikatibo bategaz. 5

Behar partikular bakoitzari erantzuteko modua desberdina eta kasuz kasukoa izan beharko litzatekeen arren, modu orokorrean bi gako edo norabide garrantzitsu azpimarratu dira helduen euskalduntzea eta alfabetatzea bideratzeko. Lehenengoa da erabilerari garrantzia handiagoa ematea, eta ezagutza areagotzeko proposamenez gain, erabilera sustatzeko proiektuei leku gehiago ematea.

Nire ustez helduen euskalduntze-alfabetatzea, berreuskalduntzea, da hiztun aktiboak sortzea, ez? O sea, erabilera ere gure lan-ardatz garrantzitsua da. Ezagutza eta erabilera lotuta daude. O sea, da: hizkuntza ikasi erabiltzeko eta erabiliz ikasi, berdin dit. O sea, biak lotuta daude. Ba hori da pixka bat erabileraren kontu horretan. Eta orduan, erabilerarekin lotuta, orain dela hogeitau urteko dinosaurioak garenak pixka bat, ba orain dela hogeitau urte egiten ziren ez dakit zenbat ekintza eta zera praktikatzeko, mintza-praktika egiteko, ikasleekin taldeetan euskaltegiak egiten zituen ekintzak, kanpo-ekintzak, ikasleak nahastu... Erabiltzeko, erabilerari begira. Iruditzen zait, gaur egun, Mintzalagun, Mintza Zera, horrelako proiektu asko daude herri guztietan -hemen ere badago Mintzalaguna edo mintza... ez dakit zein dan izena konkretuki-, eta orduan, bueno, badirudi "Guk euskaltegian ezagutza emango diegu eta hitz egin nahi duena joan dadila Doberara eta galde dezala Mintzalagunen sartzeko zer behar duen", ez? Hor ere nabaritu dut. Egia da pandemiak ere baldintzatu duela, baina orokorrean... Erabilerara begirako zera horretan, ez? Hernanin badaukagu, bueno, euskaltegian badago Zilegi Eskola izeneko egitasmo bat. Zilegi Eskolaren egitasmoa berez, erabileraren bitartez, ezagutza handitzea eta motibazioan eragitea ere bada, baina hor ere nik zortzi urte hauetan diferentzia handia ikusi dut. Nola lantzen genuen eta nola jartzen genuen praktikan Zilegi Eskolan egiten diren hainbat saio, eta gaur egun nola lantzen diren. Eta, orduan, uste dut hor ere -eta eztabaida horietan ai gara oraintxe euskaltegian, AEKn behintzat- uste dut erabileraren kontu hori ez dela petatxo bat, guk uztartu egin behar ditugula ezagutza eta erabilera hori, ez? Eta hori da lehen esan nahi nuena: bat, ezagutzarena eta bestea erabileran atentzio gehiago jarri behar dugula. Eta erabilera gure zeregina badela eta euskalduntze prozesuarekin ere lotuta dagoela. Eta hori ere pixka ba, nik uste dut laguntzen duela mintza-praktika jarduerak. 4

Aipatu den bigarren norabidea edo landu daitekeen fokoa da euskaldunen -bereziki, adinekoen- alfabetatzea indartzea:

Nik alfabetatze kanpaina sendoak egin ez izana, uste dut hori izan dela akats handi-handi-handi bat. Ez dakit Gipuzkoan zelan biziko den hori, baina Bizkaian oso modu txarrean bizi izan da. Eta Bermeon bereziki. Bermeon bereziki. [Alfabetatzea edo euskalduntze-alfabetatzea?] Alfabetatzea. Euskaldunen alfabetatzea. Es que euskal prentsaren kontsumoa euskaldunen artean oso txikia da. Euskal telebista... Bueno, euskal telebistak dauzkan gabezia guztiekin, baina euskal telebista ere gutxi kontsumitzen da. O sea, dauzkagun euskarazko hedabide apurak gutxi kontsumitzen dira. Orduan, hor badago zerbait. Kontsumitzailea nor izan daiteke? Euskaraz dakiena. Zergatik ez ditu kontsumitzen euskaraz dakien horrek? Alfabetatze -ez "alfabetatze" gramatika zentzuan, baina alfabetatze- oso bat uste dut oraindik ere beharrezkoa dela, nahiz eta belaunaldi askotan ya eskolaren bitartez beste tresna batzuk eta beste alfabetatze formal maila bat lortu duten. 5

Helburu gisa marka daitezkeen norabideez gain, helduen euskalduntzea apustu sendoa izan dadin, herritarrei bertara sartzeko hautua egitea erraztuko lieketen baliabideak areagotu behar direla uste da. Baliabide horien artean azpimarratu da bereziki, aurrez aipatutako ibilbide anitz eta pertsonalez gain, euskara ikasketen doakotasuna. Horrekin batera, norbanakoen jarduera-espazioak eta euskara-ikasketak lotzeko proposamenak garatzea ere aukera bat izan daitekeela ikusten da (adibidez, lan-orduetan euskara ikasteko bidea eskaintzea).

Gure proposamena da izan behar dela doakoa ikastea euskaraz, eta publikoa eta abar. Baina beno, gaur egun ba hartzen diren neurriekin ez zaigu iruditzen denik ez doakoa, are gutxiago publikoa eta... 10

Finantzazioarekin, eta euskararen doakotasunaren kontu hori. Eta hori jende askok flipatzen du. Ez igual Afrikatik datozenek-eta, baina Europatik iristen diren alemaniar, frantziar... Euskara ikasteagatik pagatu behar izatea iruditzen zaie... Eta doakotasunarena, hori ez da Hernaniko kasua, hori orokorra da eta hori borroka nazional bat da eta hori beste eragile nazional batzuek elkarlanean bideratu beharrekoa. Baina bai laguntzak, ez? Eta hor ere udalak ere baditu laguntzak, dauka laguntza-sistema potente bat euskara ikasi nahi duenarentzat. Baina justu migranteen kasuan arazo larri bat da. Gaur egun, Hernaniko udalak dauka % 90eko finantzazio-sistema. Baina migranteek, 360 euro balio dituen ikastaro batean % 10 bakarrik pagatu beharko dute, 36 euro, baina ezin dute 36 euro pagatu. Ezin dute. O sea, migranteen kasuan da... Igual hor bi buelta eman behar dizkiogu kasuistika batzuetan ehuneko-ehuneko finantzazio sistema batean-edo. Ze bada arlo-ekonomikoa kolektibo honetan, migranteen kolektiboaren kasuan. Eta bai. Finantziazioaren kontu hori migranteen kasuan eta, gero, elkarlanaren hori ikusten ditut pixka bat helduen euskalduntze-alfabetatzean, Hernanin, beste era batera... Euskaltegiatik hasita, euskaltegiak beste eragileekin elkarlanean ibiltzea. 4

Euskara ikasteko laguntzak eta baliabideak egon behar dira más y más. Gratis arte. 2

Hernaniko komertzioetan adibidez, udaletxeak esan dezake "Bueno, ba zuri ordainduko dizkizugu astean bi ordu, eta joan astean bi ordu horietan euskaltegira". Planteamendu hori egin daiteke. Horrek, gero erantzukizuna eskatu behar du nik uste. Erraztasuna eta zailtasuna izan behar du. Arrazoizko neurri batean esan nahi dut. 6

Bestetik, helduen euskalduntzea oztopatzen duten iruditeriako elementu batzuk oraindik mantentzen direla susmatzen da, adibidez, zaila dela euskara ikastea. Diskurtsoaren aldetik, elementu horiek desmitifikatzeko lan egin behar dela adierazi da eta euskara ikasketak balioan jarriko dituzten aldagaietara jo (militantzia hutsetik aldendu, "erabilgarria izango zaizu...").

Nik uste dut desmitifikatu behar den hori: zein zaila den euskara, zenbat kostatzen den... Ez? Historia hori. Eta bueno, klaro baietz. Hizkuntza bat da eta batzuei errazago eta beste batzuei... Baina nik uste hor badagoela mantra oso potente bat, zein zaila den euskara ikastea. Eta bueno, izango da zentzu batzuetan. Baina nik inguruan baditut hainbat eta hainbat, hori: lau urtetan, ez dela lau urtetan poteoan euskaraz hitz egiten dut; ez, lau urtetan ari dira lanerako, nirekin lanean euskara hutsean. Txostenak idazten, bileretara joaten eta hitzaldiak ematen. Esan nahi dut... Orduan, hori ere nik uste dut aldatu behar dela. Ematen du hasi behar duzula carrera sin fondo egiten militantzia hutsez, eta kasik azeptazio sozial batengatik. Y dices, ez. Ikasi egingo duzu, erabili egingo duzu, balio duzu... Hor ere nik uste dut dagoela kristoren pisua, de "pff... Orain? Euskaltegian?". 2

Amaitzeko, helduen euskalduntzearen eremuari dagokionez baloratu da herri mailan agente desberdinen arteko elkarlana gehiago sustatzea garrantzitsua dela, pertsona bakoitzaren ibilbide espezifikoan ikuspegi orokorra eta jarraipen eraginkor bat egiteko aukera handituko lukeelako:

Hernani mailan eta Hernanin kokatuta, nik uste dut [elkarlana] ere gehiago behar genukeela. Elkarlana bestelako eragile eta elkarrekin ezagutza-erabilera horiek ere uztartzeko. Edo igual argiena, eta migrazioarekin ari garenean, AMHER-ekin edo Udalarekin. Udalak badu bere harrera-protokoloa, harrera-protokolo horretan ezagutza ematen zaizkie gure herrira iristen direnei hainbat zerbitzu eta hainbat zera; AMHER elkarrekin ere akonpainamendua, zerbitzuak eta zerak ere eskaintzen ditu; eta gero euskaltegia dago. Baina hor ez dago elkarlan zera bat. [...] Zu Hernanira iristen baldin bazara eta esplikatzen dizute osasun-zentroa non dagoen, udaletxea non dagoen, zein ikastetxe dauden, zein auzo dauden, zein zerbitzu dituzun, kiroldegia non duzun... Bale, hori ezagutzea eta kokatzea ondo dago, baina "hemen euskaraz bizitzeko euskaltegiak daude". Eta euskalduntze prozesu hori egin behar da. Eta udalean nola egin euskaraz, eta kiroldegira joaten bazara nola egin euskaraz eta zerak... Beste akonpainamendu hori edo harremantze haste hori ere euskaraz ere edo euskaraz izan dadin. uste dut horrelako elkarlanak falta ditugula. Batzuk AISA ikastaro bat egiten dute, 60 ordu egiten dute. Eta? Non geratzen da hori? Zer jarraipen dute? 4

3.8.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK

Elkarrizketetako edukiak aurkeztuta, honako ekarpenak jaso dira kontraste saioetan (herritar eragileen saioko ideiak / [euskalgintzakoak](#)):

DIAGNOSTIKOA	- Hezkuntza mugatua dagoela baloratu da, eta konplikatu dela esku-hartzeko. Ereduen planteamenduak ez du funtzionatu eta gaur egun erronketako bat da ikasetxeetan nola eusti euskarari eta euskaraz funtzionatzen dutenak nola mantendu. Ume bat eskolatzean, identitate euskalduna lausotu egiten dela baloratzen da hasieran ez badu euskararen gune bat. - Eskolek, oro har, estereotipo oso markatuak dituzte, eta horrek euskararen erabileran ere eragina du. - Fusioak ume euskaldunak erdaldundu ditu. Batzuen ustez, inor ez da irabazle atera fusioarekin. - OLHren inguruan. Zonalde guztietako ikasleak daude, Hernanikoak eta kanpokoak. OLH erdalduna izatea esparru sozioekonomikoarekin ere lotuta ikusten da, baldintza orokorrek asko eragiten dute (jendea oso baldintza prekarioetan etortzen da, titulurik gabe...). Irudiari dagokionez, lanketa egiten ari direla adierazten da, baina prestigioaren aldetik bai ikusten da Batxilergoak gehiago duela eta OLHk ez hainbeste. OLH euskalduntzea mugatzen duen beste ezaugarri bat baliabide falta da: euskarazko materialak falta dira, lan-mundua ere gaztelaniaz da. Hala ere, badago planteamendu bat OLHetan euskara gehiago sartzeko, B+ (irakasgaiak gaztelaniaz baina tailerrean makinetan daudenean euskaraz da). - Fusioa egin zenean egon zen aukera Lanbide Heziketa euskaldundu eta prestigiatzeko, eta aukera galdu zela baloratzen da. - Hezkuntzan, hizkuntzaren sustapena beste faktore batzuk kontuan hartuta egin behar da. Aratz kolegio erlijioso da eta horrek indarra du, bai kudeaketan eta baita guraso profil batzuek seme-alabak bertara bidaltzeko hautua egiterakoan ere. Egia da, hala ere, egoera hori ikusita ez dela eskuhartzerik egin. - Guraso bilerak euskaraz planteatzea ahalbidetzen da gehienek euskaraz dakitenean. Alde horretatik, zenbat eta guraso euskaldun gehiago izan, orduan eta errazagoa izango da. - Helduen euskalduntzean ados daude tituluen eredura jo dela eta eskaintza oso mugatua dagoela irizten da HABEren arabera. Horrek ez die kolektibo batzuen beharrei erantzuten, eta euskara ikasketak ez ditu kontzientzia edo sentimendu batekin lotzen ezta ere.
PROPOSAMENAK	- Fusioaren inguruko eztabaidarako esparrua eman. - Etheen esparruan gertatzen dena ere aztertu behar da: joan eta galdetu egin beharko litzateke zergatik egiten den euskaraz etxeetan, gaiaz hitz egin eta eztabaidagai bihurtu. - Euskaraz hitz egiten duten umeak indartzea gakoa da. Ume bat eskolatzean euskararen inguruan dauden dinamikak aztertu egin behar dira, eta euskaldun ikasle horiek indartu beharra dago. Euskaldunak ahaldunduta egotea garrantzitsua da (trinkotze eredua aipatu da). - Hezkuntzaren eremuan, Udalak egin dezakeena da bere esku dauden langileak euskaldunak izango direla bermatzea (mantenuan daudenak, garbitzaileak...). Antzerako gogoeta egiten da bestelako administrazio-entitateekin ere, Foru Aldundia kasu. Umeekin tratua duten langileek euskaraz hitz egingo dutela bermatzea bereziki garrantzitsua ikusten da (kirolarekin lotutako begiraleak, adibidez). Irakasle batzuen artean ere euskaraz egiteko kontzientzia indartu behar da (batzuek beren artean erdaraz egiten dute). - Institutioetatik egin daitekeen beste pauso bat informazioarekin lotuta dago, euskarari lehentasuna emanez (gaur egun ingelesa prestigiatzen da, edota foro batzuetan euskara ez dela nahikoa zaintzen dirudi). - Euskara hemen bizitzeko garrantzitsua eta beharrezkoa dela transmititu behar da. Horretarako, lanerako ondo etortzea garrantzitsua da. - Migrazioa gero eta handiagoa izateko aukera dagoela baloratzen da, eta ingurune horretan euskara egoki eskaintzen asmatzea beharrezkoa dela adierazi. Ghettoen logika saihestu behar da. - Euskara ikasteko modu ludikoagoak bilatu behar dira, "agobiatu gabe". Ahozkotasunari garrantzia handiagoa eman behar zaio. - Helduen euskalduntzean doakotasuna bultzatzea beharrezkoa da. - Helduen euskalduntzeari dagokionez, tituluen eskaera berrikustea ondo legoke (ea beti den beharrezkoa, atzerriko hizkuntzen kutsua hartzen duela uste baita funtzionamendu horrekin), HABEren eskaintza zabaltzea eta irizpideetatik ateratzea, erabilerara begirako praktikak sustatzea.

3.9. UDALAREN JARDUERA

Orain arte aipatutako gai guztiak kontuan hartuta, amaitzeko, begirada udal jarduerara zuzendu nahi izan da. Hau da, zein da Hernaniko Udalean dagoen egoera gaur egun? Eta zein aukera ditu aurrera begira euskararen normalizazioan pausoak ematen jarraitzeko, bai udal barnean eta baita kanpoan ere?

Galdera horiei erantzuteko, udalak eskura dituen akzen urteetako datu batzuk mahaigaineratu dira hasiera batean, honakoak:

GOGOETARAKO ABIAPUNTUA

- Hernaniko udalean urrats garrantzitsuak eman dira euskararen normalizazioan. Euskara zerbitzu-hizkuntza ez ezik, lan-hizkuntza ere bada.
- Hernaniko Udalean egiten diren itzulpen eta zuzenketa lanak gero eta gutxiago dira, gero eta gehiago funtzionatzen duelako Udalak euskaraz (eta itzultzen denean eus>es norabidea gailendu zaio es>eus-i).
- Kanpo-zerbitzuak kontratatzerakoan Udalak bere buruari jartzen dizkion hizkuntza-betebeharrak jartzen dira.
- Eskaintzen dituen ikastaroetako begirale guztiak elebidunak dira. Eskaini diren Kultur eta kirol ikastaroetatik %57 dira euskaraz (16 urtetik beherakoetan %100). Erabiltzaileen %80 inguruk badaki edo ulertzen du euskara.

Segidan jasotzen ditugu elkarriketetan eta kontraste saioetan ateratako ideiak.

3.9.1. GAUR EGUNGO EGOERA, DIAGNOSTIKOA

Hernaniko Udalak euskarari dagokionez azken urteetan asko aurreratu duela baloratzen da, ia arnagune baten funtzioa betetzeraino, eta kanpora begira elkarlanean gaia lantzeko ere prestutasuna duela iritzi da.

Ez da kasualitatea Hernanin udala egotea funtzionatzen funtzionatzen ari den bezala. Hor daude gaitasun handiak. Aldekoa izan da herri hau eta nik uste dut nahiko garbi izan dituela gauzak. Baina udal bat jartzea hain urte gutxian horrela funtzionatzen txapela kentzeko modukoa iruditzen zait. 5

Ikustea Hernaniko Udaletxeak ia-ia euskararen arnagune baten funtzioa bete dezakeela, ba sorpresa ere bada neurri batean, ez? Badakizu egin direla urratsak, baina horraino iritsi izana pauso inportantea da. 1

Nik uste dut gauza asko egiten direla eta oso udal aktiboa dela. Urte asko darama aktibo izaten, bai kanpora eta bai barrura begira, urte askotako ibilbidea dago. Eta uste dut, gainera, hor badagoela ikuspegi politiko eta ikuspegi teknikoak. Eta, orduan, egia da euskara arloan programa pila bat daude: gazteei zuzenduak... O sea, programa diferenteak daude arlo ezberdinei zuzenduak. Nik uste dut positiboa, Hernaniko udalaren... O sea, kanpora begira dena da eragileekin elkarlanean aritzeko prestasun, borondate, zera hori. Euskara Ari Du izan daiteke horren zera, ez? O sea, programa zehatz eta konkretuez aparte, pixka bat, elkarlanerako prestasun hori, jarrera hori, aktibazio hori. Eta hori urteetan eman da, urte askotako kontua izan da. Eta hori garrantzitsua da konpartitzea eragileekin, zerekin, diagnostikoak, beharrak eta hortik gauza berriak sortzea. Eta sortu dira programa eta gauza batzuk beste herri batzuetan ere egiten ari direnak, baina beste batzuk Hernanin eta gurean egiten direnak, ez? Eta helduen euskalduntze-alfabetatzean, nik igual gehien ezagutzen dudana, lehen aipatu dut Zilegi Eskola bezalako egitasmoak-edo, momentu batean baloratzea interesgarria dela gure herrian horrelako zer edo zer, eta horiek bultzatu, lagundu, finantziatu... Eta uste dut alde horretatik oso interesgarria dela. Hemen aipatzen dira dauden hitzarmenak eta guzti horiek. Orduan, ondo. Ondo. Eta uste dut bide horretan, eta perspektiba hori badagoela eta badago aurrera begira. Hor, igual, azken urteetan nik Euskara Ari Du-n bilduko nuke, dela eragile zerekin modu aktiboan eta elkarlanean. [...] Eta gero da langileen gaitasuna. Eta hor ere azken urteetan, eta hurrengo urteetan, aldaketa handia egongo da. Jubilazio asko egongo dira eta jende berria sartuko da. Eta jende berria gaur egun prestatua dator, ze euskaltegietan titulua atera dute! [...] Azken urteetan nik ezagutu dudana, langileak iritsi berri direnak, euskaraz lan egiteko, sortzeko, idazteko, txostenak egiteko... Ez dago inongo arazorik, ez ahoz eta ez idatziz. Orduan, hor uste dut ere aldaketa handia eman dela eta interesantea dela. 4

Euskararekin udaletxeak dauzkan jarrerak niri izugarri egokiak iruditzen zaizkit. Euskarari lehentasunezko tokia ematen dio, batzuetan euskara hutsean planteatzen ditu testuak eta beste batzuetan agian espainolez azalpen txiki bat besterik ez dauka, gehienez ere parean ikusi izan ditut. Nik udaletxearen aldetik ikusten dudana euskararekiko jarrera eta jarduna, biak, egokiak dira. 6

Hernaniko Udala herri mailan "abangoardia" dela balora daitekeela adierazi da. Ezaugarri horri bere arriskuak ikusten zaizkio, beste espazioak eta agenteak (herri mugimendua esaterako) anulatze bide eman baitezake. Zentzu horretan, instituzioetatik kontrako giroa dagoen lekuetan herri ekimena indartsuago dagoela kontziente izan behar dugula hausnartu da.

Hernanitik Donostira joan eta Donostia erdalduna iruditzetik, Iruñean bizitza asko egitera pasa naizenean, esatea: "Ostra, es que hiru pelikula sozial eta linguistiko erabat desberdin dira". Gatazka desberdinekin, politizazio maila desberdinekin. Eta niri Iruñeak asko balio dit esateko "ostra, zein ondo gauden", baina beste alde batetik ez daukagu hor dauden euskaldunek daukaten kontzientzia laurdana ez dauka igual donostiar, ez dakit, euskaldun baina bere eskubideen jabe-eta duin batek. 2

Ez dakit Udalak lagundu egin behar dion edo trabak jarri behar dizkion herri ekimenari gehiago indartzeko. Es que batzuetan, laguntzen badigute, ematen du apalankatu egiten garela denok. Eta igual batzuetan esan behar da, "benga". Zankadilla pare bat, aber zangalatraba pare batekin aber pixka bat espabilatzen garen eta mugitzen garen, ez? Neurri baten barruan, baina... 1

Barne funtzionamenduari begira, Udalaren jarduna eredugarria da. Baina, noski, jarrita Andrekaleko terrazetan ardo bat edaten ari garenon ikuspegitik, horrek ere gure kontzientziak lasaitzen ditu. Ze esaten dugu: "Jode, ze ondo ari den Udala, no sé qué. Venga, ¿oye, y qué te parece lo del último partido y la hostia?". "Ah, pues a mí no me convence del todo". Ulertzen? Orduan... Eta oso ondo dago Udalak eramatea abangoardia. Momentu honetan Udala, niretzat, dudarik gabe da abangoardia. Baina, en fin, terrazetan ibiltzea besterik ez dago, ze horretan ere espezialistak gara: gure kontzientziak lasaitzen. "Eh, icuidado, eh! Que Hernani es el primer pueblo donde todos los plenos se hacen en euskera y no se traduce nada y no sé qué", ulertzen? Espainolez, noski, tertulietan.

Udalaren barruan egindako aurrerapausoak ere kontuz hartu behar direla azpimarratu da, era berean, eta ez pentsatu dagoeneko irabazia dagoen zerbait moduan. Izan ere, eremu batzuetatik atzerapausoak etortzeko arriskua erreala dela susmatzen da, eta arretaz zaindu beharreko oreka delikatuak daudela udal barnean ere.

Urte askotan, plangintzaren aldetik euskararen normalizazioan eta urte asko-eta eman dira, baina azken urtetan ere eman dela igual euskaraz lan egiteko pauso edo urrats gehiago, edo igual gehiago azkartu direla, ez? Edo esaten denean UEMA-n ia-ia... Bai, eta erreferentzia uste dut urte askoz izan dela UEMA-ko zenbait herritan lan egiteko modu horiek-edo errepikatzea. Hor, barrura begira, [ahots baxuagoa jartzen du] eta hori da kanpotik ikusten ez dena, dago lan politikoa. Eta bueno, bere garaian talka bat izan zen. Baina uste dut hori gaingitu dela, baina hori ibili behar dugula. Esan nahi dut, Hernanin, alderdi politiko guztiek argi eduki beharko lukete ordezkari publiko, ordezkari politiko guztiek edo gehienek behar dutela izan, bai ala bai, Hernanin. Eta hor, nik uste dut urratsak eman direla baina hori ibili behar dugula. Ze, azkenean, ordezkari politiko askok urte asko daramate, eta gaitasun eta zerak daude. Urte askotan bitartekoak eskaini zaizkie ordezkari politikoei, eskolak eskaini zaizkie, laguntza eskaini zaie, bitarteko asko jarri zaie euskaraz lan egin ahal izateko. Uste dut dexente euskaraz lan egiten dela, ia erabat euskaraz egiten dela. Baina... Igual da nik horrela bizi izan dudalako, baina da: ordezkari politikoei, kontuz! Kontuz ez ote den... Eta hor ziklo politikoetan eta hauteskundeak iristen direnean-eta, zerrenda osatzen dutenak elebidunak izatea eta ez dakit zer. Bestela, hizkuntzarena askotan izan daiteke konfliktu. Konfliktu politiko, baina gero lanerako eta langileentzako eguneroko lanerako, konfliktu edo tentsio gaia. Eta uste dut hori ibilbide bat egin dela, baina kontuz. 4

Kanpotik sar daitezkeen aldaketa batzuek ere udal jardueran eragin dezaketela ikusten da, eta euskaraz funtzionatzeko oztupoak jarri edota funtzionatzen duten sistema batzuk kolokan jartzeko bide eman. Horrelako kasu baten adibide gisa jarri dira gero eta burokratizazio handiagoak dakartzan zama gehigarriak, edota indar hartzen ari den e-administrazioa (izan ere, azken honek udalaren jarduna inbertsonalizatzeko bide eman dezake, eta hain justu euskara sailen izaera eta funtzionamendua historikoki beste norabide batekoa izan da).

Udalak asko urrundu dira herritarrengandik, nire ustez, azkenengo urteetan. Eta ez da kasualitatea justu PPK utzi zituen legeen bitartez izatea: kontratazio legea, e-administrazioa... Administrazio elektronikoarena horrekin bat da herritar asko eta asko eta askorentzat. Da zurrunez hartzea kontua. "Ez, ezin da; ez, ezin da; ez, ezin da". Orduan, klaro, gu beti izan gara oso deserosoak administrazioarentzat, udalarentzat; oso deserosoak. Orduan, aliatuak bilatzeko lan asko egin behar izan dugu baita ere. Oso deserosoak, ba bueno, planteatu izan ditugulako gauzak normalean administrazioak egiten ez dituen moduan. Orduan... Eta uste dut hori heldu behar zaiola etorkizunean ere, jarraitu behar dugula deserosoak izaten. 5

Tramitazio elektronikoaren kontu hori, ez? Eta horrek ya, arlo telematikoan, askotan web-guneak eta sistemak-eta zuzenean martxan gaztelaniaz agertzen dira, aukeratu egin behar da euskarazko zera, ze zailtasunak daude eta horrela. Hor igual bai egin beharko genuke, aurrera begira, horrelako kanpainaren bat, bere garaian egin zena "Lehen hitza euskaraz" ba "Lehen klik-a euskaraz". Horretan, Maialen Lujanbioren "klika"? O sea, "sistema-eragilearen zerarentzako lehen klik-a euskaraz"-edo, ez? Horri pixka bat arreta jartzeko, jendearen hautu linguistikoa tramitazio elektronikoak-edo egiten direnean. Hor igual, holako sentsibilizazio-zera beharko litzateke, baina bestela oso ondo. 4

A: Burokraziaz josita gaude momentu honetan baita ere. Burokraziak itzelezko pisua hartu du udaletan, itzelezko pisua. Nik ez dakit Hernanin nola eramango duten kontua, baina guri jausi zaigu dena eta gehiago. O sea, kontratazioak egin behar ditugu, gauza pila bat. Eta, klaro, burokrazia horretarako ez gaude prestatuta, bat, kostatzen zaigu pila bat, lan ordu pila bat dira eta horrek kentzen dizu denbora benetako gauza garrantzitsuak egiteko. Baina egin beharrekoak dira, eta orduan hor... Orduan, nik ez dakit, baina burokraziaren pisua arintzeko modua, nik uste dut esploratu behar dugula. Baliabideak jarri behar dira beste era batera eta...

B: Nik uste dut hemen gatazka bat sortu behar dela. Lehen gatazkaz hitz egiten genuen, ezta? Burokraziaren kontra, ze aspalditik idatzi zuten soziologoek, ezta? Zerbait mugitu nahi ez baduzu, burokrazia bat sortu eta aukeratu zure ekipoan zu baino tontoagoa dena. Burokraziaren logika hori guztia. Orduan, udaletan legitimitatea ere horren baitan dago. Eta udalak ez dira, herritarrek askotan ez ditu pertzibitzen erakunde legitimo eta prestigiotsu moduan. Orduan, hor daukagu gatazka sortzeko puntu oso inportante bat. Eta, zalantzarik gabe, horrelako prozesuak martxan jarriko ditugu erakundeak humanizatzen baditugu, berrikuntzan jartzen baditugu, egiteko moduak berritzen baditugu... Erakunde publiko hauek guztiak egoten dira enpresa pribatuei begira, ez? Egiteko moduak direlako berritzaileak, formazioa beste era batera ulertzen dutelako... Ba hor egin behar da diskurtso bat gatazka sortzeko. Eta da, pixka bat, euskara zerbitzuek askotan egin dutena, ez? Kontraboterea erabili, beste gai bat erdigunera ekarri, gero eragin ahal izateko. Ba pixka bat honekin ere nik uste dut horrelako dinamika beharko ditugula. Erakundeak sinesgarriak izan daitezen herritarrentzat erakunde diferenteak behar ditugu. Eta ni sinestuta nago badaudela zinegotzi asko hori egingo luketenak gustura. Eta indarra daukatenak, eta botere lekuetan daudenak hori egiteko. Orduan, pentsatu behar dugu baita ere zein egitura mota behar dugun horrelako hizkuntz politika bat egiteko. Mugitu egin behar da lurra baita ere. Ez da neutroa burokrazia sortzearena. Eta prozesu batzuk, egia da kalitatez berritzeko pautatu egin behar direla eta sistematizatu egin behar direla. Baina dena da oreka baten barruan, ezta? Artetik gehiago, eta ez hainbeste industrialak diren prozesu... Hor daukagu borroka oso latza eremu guztietan, uste dut. Eremu guztietan. 5

Diagnosiarekin amaitzeko, beste gogoeta bat izan da planteatu diren auzi asko eta asko ez direla udal eskumenekoak, edo herri mailatik goragoko problematikak direla. Horietan udalaren eragin ahalmena egon daiteke eta interesgarria litzateke bideak bilatzea, baina mugatua izango da.

Problema, neurri handi batean, da hemen hitz egiten ari garela pixka bat Hernanin kokatuta, eta herri batetik gorako eskumenak direla ia denak hartu daitezkeen neurriei begira, ez? Bai helduetan indarra jartzea, eskoletan egin daitezkeenaz, denetara joaten zara eta... Orduan, oso mugatua da, neurri handi batean, hizkuntza baten berreskurapen horretan eta hizkuntza baten normalizazio prozesu horretan herri mailan egin daitezkeen ekimen hori. Orduan, klaro, horrelako gauzak esaten dituzu eta esaten duzu: esatea oso ondo dago, baina gero herrian zer egin behar dugu? Pues ezer gutxi, zoritxarrez. 1

Badakit Ertzaintza ez dela Hernaniko Udalaren eskumenekoa. Baina Ertzaintzako zipaiotegian dauden ertzainek jartzen dituzten kontroletan aintzat hartzea ez dela gauza bera, zer esango dizut, aber, Zalla edo Abaltzisketa... Eta nik ez dakit noraino Udalak horretan eragina eduki dezakeen, bale? Ez da bere eskumenekoa, baina beharbada... [...] Nik ez dakit noraino Udalak ezin duen interlokuzio bat sortu zipaiotegiarekin, Hernanin dagoen zipaiotegiarekin, horko jefearrekin, eta esan: "Eh, faborez, saiatu zaitezte Hernanin jartzen dituzuen kontroletan euskara gorroto ez duten agenteak jartzen". 3

3.9.2. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Aurrera begira, Udalak gaur egunera arte daukan norabidearekin jarraitzea positiboa litzatekeela baloratu da, pauso ausartak emanez eta beldurrik izan gabe politika aurrerakoiegiak egiteaz. Are gehiago, azken urteetan izan duen bilakaera ikusita, beste gune batzuetan ere pausoak emateko eredu gisa balio dezakeela irizten da eta abangoardia edo ausardia espiritua beste leku batzuetara transmititu.

Esaten zuen nonbait Udala aurreraegi joan ote den-edo. Ez dakit nola planteatuta zegoen. Atentzioa eman zidan, eta esan nuen: nola aurreraegi, euskara dagoen lekuan? Aurreraegi ez da joan inor! Ez, baina bueno, hori, bromak utzita, ez dut uste aurreraegi denik. Eta, gainera, eredu izan behar du. Demostratu dezake, o sea, edozeini esan diezaioke orain "aizu, guk hau lortu baldin badugu, zuek ere lortu dezakezue igual-igual". Orduan, balioa hor dagoela iruditzen zait. [...] Nik uste dut udalak jarraitu behar duela bere bidea indartzen eta, ahal dela, bere bide hori zabaltzen beste zera batzuetara. Eta ea hori ba den rebulsibo bat herritik ere pixka bat beste mugimendu bat sortu dadin edo egin dadin. [...] Ez dut uste udalaren egitekoa denik sortzea herri mugimendu edo euskara elkarte bat edo dena delakoa. [...] Hori ezin du Udalak konpondu. Hori, nire ustez, hanka sartzea izango litzateke. Seguraski egin daiteke ahalegin bat, baina ez dut uste hortik ezer bideratu daitekeenik. Baina bueno, pixka bat, Udalak lortzen baldin badu... Bueno, gauza hori ezin du egin, baina Udalak lortzen baldin badu enpresa munduan eta komertzio munduan-eta, horretan behintzat aktibitatea edo ekimen batzuk aurrera jartzea eta pixka bat horietan ere dinamika bat eragitea, nik horra bideratuko nuke, batez ere, Udalaren eginkizuna. Eta gero, baldin badago mugimendu bat, sortu. [...] Igual hori [herrigintza aktibo bat] sortzen baino gehiago Udaletik aztertu behar duguna edo ikusi behar duguna da euskararen inguruko giro edo kezka hori nola sortuko dugun, edo zer egin dezakegun horretarako. Ez horrenbeste pentsatzea erakunde baten edo mugimendu baten antolaketa edo sorrera, baizik eta: "bueno, Hernanin sortuko dugu giro bat euskararena kalean egon dadin, kezka hori kalean egon dadin? Horretara begira, zerbait egin dezakegu?". Agian horretara zeratuko nuke, ze horrek berak ekar dezake gero, pixka bat, beste zera batzuk izatea, ez? 1

Nire ustez momentu honetan dago, ez dakit dibortzio, baina bai eskizofrenia bat euskararekiko konpromisioari dagokionez. Ez dakit dibortzio, eskizofrenia, nola deitu, baina... Udalaren eta herriaren artean. Eta, zorionez, eta nik nahiago dut horrela izaten segi dezan, nahiago dut Udalak segi dezan abangoardian, garai batean esaten zen bezala abangoardian, nahiz eta herritik edo herriarengandik urrun egon, segi dezala abangoardian. Baina Udalak zerbait egin beharko balu -baina klaro, oso erraza da esatea baina nik ez daukat ideiarik hori nola egin-, ba da transmititzea espiritu hori, ez? "Abangoardiaren" [berak jarritako komatxoak] espiritu hori jendeari transmititzea. Esatea: "Aber". Ze, bestela, udal bat bihur daiteke herriaren kontzientzia lasaigarri. Esan nahi dut, "Guk zer egin behar dugu? Udalak nahikoa egiten du". Ulertzen? Hori. Eta "Lasai, hau ziurtatuta dago. Hurrengo 40 urteetan ere Udalean horiek segituko dute", eta benga, burujabetza hemendik eta burujabetza handik eta hori. Eta, ez ez, "eta bitartean gu, pf.". Ez, ez, barkatu, zuri ere badagokizu. Baina klaro, hori udal batek nola egin dezakeen, es que ez daukat ideiarik ere. Eta, gainera, es que ez daukat interes handirik jakiteko nola egiten den hori [barrez]. Badauzkat bestelako interesgune... Baina, hala ere, zorionez, eh. Aber. Esaten dudanean "dibortzio, eskizofrenia" eta hori, es que dira oso hitz peioratiboak. Eta ez dut inola ere... Hori, abangoardia, ezta? Hobe abangoardia. Esatea: "Bale, Udala abangoardian dabil". Eta, desde luego, jendeak ez dio horregatik botoa eman Udalean dagoenari. Hori izan da haien kasa erabaki dutena egitea. Eta kasualitatez, tokatu zaizkie inguruan ere teknikariak hala moduzkoak, ze bestela zinegotzi batek ez du ezer egiten, inguruan ez badauka teknikari konplize bat, eh. Orduan, ba hor tokatu da. Eta Hernaniko Udala, horretan, hostias, nik uste dut eredugarriak direla. Gero, hori nola helarazi edo nola transmititu edo nola kutsatu jendeari? Ba ni puta idea. Ez dakit. 3

Euskara sail batek ezin du izan kontzientziazio kanpainetarako kontu bat eta gero errekurtsio bat itzulpenak-eta egiteko. Ez da hori, eh, Hernanikoa. Ez dut hori uste. Esan nahi dut, hemen uste dut gauza potenteak egin direla, Euskara Ari Du eta abar. Uste dut nahiko nibel handiko saila daukagula.

Baina ezin da etsi, ezin da aflojatu nik uste dut. [...] Euskararen aldeko borrokak makarragoa izan behar du, eta ez da izan behar ez amablea... Ez dela pentsatu behar: "Bueno, lau gauza bermatu behar ditugu eta ya horrekin egongo da". Ez, ez, nik uste dut ez dugula beldurrik eduki behar gehiago presionatu, pauso bat gehiago egin, gehiago exijitu, gehiago exijitu, gehiago eskaini, baliabide gehiago eman.... Bai. Exijentea izan behar du, eta konplexurik gabe. [...] Ez da zerbitzu bat. Zerbitzua ere bada, baina ez da zerbitzu bat bakarrik. Eta nik uste dut hortik joan behar duela. 2

Nik udalari eskatzen diot gidari izatea, gidaritza. Eta argi eta garbi. Ezin da elebitasunaren diskurtso horretan galdu. Ez. Nik zerbait gehiago eskatzen dut. Eta argi dago elebitasuna, bai, nahi duguna, baina bi hizkuntzak ez daude parean, bai? Orduan, diskriminazioa egin behar da, noski, baina positiboki. Eta orduan, zein indartu behar da? Ba ahulen dagoena, eta ahulen dagoena euskara da. Orduan, ba hor nik udalari gidaritza eskatzen diot. Hemen aipatzen zuen, ez? Euskaldunek ere zenbaitetan diskriminatzailetzat hartzen dituztenak zenbait gauza; adibidez, hemengo ikastaro bat euskaraz izatea. Lehen aipatu dut: erdaldunek beren eskubidea exijitu egiten dute konturatu gabe gureari uko egin behar diogula. Nire ustez hor ezin dugu atzera egin. Ezin gara tranpa horretan erori: "a beno, ba elebidun egingo degu". Elebidun eginda berriro euskara galtzen ateratzen da. Argi eta garbi ikusten da. Elebidun diren bileretan, ondo-ondo aztertuta, azkenean gaztelania gailenduko da. Galderak gazteleraz egingo dira... Poliki-poliki dinamika horretara doa. Orduan, udalari ba bai... Eta kritikatu izango dela? Beno, baina ez badiogu euskarari egitasmo edo zera horiek eta bide horiek ematen edo kanal horiek eta eskaintzen, ez dugu sekula indartuko. Eta indartu behar du, ez dugu lortuko, noski, gaztelaniaren pare geratzea, baina bai modu osasuntsu batean edo... Eta elebitasunaren diskurtsoa oso arriskutsua dela. Eta hemen hori, lan bilerak euskaraz egiten direla eta gauza horiek; es que gutxiago ezin da eskatu. Gutxiago atzerapausoa da. Eta euskararen kasuan atzerapausoa ia asko galtzea da. Ez da ia eremuak konkistatzen ari garela, ari gara eremuei eusten. Eta eutsita, eta indartsu eta osasuntsu edukita akaso egunen batean konkistatuko dugu beste eremuren bat. Orduan, nik Udalari... Eta ez badaukagu helburu hori garbi, ez dakit ba. Eta gero ia, Udalak zer egin behar duen? Ba hori... Arnasgune funtzional... Ni oso, gauza batzuetan punki jarriko nintzateke eta ez nuke Hernanin ikastarorik eskainiko gaztelaniaz. Baina ezta bat ere. Badakit batzuentzako oso muturreko jarrera dela irudituko zaie. Baina ez badugu hemen egiten? Kiroldegian zergatik... Ez? Hau da, ikerketa edo datuetan oinarrituta, zenbateko ezagutza, ehunekoak eta hau eta beste. Nik ez nuke eskainiko ezer, ez kultur etxean eta ez kiroldegietan, ez. Ondo zainduko nuke, adibidez, aisialdiko eremua... Hau da, eremu edo gauza batzuetan oso argi daukaguna beste eremu batzuetara ez dugu trasladatzen. Esan nahi dut, argi dago eskola kiroleko monitore izateko, euskaraz, noski, bai? Hau da, umeein ariko da. Hori ez du inork zalantzan jartzen, bai? Eta hori gero ez dugu trasladatzen beste zeretara. Eta kultur etxeko ikastaroak, zergatik ez? Edo kiroldegiko ikastaroak, zergatik ez? Orduan, hori da. Nik... Igual hori da pauso ausartak eskatzea, Udalari gehiago eskatzea? Baliteke. Ez dakit. Punki jartzea? Ba bai. 9

Udalak egin ditzakeen politika zehatzen proposamen gisa, hiru gako edo ideia jaso dira. Batetik, ahal den neurrian "euskaraz soilik" politika bat aplikatzea bai bere barne jardueran, bai kontratazioetan eta baita herrian sustatutako dinamiketan ere.

Bidaltzen den informazioa normalean elebitan bidaltzen da beti. Beno egin daiteke errolda bat horrelako herrietan edo zeinek nahi duen euskaraz bakarrik, edo beno, pixka bat potentziatu nolabait euskal hiztuna edo beno, ez? Zergatik egin behar da propaganda guztia udalarena elebiz? Baldin badago jendea... Eskoletan ere horrela egiten dute. Baldin badago jendea euskaraz bakarrik jaso nahi duena, ba adibidez, hori bai da ekimen bat horrelako, gainera, udalerrri handi bat izanda... ba esan nahi dut, jaso errolda bat, bidali ohar bat edo zerbait eta nahi duenak euskaraz bakarrik jaso ba apuntatzen da, aizu ba I-k, ez dakit nork eta ez dakit nork. Orain dira 1500, ba beitu, hor aurrerapauso bat egin da. Pixka bat ekimen sinboliko baina praktikoak direnak, apur bat euskaraz bizitze horretan. 10

Bigarren, euskararen gaia sustatzeko zeharlerroko ikuspegi batera jotzea azpimarratu da ugaritan. Modu interseksionalean, elkarlanean eta bestelako foroetan eta agenteekin zeharlerroko gai bezala planteatzea euskara aukera interesgarria izan daitekeela ikusten da, eta euskara biziberritzeko politikek aurrerantzean itxura hori har dezaketela aurreikusten da. Bide hori jorratzeko, Hernani udalerrri aipatua izan daitekeela iritzia da.

Nik uste dut Udalaren ikuspegitik oso interesantea dela kanpora begira egiten duen lana, eragileekin eta euskalgintzarekin eta egiten duen lana. 4

Nik uste dut departamentu arteko politikak egiten hasi beharko ginatekeela. Berrikuntza praktikatzeko ikuspegi horretatik. Eta elkarrekin pentsatu behar dugu, ba etorkinei zein erantzun eman. Es que ezin da izan euskaratik soilik pentsatutako erantzun bat. Edo irakaskuntzan, edo... 3

B: Nik uste dut Hernani oso leku aproposa dela probatzeko udal mailan beste egituratze, beste lan egiteko modu eta hizkuntza modu interseksionalean, beste gai batzuekin [lantzeko] (dela kulturartekotasuna, dela generoa, dela kultura, kultur politika...). Leku aproposa iruditzen zait horrelako zerbait esploratzeko. Egiteko moduetan ere, eh. Eta herriari udalak eskaini behar dion horretan, egin nahi dituen politiketan, egiteko moduetan ere. Eta uste dut hori izan daitekeela indargune bat hurrengo urteetan beste era bateko erantzunak emateko ere, elkarrengandik ikasiz. Lehen egiten zen euskara arloan zebiltzanen artean. Beharbada gaurko gizarteak eskatzen digu hori egitea baita ere beste arlo batzuk kudeatzen ari diren profesionalekin batera. Eta asko ikasi elkarrengandik. Biok gabilta Jaurilaritzan hizkuntza eta generoa batzorde batean, hor markoetan, prozesuetan, gauzak ikusteko moduetan, elkarrengandik asko daukagu ikasteko. Orduan, udal mailan ere probatu liteke hori. Eta beharbada hain departamentala den egitura bat baino... Klaro, hori egitera ausartu egin behar du udal batek, ez?

A: Bai ikusten dut euskara teknikaria bera bakarrik, edo euskara zerbitzua bera bakarrik jardunda ez goazela inora. O sea, behar dugu, horixe, elkarrekin lan egin behar dugu. Ez horrenbeste beste sasoi batzuetan egiten genuen moduan muturra sartu hainbat tokitan, ez? Bueno, ba bilatu behar dira beste modu batzuk, bilatu behar dira... Eta hizkuntza lidergoaren proiektuetan horretan ibili ginen baita ere. Elkarrekin zelan landu gauzak, ez? Ez euskara zerbitzua orojakile izatea. Ze sasoi batzuetan bai hori egotzi zaigu guri, ez? "Bueno, hori zuek jakingo duzue". Hori pixka bat apurtu egin beharko litzateke. Adibide bat jartzearren: migranteekin zelan lan egingo dugu? Ba hor zeresan handia daukate gizarte zerbitzuek, berdintasun alorrekoek, euskara sailekoek, gazteria... Hainbat departamenturen artean. Klaro, hain departamentala denez, askotan, eta hain zurruna denez askotan administrazioaren antolaketa hori, ba hor ere pixka bat jokatzeko moduak eta mentalitatea eta imajinatze moduak ere aldatu behar dira. Bai, uste dut hortik datozela gakoak. 5

Hirugarren eta amaitzeko, babes eta berme juridikoak bilatzeko lanketa aipatu da. Udal bat leku aproposa izan daitekeela baloratu da pauso ausartak ondo definitzeko, bertako errealitatea ondo ezagutzen delako, eta horren ondoren legearen aldetik dauden mugak ondo landu, diskurtso sendo bat eraiki eta estrategia zehatzak lantzeko.

Ekipo juridikoaren sorrera edo beharra. Zeren gauza asko, batez ere herri mailan edo herri mailatik abiatzen bagara, pentsatzen da ezin dela egin herri mailan bakarrik direlako. Eta hori, batez ere, Hernanin, ikusi nuen baziren baliabideak, bazen dirua, bazen borondatea eta ikusten zen beharra, baina borondate hori guztiarekin, beno, eskaintzen zan dirua langileak formatzeko, adibidez, adinekoen zaintzako langileei adibidez ikastaro bat eskaintzeko, etorkinei ikastaroak eskaintzeko eta abar. Baina kontua da sistematizazio hori lortzeko euskararen eskaintza eta beharra lotu behar da derrigorrezko moduan eremu guzti horietan. Eta horretarako jakin behar da zein eskubideak, zer egin ahal da zentzu horretan herri bat, udalak; zer egin behar da, adibidez, Foru Aldundi mailan; zer egin behar da Erkide mailan; eta zer egin behar da Estatua edo Europa mailan ere. Eta non dauden hutsuneak bai gure alde eta bai gure kontra. Eta nik uste dut hor dago como gai politiko bat eta gai juridiko bat. [...] Erasoak edo aurreikusteko edo prestatuta egoteko halako konfrontazio juridiko-

politikoak aguantatzeko egon behar da hor bai diskurtso politiko bat, eta diskurtso horrek juridikoki babesten duen ekipo, abokatu edo legelari ekipo bat. Hasieratik jakiteko, adibidez, Hernanin esaten bada: "Beno, hemen EPAn edo Helduen Hezkuntza Iraunkorren parte hartzen duen orok, irakaskuntzaren erdia euskaraz eskaintzen da eta hori da derrigorrez, hor parte hartu behar da", ez? Adibidez. Eta landu behar da hasieratik zein mailaraino, hori egin ahal da, non iristen dira oztopoak eta nola gainditu ahal dira oztopo horiek maila politiko-juridiko batean. Eta horretarako, noski, prestatuta egon behar da ere diskurtso politikoa esateko: "Guk ez ditugu pertsona horiek behartzen nahi dugulako, baizik eta eskaintzen diegu pertsona horiei hemen jakin behar dituzten bi hizkuntzak, eta hori hemen bizitzeko eta lan egiteko beharrezkoa da eta, horregatik, kalte egingo genieke pertsona horiei ez bagenie eskaintzen, edo eskaini nahi ez dienak kalte egiten dio pertsona horien ibilbide profesionalari edo sozialari. Eta orduan, alde egin behar da euskararen motibazio diskurtso horretatik? "Ah, begira, behar duzu euskara, eta egin hau edo beste", eta dena da norberaren borondatea, eta ez da inoiz gertatuko edo % 2 pertsonak edo izena ematen dute Euskaltegian eta beste guztiak azken finean gaztelaniaz bizi ahal dira, baizik eta diskurtso prestatu eta barneratzaile batekin, eskaini behar da pertsona guztiei euskarazko formazioa. Eta oinarriak hasieratik jarrita, esandakoa, politikoki eta juridikoki. 7

Nik argi daukat araugintza bat aplikatu behar dela. Ez dugu esango dena arautu behar denik, baina edo jartzen dira derrigortasun batzuk eta aurrerapauso batzuk ematen hasten gara, txikiak izanda ere... Badakigu hekatonbea etorriko dela, tabakoaren legearekin ere bazetorren eta beno, orain ez dugu erretzen tabernan eta ez da ezer gertatzen. Tenkatu behar da gero zerbait atera ahal izateko. Planteatzen baldin baduzu helburua: "bultzatuko dugu..." Ia, eta esaten diozu Confebaski plan sozioekonomikoekin... "bultzatu behar dira Euskara Planak" eta Confebaskek esaten dizu: "ia, baina orain krisian gaude, guk orain ezin dugu bultzatu. Edo ematen didazu ez dakit zenbat mila euro eta asko jota egingo dut errotulazioa euskaldundu, egiten badut". 10

3.9.3. KONTRASTE SAIOETAKO EKARPENAK

Elkarrizketetako edukiak aurkeztuta, honako ekarpenak jaso dira kontraste saioetan (**udal langileekin** bakarrik landu zen):

DIAGNOSTIKOA	- Argi ikusten da azken urteetan aurrerapausoak eman direla. - Baloratu da agian ez dela hain arriskutsua Udala abangoardia izatea, ez da sumatu hainbeste ahultzen dituenik herri mugimenduak eta zalanza adierazi da hala egingo balu ere inportako lukeen. - Helburu moduan, elebakartasunera iritsi nahi dugu espazio publikoan. - Zeharlerrotasunean, Hernanin, euskarak ibilbide sendagoa dauka feminismoak baino. - Udal barruan, onartzen da azken urteetan pauso asko eman direla. Baina, aldi berean, hauskorrek ikusten dira. Adibidez, arduradun politikoak erdaldunak direnean oso erraz eta azkar egin daitekeela atzera ikusten da. Eszenatoki horiek posibleak direla kontuan izan eta horren aurrean jokatzeko beharra azpimarratu da. -
PROPOSAMENAK	- Diskurtsorako elementu moduan honakoa erabil daiteke: Udalak egiten du, baina herriari ere tokatzen zaio. - Diskurtsoaren oinarriak, harreraren unean, agente desberdinek eduki behar dituzte: politikari, langile eta herritarrak izan behar dute. Honako ideiak argi edukitzea komeni da: Udal bezala nora joan nahi dugu? Zergatik dugu dena euskaraz? Argudiaketa findu behar da. Zergatik ez da baztertzalea euskaraz jardutea? Udal gisa agian ariketa hori egitea interesgarria izan daiteke: pistak, jokabideak eman. - Balioan jarri udalak lan egiteko duen modua izan daiteke bide bat. Era berean, garrantzitsua da modu prefiguratioan lan egitea, hau da, hasieratik irudikatuz nora joan nahi dugun eta zein etorkizuneko eszenatoki nahi dugun, eta hara joateko pausoak eman segidan. Nola hasi prefiguratzeko, joan nahi dugun tokiaren arabera? - Dauden arnaguneak saretu. Nola artikulatzen da udala arnagune izan daitezkeen gune horiekin? Gune interesgarri batzuk ari dira sortzen edo badaude herri mailan. Adibidez, zirkuitoak hirugarren adineko pertsonen laguntzeko zerbitzuarekin eta beraiekin proiektuak sustatu (esaterako, euskara lan-orduetan ikasteko aukera izan dezaten). Herrigintzan ere nor interpetatu behar den hausnartzea garrantzitsua da. - Euskararen inguruan garrantzitsua da ikuspegi funtzionala ere hartzea. Ulertzea izan dadila gakoetako bat euskara ikasteko. - Kanpotik datozenekin gertatzen ari den bilakaera urbanistikoa kontuan hartuta (bai munduko edozein lekutatik baina baita Donostiatik edo inguruko zonaldeetatik ere), harrera bulegoan gai bat izan behar du, baina hortik haratago ere joan behar du. - Udaletik zer eta nola kontratatzen den aztertu (euskarari dagokionez). Baldintza pleguetan euskararen inguruan lantzen dena birpasatu eta egokitu daiteke. Zer enpresa mota kontratatu nahi ditu? Zer baloreekin? Euskaraz eskatzen dira zerbitzuak? Horniketa eta bestelakoetan, prezioak baldintzatzen du kontratatzen den enpresa?... Kontratazio irizpideak, baldintza administratiboen pleguak, klausula sozialak... hor sakoneko lan gehiago egin daitekeela baloratzen da.*

4. NOLA EGIN AURRERA? ARDATZ POSSIBLEAK

Orain arte, ikerketan landutako gai-blokeen arabera jasotako gogoetak eta ekarpenak bildu dira: gaur egun nola ikusten den egoera eta aurrera begira zein aukera sumatzen diren. Azken atal moduan, eta aurreko ideiak laburbiltzeko asmoarekin, hasierako galdera berreskuratuko dugu. Hala, "nola egin aurrera?" gogoetaren aurrean jaso diren irizpide, bide edo ardatz nagusiak laburbilduko ditugu, orain arte atalez atal agertzen joan direnak.

Bi atal nagusitan banatu da bloke hau: diskurtsoari edo mezuari dagozkion ekarpenetan eta planteatutako estrategietan. :



DISKURTSOAZ

1. Ausardia, gaiaren politizazioa eta ahalduntzea, diskurtso eta mezu argiak.

Sarritan aipatu den gogoeta bat izan da azken urteetan, euskara biziberritzearen inguruko mezuak edukia galtzen edo edukiz husten joan direla eta lausotu egin dela esaten dena. Gaur egungo egoerari begiratuta, ez dagoela diskurtso partekatu bat baloratzen da, mezua ez dela argia eta ezta helburua ere, nora goazen euskararen sustapenean (elebitasuna? hizkuntza berdintasuna? euskaraz funtzionatzea? euskaraz bizitzea?).

Testuingurua hori izanik, gaur egun dagoen euskararen sustapenean "epelkeria" kontzeptuaz sarritan hitz egin da. Euskara ez dela borroka gaia baloratu da, ez dela politizatzen, gatazkari ihes egiten zaiola, eta egungo eztabaidagaiak beste foko batzuk dituztela (feminismoa, antiarrazismoa, ekologismoa...).

Horri euskaldunen ahalduntze falta ere gehitu behar zaio. Hau da, ikusten da euskararen inguruko bestelako mezu batzuk zabaldu direla gizartean (euskara inposizio gisa edo euskara eta klasearen auziaren inguruan dihardutenak esaterako), eta horren aurrean jendea desarmatuta edo argumentario faltan ikusten da. Norabide berean, euskararen gaiak nolabaiteko deserosotasuna ere sortzen duela ikusten da, pribilegioen eta botere-harremanen eremutik begiratuta dituen inplikazio eta ñabardura batzuen aurrean kokatzeko zailtasuna sentitzen duelako jendeak ("euskara = igogailu soziala = pribilegioak = klasea = boterea..." gisako gaiak).

Elkarrekin oso lotuta dauden hiru ildo horiek kontuan hartuta (helburu eta mezu ez argiak, euskara politizatzeke zailtasunak eta gatazkari ihes egitea, eta ahalduntze falta eta argumentario hutsunea gai batzuen aurrean) aurrera begira pauso batzuk ematea ezinbestekoa dela baloratzen da: euskaldunen ahalduntzea, pauso ausartak emateko oinarri sendoak ezartzea, eta argi definitutako helburua, diskurtsoa eta mezuak edukitzea.

Lehenengo puntu hau gizarte osoari zuzendua dagoen arren, bereziki euskaratik gertuago egon daitezkeen subjektuetan pentsatua dago gehiago; hau da, euskaltzaleak edo euskaraz egin nahi dutenak eta euskararen sustapenarekiko aldeko jarrera dutenak. Ikerketa osoan zehar askotan aipatu dira "periferia", "euskara etxetik jaso ez duten herritarrak", "munduko beste lekuetatik iritsi diren hernaniarrak" edota "euskaraz ez dakiten herritarrak", esaterako. Norabide hori ere arreta jarri behar zaion arren, beste bidea ere ezinbestekoa da lantzeko eta bereziki ausardia, ahalduntze eta diskurtso eta mezu sendoak eraikitzerako edo berrindartzerako orduan; hau da, euskaldunei, euskaraz erosoago bizi diren herritarrei, D eremuan ikasi duten hernaniarrei... dagokien alderdia ere kontuan izan behar da. Periferia ere zaindu behar den arren, azken urteetan erlaxatu ahal izan den nukleoari ere erreparatzea komeni dela planteatu da.

Pauso ausartak emateak eta euskararen sustapenean harago joateak, batzuetan hausnartu den moduan, gatazka edo tentsio batzuk ere sorraz ditzake. Zentzu horretan, euskararen gaiaren inguruan eztabaida sustatzea eta eztabaida egoeta garrantzitsua izango litzatekeela baloratu da: euskararen gaia kalean egotea, horretaz eztabaidatzea, politizatzea eta gatazkatsua bihurtzea (hitzaren zentzu "sanoan" ulertuta, elkarriketetan jaso den moduan, era dialogikoan, posizio eta bizipen desberdinek elkar ulertzeko asmotan eta modu eraikitzaile batean).

Ariketa hori kontzientzia sortzearekin eta dagoeneko barneratuak ditugun inertzia zko dinamika batzuei buelta ematearekin ere lotu da. Ildo horretan, bereziki hausnartu da euskal hitzun potentzialen aktibaziora begira (euskaraz jakin bai baina hitz egiten ez dutenak): lehenengo pauso gisa irudikatu da eragitea beren egunerokotasuneko komunikazio-egoerek zer-nolako ezaugarriak dituzten jabetzeko ("konsziente" izateko), gaur egun euskara benetan erabiltzen dena baino gehiago erabiltzen delako ilusioa dagoela susmatzen baita. Kontzientzia sortze hori

sarritan tentsio-puntu batekin lotu da, egun faltan sumatzen den presio sozialarekin. Hori, era berean, aurrez aipatutako gatazkatsu bihurtze eta euskararen biziberritzea politizatzearekin ere lotuta dago, gaia deseroso egitearekin.

Helburuari dagokionez, zein den helmuga edo zein lekutara iritsi nahi den markatzea beharrezkoa litzatekeela baloratu da, zein helmugatara goazen bideratuta garbi izan ondoren definitu ahal izateko zeintzuk diren tokian tokiko eta garaian garaiko estrategiak, pausoak eta beharrezko elementuak diseinatu ahal izateko. Are gehiago, hausnartu da "utopia" planteatzeko ariketa egiteko udalerrri maila oso interesgarria dela, edo nora iritsi nahi dugun pentsatzeko eta hara begira pausoak ematen joateko; izan ere, udalerrri mailan ondo ezagutzen da bertako errealitatea (soziala, ekonomikoa, demografikoa, linguistikoa, legeei dagokiena, administratiboa...). Helburua behin definitutakoan, helburu hori argi adierazi behar dela gizartean baloratu da; sektoreka eta xede-talde bakoitzaren arabera egokituz mezua, baina helburua edo norabidea zein den argi utzita.

Elkarrizketetan eta kontraste saioetan, interesgarriak izan daitezkeen helburu posible batzuk jaso dira. Modu desberdinetan, baina hein batean euskarak zentraltasuna izango duen sistema bat izan da gehien irudikatu dena. Honako irudiak erabili dira: euskaraz eroso bizitzea, euskaraz funtzionatuko duen gizarte bat edukitzea, baimena eskatu gabe euskara erdigunean egotea edota dauden hizkuntza guztien artean euskara nagusi izango den ekosistema batera iristea. Ildo horretan, euskararen ezagutza unibertsala beharrezkoa den pauso moduan irudikatu da – horren ondorioz lortuko baita euskaraz egin nahi duenari hala egiteko aukera eskaintzea-, baina erdibideko pauso moduan. Izan ere, horretan geldituz gero, atzerapausoak segituan etorriko direla aurreikusten da.

Puntu honekin amaitzeko, diskurtso sendo bat eraiki eta gizarteko sektore desberdinak berarekin janzteko ariketa egiteko beharra dagoela azpimarratu da (herritarrak, administrazioa, udala, ehun produktiboa, merkataritza txikiak, hezkuntza-erakundeak...). Garrantzitsua baloratu da –eta gaur egun hankamotz dagoela susmatzen da- euskararen biziberritzearen inguruan puntu, gako edo ideia batzuk argi edukitzea, eta argumentario sendo batez jantzita egotea, adibidez, honako galderei erantzuteko: zergatik nahi dugu euskaraz bizi? Zergatik planteatzen dugu gauza jakin batzuk soilik euskaraz eskaintzea? Zergatik hizkuntza eskakizunak ez dira eskubide-urraketak? Helburu argi bat jartzearekin batera, diskurtsoaren elementu horiek definitu, antolatu eta gizarteko sektore desberdinentzat eskuragarri jartzea beharrezkoa ikusi da. Diskurtso edo mezu horrek jaso ditzakeen elementu horietako batzuk aipatu dira ikerketan zehar. Hurrengo hiru puntuak horrekin lotuta daude hain justu: euskara gizartearen oinarria izatea eta ez balio erantsia, diskurtso unibertsal eta barneratzailea izatea, eta gizarte proiektu gisa irudikatzea euskara, balioekin, identitatearekin eta ongizatearekin lotuta.

2. Euskara gizartearen oinarria eta ez balio erantsia.

Gaur egungo planteamenduan eta gizartean, euskara hautu bat edo sektore batzuetan dagoen elementu bat dela baloratzen da: euskaltzaleen gaia, beren proiektuari zerbait gehitu nahi dioten pertsona eta enpresentzako elementu erantsia, balio zehatz batzuekin lotutako proiektuetan kontuan hartzeko elementua, lan jakin batzuetara sartzeko eskakizuna... Euskara balio erantsi gisa planteatzen duen ikuspegi horren inguruko kritika jaso da, bi arrazoiengatik. Alde batetik, modu horretan planteatuta, euskarak hautu bat izaten jarraituko duela ikusten da eta ikuspegi hori hizkuntzaren unibertsaltasunera begira mugatua dela ikusten da. Bestetik, galdegin da planteamendu horren baitan funtzionatuta zein den desberdintasuna euskaraz funtzionatzea hautatzen duten eta ez duten pertsona, proiektu edo elementu zehatzen kasuan, zein den konpromiso erreala, ikuspegi horrek zail bihurtzen duelako mugak, zailtasunak edo beharrezkotasuna eragingo duten aldagaiak tarteko sartzeara.

Hala, planteatu da ikuspegi aldaketa bat egitea interesgarria litzatekeela: euskararen zaletasunetik gizarte euskaldunaren ikuspegira pasata. Planteamendu horren arabera, "gizartearen oinarri" bat bihurtu behar da euskara, zalantzan jarriko ez den elementu bat eta eremu guztiak zipriztinduko edo hartuko dituen. Horrek inplikazio desberdinak ditu. Batetik, esan nahi du oraindik euskara ez dagoen eremuak euskaldundu behar direla (hezkuntza-arautuaren eremuan sistemaz euskaraz funtzionatzen ez duten gunek, HHI edo EPAk, Lanbide Heziketa, lan-eremua, administrazioeko espazio batzuk, gizatalde helduak...). Bestetik, euskara "hautu" moduan edo "balio gehigarri" moduan aurkezten duten diskurtsoak birmoldatu beharko lirateke, hizkuntza ez dadin hautu moduan planteatu. Baloratzen da modu horretan transmitituko dela benetan gizarte honetan euskara baliotsua den ideia, bestela ez baita erreala.

Diskurtsoa norabide horretan moldatzearekin batera, euskara benetan gizarteko espazio eta subjektu guztien kasuan erabiltzeko elementua izateko aukera bermatuko duten mekanismo errealak jarri behar dira martxan, aurrerago azalduko den moduan.

3. Diskurtso unibertsal eta barneratzailea.

Diskurtso edo ikuspegi mailan hartzea interesgarri baloratzen den beste elementu bat izaera unibertsal eta barneratzaileari dagokio. Hau da, euskarak gizarte osoaren gaia izan behar du, herritar eta agente guztion kontua. Euskara hautu bat izango ez den heinean, ezin da euskaltzaleen edo euskararen gaiaz arduratzen den kontu bat soilik izan; gizarte guztia inplikatu eta interpelatu behar duen elementua da. Puntu hau lotua dago, neurri batean, euskararen gaia politizatu eta "gatazkatsu" bihurtzearekin: euskara gizarteko sektore gehiagotara zabaltzen den heinean edo euskara lehenesten duten politikak –edo "euskaraz bakarrik" egitea helburu duten politikak ezartzen diren neurrian, euskara beharrezko baldintza bihurtuko da eta ez soilik euskaltzaleek beren borondatez egindako hautu politikoak. Aldaketa une horietan aurreikusteko modukoa da tentsioak eta gatazkak sortuko direla, eta beharrezkoa izango da argumentario eta diskurtso sendoa eraikita edukitzea.

Diskurtsoak, unibertsala izateaz gain eta horrekin batera, barneratzailea izan behar du: hau da, denok eduki behar dugu lekua eta sentitu behar dugu parte: ezaugarri sozioekonomiko, soziodemografiko eta soziolinguistiko desberdinetako pertsonak (adinekoak, migratuak, euskaldun zaharrak eta berriak, euskaltzaleak eta interesik ez duten pertsonak...), enpresak, administrazioak... Alde horretatik, xede-talde bakoitzarekin egingo den lanketa espezifikoak norabide honetan joan behar duela ikusten da, bai diskurtsiboki eta baita eskaintzen diren baliabideen eta emandako pausoen arabera ere. Adibide bat jartzeko, iritsi berriak diren pertsonen kasuan, harrera une gako bat dela baloratu da eta bertan ematen diren pausoei eta transmititzen den mezuak (diskurtsoan eta eskaintzen diren baliabide eta prozeduretan) norabide honetan joan behar dutela ikusten da.

4. Gizarte proiektua, balioekin eta identitatearekin lotua.

Gogoeta honen abiapuntuan, gaur egungo egoeraren kritika bat jaso da: euskararen "kosifikazioa". Baloratu da gaur egun euskararen gaia asko teknifikatu dela eta ikuspegi zientifiko-tekniko batetik begiratzen zaiola, horrek dakarren hoztasuna eta datuetan oinarritutako begirada teknikoarekin. Prozesu honekin lotuta dago, neurri batean, euskararen aldeko mugimenduak azken urteetan bizi izan duen profesionalizazioa; era berean, norabide hau ondo datorkio edo ikuspegi honek erraztu egiten du euskara instrumentu soil bat bilakatzea, kutsu politikoak hustuta.

Kritika egin da hizkuntzaren gaia ez dela ikuspegi horretatik *soilik* gertatzen den fenomeno bat eta bestelako aldagai batzuekin ere lotuta dagoela. Izan ere, hizkuntza beste elementu batzuekin lotuta zentzua hartzen duen zerbait gisa ulertzen da: emozioak, pertsonen beharrak, balioak, identitatea, proiektu bat, komunitatea, osasuna, ongizatea... Elementu horiek guztiak euskararen sustapeneko ekuazioaren parte bilakatzea garrantzitsu ikusten da, praktikan eta diskurtsoan, eta aurrera begira emango diren pausoetan kontuan hartuko direnak.

Euskara sustatzeko, jendearen behar partikularrak entzutea garrantzitsu baloratu da, herritarren emozioekin eta plano emozional-fisikoarekin lotzea (euskara eta ongizatea edo osasuna lotzea), hizkuntzaren irakaspenarekin batera plano identitarioa lantzea eta baita erreferente kulturalak edo erreferentziak sortzea, hizkuntza transmisio soilaz gaindi. Norabide honetan, euskal kulturgintzarekin lotuta gauza txikien garrantzia azpimarratu da: hau da, plaza txikiak, lanketa txikiak eta lokalak sustatzea, horiek duten garrantzia aitortuz (era berean, horiek baitute potentzial handia txoko guztietara iristeko eta periferietara ere heltzeko).

Euskararen gaiaren inguruan azken urteetan profesionalizazioa eta instituzionalizazioa gertatu dela baloratzen da. Horrekin lotuta, mugimendu sozialek eduki dezaketen izaera aurrerakoia, kaletiarra, ausartagoa eta erradikalagoa ahultzen joan dela susmatzen da. Horrekin lotuta, behin baino gehiagotan jaso da euskararen biziberritzearen inguruan "epelkeria" dagoelako ideia. Gizarte-proiektua bihurtzeko puntu honekin lotuta, proiektu sozial batekin lotutako elementu bat, era berean, epelkeria horretatik irteteko beharra aipatu da eta euskararen sustapena kalekotzearen aldeko ikuspegia jaso da, kasu batzuetan aipatu den moduan, "makarrismo" pixka bat gehitzea.

ESTRATEGIEZ

5. Muga edota aukera juridiko eta legalak arakatzea.

Pauso ausartak edo aurrerakoiak emateko bide posible moduan, marko instituzional eta administratiboak eskaintzen dituen mugak eta orain arte gutxi landuta edo jorratzeke dauden bideak bilatzea proposatu da eta horietan pausoak ematea. Bereziki udal mailan landu daitekeen elementu gisa irudikatu da marko normatibo eta lege-esparruaren mugak arakatze hau.

Aipatu da sarritan aurrerapausoak emandakoan, marko orokorragoetatik (autonomia-erkidegoa, administrazio zentrala, Europa...) atzerapausoak etorri direla; edo, beste kasuistika batean, marko orokor horiek duten izaeraren arabera ez dutela bide ematen euskararen sustapenerako egitasmoak diseinatzeko (lan-eremuan Europar Batasunetik jartzen diren laguntzen adibidea jarri da, diseina daitezkeen ikastaroetan ez baita hizkuntza ardatz gisa jartzea kontenplatzen).

Norabide horretan, udal baten gisako instituziotik pausoak eman daitezkeela baloratu da: helburu gisa zein eszenatokitara iritsi nahiko genukeen irudikatu, eta hori argi izandakoan, bidean erabil daitezkeen baliabide instituzionalak araka daitezke. Aldi berean, horrek eskatzen du ikuspegi juridiko-tekniko batetik sakon lantzea gaiak eta aukera bakoitzaren ertzak, eta diskurtsoa eta argumentarioa ondo osatuta edukitzea alde aurretik, emango diren pauso ausart posibleetan atzerapausoak etortzeko arriskua saihesteko.

Planteatu diren bi eszenatoki errealak bide administratibo batetik euskararen biziberritzea jorratzeko honakoak dira: prestakuntza okupazionalan euskara txertatzeko norabidean lan egitea (Europatik datorren finantzazioa erabiltzen delako eta ez dagoelako kontenplatuta printzipioz), edota lan-arloarekin lotuta, hitzarmen sektorialak erabiltzea euskara kasuz kasu txertatzen joateko lan-eremuan.

6. Euskaraz "bakarrik" funtzionatuko duten zerbitzu eta baliabideen eskaintzara bideratzea.

Puntu hau lotzen da helburu nagusi gisa publikoki gizarteak euskaraz funtzionatzearekin edo euskaraz eroso bizitzearekin.

Elkarriketetan, eremu desberdinetatik abiatuta, euskaraz soilik funtzionatzen duten espazioak sortzeko aukera dagoela, unea dela eta beharra dagoela baloratu da. Oinarria litzateke eskubidea dagoela euskaraz jasotzeko eskaintzak (udaleko zerbitzuak, hezkuntza, aisialdia, informazioa, kudeaketak... dena) eta funtzionatzeko (eskolan, lanean, aisian, administrazioan...), eta hala egiten ez den kasuetan euskaldunen eskubideak urratzen direla.

Adibide pare bat ere jaso dira dagoeneko norabide horretan pausoak ematen ari direnak: Hernaniko Udala bera eta Hernani institutuko guraso bilerak. Gisa horretako neurriak hartzeko aukera dagoela ikusten da bestelako espazio batzuetan ere, esaterako, aisialdiko jardueren eskaintza guztia euskaraz eskainiz Hernanin (une honetan, eskaini diren kultur eta kirol ikastaroen % 57 da euskaraz), edota kontratazioak egiterakoan baldintza hori zorrotzago betez. Udalaren eskumenetik kanpo gelditzen baldin bada ere, hezkuntzaren eremuan eredu planteamenduari ere antzeko kritika egin zaio, ez dela eraginkorra adieraziz eta "euskarazko hezkuntza" politika baten norabidea burutan izanda.

Are gehiago, azken urteetan Udalaren barruan euskararen biziberritzeak izan duen bilakaera ikusita, "euskaraz bakarrik" politika leku desberdinetan sustatzeko garaian Udala erreferente edo eredu bat izan daitekeela baloratzen da, eta lagun dezakeela bere ereduarekin beste guneetan ere horrelako prozesuak gerta daitezen (adibidez, enpresetan).

7. Sistematizazioa.

Euskara gizartearen oinarri bihurtzeko ideiarekin eta euskaraz funtzionatuk duten espazioak sortzearekin bat datorren azpi-gai moduan kokatzen da honakoa.

Hausnartu da euskararen sustapenaren inguruan proiektu eta egitasmo ugari jarri direla azken urteetan martxan. Horietako batzuk positiboki baloratu izan dira eta arrakasta izan dute. Hala ere, oraindik "proiektu piloto" eta "egitasmo" puntual moduan jarraitzen dute, unean-unean eta leku bakoitzean dagoen interes eta motibazio zehatzaren arabera funtzionatuz. Hau da, ez dira sistematikoki funtzionatuko duten mekanismo egonkor eta orokor moduan ezartzen.

Horixe da, hain zuzen, puntu honekin planteatzen den estrategia: proiektu pilotoen fasea edo behin-behineko neurri iragankorren hauskortasuna atzean utzi eta positiboki baloratzen diren mekanismoak sistematizatzeko unean gaudela baloratzen da, benetako apustu sendoak eta luzera begirakoak eginez.

8. Baliabide nahikoak, behar partikularrei erantzungo dietenak eta doakoak.

Idea hau euskara gizarteko oinarri izatearekin lotuta dago eta hori egikaritzeko beharrezko baliabideei egiten die erreferentzia.

Euskara benetan "exijituko" den edo beharrezko izango den elementu bat bihurtzeko, hala bermatuko duten mekanismo eraginkorrak planteatu beharko liratekeela ikusten da, gizarteko eremu eta sektore bakoitzeko dauden beharrak identifikatu eta horiek asetzeko nahikoa baliabide jarritz. Euskara denean txertatuko den elementua izan dadin eta neurri batean euskarara gerturatzeko aukera eta beharra sortzeko, mekanismo desberdinak planteatu daitezkeela hausnartu da. Horien artean, erraztasun-zailtasun eskema izan da planteatutako bat: euskaraz funtzionatzera pausoak ematen dituzten pertsona eta sektoreentzat erraztasunak jarritz (euskara ikasteko aukerak, hobariak, laguntzak...) eta pausoak ematen ez dituztenen kasuan zailtasunak (besteei eskaintzen zaizkien elementu horiek ez edukitzea edo bestelako muga batzuk).

Eskuragarri jarriko diren baliabide horien artean, gizarteko errealitateak eta beharrak adina eskaintza egon behar duela ikusten da. Hau da, gizarte guztian eragin nahi baldin bada eta euskara gizarteko oinarri bihurtu nahi bada, xede-talde, une eta egoera bakoitzaren aurrean eragiteko modu partikularrak behar dira eta egokitu egin behar dira emango diren pauso guztiak. Ikuspegi partikular horretatik planteatuta joan behar du erabiliko den diskurtsoak (xede-taldeka moldatua baina mezu argiarekin), helduen euskara irakaskuntzak (gaur egun oso tituluak eskemara gerturatua sumatzen dena eta erabilerari aukeran pisu gutxiegi ematen diona), eskoletako ereduaren eta euskara-irakaspenen antolaketa, eta diseina daitezkeen beste neurri guztiak. Hala, zeintzuk diren beharrak ondo identifikatutakoan, egoera horietara ondo egokituko den baliabide-sorta diseinatu eta sistematikoki planteatzea litzateke ikuspegia.

Azkenik, doakotasunaren auzia dago. Hain justu, planteatu den ideia izan da euskarara gerturatzeko aukera eta nahi duenak ikasteko aukera eduki beharko lukeela, berdin du zein den eskuragarri duen denbora, ikasketa-maila, bizitza-etapari dagokion puntua edota bestelako aldagaien araberakoa; aldagai horien artean, bereziki egoera ekonomikoak kasu batzuetan mugak jar ditzakeela ikusten da. Eskubide hori benetan eskubide bat izan dadin eta bermatu ahal izateko, euskara ikasteko eskaintzak –edota euskarara gerturatzeko edozein planteamenduk– doakoa izan behar duela ikusten da, gaur egungo beka sistemak ez baitu matrikula guztia itzultzen; eta, hain justu, helduen euskalduntzearen bidetik euskara ikasi nahi duten pertsonen profila da, kasu batzuetan, ekonomikoki egoera oso zaurgarria bizi duten pertsonena.

9. Periferiatik eragin.

Euskararen biziberritzean eman daitezkeen aurrera begirako pausoen izaerari dagokionez, periferiaren garrantzia azpimarratu da baita ere. Hasieran euskaldunen erdigunea eta do nukleoan diskurtso eta argumentario sendoa edukitzearen garrantzia azpimarratu dugu, eta ahalduz ariketa baten beharra. Alabaina, bazterretakoagoak diren gunek eta sektoreei arreta jarri behar zaiela sarritan aipatu da elkarriketetan, “periferia”-ren barruan fenomeno bati geografiko eta bati sozialak kontuan hartuta.

Batetik, urbanistikoki Hernani oso herri zabala eta anitza da, baina iruditerian zonalde batzuek pisu handiagoa dute. Auzo berrietan edo kanpoaldean kokatutako auzoetan biztanleria kopuru garrantzitsu bat bizi da eta hizkuntzaren inguruan dinamika desberdinak daude. Zonalde horiei erreparatzea eta haietan eragitea ezinbestekotzat jotzen da. Horretarako, auzo mailan funtzionatzen duten dinamika azpimarratu dira: auzo elkarteak eta auzo-mailako eragileak, deszentralizatutako jarduerak eta ekimenak... Hori guztia Hernaniko izaera bat mantentzeko adinako tentsioari eutsiz.

Periferia geografiko horrekin batera, eta neurri batean lotuta, “soziala” ere badago. Hau da, gizartean euskara gaitasun desberdineko talde ugari daude, erabilera desberdinak dituztenak, hizkuntza-ibilbide desberdina izan dutenak... Euskalduntasunaren “nukleo gogorra” lantzea bezain interesgarria izan daiteke euskararen ertzetan kokatzen diren pertsonei begiratzea eta eremu horrekin ere lan egitea.

10. Elkarlana eta aliantzak: aholku batzorde bat.

Gaur egungo eta aurrera begirako euskararen sustapena zeharlerroan irudikatzen da, beste agente, eremu, gai eta sektore batzuekin elkarlanean.

Alderaketa bat eginez, baloratu da 80ko hamarkadan hartu zen planteamenduan Euskara Zerbitzuak gaiaren inguruan zekiten entitate moduan planteatu zirela eta, nolabait, gaiaren lanketa guztia beren gain gelditu zela. Gaur egun, feminismoaren eta parekidetasunaren antzeko norabide bat ikusten zaio: zeharlerroko gaia bihurtzea, dagoeneko funtzionatzen ari diren espazio eta agenteetan, beste gaiei buruz lanketak egiten dituztenetan txertatzea, gizarteko txoko desberdinetako aliatuak bilatu eta horiekin euskararen sustapenaz bazterrak zipriztintzea. Hernani horrelako probak egiteko leku aproposa dela aipatu da; edo, are gehiago, dagoeneko norabide horretan pauso sendoak emanda dituela ikusten da eta bertan sakontzen jarraitzeko gonbidapena luzatzen da.

Aurrera begira "elkarlana"-ren planteamendua egiteko proposamena eremu ugaritatik jaso da eta irudikatu da: udal barruan, zerbitzuen (ber)antolaketan, helduen euskalduntzean, lan-eremuan (bereziki azpimarra jarrita langileen figuran eta ordezkaritzetan aliatuak bilatzean, zuzendaritzekin egiten den lanaz gain), auzo-elkartekin, bestelako gaiak lantzen dituzten eragileekin...

Elkarlanean edo beste agente batzuekin batera euskararen biziberritzean pausoak ematen jarraitzeko, aukera interesgarria izan daiteke Udalarekin harremana izango duen aholku batzorde bat sortzea, funtzionamendu argi eta zehatz batekin. Izan ere, behin baino gehiagotan baloratu da Udala dela gaur egun Hernanin euskararen sustapen lanetan abangoardian edo pauso ausartak ematen ari den agentea; aldi berean, euskalgintzaren barruan nahi baino koordinazio eta elkartruke txikiagoa dagoela ikusten da eta berdin beste sektore eta eremu batzuetan diharduten agenteekin; gainera, sektore batzuetara euskararen biziberritzearen gaiarekin gerturatzeko erronka bat dagoela gaur egun antzematen da (esaterako, gazteen kasuan, ikerketa honen prozesuak erakutsi duen moduan). Aldi berean, baina, eragile eta norbanako batzuen aldetik gaiak interesa pizten duela ondoriozta daiteke eta, zentzuzko proposamen batean planteatuta, beren ekarpena egiteko prest egon daitezkeen subjektu eta taldeak mobilizatu dira ikerketa egiteko bidean bertan ere.

Hori guztia ikusita, aurrera begira euskararen biziberritzean emango diren pausoak Udala eta herriaren artean ematen jarraitzeko bidean, aukera bat eskain dezake aholku batzorde bat edo gisako egitura batek, izaera desberdineko subjektuen artean gaiaren inguruko ikuspegia konpartitzeko eta aurrera begirako pausoak diseinatzeko espazio gisa funtziona dezan. Izan ere, ibilbide honetan zehar jaso dugun moduan, jendeak euskararen aldeko apustua egiten jarraituko du merezi badio; orduan, jendearekin eraiki behar da hori.